

AITA
SAN IGNACIO
LOYOLACOAREN
EXERCICIOAC
BEREN

CONSIDERACIO, TA AFEC-
TOAQUIN.

JAUNGOICOAREN MINIS-
tro, eta Confesore Jaun celo-
soai, Animén provechuraco,
Jesusen Compañiaco *Aita Agus-*
tin Cardaveraxei esqueñt-
cen, ta dedicatcen
dieztenac.

BEAR DAN BEZALA:

Tolosan : Liburuguille Don
Francisco de la Lama-rén
Echean 1790.



AITA SAN IGNACIO LOIOLA
coaren Egercicioac , beren
consideracio , ta afectoa-
quin.

IRACURLE EUSCALDUNARI
Jesu Christoren paquea.



ERUCO Libru miragarria,
mundu guztiarén oneraco,
Euscaldun bati Ceruac ema-
na , ta gure Eusquerac noiz
bat icusi bear zuena , Jain-
coarèn graciaz zure escue-
tan artcen dezu. Au dà Ceruco videa Ai-
ta San Ignacioc icasi , ta munduari era-
custeco escribitu zuena.

Jesu Cristoren , Ama Virginiaren , ta
Santu gucien vicitçactaco Loreen artean,
ta Ispillu eder orien aurecan , Loiolaco

4
Eche zori onecoan Ignacio bereganzen
Jangoicoa asi zan, bere amoriozco beguiaz
Ignaciori beguiratu eion; eta Ignacioc Ispi-
llu argui artan bere burua icusi zuen; eta
Jesus onac, ta bere Ama maiteac escu
emanic, lurreco gauza, ta vanidadeetatic
jalqui, ta guztia ceruco gaucetara biur-
tu zan.

Ama Virginiaren, ta San Pedroren fa-
voren sendatu, ta bere Loiolaco Eche
onetatic Monserrateco Virgini guciz San-
taren Echera joan, ta Soldadu berriaren
guisa, an beillaturic, bere Armac, ta are
gueiago bere viotz prestua Ceruetaco Er-
reguinari agundu, edo betico eman, ta
Manresaco lecu jaquinera igarozan.

Emen Lurruspe, edo Cueba famiatu ar-
tan, arrigarrizco penitencien artean, ceru-
co Escolan bezala, Espiritu Santuaren ar-
gui andiaquin, ta Ama Virginiac lagun-
teen ciola Egercicioen Libru au esribitu
zuen. Ta ez Parisco Universidadean Do-
ctore, edo Maisuaren Gradua artu ezque-
ro; ezpada estudioric batere etzuela, eta
Soldadu valiente, guapoaren armac, bere
odadearen lorean escutic utci, ta bereala.

Mirarizco Libru onetan, ta Ignacioren
escuetatic au aguertceco moduan, mun-
duari

duan jaincoac aditeera emancon; nola
errementa; edo instrumenturic argalenac
bere gloriaren eguitecoric andienetaraco
arteen cituen; eta beraren escuetan ambat
dala alambre; edo ari mee bat; nola biu-
ni balencaric sendoena; gloria gucia Jaun-
goicoari; berea bezala; biurtu daquion.
Obrac dira señale; ta Egercicioetaco San-
tuac muestraric onenac.

Libru oietatic cerueo lectioac Indietá-
co Apostolo San Francisco Xavier batec
artu cituen. Egercicio oietatic suac; eta
garrac atera cituen; ta afec alacoac; bere
amar urteco Misioan Gentilen artean, mun-
du berrian orazaqui; ta zabaldu cituenac;
Pedearen arguia aimbeste milla animari
emateco; eta Jesu Cristoren graciara ecar-
tceco. Norc contactitzaque Xavier batec
eguin cituen azañac; eta Milagroac. Milloi
bat; eta eun milla anima; ta guciago bat-
teatu cituhela; esan oida. Ta gucia Egerci-
cio oien frutua izanzan.

Aita Pedro Fabro miragarri; ta beste
Ignacioren Lagun Santuái ori bera guer-
tatu cituzan. Exercecicioetatic atora zuten ala-
co animen egarri; edo zeloa; Gentilen;
ta Heregeen artean aimbeste pecatari irabaz-
teco. Aita San Ignacioc bere lenengo La-
gun

gun maite , Aingueru , edo Ceruco Mandatari , Aita Fabro au izan zuen , Xavier , ta beste asco irabazteco , ta gucien artean oni Egercicioac ondo emateco aurreneco lecua ematen cion.

Egercicioen Ceruco Escola au San Francisco Borjaren exemplo , ta celoac chit asco aurreratu zuen. Duque andi orañdic zala Exercicio oiec eguin , ta eguiaren etsai itsuai argui eguiteco , eta beren ao loiac ichi , edo seculaco tapatceco , Aita Santu Erromacoaren Ondodagoa , edo Espiritu Santuaren arguia , ta Egercicioen Confirmacioa , berariazco Buldan , Ignacioren Libru onenzat , dicha andiaz , mundu guciari aguertu cion. Ceruco favore , asco estimatcecoa ; ta Libru guchic duen privilegioa.

Exercicioetatic San Juan Francisco Regis batec bere Misioetaco ecin esan alaco nequeac eramateco caridade , ta paciencia miragarria aterà zuen , eta , alà Jaincoaren amoriora aimbeste anima écarri cituen.

Ceruco Sutegui Exercicioén onetan , irazaqui , urtu , ta añ laster munduarenzat deseguin ciran , lurrean Ceruco Aingueru , Santucho gozo biac Luis Gonzaga , ta Estanislao Cosca ; au amazapi urtecoa , ta

Luis

7
Luis ognei eta hu urtecoa. Libru onera
co; lecioquin, egaca bezala Ceruetara igó,
edo bolatu ciran. Ta orrela beste Santu as-
co, ta justu, ecin contatu ala, Jesus en
híde erreal, segurú onetatic Cerura joan
dita, ta dijoaz beti.

Beste Libru Santuen artean, Jaungoi-
coac Ignacioren aú, berea bezala, señalatu,
ta mundu guciari aguertu dio. Lecuric
exta añ urrutiric, edo escutaturic, añ atco,
edo aztaric, non Libru onec. Eguzqui
bata guisan bere Ceruco argui eder, ta
beroac, gucien oneraco banatu ezdituen.
Indietaco Misioneroac escribirendate,
ichaso zabal orie igaro, eta aronzago, au
Gentilen erri, edo zococtaraño. Exercicio
santuen, edo Ignacioren argui, edo su-
garrac allegatu, ta barrendu dirala; ta abere-
en guisa, Fede gabe, Legue gabe, ta Er-
rogue gabe len vici ciranac, orañ Aita S.
Ignacioren Exercicioac Indietaco urrutie-
tan, fede miragarri, oracio luce, ta pe-
nitencia arrigarrizcoaz eguiten dituztela;
ta Neofito, edo Cristaú berri, diez Exer-
cicion vide, eta Ceruco bici modu aú
beren vorondate ospaz, eta naiera chit
yotcecoaz artu dutela.

-10- Gurs erietara gatocen. Egnia dá, Es-
cola

E

 nola ^{guz} ^{guz} ^{guz} Euscaldunac ^{guz} ^{guz} ^{guz} Egereferriac

 Gaztelaniaz egulten diruztela; baina eciu

 ucaruco da; ascoc, orien artean, guetia on

 do adiken; barrenteen; edo beir beza

 la penentileen ez dutela. Beste aldeie orain

 danoco Euscaldunac bacecisten, ta orain

 goae ere badacuste, ta egnia aitorfu bea

 da: Eusquerac, usoaren faltaz, eeren Et

 bru guchi diran, ta orien usorie, eta go

 goric ez, Eusqueraz escribitceco gogoa

 quentca duela. Escribitcea, guetiae, eta

 bacotzae nai duren erara, erraz ezta; edo

 gure Eusqueran eciu datequean gauza da.

 Euscaldunac, ta ars guetia go Animen

 Artzala, Guraso, eta Esola Maisuae go

 goric equin, ta eraginaz, iracurtea ar

 tten badute, arazo, edo embarazo gu

 ciae deseguingo dira. Equinaz, egun gu

 chian, Eusqueraz an erraz, nola Gazte

 laniaz, edo Latinez iracurrico dute. Ani

 men onaren zale diranae dirzaquiatic ez

 dute izango; Indietan neque andiaz egult

 dana, Euscaldunetan aisa, ta chit erraz

 eguingo da. Gogoric asitecan dago, ta be

 reala frutu, ta provechaa icusico da.

 Escolato aurrae badira, ta sei urte etei

 tuen nescachacho bat icusi det, Gaztelaniaz,

 Latina, ta Eusquera berdin; trebe, ta eder

qui

qui iracurten cituen. Bafia alaco Maestra
 zuten; errespeto andicoa, ta gracia onco-
 ca. **A. Manuel Larrañendic** **Guicion** **Mak**
 suac bezala beren artean ondo diona, ira-
 curten gaitcena diran itzac, *tz, ts*, dacar-
 renac dira *Orza, garza, itza, oisa, Jotza,*
ziza. Bafia chit gozo, ta suaveguiten di-
 rra dio, oriet bioc, urrengosilabaren pat-
 reac bezala, heritcen padira. *asuna, ber-*
nic, nat, nuc, ueana, da, Escola, usia, duten,
ta erdaraz ondo ezdaquiten Euscaldun gar-
bia beren antuen provechuen bat, ater-
ra, cel, eta orietaco Egercioa obediencia
go gure itzueratic usatuecan ezarri. Ta
ez itzez itz erdarazcoai lotuta; ez pade-
cerbaitecan. A. S. Ignacionon espiritu, fidi-
edo desebal albatere jarraituaz; era lena-
go orion beren musico dazun bezala, ber-
labait emataz, ^{nosibus; omnibus; et, quibus}
 Ezagutcen eztañ joia, estimatcen eztañ,
 Egercioen Ceruico joia bair ondotic aza-
 gutu, ta estimatceco, lau gauza jaquin bean
 dira. 1. Egercioac cer diran. 2. Norc
 eguin, edo eman cituen. 3. Egercioen
 frutu; ta orregatic Gutzonie andienen art-
 tean izan dute estimacioa. 4. Norc, eta
 nola ondo eguin ditzaquean.

eritua. *oasis* *oñaci*. *S*eritua *oñaci* *oñaci*

EGERCICIO AC GER DIRAN, EDO

eritua *oñaci* *oñaci* *oñaci* *oñaci* *oñaci*

eritua *oñaci* *oñaci* *oñaci* *oñaci* *oñaci*

Egercio espiritualac ezira besteric, ez
pada Cristaù batec bere memoria, adia
mentu, ta vorondateaz ibere. Salvacioa
ren gañean, ta gaucetan. Jaungoicoare
quin jardutea, edo tratateca, bere espiri
tu, edo barrencañan, edo eguiteco bear,
ta bacar betico òni gogotia equitea, on
tan ari, ta aritcea. Ta nola ibiltcea, josta
tea, edo saltateca. gortutzaren egerci
elo, edo corporalac diran, ta derizten;
alá Espiritu, edo animaren Equiera oieç
Egercio espiritualac dira, ta derizte; ce
ren espiritua orietan aritcen; edo egercitat
cen dãn, ta animac jarduten duen.

Armae spiritinlac, Ceruco Soldaduaren itz
cuntzan Ignacioc deitcendie Egercioa;
ta arrazoi andiarequin; ceren guizonaren
Vicitza lurraren gañean, guerra vicia dãn,
Eseritura Santac dionez, ta alá Ignacioc
beti armaturic, edo arma orieç beti escuan
dituela, beti peleateco, prest Cristoren
Soldadua icusi nai zuen.

Armeria onetan zure animá Ignacioc sar

11

ru nai dú , emèn , Ceruco Maisua danez ,
 ango lecio berriaquin , Egercicioetan zure
 etsaién malicia , ta tramparie ezcutatue-
 nac zuri eracusteco ; espiritu illun gaizto
 gucien contra , nai , ta bear bezala peleat-
 ceço , Jaincoaren argui , ta graciaz zure
 espíritu armatcen du. Etsai gucien artean ,
 andiena dezu cere burua. Ez dezu gaitcio ,
 zugandio ez datorrenic. Zure etsai calte-
 ric andienecoac dira zure betico deseoaç.
 Zurequin ; ta zure contra , zure arteço ,
 ta zure barrengo , beti celatan , ta gorde-
 ric dauden etsai echeco orieç , dira gaiztoe-
 nac ; era gabeco gogo , griña , edo incli-
 nacio , Pasioac deriztenac ; ta orien artean
 bat nabarbenago , Vicio aguintari , ta na-
 gusiago , beste gaitz , ta calte guztien buru ,
 sustrai , edo ondoa , besteac errebelatcen ,
 ta armatcen dituen. Equiera oietan , bada ,
 etsai orieç Santuac aguertcen , edo argui-
 tara campora ateratcen ditu , zuc obeto ieu-
 si , ta ezagutceço , orien eriozco gorroto
 vici bat zure viotcean betico sortceço , ta
 orien contra , ill artean , peleatceço .
 Egercicio oieç Molde berri bat bezala
 dira , ceñean Ceruco Libruan escripturic
 dauden animac , edo ango gloriara bear
 dutenac , emen sarru bear duten. Molde

au da Jesu-Cristo : Ceruraco predestinatu,
ta doatsu izango diranac , San Pabloc dio-
nez , onen antcera moldatu bear dute , ta
ori dá Exercicio oietan eguiten dana.

Jaincoaren Sutegui bat dira Exercicioac,
Ignacioren icenari dagoquiön bezala. Ce-
ruraco Sutegui, edo Sú gar vici Jesu-Cris-
toc berequin lurrera ecarri zuena, ta mun-
duan erazaqui nai zuena. Amoriozco Labe
onetan Ignacioc adisquide, ta etsai guciac
ere , mundu zabal orretan diranac , sartu,
erre, ta urtu, edo amorioaz consumitu nai
rituen. Egercicioen Carobi onetan dese-
guiten dira guizon zàrra bere culpa , edo
vicio , ta orien loi , mancha , arrasto , ta
cutsu guciac, Jaincoaren guizon berri gar-
bia bere virtuteaquin Jesu-Cristoren antce-
ra eguin , ta moldatceco.

Ta nola beste religio guciz santac,
animac salvatceco , bacoitzac bere bide,
arte , ta moduac dituzten Ala Jesus-en
Compañiac , mundu gucian animac salva-
tceco (inoren imbidia gabe) berariazco
Exercicioen bide , arte , ta medio guciz
probatu , ta canonizatu au dú , Jaincoac
emanic.

Egercicio oiec Evangelioeco eguiac , edo
maximac diranez , Santu , ta Maisu andi

ascorca Liburnetan leñ, ta guero arquite-
ćen dira; baña ez Egercicio oien erregla-
era, edo metooda, oriez bear bezala balia-
tu, ta vici modu santu bat zucenteco. Pa-
re gabeco daai au, A. Francisco Suarez Do-
toré Eximioac, beste ascotequin, dion be-
zala, Arte berri, ta berarizeo Ceruco bi-
de bat dá, A. S. Ignacioni, ta ez besteri,
gucien oneraco Espiritu Santuac eracusti-
ciona; eta aviso, ta erregla eder oietan
dago Egercicioen guia, forma, ta Ceru-
co gracia.

Ala Ceruco Maisuac bezala, Santuac
Egercicio oietan, chit etaz, nola, edo
nai bezala; eguia, edo pauso batetic beste-
ra anima darama, indar suave batequin,
ta escutic bezala. Vicitzaren Libru oneta-
co, edo Evangelioo eguiaric arguienac,
ta sustrairic sendoenac icusi, iracurri, aus-
martu, edo berriz, ta berriro rumiatu,
ta zure Viotzean ondo chiquitu, ta Ceru-
co janari ori lecioan, oracioan; essamen
bietan animari ematen, chit erraz Santuac
eracusten du.

Peccatuen carcela illun nazcagarritic atē-
ra, oien catea pisuac urratu; Vicioen itsus
tasuna, ta virtueen edertasuna ondo icu-
si; eta aietatic igues eguiten, ta oiei jar-

raiteen icaster; ori dà Egercicioetan jar-
 dutea; lan oni gogotic viciro equitea, ori
 dà Exercicioac eguitea. Cristoren Soldadu
 eguin, onen bandera-pean ibilli, bere vo-
 rondate, ta viotzeco soñeco zarra eranci,
 ta Jesus-en librea; edo Cristo guztia bar-
 rendie; ta campotic jantci, ta arma orie-
 quin peleatcea, ta Exercioac eguitea; eta
 oni deritza, ta oiec dira A. S. Ignacio-ren
 Exercicioac.

II. §.

EXERCICIOEN LIBRUA NORG

eguin edo eman zuen.

STAn Ignacioren Librua esan oida, ta on-
 do: Cerutic oni emana dà. Baña Li-
 bru oni, Ignacioren obrari bezala eztiozu
 beguiratu bear. Orren Eguille, edo Auto-
 re berezcóa Espiritu Santua izan zàn; eta
 onen argui, ta graciaz Ignacioc Libru à
 bere erregla Jaincoac emanaquin artú, ta
 escribitu zùen. Alá Ignacioc berac Aita
 Diego Lainez, Maisu andi, ta bere Lagun
 estimatuari arguiro esan cion; ala Aita
 Joan Polanco bere Secretarioari garbiro
 aitortu cion.

Rota

Rota Sagradico Juezialitac Jaincoar-
 ren arguiac obligaturic, esani, ta azaldy
 zuten, Libru miragarri aù describitceco
 izan etuen arguiac etciralaguizonenac, edo
 Jurrecoac, ezpada Jaincoarten, edo Caru-
 eoac. Erroman Aita Santuac, ta guizonic
 andienac, Ignacioc chitasco descateen
 zuen bezala, Libru aù ondo icusi, ta exá-
 minatu zuten; ta Espiritu Santuaren Eguia
 ecin utseguingo duenac bezala, gucia apro-
 batu, ta canonizatu zuten; eta Aita Santu
 Paulo Irugarrenac, Cerutic arguituric bere
 Buldan atoc. Ignacioc bere Exercicioetan
 ,,dion gucia, ta gauza bacoitza aprobaten
 ,,dituela; eta Egercicio oíco piedadez, ta
 ,,santidadez bereac daudela. Alabanza
 andiagoric ecin eman diteque, aù baño.
 Exercicioen estimacio. Jota devocio an-
 dagoa anteco, Iracurlea, jaquizu, Ama
 Virgíñac bere Semearquin. Libru onen,
 edo Exercicioen Egullearizan zala. Ignacioc
 ten aotie A. Lainez eciala esan zuen;
 eta Arcangel S. Gabrielc Ama Virgíñac
 ten icenican ori bera onen adisquidé mai-
 te bati errovelatu cion. Beñ batean anima
 devota aù Exercicioac asiteco cegoela,
 mandatu gozo bat Ama Virgíñac gaztiga-
 tu cion. Airen partez Aingueruac esancio-
 zala;

zala , atsegurini chir ardi bat: acent zuela.
 teren Exercicioetan sarcent zan: eta jaquin
 ezala , Jaincoaren Ama bera Exercicioen
 Fundadore , eta Patrona zala: eta Ama Vir-
 gina berac Ignacioni lagundu , eta oriet
 eguiten eracatsi ciola. Ala Aita Baltasar Al-
 varez-en vicitzan: Aita Luis de la Puentes
 eguia aui aseguratzen dutzela , sixto gaur
 O cer Cerueo: consuelo gizona , Exer-
 cicioac urte oro: eslo ascotan: eguiten di-
 rutzentzat: Nai duema: bada jaquin ondo:
 Exercicioac cer diran , eta orien Autore:
 edo Emalea nor dan , jaquin bera , Jesus
 eta Mariac beren obratzat , eta beren rescue-
 raco Libutzat Exercicioena daucatela. Ta
 baldin Libru: eta obra andiac munduan
 estimatceco , orien Autoreac aditerra ema-
 ren badira , molacoa , eta eea andia izango
 da Exercicioen obra aui , ceñaren Autore
 Jesus-ec , eta Mariac bere buruac agurr-
 cen , eta ematen dituzte: *hoi bera obra*
 Orregatic Ignacion , bera Cerura baño
 ten , iru gauza , bear bezala onzat ema-
 niac icusi nai cituen. Lenena Exercicio
 oiec Jaunaten Autoridade: Apostolicoz
 aprobatac icustea : Bigarrena Jesus-en
 Compañia Confirmaturic : *hoi bera obra*
 Constitucioac acabaturic : *hoi bera obra*
 icusi

Jesu eitur, ta Jaincoac gloria andi ori
vici zala, edo lurrean eman cion.

Beguirra ondo. Iru gauzac, andiac ciran;
Baña tenena, guciena naizuena bezala;
Exercicioena izan zan. Ta cergatic ori?
Ah! Ignacioc Jaincoaren arguiac Cerutic
cequien Exercicioen balsa, ta Jaincoaren,
ta Ama Virginiaren beraren escuetaco obra,
ta joia preciosoa bezala, gauza gucién ga-
necan estimatcen-cituen!

Espiritu-Santuac gobernatu, ta arguitu-
ric Ignacioc, berac bezala, cequien, Eger-
cicioac cer ciran, norenac, ta nobla ciran,
ta Compañia guztiaren Ama bezala cirala,
Jesus oneran beguieraco Nñiac, Compañi-
aren Biotza, bicitza, anima, espiritu, ta
izate eguiaczo guztia. Ta emendic itugar-
ren gauza.

III. §.

EGERCICIOEN PROVECHUA, TA ES-
timacioa.

AU itz batean erraz esan liteque. Jesu-
sen Compañiac munduaren lau par-
te, edo lecu gucietan bere Semé guztia-
quin eguin duen provechu, ta ona, dana
dala, Exercicioen frutua dala. Ta Arbola,

B Sal-

Salvadoreac dionez, bere frutu-etatic eza gutcen bada ; esanal, ta pensa alditequean on gucia Exercicioen Arbola onen frutua da. Aira San Ignacioc, Cerura joan zanean, amasci urteco Landare, edo Arbola gaztea bezala, bere Exercicioaquin azi, ta utci zuen Compañia; baña Jesus ortac lan- datu, ta bere escutic paratua bezala, Ignacio bere bederatci Lagun santuaquin icusi zan mundu berriraño bereala lorez, ta frutuz beteric.

Baldin Jaincoac Exercicioaquin Ignacio- ren viotza Ceruco Sutegui eguin bazuen, ortic suac, eta garrac bere Lagun, ta Semcaí erantsi cizten. Ta Sutegui onetaco chingar bat, ta Arbola onen adar, edo tantai bacar bat San Francisco Xavier izan- nic, berau bacarric asco izan zan mundu berri bati vicia, osasuna, ta Ceruco arguiac emateco; eta Jaincoac ara bialdu, ango Apostolo eguñic, ta aimbeste an- ma Jesu-Cristori irabaci ciozcan. Gentil itsuen mundu berria Jaincoac gorderic, edo Xavier-en beguira bezala ceucan, Exercicioen frutu, ta arguia guciai eman, ta banatceco.

Compañiaco aimbeste Santu miragarri, ta beste asco Compañiaren Escolacoac, Exer-
ci-

gicioac Ceruetara , ta Aldare-etara aldatu,
edo igo izan dituzte. Exercicioac aimbeste
Martiri-gai , Jesu Cristo-gatic beren
vicia pocic emateco ala animatu , ta ar-
matu dituzte : Exercicioac aimbeste Mai-
su andi Elizaren favore , ta animen sal-
vatoraco bear bezalaco Libru ecin con-
tatu ala escribitceco : Exercicioac aimbeste
Obrero animen zale , Confesonario,
Carcela , Hospitale , ta lectu gucietan , oriee
peccatutic aterá , ta Ceruco bide seguruan
sartcera animatu dituzte.

Emendic peccatari galdu asco , beguitan
errietan artuac , ta anima ascoren calteau,
vicio lotsagarrietan begui bietarario sartu-
ric cebiltzanac , Egercicioetan alaco gol-
pe andico arabia , edo gira eman , ta Jain-
coagaña biurtu ciran. Emendic Universida-
de , edo Escola andi jaquin orietan aimb-
beste Guizon , ta Maisu Ceruco Escola
onetan , edo Egercicioetan sartu , ta vi-
ci modu berria artu zuten. Emen letraz
beteric sartcen ciran , ta virtutez beteago
irteten ciran. Emen Eleizaco Preladu san-
tu abcoe beren buruac santuago eguin , ta
beren ardiac , edo animac zuzentceco , ta
salvatceco arte , ta bideac artu cituzten.

Exercicioai , Ignacioren gozo , ta gure

Compañiaren gloria andiarequin. Religio Sagradu guciac beren Seme prestu, ta Santu asco zordiezte. Cembat munduco esperanza andietaco guizon gazte Egercicioetatic Religioetara, edo salvacioco sagradura errefiratu izan dira?

Orregatic, ta orrelaco Exercicioen Paraisuco Arbola onec eman dituen frutuagatic, aimbeste, ta esanjal baño guciago, ta andiago diran alabanzac Aita Santu guciac, Obispo, ta Guizon andi, ta Religioetaco Maisu, jaquintsu, ta Santuenac Exercicioai eman izan diezte. Erraz ezta, eguia esateco, cor estimacioa onelaco guizon señalattiac eguin duten, contateca Religioetaco persona aundiac Exercicioen Libruaz eguin zuten estimacioa, esango dizut, eta dira San Agustin, San Benito, San Bernardo, Santo Domingo, ta San Franciscoren Semeac.

Ludovico Blosio bere Libru ederraz ondo jaquiña, bere asieran Exercicio oiec eguin, ta aini devoto, ta pagatua guertatu zan, non da Flandesco bere Monje guciac S. Ignacionen Oracio, ta Egercicioen modu au aguindu cien.

Luis Estrada Maisu andiac Libru onegatic ion: „ S. Ignacioc bere Exercicioaquin,

„ sal-

„Silvacio, edo perfeccioraco Noviciadu
 „berri bat mundu guciari eman, edo
 „idiqui ciola.

Agustin de Carbajal. Maisu guci^z an-
 di, ta santuac. oguei, ta amar egunean
 Exercicioac eguin cituen; ta San Agustin-
 on Conventu ascotan eraguin cituen.

Luis de Granada bere virtute; ta Ceru-
 co Libruaz ondo ezagutu venegarriac cion:
 Exercicio oietan Jaincoac bere animan
 eman cjozcan argui. Cerucoac azaltceco
 vici gucia asco etzala. Santo Domingoren
 Seme andi onec, San Ignacioren Exerci-
 cioac, Santuaren Libru onetatic, ta onec
 eman cituen erteglaquin eguin cituen; ta
 orrez gañera berac cion: Egercicioen Con-
 sidera^{ci}o, ta Espiritu Santuaren graciaz S.
 Ignacioren Libru onetaco argui, bera gue-
 iena movitu zutenetic, mundu guciaren
 oneraco, *Pecatarien Guia* deritzan Libru
 estimatua berac atera zuela. Ta au da
 eguiatz Exercicio oien testimonio, gloria,
 ta alabanza pareric eztuena.

Alcalaco Catedratico famatu Fr. Man-
 cio Dominicoac, Egercicioac defenditu,
 alabatu, ta honra, ta gloriaz bete, ta
 coroatu cituen.

S. Franciscoren Seme urte ascoan Jain-
 coa

coa servitu zuén batec, Simancasen Noviciaduan cegoala, berariaz ara joan, eta Exercícioac eguin cituén; ta Novicio gazte aien devocio, ta obediencia icusi, ta arrituric becela, alabanza andiac guero predicatu cituen.

Ori bera San Carlos batec; ta San Francisco Salesec bati Exercícioac eguinaz eracutsi zuten. Oro-bat Ama Santa Teresae ta Santa Madalena Pacis, Virgíña, eta Carmeloco Lore eder biac; oriee, ta beste asoc atera zuten argui, ta frutua beren obra, ta Libruetan munduari guero eracutsi cioten.

Argatic S. Carlos Cardenalac Mantua-
co Duqueari esan cion: „Proyechu guero
„iago Exercícioen Liburutic ateratecén
„zuela, munduco beste Librueratic baño,
Argatic Beronaço Cardenalac cion: „Es-
„critura Sagraduaz campora Libru oberic
„ezdala, Exercícioac baño. Argatic Er-
romaço Cristoren Vicarioac eztira conten-
tatu Libru aii alabatcearequin, ezpada In-
dulgenciaquin Exercícioac honratu dituz-
te; ta gure egunetan Benedicto azquene-
co Aita Santuac, Exercicio oietan zortzi
egun baño guchiago eguin ta ere, peca-
tuen Barcacio osoa, edo Indulgencia ple-
naria ematen dii.

IV. §.

NORC , ETA NOLA EGEICICIOAC
eguin ditzaquean.

E docen Cristaú eguiaz vorondate ona duenac bere salvacionaco , ta animaren proyeche andiraco eguin ditzaque. **A.** San Ignacioc Exercicioac Jaincoaren escutic artu , ta Jesu Cristoren Vicarioac aprobatu , ta mundu guclari encargaruac icusi cituenean , Jaunari bere anima paquean emateco , testamentnan bezala bere Semelai aguindu cien lenengo Asteco Exercicioac Guizon , eta Andre edocen estaducoai ematea.

Alere Cristaú batzuec bearrago dituzte besteac baño ; ta Exercicioac , beaz bezala eguiteco , Cristaú batzuec egoquiago dira besteac baño. Exercicioac dira anima galdu , ta lasaieguiac estutceco , eta Jaincoaren bildurrean sartceco ; bai ta estuegui , ta escrupulo-aquin bildurtiegui diranae lasaitu , ta gozateco-ere.

Ignacioc bere adisquide andi , ta errespectoco Sacerdote bati esribitu cion modu onetan. » Exercicio ojec dira , nic mundu onetan pensatu , sentitu , ta aditu aldeza » quedan gauzari onena , ala guizon , edo

» Cris-

24
Cristaú batec bere buruaren provechuari,
nola besteen onari, ta proyechuari be-
guiratceco. Ta Aita S Ignacioc, añ be-
guiratua zalá, au esáteá, testimonio chi-
tezco andia dá, Exercício oiec anima gu-
cienzat Jaincoaren beraren gauza guciz be-
rezco señalatuac dirála,

Lau Asteraraco, edo oquei, ta amar
eguneraco gaia bezala Libru edo Lan san-
tu onetaco Equierac San Ignacioc eman
situen, ta guztiac beren eran, ta berariáz-
co Ceruco erreglaquin. Lenengo Asteco
Consideracioac, itz batean erraz, ta eguiáz
esan diteque Misio andi baten gai dirála;
ta argatic frutu añ andia, ta Misioetan
bezala, edo guiago, ta seguruago Exerci-
cioetan, bear bezala artcen, edo eguiten
badira, eguin, edo atera oi dala.

Ondo oiec eguíteco, chit contuz ar-
tu, ta beguien aurrean iduqui bear dezu,
Cristaú guciac bearren dituzten iru gauza
Exercicioac dacarcitela, edo berenez es-
catcen ditutela; ta dira Exercicioen iru fi-
ñac. Lendabícoá, Anima pecatu, ta
yicioetatic aterá, ta garbitcea. Bigarrena,
Ceruco bide seguru batean sartcea. Irugar-
rena, bide orretan Jaincoaren voronda-
tea gauza gucietan eguítcea. 1. Dá culpa
gucien

glicien Confesio andi, bear bezalaco bat,
 2. Animaren salvacioraco vici moduaren
 auquera, edo Estaduaren Eleccioa. 3. E-
 de vici, esperanza firme, ta Jaincoaren,
 ta zure Lagun urcoaren amorio irazaqui
 batez, egunoro vicitza ohea eguitea. 4.
 Exercicioen cimendu seguru, ta vitutea
 sustrai animan sendoro ezarri bearrac oiee
 dira, Lenengoa da gauza bearra; bigarre-
 na ez guchiago; baña irugarrena da bear-
 rena. Urtean beñ; urte artaco culpen er-
 revista, edo concienciaren beguirada bat,
 gauza guciz ona, ta provechuzcoa da.
 Baña on asco ezta. Bacoitzac bere estadu-
 co obligacioac icasi, pensatu, ta ondõ
 Jaincoaren aurrean pisatu, ta erremedioac
 artcea, ta orretan aprovechatcea bearra-
 go baicic ezta; ta iru gauza oieç beren
 frutua bezala Exercicioac escatcen, ta
 ematen dituzte.

Nola guizona arrazoiac zulentcen, edo
 gobernatcen dan; ta nola animaren iru es-
 tadu, edo bide diran: » Asi berriena, aur-
 » rera dabilzanena, ta beren vorondateca
 » Jaincoarenaz bat amorioz eguiten dute-
 » nena; ala Aita S. Ignacioc argui chit sua-
 » ve craguilleaz, estadu, edo vicimodu orie-
 » tan animari laguntcen dio, Ceruco erreglac
 guci-

guciraco emanaz. Eta berri oien arquitezalle
paregabe bacarra, alde gucietatic zori one-
coa Ignacio izan zan,

Exercicio oieç Jaincoac Ignaciori armo-
nia añ ederraz eman ciozcan, non dà ba-
tac bestea dacarren, ta gauza batetic bes-
tera viotz, edo gogoa chit erara darama-
ten. Icusiaz icasten dà, ta eguiñaz gusto
artcen dà. Gauza cierto, ta clarao dà, gu-
re Jesus-en Compañia Exercicioaquin jai-
zala, Exercicioaquin aci, ta víci dala; ta
Exercicioaquin Echean, ta Campoan San-
tu asco eman dituela,

Espiritu Santuac, eta Ama Virgíñac
Ignaciori eracutsi cioten, cer dãn, ta Jain-
coaren Erreinoa gurequico certan dagoen,
ta ara nola deitzen gaituen; nola gure zori
oneco, ta berico vizitza Jesu-Cristo eza-
gutcea, ta berari jarraitcea dãn; guri ori
eragozteco cer etsai portitzac gure con-
tra ditugun; nola gu Ceruco Erreino one-
tan sartceco, Jesus gure Erreguea bera Ce-
ruco Ate, ta Bideca dãn; ta berac dionez,
Ate onetatic sartcen danac, bere salvacio-
raco bear duen gucia arquitecen duela; ta
Ate onetatic sartcen ez tiranac, aibeste
herege, ta orien lagun itsuac bezala, bi-
deca utseguin, ta galtcen dirala.

Mai-

Maisu onequin; ta Exercicio oietan Ignacioc icasi zuen Jesu Cristoren esana:
 » Ni naiz munduarén argula. Ni naiz biga, eguia, eta vicitza. Nere ondoren
 » dabilena, illun-pean eztabil, ta vicitza zara daraman arguia izango dú. Nere
 » ondoren ibilli nai duenac, bere burua
 » úca beza, bere gurutcea ar-beza, ta Niri
 » jarraitu bizat. Ta orra itz oietan, S. Ignacioren Exercicioac cèr diràn, edo orien izate, ta sustancia guztia; orra Exercicio guztia cèrtaraco diran, ta orien fin edo cabua.

Orta Jesu-Cristoren aotic Lecio labur, argui, ta guciz bear, ta bacar batean Exercicioen gaia, espiritu, anima, ta vicitza eguiatzcoa. Onetan Ignacioc icusi zuen claro, Oracio gabe salvacioc ez dagoala; mortificacio gabe, edo bere burua, ta vorondate galztoa ucatu, ta ausi gabe, Oracioc, ta vici onic eztala. Biotzeco consideracio bein, ta berrizco onen, Exercicio, edo animaco equiera onen falta mundu guztia galduric daucala. Ta gaitz gucien erremedioraco Jaincoac Ignacioc Exercicio ojec, eta oriec ondo eguiteco modua, eta erreglac eman ciozcan.

Orregatic Jesusen Compañia, ta Ignacioc Cerutic arturicaco. Oracio modua, ta vici

bici berria eguiteco bide seguru aù aimbesteraño estimatu zuen Santa Teresa batec, eta escribitu zuen : » Compañiarequin, » edo Jesuitaquin tratatcen ezdet, ezpa- » da aien gauzac animan dauzcanac bezala, » ta vicitza aiec gatic emango nuque. Li- » maco Lore eder Jesus-en Biotceco Santa Rosa batec, Iau Confesore Jesuita citue- » la, ta Santa Madalena Pazis batec, Es- » pañaren, onragarri Juan de Avila, ta Luis de Granada Maisu veneragarriac, ta beste Santu ascoc, Compañiaco Exercicio, Ora- » cio, ta viotceco mortificacio onen bidea Ceruraco artu zuten, eta anima asco beren exemplo, Sermoi, ta Libruaquin eraman cituzten, ta egunoro arà daramazquite. Onetaraco Vanes deritzan Franciaco erri batean dira Eche andi bi, asteoro irure- un Exercitante cabitcen diranac, ta Exercicioac eguitera, nai dutenac sartceco Aita Vincencio Hubij Apostolicoac àn beste erri ascotan bezala, eguin, edo fundatuac. Au dà, nere Iracurlea, zure animaren Ceruco bidea; ez bildur, seguru sarzaita, ta fede onez bide onetan ibilli zaita; ez alde batera, ta ez bestera giratu. Ceruco ate onetatic sar zaita, ta salvatu nai bade- zu, argui oni, Jesu Christori beraren Ora-

19

Oracio, mortificacio, ta vici modu santuan viotz osoaz, zure estaduan jarrai zaru-rozu; ta orra zure salvacioa.

Exercicioac A. S. Ignacioc Gaztelaniaz es eribitu cituen. Baña orietan nic datusdana da, animen provehuraco danean, Latinezco itzac, edo vozac, akeric erreparogabe Santuac artcen dituela. Ori bera, bada, bear danean, ta arrazoi andiarequin Euscaldunoc-eguin bear degu; ta are gueiango, ta premia andiagooz, Ekizaco gauza; ta Misterio, edo Sacramentuca gastean ita eguitean; eta Oracio, edo mortificacio, ta espirituco Dotriaren puntu, edo gauzaren bat ondo adierazo nai degunean.

Itzquerara batzuec orrea arteac, esan nai eztu, Eusquerac berariazco itz garbi, ta berezcoac gauzenzat ez dituela. Ondo daquienera bat baditu. Esan nai dedanda, oran inori Eusqueraz eracustera onala, espada animai nolere bait laguntzera, eta orfec salbatceco bearren diraa gauzac ondo adierazocera.

Beste aviso bat: Nola Latin, edo Gaztelaniac, bere itz asi, edo Abreviatura deritzenac, nai dana laburrago esateco, usatcen dituen; ala gure Eusqueran ori bera asitcea, orretara oitu, ta eguitea, arrazoi da.

Exem-

- Exemptotzat: G. J. esan nai du *Gura*
Fanna: A. V. esan nai du *Ama Virgīna*
 S. San, *Santua*, edo *Santa*. A. S. *Aita*, *Sara*
 Eleiza. A. S.: *Ama Santa*. Onela beste itz
 asiren batzuec erraz aditu, eta ateraco
 diranac.

- *Arreta*, edo aplicaeioa, equiera, ta usoa
 Eusqueraz, Latinez, edo Gaztelaniaz be-
 zala, iracurtceco, ta escribitceco bear da.
 Equin bada gogotic lan oni. Escōlaco aur-
 rac exercicio pusca batequin aīn erraz icas-
 ten dutena, oierio zuc eguingo aldezu.

V. §.

EGERCICIOAC ONDO EGUITECO

Erreglac.

O Ien artean Santuac batzuei deitzen
 die *ANOTACIOAC*, eta besteai
ADICIOAC. Aurrenecoac dira *EGER-*
CICIOAC ondo eguiteco: atcenecoac
 Oracio, edo Meditacioa ondo eguiteco,
 Bearrenac dira.

- Exercicioetan sartcean bereala batec Ja-
 incoari bere viotz gucia, vorondate ugari
 osoz ematea, Jaunarēn vorondatec ba-
 garric billatu, ezagutu, ta eguiteco. San-
 tuac.

34
tuac chit nai zuen , ta encargatcendu asco,
Jaincoari berac eman digun libertade, ta
vorondatea biurtcea.

Jaincoarequin tratafceco erreverencia,
Aita Espiritualari obediencia, ta oni bar-
ren guciaren, edo bere viotzaren contra
ematea; ondo consideratu-gabe, ez Vo-
turic eguitea; Exercicioac era onean batetic
bestera igaro gabe eguitea. Ta onelaco
beste erreglac ematen ditu.

Oraciora, edo Jaungoicoarequin itz
eguitera baño len, Cristau batec bere ani-
ma ondo prestatu bear dir, Jaincoa ten-
tatcera ez dijoan; ta prestatce oni ORA-
CIO PREPARATORIA Santuac deiteen
dio. Oracioraco maneatce, edo prepa-
racion au obra on gucietan, ta berariaz
Orasioan eguin bearda; esan nai du, Jain-
nari Oraciora bere honra, ta alabanzaracé
Eleiza Ama Santac eracusten digun bezala
esqueñtcea, zure viotcetic modu onetan
esanaz.

ORACIOA ASITCECO PREPARACIOA,

1. J Auna; zure Aitari lurrean Zuc em-
ten oñiozcan alabanza, ta Oraciora
eguitenciñion Jaincozco intencioarequin
batean esqueñtceen dizut, ta izan be-
Ora-

Oracio aù, zure honra, ta alabanzan;
ta nic zure vorõdatea eguiteco. Amen.

Oracio aù egunoroco Exercicioan berì
bat da; Guero Oracioan sarteco, Jaincoa-
retzaurtean beguira-ondo, ta Oraciotic atã
ta nai zun fructa, gogõan artu bear dezu;
- Onela bat beregan sartu, ta fedear
bere erara devocioz egoteco; pauso, edo
Meditacioar escatcen duen tecti modua
eguin bear dũ; ta Santuac **COM-
POSICIOA** deitzen diõ.

- Onen ondoren datõr Escafia, Exerci-
cioaren galac berez nai duen gracia Jau-
nari escatcea, edo **PETICIOA**.

- Orrela prestatu, ta dio Santuac; Jauna-
ren presencian fede viciaz jartu, devocioz
sinatu. ta animac oracioan sartu bear
duela. Once asi bear du, memoriaz ba-
liatuaz, guero adimentuaz, bere arrazoi;
ta consideracioquin vorõdatea afecto
vici; ta beroetara moyitceco.

Oracioaren azquenean berariazco itz-
queta bat Exercicioari dagoquiona eguin
bida, Santuac **COLOQUIOA** esaten duena.

- Oracioa bucatu, ta examinatu bear da;
edo beguiratu; nola eguin dan; ta cer-
proposituac, guero cumplireco, atera, edo
artu dituen; Oracioa ondo eguin bada,

Jau-

Janari esqueriac emateco ; ta faltaric
izan badu erremediatceco.

Beste erreglac Santuac beron lecutan
ematen ditu : Bacartasun ; edo viotceco so-
ledade ; ta erretiroa aguintcen dú ; anima
berogandu , ta Jaunarén tratu , argui ; ta
devocioraco pres. rago arqui dedin. Aviso
ematen du , contuz beguiac gardetzeco,
argui guchirequin egoteco ; farratic ez
eguin ; ta eraguiteco ; eta era gabeco
alegratic ez atceco , paquean ; soseguz,
ta humillago viotza iduquitceco.

Penitencia modu bi Santuac dacarí.
Bata viotcecoa ; bestea gorputceba. Vi-
otceco , edo barrengo ori dá anima da-
muaz ; ta confesioaz garbitu , ta vicio,
inclinacio , edo era gabeco pasioetan , oiee
yenzutuaz , libratcea.

Gorputzaren contraco penitenciac San-
tuac encargatcen ditu , ta ondo beguiratu-
ric , janari ; ta edariaren gañean ; azoté,
silicio , oieco gogortasun ; ta lo eguitea-
ren gañean ; ta gacietari Santuac billatcen
dú , batec bere burua ucatu , bere voron-
datea aussi , ta Jaincoaren naia , ta vo-
rondatea billatcea. Penitencia oietan Aita
espiritualaren esana eguin bear dá : Ez ut-
seguiréco onen Erreglac artu , ta cumplitu

RELAIRA,

C

Esta,

Estaduarien elecioa eguîteco , bere persona , ta echea , ta bere vicimodu guztia bear bezala zucentceco , bear diran limosnac eguîteco , ta beste onelaco erreglac Santuac ematen ditu ; animaren pasio , ta gueieguiac ebaqui , ta quendu , ta Jaincoaren vorondatearen neurri justuan gure vorondatea ipintceco.

Oien artean Santuac aviso bat ematendú : Lenengo Asteco Exercicioetan , obedala , Eriotzaren , Juicioaren , ta orrelaco eguien gañean , beste gauza on ascotan baño gueiago pensatcea. Ta nola A. S. Ignacio bera Pecatuen , Infernuaren , ta onelaco Exercicioetan luceago dagoan ; ala orregatic beragatic onelaco Considercioac guc ere luzaroago ematen ditugu ; orrequin ascotan , ta gueiago iracurtceco gaia izango dá.

Orain Santua asitcen dá , beguien autrean ipiñiaz , Jaungoicoac certaco gù eguin guinduen ; ta au berañ dá Exercicio-gucien Asiera , edo Cimentua : *Zure aiquenera sñ , edo cabua.*



AITA SAN IGNACIOREN EGER-
 ticioac beren consideracio, ta afec-
 toaquin.

EXERCICIOEN ASIERA ; EDO
fundamentua.

Certaco Jaincoac Guizona eguin zuen,
 edo gure azqueneco Finaren ga-
 ftean Exercicioa, ta beren obediencia
 Exercicio aù, beste guciac bezala ; ipi-
 fii zuen Aita San Ignacioc, oracioco dem-
 boran animari meditateco, edo gogoan
 artu ; eta pensateco gaia ; edo materia
 emateco.

Badaquizu, Oracio aù eguitea dala Jain-
 coa-gana viotza alchatcea ; ta zure salva-
 cioraco bear dezuna berari escatcea. Ora-
 cioa bear bezala eguiteco ; guc Jaunare-
 quin jarduteco ; ta zure viotzaz itzegui-
 teco ; gorde bear dira contuz ; Cerico
 âviso, ta erregla onetaraco Sañtuac ematen
 dituenac, ceñai deitzen die **ADICIOAC,**
 Oracioraco bacoitzac bere memoria,
 adimentu, ta vorõdateaz baliatu bear du:

ta au dá , eta onetan dago viorza jasot-
cea , escatcea , ta Jainari oracio menta-
la eguitea , Equiera , edo Egercicio oie-
tan eracusten , ta eguiten dana , edo eguin
nai dana.

Lenengo , memoriara ecarri , oroitu ,
ta ondo icusi , edo igaro pauso , edo pun-
tua , ceñaren gañean gogoratu , edo me-
ditatu nai dezun ; ori zure buruan artu.

Bigarrena , adimentiaz billatu , ta on-
do beguiratu , cër gauzac , nolaco eguia ,
eein arrazoi andia orretan diran , zure
viorzean ondo ausmartu , edo rumiatu.

Irugarrena , eguia , ta arrazoi oriequin
zure vorondatea mugitu , ta ondo bere
lanari equin bear dio viorzeo gogo , afec-
to , edo deseo , aldituen veroen , ta vi-
cienac , pauso , edo puntuac berez escat-
cen dituenac , edo ari dagozquionac ate-
rà , ta eguinaz , ta lan onì gogotic eguinaz.

Exemplotzat , edo ara nola : Jaincoo
eguin zaitu , bera ezagutu , ta servitece-
co , bera amatecco , ta gozatecco . Aurrera
zoaz , ta zurequico esazu : ¿ Combate-
nere Jaungoicoari zor diot misericordia , ta
mesede ofegatic ? Ta ¿ cër castigua merce-
ciodet ; ceren amatu beartean aimbeste
bider ofenditu dedan ? Orrela nere viorze-

eo datnuaz confosatu , ta erremediatu
 bear det. Aurrerago zoaz , ta esazu : Ain-
 gueruac pecatu batequin galdu cirán beti-
 co ; beraz aimesterequin mercei nuen nic
 infernuaz , ta aurrera pecatu eguften badet ur-
 rango pecatuarequin galdu naiteque betico.
 Emendic , fedearen argui vici onequin
 vorondatea berotcen dá , ta viotceco gogo-
 sendoac ateratcera animatcen dá , Jaunari
 esquer andiac emateco , ceren beretzat
 eguia zuen , ta sufritu , ta dembora , ta
 gracia eman dion , beragana biurtceco , be-
 re culpac ezagutu , ta eguiazco penitencia ,
 ta vicitza berria , propositu eraguille indar-
 suaz eguiteco ; pecatuen cateac urratceco ,
 ta are gueiago animaren etsairic andiena ,
 ceñadan vicioric aguintariena , ta calte
 guziac dacarciena , sustraetic ateratceco ,
 ta orren contra beti , ta bere aleguin gu-
 ciaz peleatceco .

Ta au dá , ta ez beneric , Oracioa egui-
 tea , edo oracio mental , edo viotzeçoaren
 Equiera , edo practica bera .

Egercicio bacoitzaz , esan dan bezala ,
 bere fin , edo frutu , oraciotic atera bear
 dana berez dú : Au egunoroco meditacion
 beguien aurrean iduqui bear detu , zure
 anima pecatu , ta vicioetatc dibratu , ta

garbitceco , ata oien contraco virtuteaf jarraitu , ta vici modu santu paqueazco bat Exercicio oietatic ateratceco.

Oien Cimendua bezala dá , ta A. S. Ignacioc ezartcen duen Fundamentua, edo Asiera , zure azqueneco ; eta gauza gucien gañeco fin Cerucoa , edo certaraco Jaincoac eguin cinduen.

Habetis fructum vestrum in santificationem, finem veró vitam eternam::: Gratia Dei vita eterna in Cristo Jesu Domino nostro

Jaincoa servitcean , zuen animac eguñero santuago eguitcan , daucazute frutua ta fin , edo saria guero betico vicitza , Jesu Cristo gure Jaunaren gracion.

Oracioan sartceco prestaera , edo preparacioa dá beti bat , eta Erregletan esan dana bera,

Emen lenengo gogoan artu bear dá , ta lecu , edo *COMPOSICIOA* eguin. Ta aú izango dá fede vici batequin Jaincoari beguiratcea , ta zure aurean icusten bacendu bezala , Eguzqui eder argui , gauza guciac baño argulago , ta ederrago dan, guztien Eguillea , ta Asiera , gure Jaincoa , bere Gloria cabu gabeaz janci , ta beteric beregan , bere edertasun guciaren jar lecuari , bere Aingueru , ta Cria-

tura

tura gucién erdian, edo gañean, ichaso ondoric gabe, ta ondasunez bete baren guisa. Andic gauza guciac, iturriac bezala, sortcen dirala. Berá gucién Asiera, ta gucién cabu dala. Argandic así, ta irten, ta argana biurtcen dirala; ta Jaun andi onec animac ecèr ecetic bere itzaz eguin, eta beregana, beren azqueneco fin, eta beren eguiazco atsedèn lecu, edo centro bacarrera dacartciela.

ONEN ONDOREN SANTUAG ERA-
custen dà bigarren Oracioraco bear dàn
Escari, edo Pettaioa.

AU izango dà, Jaincoari viotz guztic argui andi bat escatcea zure azqueneco dicha, ta zorion àù ezagutceco. Ori irabaztean, edo galcean cembait dijoaquizun; ta emen lurreco gauza guciac galduco badituzuere, Ceruco dicha ori billatceco, ta arquiteco gracia dizula, David Santuarequin esanaz: »Zure eguiazco argui andi bat bial zadazu, Jauna, »munduco vide onetan zukanonz zucen »narabillen, ta golco mendi santura, ta »Zure vici lecura betico naraman.»
 Zure azqueneco finaren gañean iru gauza dituzu chit ondo consideratu bearrac.

1. *Da, certaco Jaincoac eguin cinducen.*
2. *Fin orretaraco Jaincoac eman diz-
quitzun arte, edo medioac.*
3. *Zure atcencoo fin onen importancia.*

LENENGO PUNTUA.

Certaco Jaincoac eguin cinduen. Pen-
saezazu, nola gauza gucien eguille,
zure Jaungoicoa, eceren, ta ifloren bear-
ric ecertaco eztuenac, bere onez, bere
vorondatez, ecer ecetic zu eguin, ta
mundura atera cinduen. Baña zure Egui-
lle jaquinsu, ta Jaun andi onec, nola fin
gabe ecer eguiten eztuen, ta gauza guz-
tiaí, ta bácoitzari bere bide, ta fin, edo
cabua ematendien, alá bere jaquintasun
amoriozcoaz zuri ere eman cizun. Ecer-
ecetic etcinduen alperric aterá; etcinduen
alperric bialdu mundura. Cerbait-etaco
zauzca Jaincoac emen.

¿ Certaco, bada? Galde zaiozu zure Egui-
lleari; galdé cere buruari. Jaincoac; cer-
taco eguin ninduen? ¿ Certaco nago mun-
duan? Ta zure Jaunac, zure fedec, zu-
re conciencia, ta vlotzac berac eranzun-
go dizute: Etzaudela vanoan, edo alperric:
Etzaudela bestetáco, ezpada zure Jauna-
ren gloriaraco, ta zure oneraco. Nola

gau-

47
gauza guciac Jaincoac bere honra, ta gloriaraco eguin cituen, alà zu berari gloria emateco, beraren vorondatea beti eguiñaz.

Au dà zure fiña : Onetaco, ta ez besteraco eguin cinduen, ta zauzca Jaincoac. ; Onetaco vici izancera? ; Eman diozu zor diozun honra, ta gloria? Zauðe, zure Jaincoaren vorondatea ezagutu, aren Leguea gorde, ta zure viotz guztiaz berà amatu, ta servitceco. Onetan dago, dio Jesu-Cristoc, zure zori ona: JAINCO bacar eguiazcoa, ta are bialduzuen Semea ezagutcean; ta salvatu nai badezu, aren Aguinteac gordetcean. *Hæc est vita aeterna, ut cognoscant Te solum Deum verum, & quem misisti Jesum Christum. Si vis ad vitam ingredi, serva Mandata.* Ioan. 17. Au dà, ta onetan dago Christau, edo guizon prestuaren izan, ta izate eguiazco gucia: Jaungoicoaren bildur santuaz, aren Aguideac ondo gordetcean: *Deum time: Mandata ejus observa: hoc est enim omnis homo.* Eccles. 12.

Jaincoac eguin cinduen, dio San Agustín-éc, bera ezagutu, amatu, ta gozatecco. Au dà zuri zure viotzac, Sant uari bereac bezala, esaten diona. Jaincoac beretzat eguin gaituela; gure viotzac atseguin, edo zori ona nai, ta billatua gatic Jaincoaz cam-

pora

pora gogotic arquitcen eztuela. Alperrie zabilta batetic bestera ; alperrie lurreco honra , ondasun , ta atseguñen ondoren , edo billa ; or eztago zure zoriona. On , ta ondasun guciac dituen zure Jaungoicoa billa ezazu ; ta ori bacarric dezu asco , ori dà zure guztia. Ori billatceco , amatceco , ta servitceco zaude munduan.

Considera-ezazu ondo , zu , ta munduco gauzac eguin baño lén , Jaungoicoa orain bezala , beregan cegoela , eta zalà beti guciz aberatsa , guciz ugarria bere , ta beregan on gucia ceucana ; inoren , ta eceren bearric etzuen. Alà zure bearric ecer-taco etzuen. Ta orregatic ere , ta jaquinic ondó , nór , ta nolacoa zú izango ciñan , berè vorondatez eguin cinduen beretzat , ta berá , zure Eguille , Onguille , ta doai guztien Emalle bacarrá servitceco.

Eztago gueiago Eguzquia argui emateco , ta sua berotceco , zu Jaincoa servitceco baño. Eguzquia , ta sua beren jarduera , edo Exercicio orretàn daude , ta beti ari dira. Ah! ;Alá Jaincoa servitcen , zure fin , edo jarduera dichoso orretàn zaude zú , edo beti ari cerà? ;Nola erantzun diozu zure Jaunaren vorondateari?

Munduan jaiotcen dira guizonac , bat-zucc

batzuec andi, besteac chiqui izateco; batzuec aberats, besteac pobre; batzuec jaquintsu, besteac jaquiñezac; batzuec erreque, edo aguintari, besteac aien servitzarri izateco. Bafia suerte banacaco orien artean ere, alà aguintariac, nola servitziariac, alà aberatsac, nola pobreac, alà jaquintsuac, nola jaquiñezac, alà andiac, nola chiquiac; guziac, edo diranac, baccariac Jaincoa servitecco; ta fin onetanguiac dira berdin. Ay suerte doatsu au ezagutcen bacendu, ta nola besteen artean, bera servitecco diña, bere vorondatez eguin cinduen!

Considera-etzazu, bere amorioz Jaunac ecer ezetic eguin cinduen puntu artan bertan, cembat Aingueru, ta Guizon, zu ez bezalaco izango ciranac, ta ain erraz nola zu eguin ditzaquean, bere itz, bere vorondate bacarrac. Aiec utci, ta zu eguin cinduen bere ontasunez, zuc escatu, edo merceci gabe, ta onelaco Jaun, ta Jabe Onguillea servitecco,

¿Nola servituco zuten Aingueru, ta Guizon aiec, zu bezala eguin balitu? ¿Nola zuc servitu dezu? ¿Nola favore andi au pagatu diozu? ¿Misericordia oni nola eranzun diozu? Ay nere Jabe bacarrac

Bace-

Bacenequien lenagotic, ta beti; ni nor, ta nolacoa orain izango nintzan; ceindoacabea; cein esquer gaiztocha; ta orregatic ere, aiec utci, ta ni artu, ta ni eguin ninduzun, ta zu servitceco, ta amatceco! Ah, Jauna!; Cerequin, edo nola zor andi, ta zori oneco au pagatuco dizur?

Considera-etzazu, nola zu ecer ecetic ateratecan, etcegoen zure escuan, edo zuqueran, ezpada zure Eguillearen escuetan zure fin, edo suertea; era suerte gucien goiena, ta onena; au da, Jaincoa ezagutu, ta servitcea. Bestetarako eguin cintzaquela, onetaco eguin cinduens; ta au da, ta ez besteric, vici ceran artean, zure lan, ta eguiteco guztia; au da lurrean zure fin, edo suerte ecin mudatu, edo aldatuco dezuna. Baña demagun zure escuan legoqueala, nai dezun suerte, edo fina artcea. ¿Jaincoac eman dizuna, bera bacarric servitcea baño obeagoric izan, edo artu cenezaquean?

Ah! ¿Jaincoa servitcea cer da? ¿Pisatu edo barrendic beguiratu dezu ondo, gucien Jauna servitce au cer dan? Eztà alaco zure etsairic andien, bide gabe, edo tirano-ren bat, zure odola chupatu, ta

47
vicia quendur nai dizina servitcea. Ezta zure gorputz lur pusca usteltcen, dese- guiter, auts. biurtcen dijoan ori servit- cea. Ez, ez; gauza andiägoetaraco jaino- cian, edo zauzca Jaincoac, ez gorputz orren esclavo izateco.

Deadar eguin bezate zure vicio, grinä, edo gaitceraco inclinacio guciac; gora- bñe, ta nai duten iscamilla guztia zu- re artean, zure contra jaso bezate; or- regatic ere beiti eguia. Itango dá, etzau- dela emen gorputzaren vicioen, ezpada virtuteen ondoren ibiltceco, ta zure Ja- incoa bacarric servitceco.

¿Ta Jaincoa servitcea, cör dá? Ay! Itzic, moduric ezta, au bear bezala zuri esat- teco, ta zuc ondo aditceco! Gure Jaun- goicoa servitcea, eguiaz erreinatcea dá: *Servire Deo regnare est, Fecisti nos Deo nostro Regnum, & regnabimus.* O dicha pare gabea! O suerte dichosoa! O zori one- co fña, ta eguiteco bacarra!

Zure mundu chiqui, zukan, zure gor- putz, ta animan dezun erreino orretan Erregue, ta Aguintari izateco, ta orre- la Jaincoaiservitceco, ta ez bestetaco zau- de mundu onetan. Orain, bada, zukanonz biur zaitte, zuregan sar zaitte; zure barre- ncan

nean contuac ateraitzatzu, ta cere buruari galde zaiozu.

— Nere anima, cer da au? ;Fedeco eguia da, lurrean Jaincoa serviteco zaudela? Bai. Ta munduan zaudela, ;cembat urte da? Oguei, berrogei, edo onembeste. Ta orietatic, ;cembat urtefan zure Jaungoicoa bear bezala, servitu, ta amatu dezuz, ori bacartic zure fin, zure jarduera, ta eguiteco gucía izanic? O contu estua, baña eguiazcoa! O lotsa guztien izugarriena!

— Ta bear bada, aibeste urtetatic urte batar bat, ez ill bat, ez aste, edo egun oso bat, Jaincoari zuten bacartic eztiogu eman, ta ez bera billatu. Baña ay! Cer diot, Jaincoa billatu? ;Baldin beraren igues, beraren contra, pecatu, ta vicioetan begui bietaraño sartu, ta beste lan, edo eguitecoric, Jaincoa ofenditeca baitic ezpacendu bezala, vici izan bacera? Ay zure galdua! Ay, ta cer eguia ecin ucatuco dezuna! Ay calte pareric ezruena!

— Mandoço besté gauza, joan etorri, artu eman, ta eguitecoenzat dembora izan dezu; jan, edan, lo, ta alferqueriac, ta are gaiztoago dana, culpa, ta vicioac dembora eraman dizute; orretan egunac, asteac, filac, urteac joan zaizquitzu; ta eguia esai-

teco, guztiraco ezpada Jaincoa servitecco, dembora arquite dezu; guztiraco, ezpada zure fin, ta eguiteco bacarreraco; guztiraco, ezpada bearrenéraco, ceña dan zure Jaincoa bacarric billatu, ta serviteca: *Unum est necessarium*. Au dá zure gauza bacarra; au zure eguiteco guztia, ta chit bearra.

Beste gauza, ta eguitecoac munduan zureac eztira, ezpada besterenac. Au da zurea, ceren bestec ecin eguingo dizun. Au da bearra, ceren beste guciac utseguinagatic, au acertatcen badezu, zori onecoa ceran; baña beste gucietan ondo irtenagatic, acar, ta bear onetan uts eguiten badezu, betico galdua ceran. Ta zure anima bacarrac bere Jaungoico bacarra galtcen badu, beste Jaungoico bat; non arquiteco dezu?

Ay nere Jain, ta Jabe bacarra! ; Ta eguia au jaquinic, zu bacarric servitecco emen nagoela, orregatic ere zuc orretaco bacarric eman didazun dembora, zure argui, ta gracia guciaquin, zure esquer galztoan, ta nere animaren caltean biurtu, ta gastatu det? Ay; ta nola Jauria? Nere viclaren parte andibat zuzaz azturic, edo, zure contra biurturie pecatuetan joanzas beste

48
beste parte andi bat zoraqueria, ecer ez-
queria, edo alperqueria utsean; ta vici
guztia, ez bear nuena, ezpada bear ez
nuena eguiten.

Etzaitut Zu nere Jaun bacar, ta bearra
servitu; ezpada Zure, ta nere etsairic an-
dien deabrua, mundua, ta aragua. Nere
fedea non zan, nere juicioa, ta burua? Ay
Jauna! Cer gaizqui Zure amorioa paga-
tu dizudan! Ay cein damu andia dauca-
dan, ta vici naizan artean iduquico dedan
Zu ofendituaz, Zu servitu bearrean!

BIGARREN CONSIDERACIOA.

Gogora ecarzu, eta considera-
ezazu Gondo, munduan eguin, ta noraco
Jaincoac zauzcan. Jaun andi, Ceruan, ta
Iurrean gauza guciac bere escuan dauzcan
onec, ta bere jaquintasunaz gobernatcen
dituenac, bere vorondate, ta naiera amo-
riozcoaz, zurequin, ta bestequin mirari
andi bat eguin zuen: ta au da: emen
Iurrean Jaincoa servitecen duenac, guero
betico Ceruan icusi, eta goza dezala;
emen dembora pusca batean Jaincoa
amatu, ta aren Legue santua gordé, ta
Ceruan betico amatu, eta bera saritzat
gozatcea, ta alabatcea.

Orre

Ortela Ceruco glotiaraco eguiña cera,
 ta araco zaude? Bai. O Jainarén amorio
 neurri, ta cabu gabea! O misericordia, ta
 favore esan al guclac baño andiagoa! Non-
 dic, edo nola zori on gücien andien aü
 zuc meteci cenezaquean? Ez, ez: Gure
 Jaun, ta Jabe güciñ aberats, ugarrí onen
 doariçaco mesede, ta gracia dà guclac. Et-
 cetera lurreco, ezpada Ceruraco eguiña, et-
 cetera lurreco neque, ta negarrezco quez-
 ca dietaraco, ezpada Ceruco atsedem bete
 ta at-eguin gozoetaraco eguiña!

Au dà zufe azqueñeco dicha, ta goie-
 neco cabua: *Finem verò vitam aeternam.*
 Ea, nere anima, jaso gora aleguin güciac
 zure pensamentu, ta gogoac. Gora, gora,
 nere viotza; gora, gora, nere beguiac,
 nere intencio, nere nai, edo afectoac; go-
 ra gora; Cefura beguira, nere voronda-
 te, ta animaco indar güciac. Ah lurrez-
 co viotz pobre itsua! Lurrean arrastaca
 ibitecco eguiña etcetera. Emengo anditasun,
 ondasun, ta atseguin alcezcó utsaquin, ora-
 indaño becela eroturic, ta emengo bagato-
 ta, aurren jostallu, ta niñiqueriaquin cho-
 ratu, ta enganaturic vicitecco etcetera.

Contu, ta beguita ondo, galdu nai ez-
 padezu betico. Manduan zarde Jaincoa

ezagutu , adonatu , ta servitceco , ta guero Ceruco glorian bera icusi , gozatu , ta alabatceco. Zure fin miragarria au dá. Orretaco , lurrezco gorputz , atsqueria , loigucien onci orretan dezu , ta or , carcellan bezala , daucazu Anima bat , zuc guchi ezagutcen , ta argatic guchi estimatcen , dezuna , baña Jaincoac beretzat eguin , ta beretzat nai duena.

Zure abere-guisaco vicitzari beguiratu , ta ; norc esan lezaque , Ceruco Jaincoac eguin , ta emanicaco Espiritu , asco balio duen bat zuc dezula ? ; Zure obrac , ta fedea , zure dacartzun vici modua , ta eguia au nola componalditezque ? Ala ere , fede casic ill , obra gabeco batez bada ere , badaquizu , ta illuncan bada ere ezagutcendezu , cer ondasun , cer joia estimagarria , cer margarita preciosa , zure Animan Jaincoac emantcizun. Noiz , edo berriz bada ere , mundueo pozaldi ero gucien artean ere , Anima ori galtceco bildurrac artcen zaituzte , ta zure concienian nai ta nai ez , sentitcen dituzu.

Zaude bada , zaude orain pusca bat ; bihurtu , ta sarzaitc , peccataria , zure viotzeans fedeco beguia arguitu , ta zure Anima ederrari , bear bezala estimatceco begui-

ta zaiozu ondo, Jaungoico gucziz Santu,
 ta jaquintsuac, bera Espiritu, pensa al ba-
 ño, ederragoa izanic, zù ecer ezetic ate-
 ra cinduenean, bere antcera Espiritu, edo
 izate bat eguin zuen; ta ori dá zure Ani-
 ma, berez Aingueruen urtegoa, ta la-
 guna, gauza ascotaco, ta andietaraco se-
 ñalatua. O cër Jaunaren obra!

Anima ori ain prestua, ain lurreco gau-
 za gucien gañecoa Jaincoac eguin zuen,
 non lurrean gauzaric ezta, ezeta diran gu-
 ciac ere, zure Animaren diña, edo ori
 betetceco diña: Ori munduan ecin dateque.
 Espiritu, edo Anima bat Jaunac emandi
 zu, bere gai, bere diña dana; Jaungoico
 guztia baicic ecin beteco duena. Ta Ani-
 ma ori, aurcho bateatu batean bezala,
 gracion dagoela, Jaincoc arguiru, ta icu-
 sico bacendu, aren edertasunaz pocez zo-
 ratuco cifaque, ta munduco gauza eder-
 rac, itsusi puscac becela artuco cinduzque.

¿Beraz gorputz orretan Espiritu, edo
 Anima bat dezu, Jainco guztia Ceruan
 icusi, ta gozatceco diña dala? O! ¿Cër
 diot, Jauna? ¿Zu icusteco diña dala? ¿Zu
 nor cera, eta ni nor, edo cër naiz, Zu
 nizaz oroitceco! O Jaun andi, ta nere
 Jabe bacarra! O zure doai gucien, ta

Zu ceran guztiaten Emallea! ;Nola, ta non Jauna , zure naieta gozo , edo amorio eztizco pare gabeac orren ugari ifuriez-razo dizquitzu zure ondasunac , ceran guztia niri onela emateco?

Bai , nere anima. Jaincoa servitcen badezu , ta gorputzeco vici labor onetan, aren vorondatea eguiten badezu emen lurrean dan doacabe-ena , pobreen , ta azfuenan izanagatic , gueroenean Cerura igobear dezu, ta an gorputz , ta anima, Doatsu , Aingueru , ta Santuen artean , orien lagun betico izan bear dezu. Zure fin, eta eguiazco zori ona Ceruraño igotcenda , ta an dago. An arpeguiz arpegui zure Animac Jaincoaren edertasuna icusicodu , Espiritu eder berez-dan , izan , edo izate gucien iturri gozo ura , beti ematen , ta beñere aortu gabe isurteen dagoena.

Jasoitzatzu , bada , Cristava , zure beguiac , zure viotza , ta gogo guciac lurreco aurquetatic , zure Aita amoroso, Erregue andi onen Ceruco Jauregui , edo Palacio eder attara. An zori oneco auzo, ta Santuen lagun izan bear dezu. An ez kentatu bacarric , ezpada eguiaz Jaincoaren Seme , ta alaba , edo time izan bear degu.

An

An zuc , eta nfe ez emen bezala jaquiñezac , edo itsuac izan bear degu , ezpada orain eguiazco fedearen illuntasunean sinisten deguna , an jaquintsu arguiac bezala , Jaunaren arpeguia claro icusten degula , ta beraren arguitasunean arguiro , nai edo bear degun guztia , ispillu vici eder argui artan. *Nunc per speculum in enigmate, tunc autem facie ad faciem. In lumine tuo videbimus lumen.* 1. Corin. 13. Ps. 35.

Emen , zure jaquinezagatic ondo barrendic aditcen , edo comprenditcen ez dituzun Sacramentu , edo Misterio ezcutatu guciac , an claro , ta berenez diran bezala icusi , ta adituco dituzu gozotoro , An amorioz urtu , ta deseguingo cera , ta zure Jaincoaren antceco , edo guztia Jaincozco eguin , ta bera dan bezala icusi , ta gauza guciac beragan jaquingo dituzu : *Similes erimus , quoniam videbimus eum sicuti est.* 1. Joan. 3.

An emengo neque , icerdi , gaitz , ta penac igaro , ta gose , egarri , ta beste lurreco quezcaz azturic , zure Jaunac diranac quenduco dizquitzu , ta zure anima bere gloria vici guztiaz ase , ta betecodu , gainez eguiteraño : *Satiabor cum apparuerit gloria tua.* Ps. 16, Emen Anima , ta gorputza , Jaincoaren Temploa bezala , garbiero gordet.

cen badezu, an izango dira Jaincoaren Jar-
Iecu, edo Trono, ta gloriaczco Ceru vici,
ta or bere atseguin, ta gozaldi guciac Jau-
nac izango ditu betico. An Anima, ta gor-
putza bere paquezco ibai gozo, ta bere
Viorzeco atseguin guciën ujola betico ar-
tan Jaincoac sartu, ta bere glorian onda-
tuco ditu; *inebriabuntur ab ubertate domus
tua, & torrente voluptatis tuae potabis
eos.* Ps. 35. Eta au dà, ta onelaco esan al
guciac baño guciago, andiago, ta obeago
dà zure Ceruço fiña,

¿Baña cèr? ¿Fede onequin zu vici izan
cera? ¿Espiritu onequin? ¿Zure obrac, itz,
pensamentu, ta deseocac, Ceruraco vici da-
narenac bezala izan dira? ¿Jesu Cristo zure
Erregue, ta Maisuaren humiltasun, pobre-
za, paciencia, paque, caridade, oracio,
ta mortificacioan? ¿Edo Christau antzare-
quin, gentil baten obra, ta vici moduan,
lurreco gaucetan sartu, lotu, ta josiric,
Jaincoric, Ceruric, ta animaric ezipacena-
du bezala? Ah cèr fedea! Cer vicitza!

Lurreco animali, edo lau oñecoën gui-
sa sabela, jana, ta edana, ta orien ondo-
rengo gorputzaren atseguin loiac baicen,
beste Jaincoric ezipaliz bezala vici izan ce-
ra. Ay nere Jaun andi, ta Jainco maitea!

Cer

¿Cér dá au? Era-gabeco, fede, ta legue gabe, esquer gaiztoan onela zuzaz azturric vici izan naiz! Baña zuri esquerrac: Orain gucia ezaguturic, erremediatu nafder: Zure misericordiaz baliatu nai der, gucia utci, ta galdu eztezadan, Zure gracia bear der. Indazu Zure arguia, ta Zure escua, nere pecatuen penitencia eguiteco, Zu bacarric billatceco, Zu servitceco, Zuri jarraitceco, ta vici bertisantu batean, Zu beti amatceco. Amen.

BIGARREN PUNTUA.

ZU SALVATCECO JAINCOAC

eman dizquitzun Arteac.

AU gogora ecarteea, zure Animari campo zabal, ta guciz eder bat idi-qui, ta aguertcea dá. Au zure vici guttico consideracioen diñaco gaia, edo materialiaric al datequean ugarien, ta gozoena dá, lurreco gauza oietatic Cerucoetara zu erraz, ta pozic beti igotceco. Escola andi, letra, edo jaquintasunic ezpadezu-ere, fede vici, ta viorz ona badezu, atoz ona, ta munduco asco-jaquin arrotu aicezco ascoebaño ascoz obeto, Ceruco Libru eder onetan, zure salvaeraco, bear dezun gucia

ira-

iracurri, ta icasico dezu; ta San Pablo dionez, gorputcezo gauza beguiaz icusten diran oietatic, icusten ezdan, ta gorputcie eztuen Jaincoaren Espiritu garbia, aren virtute, ta Jaincotasuna bera icusi, ta ezagutuco dezu,

Sarru, ta jarri zaite, bada, munduco gauzac, edo criaturac icusten; eta Erregina Sabà Salomonen Jauregui, edo Palacioan baño ere obeto mireci, ta arrituzaitte, zugaric, zuretzat, ta zu salbatceco Jaincoac eguin duena icusiaz.

Lenengo considera ezazu munduaren Eche apdi au zuretzat, ain ederqui eguina, ta alde gucietatic apaindu. Beguira, alcha begui oriet gora crystonezco bobeda Ceruco miragarri orretara; ta Indietaco arri precioso guciac baño eder, ta arguiago diran, tisteatcen beti dauden orietara; ta izat arguiz josiac bezala, beñere erori gabe, nola beti dabilzan. Orien artean, gure Jaunaren begui eder bi bezala, Eguzquia egunaren gala; ta Illarguia zuri gabaz argui eguiteco. ; Gombat urte, ta dembora da, beñere atsedan, ta utseguin gabe, gau, ta egun, zuc Jaincoa billatceco, ta arquiteco, baicoitza bere virtuteaquin zuri laguntzen, beren equiera, edo exercicio orretan dabil-
tzala?

57
trala? ; Ta oiec Ceruco Jaunaren arteac,
edo inedioac, zuc bera billatceco eztira ;
; Bicitzaren Libru argui bat eztira, Ceruco
bidea zuc icasteco, ta oietatic gucien Egui-
Hea gana errazago igotceco?

Bigarrena, considera itzatzu Jaincoaren
lau elementuac, sua, ura, aizea, ta lur-
ra, eta orien artean diran mirariac ; nola
zure gorputza oriez eguiña dan, oriec zu-
re yicicari, Ceruco Aitaren icenean, diran,
ta orietan vici ceran. Beguira aibeste cho-
richo nabar mota, cantari ederrac airean ;
aibeste arrai ichasoan, aibeste egazti, ta
abere lurrean, zure janari, erregalo, ta
jantciraco, zu servitceco, zuri Ceruco bi-
dean laguntceco, ta diranac zure mendeana
Omnia subiecisti sub pedibus eius, &c. Ps. 8.

Galde zajezu ; Nore orrela eguin zaituz-
te? Ta eranzuten dizute : Ez guc gueren
buruac, ezpada zu eguin zinduen Criado-
reac berac eguin gaitu : *Ipsa fecit nos, &
non ipsi nos, Ps. 99.* Zu, ta gu aren escuac,
beraren itz, edo vorondateac eguin guin-
duen : *Ipsa dixit, & facta sunt ; ipsa man-
davit, & creata sunt. Ps. 148.* Guztioac be-
rac eguin gaitu ; zuc gurequin bera servit-
ceco ; baña gu zuretzat, ta zu beretzat, be-
ra alabatceco,

Pensæzazu ondo , Ceruco , ta lurreco ondusun oiec-gatic zure Jaungoicoari combat zor diozun , emendic aurrera esquer obeac emateco.

Pensæzazu ondo , nola Ceruco escala bat becela criatura guciac beguien aurrean jartcen zaizquitzun , orietatic , nai badezu , zu Cerura igotceco ; nola bacoitzac bere aldetic egoac ematen dizquitzun , aietatic gucién Jabeagana , ta zure fin , ta toquirá crazago egatceco.

Pensa- ezazu ondo , nola guztiac , eta bacoiza Jaunaren vorondatea eguitén beti ari dirán , ta exercicio ori zuri beti eracusten ; Ceruac beren argui ederraquin , lurrea bere frutaquin ; soroac beren loreaquin ; choriac beren cantakin ; aberéac beren nequeaquin. Lotsa zaite , ta lur perañó humilatu icusiric , criatura guciac Jaincoaren esana eguitén , fin orretara ain zucen beti dijoacela ; ta zu bacarric , aimbeste amoriozco locarriz Jaincoac bereganoz tiratcen zaituela , orregatic ere beti ain oquer , aren igues , ta aren vorondatearen contra.

Icara zaitez , ceren zure Jauna ofenditceco , gauza oriez beraz aimbeste bider baliatu ceran , era-gabe janáz , edanaz , jant-
ciaz,

rciaz , osasun , ondasun , edertasunaz , ta
 beste Jaincoaren doaiatz , gaizqui , edo pe-
 caturaco usatuaz , ta zure viotzeco atse-
 guin usia batean zure azquen fin , edo
 dicha ifiñiaz . O arrigarrizco gauza ! O es-
 quer gaiztoco pagu itsusia !

Oiec guztioac emen icusten diran arteac ,
 edo medioac dira ; igo zaite orain gorago ,
 sartzaite barrenago .

Irugarrena , zu salvatceco Jaunaren bes-
 te arte , onguite , ta bideac considera itza-
 tzu . Oietatic batzuec gucientzat , edo co-
 munac dira , besteac zuri berezquiro egui-
 ñac , edo particularrac , batzuec jaquiñac ,
 besteac ezagutu gabe beti artcen zaudenac ,
 ta guciac miragarriac .

Orien artean Ceruco Aingueru bat eman
 dizu zure lagun , zure zai , zurequin gau,
 ta egun dabillen . ; Mesede onegatic cer zor
 diozu ? Beguira ondo , edoccin lecu , ta
 bazterretan Aingueru Santu ori beguira
 dago quizula . Beguira ondo , Ceruco la-
 gun , ta Mandatari orren aurrean nola za-
 biltzan , cer eguiten , cer esaten dezun .

Baña , oiec ecer ezpalira bezala , bade-
 zu oraindic cer consideratu , Jaincoac , zu
 salvatceco , lurrean eguin duen mirariric
 andiena , ta Ceruac , eta lurra seculaco ar-
 ritu

ritu cituena. Bada zù Cerura eramateco,
 Jaincoa bera jachi zàn lurrera: Aira Jaincoac
 bere Seme bacar maitea bialdu zuen mun-
 dura. O mirari gucien miragarriena! ¿Nor
 secular gogoraco citzaion onelaco gauza-
 ric? ¿Nongo munduco buru aizez andituz
 bere vicia onelaco gauzatán pensatuco
 zuen? ¿Nor orien artean atreyituco zan Ai-
 ta Eternoari escatcera, zu, ta gucioc salva-
 tceco, bere Seme bacarra bialtcezala, ara-
 guiz jantci, aur chiqui, ta guizon eguin,
 ta guero gurutce batean gugatic illtcedilla?

Ah! Zuc, eta bestec inore escatu-gabe,
 Jaincoac bere onez, ta zure onagatic obra-
 ric andien aú eguin zuen; ta Jaun andi aú
 onela jachi, humillatu, ta ecer ez bezala,
 zugatic eguin ezquero, beste aren viciço
 mirari, exemplo, ta Sacramentuac, Pasio
 ta Eriotza, orren ondoren berez bezala da-
 torquion gauzac dira. Ill nai zuen, ta illt-
 zan, pecatua illtceco, ta zuri bere eriot-
 zarequin vici berria emateco.

Ill baño len zure amorioac bere catea-
 quin lotu zuen, ta zú humezurtz bacarra,
 ta bearra, munduco bide onetan ez utci-
 cea-gatic, zure janari eguin zàn, ta Al-
 dareco Sacramentuan ezcutaturic gueratu
 zàn. Ta aú fineza gucien coroa, ta sillua

bezala dà. ¡Baña, zure Jaincoaren arte oriez, onelaco misericordiaz, favore, ta amorio gozoaz zu nola baliatu cera? O Jaunaren amorioa! ¡Ta, ó zure esquet gaiztoa! Ay ta cembait dezun, cër pisatu, cërgatic lotsatu, ta cër erremediatu! Alere, nai badezu, zure Erredentore amorezcoa béra dá zure erremedio guztia. Penitenciaz, vicitza berriaz béra billa ezazu, ta zure bidea, eta betico vicitza beragan arquituco dezu.

Emendic zure animaren estimacio, aldezun andiena atera bear dezu, icusiric zure Jainco, inoren bearric etzuenac, nola estimatcen duen, bada zu salvatcea-gatic aimbeste eguin zuen, ta onembeste deseguintzan. Pensa ezazu ondo, ta Jaunaren balantzan, aldezun moduan pisaezazu, cembait Jaincoaren beguetan balio dezun.

Onetaraco jaquizu, Cristau, guizon, edo andrea, mundu onen azqueneco fin, edo cabua, burua, cumpligarría, perfecio, edo complementua dala guizona; mundu gucia, ta zuzaz campora, emen Jaincoac eguin duena, zuretzat dà. Zu eguin cinduen beretzat, ta Jaincoa bera dà zure fiña. Jaincoa dá zure Guztia, ta Jaincoaren gauza gucien gañeco amorioa dá zure betegarrí,

per-

perfectio, ta cumpligarri guztia.

Aita San Ignacioren Egercicioen obra andi guztia au dá, ta ez besteric: Lan andi onetaraco traza, ta exemplar vicia dá Jesu-Cristo Jaungoico, ta Guizon eguiazcoa. Orregatic cimendu seguru onetatic Santua asitcen dá: Ate onetatic, ceña dan Cristo bera, sartcen zaitu, Ceruco bidean: Jesus maitearen Vicitzan, exemplo, doctrina, Pasio, Eriotza, ta Erresurreccioan, guero beraren amoriora igotceco: Amorio santu au dá zure betico vicitza; ta onetan San Ignacioc bere Egercicio guztia acabatcen ditu.

Az quenic pensaezazu, zugar, ta zuzaz campora diran gauzac diranac, beste aimbeste bide, ta lagun Jaincoac eman dizquitzula: Oriez ondo usatu nai badezu Jaincoaren icenean, edo aren vorondatea eguiñaz, Ceruraco escala bat dira. Ta ara nola: Osasuna, ta eritasuna; ondasunac, ta pobrezza; anditasuna, ta chiquitasuna; jaquiña, ta jaquiñeza. ¿Cer guciago? Larreco neque, ta laceria guciac, munduco etsai gucienc persecucioac, infernuco deabruen tentacio, ta lazo guciac. Ta are guciago. ¿Cer? Zure pecatuac berac, zure culpac, ta Jaincoaren contraco ofensac, eragabeco traicio,

cio , ta gaitzic lotsagarrienac , zue nai badezu , orien eguiazco damu , ta proposituaz , Penitenciaco Sacramentu , edo contricio, Confesio on batean, erraz, zure salvacioco ate , ta bide, diranac , eguingo dituzu , ta Ceruco escala izango dira.

Ala David batec , ala San Pedroc , San Pabloc , ta beste Penitente ascoc eguinzuten. Oriec beñ betico convertitu ciran. Eta exemplo eder oiec, ta Jaincoaren zurequico ontasuna , zu billatcen , zuri echedeten , ta onelaco era ematen icusiric ; cèr aitzaquia izan dezaquezu, beraren aurrean, zue , oriec eguin zutena , ez eguiteco , ta ain aisa bertatic eguin dezaquezula ?

O nere Jaun maite mirari guztien Eguille , ta misericordia guztien Emalle ugaria! O zure piedadezco naiera , edo cariño gozoa , onela gure anima galduaz cabu gabe zaletu , edo enamoratu zaituena ! Cèr zure amorio fin gabeac , ta gucien finenac , cèr gu salvatceagatic eguin eztu ? Ta orain ondo. Jaincoac , zu salvatcea gatic orrembeste eguin ezquero ; orrembeste arte , edo medio eman ezquero ; nola zu baliatu cera ? Nola bide orietan ibilli cera ? O esquer gaizto behtcen , ta itsusiena!

Zure Jaincoa ofenditecco , ta zure anima

condenatceco ; diranaz etcetera baliatu?
Ay cér pagua !

IRUGAREN PUNTUA.

ZURE AZQUNECO FIN ONEN

importancia.

Nola Consideracio onen faltae zure animari calte andiac ecarri dizcan; ala ondo orain artcen badezu; provechu andiac ecarrico dizca. Biur zaite, bada; nere anima, zure barrená; eta zure barrearcan gogora ecarzu; cembat; edo cér eguiteco bacar onetan dijoaquizun. Ayl Erremedioric eztago, ta bitarteric ezta; Bienen bat izan bear dezu. Edo zori onecoa, edo zori gaiztocoa; ta ori betico; edo dichosoa Ceruan, edo desdichadua Infernuan, ta ori betico. Jaincoae beraren gai, ta zure jabe eguin zaitu; zure libertadean, zure naiean, zure escuan dago gucia. ¿Cer naizu? Beguirá ondo, ta ondo pisatu, cér irabaztera, edo cér gaitcera zoacen, ta ori betico.

Demagun, bada, Cristaín bí dírala; barta chit ona, ta Jaunaren bildur, eta amon-
gion, bera fede on, ta vorondate guciar
bí.

biflatcen, ta servitcen duen justoa. Beste
 berriz ehit gaiztoa, fede gabe, legue ga-
 be, Jaincoaren contra pecatuetan begui
 bi-eraraño sarturic vici dana. Orregatic
 ere, ascotan icusten dana, demagun, ona
 ehit perseguitua dalá, ta neque, laceria,
 ta gaitz guciac alde gucletatic darraizcala,
 eta criatura, edo guizon, ta deabru guz-
 tiac aren contra dirala; baña gucién ar-
 tean ere bera firme beti, beti leial, Ja-
 Incoa servitcen, ta amatcen.

Gaiztoa berriz, nai duen gucia eguiten;
 eta contu eguizu, munduco anditasun,
 honra, ta estimacioac darraizcala; mundu-
 co diru, ta ondasun gucién jabe dalá; ta
 gusto, edo atseguín loí guciac dituala; ba-
 ña beti Jaincoaren contra, ta legue gabe-
 co etsai. Orañ demagun, eun, edo milla
 urte biac orrela vici dirala. Ecusquizun
 dago ori; milla urte iñor vici ezta, ta
 egun, edo ordu seguru bat eztu. Beñ, edo
 beñ bataren zori onac, ta bestearen gaiz-
 toac bucatu bear dute. Ilteco zorian biac
 icusten dituzu.

Ordu artan, Christaú on justu ori
 bere igaroco neque, ta penacgatic jcer zaio,
 baldin Ceruco atea zabal zabal idiqui, ta
 Aingueruac bere anima ará eramatco da-

tozquifola icusten baditu? O Cristau zorronecoa! ;Orain perseguidore, ta etsaien al guñac non dira? Diranac deseguin, eta aztu ciran, ta anima ori Aingueruquin Ceruco. ondasun, atseguin, ta gloria vicira, Jaincoaren edertasuna icustera dijoa. O anima fiel doatsua! Zure azquen fin gloriarazcoan sar zaite ordu onean; *Intra in gaudium Domini tui.*

Beste gaiztoac berriz, eroia beguien aurrean dacusela, arequin burruca asitcen da. Ay cèr latria! Algaraz, ta isecaz Deabruac datozquio infernura eramateco. Ea, ;lengo atseguinac, ondasun, andi nai, ;adisqueideac orain non dira? Demonioen atzaparretatic, ta infernuaren eztarri zabalartatic libra dezatela. ;Cer? ;Etzan beste-ric, legue-gabe, Jaincoric ez baliz beza- la, bildur gabe vicitcea? Ara anima do-atsu Jaincoa billatu zuenari bere etsai gu-ñac, instante bateco gloria ecin quendu, ta ez eragoteico diote ; ta orra ire anima seculaco galdua emengo guezurreco adis- quide, ondasun, ta atseguinac infernu- tic ateraco eztite.

Orain beguira ondo, triste onec muni- du guñac cèr provechu atera zuen, ta or- tic ezaguteco dezu zuc cèr ateraco dezun:

*Quid prodest homini si mundum universum
lucretur; anima vero sua detrimentum patiat-
tur.* Mat. 16. Au dá Jesu Christoren senten-
cia, aimeste anima mundutic atera, ta Ceruã
sagru dituena; aimeste Santu eguin dituena.

Sentencia onen consideracioac Egerci-
cio oietan San Franciscu Xavier Santu añ
andi atera zuen, ta aren ondoren beste as-
co. Argatic Santuac nai zuen, sentencia
aui, Ceruco erremedioric eraguille-ena be-
zala, guciac beguien aurecan beti artu, idu-
qui, ta yiotcetari jositcea. Sentencia onen
indar, edo virtutez Santuac aimeste ani-
ma galdu Jaincoarenzat irabazi cituen.
Santu onez, ta Santuaren exemploaz ba-
lia zaite, ta Santu au bezala zure sal-
vaciõaco aprovecharuco cera.

Pensa- ezazu, bada, ondo Santuaren gui-
sa; Cer baliatuco dit niri, irabaztea mundu
au, galtcen banaiz ni nerau? Emen lur-
reco ondasunetatic cer ateracodet. Ceru-
coac galtcen badituz? Eta nere anima
galtcen badet, orren ordana non arquituco-
det? *Quam dabit homo commutationem pro
anima sua?* Mat. 16. Eztezu ondo ezagut-
cen, ceren ondo pensatcen, eztezun, cer
dan, nolacoa, ta cembat zure fin bacar,
ta bear onec balio duen; ta gauza bacar,

ren , ta bearren onetan cër irabaztera,
edo galtcera zoazen. Arri zaitezte Ceruac,
eta lurra , Christaú asco puntu onez aín
aztuac icusiric.

Ah nere Jaun gucién goiena , edo So-
beranoa! Ah eguiazco honra , ondasun , ta
atseguin gucién causa , ta jatorrizco iturri
ugarí , beti isurtcen , beti ematen , ta be-
fiere agortcen etcerana! Ay Ta ceñ labur-
ra , ceñ illuna , ta esan diteque , ceñ illá
dan zurequico gure fedea , emen lurrean!
Orregatic , Jauna , asco , edo guciénac zu-
zaz azturic , emen beguiz dacusten gaucetan
nastu , ta choratu , ta arrastaca , nequez ,
aranzaz beteric orien ondoren dabilitza beti!

¿Noiz artean , nere Jaungoicoa , noiz artean
orrela itsutu , ta guezurren , utsáren ,
ta vanidadeen billa ibilli bear dute? ¿Noiz
artean zuganonzco bidea utseguin , ta be-
ren zori ona guciac nai dutela , ecin arqui-
tucó dan lectu , ta gaucetan , aín itsuan beatz
topaca , orren billa ari bear dute? Ta zu
bacarric bacoitzaren , ta gucién zori oneco
fin gozoa , osoro , neurri betean , ta gañez
eguiteraño izanic , Zure argui eder , ta vide
zuceneric igues beti dabilitza. Ay cer caltea!

Beguiaz , ta eguiaz , Jauna , Zure azque-
neco zori onen berri munducoac jaquin
bear-

bear luque. Zu ondo ezagutu, ta eçin date-
que ez billatcea. Ceruco Doatsuac bezala,
albaliz, oiec Zure Izan, edo Espiritu ederra,
bera dãn bezala, bear luquee arpeguiz
arpegui icusi, ta orain bertan gozatu, az-
queneco dicha onén importancia, bear be-
zala, jaquiteco; orrela munduco croqueria,
ta era gabeco joco, ta gaucetan escu aldĩ
batean, cër galtcera, edo irabaztera dijo-
acen ezagutuco luquee. Ah Jauna! Zu pe-
caruaz galtcean, escu batean, pieza ba-
tean gucia galtcen dá!

O mundu galduaren Argui, ta erreme-
dio bacarra! Zure argui golpe vici bat bial-
zaguzu Jauna, gure anima itsuac argui-
tu ditzan, ta lurreco gora bera gucien ar-
tean, Zu, gure zori on gucia, ta Zure
azqueneco dicha, ta gloria onen balioa
vicio ezagutu, ta obeto estimateco. Au
galtcen badegu, Zu galdu, ta seculaco
galduac guera. Au irabazten badegu, bes-
te guztiac galdua-gatic, Zu bacarric ira-
bazi, ta seculaco aberatsac, beti zorione-
coac izango guera Zurequin.

Oriez gañera considera ezazu, zure sal-
vacioaren guztizco importancia au, nola,
ta certaraño Jaincoac alde batetic, ta dea-
briac berac bestetic cracusten dizuten.

1. Beguira ondo, zure Jaungoiko maitea, beste eguiteroric munduan ezpali bezala, gau, ta egun nola beti zuri beguira dagoquizun, zu zaitcen bezala, zu gordetzen, ta amparatcen. ; Baña nola? Munduco amari onenac beren sabeleco humecho laztanaz ez bezala. Milla bider obero. Onetan Jaunac berac dionez; pateric ezta, ta bere beguetaco niñac bezala zauzca gorderic. O gure Aita gozoren amorio, besteric ez, ta bera bezalacoa!

2. Beguira ondo, Ceruco Aita, ta Erregue andi onec bere eguiazco erregalo, mai, ta afari gozoz, ta atseguinez beté, ta betico artara, nola ta cembat amorioquin convidatcen zaituen, ango bere glorian zure neque, gose, egarri, ta emengo negarrac quendu, ta betico aztu erazotceco; bere izan, edo Izate, bere Espiritu, bere arpeguia, bera dan gucia, dan becin ederra, ta gozoa, zuri eman, ta zuc icusi, ta gozatceco; ta emengo illdura, edo mortificacio chiqui, ta penitencia laburren pagu, ta sari Jaincoa bera zuretzat izateco. Sari guztizco andia: *Ego ero merces tua magna nimis.* Ay Jauna; ta Zure ona, ta Zure gueieguia! Ay Christa on-garbia; ta zori onecoa! 3.

3. Bestè aldetic gogora ecartzu , Aita maite onec cembat eguiten duen zu irabizteco , Ceruco bidean zù empeñateco. B dezco argala bezala desmaia etzaitecen, çèr arte, ta trazac artcen ez ditu? Orretaco Jesus bere Semearen , ta Ama Virginiaren dolore , ta penac beguien aurean ipintcen dizquitzu, ta orien ondorengo gloria , zureac zuc ariñago eramateco. Seme, ta Amaren , ta Santuèn çèr exemplo ederac ; berariaz bezala , zu alaitu , ta animatceco? Cembat Ceruco mandatu , dei , ta inspiracio zure viotzean ?

Ah! Ate ori zuc idiquico baciño , aiiñ gor eguiten ezpaciña, nola Jaberic maiteen au zure viotzean sartuco litzaquean! Otsez dagoquizu ; Idiqui zaiozula : *Ecce sto ad ostium, & pulso. Aperi mihi soror mea, dilecta mea.* Apoc. 3, Cant. 5, ; Bigunduco etcera? ; Onembeste goraintzi erregalatu, onembeste amoriozco deirequin movituco etcera? Arriac baño ere gogorrigo bear dezuzizàn.

Ay anima sortua! ; Cer dà au? Zure zoni onaren igues orrela zabiltza? ; Çèr? ; Bildur ote cera , zure Jaunari eranzun , atea bereala idiqui , ta bera artuaz , gueiegui servituco dezula? Ah zure itsua! Ta çèr di-

dicha gueiago? ; Certaco eguin cinduen,
certaco zauzca munduan? Beste eguiteco-
ric badezu? Ah bildur, ta atcerapen lot-
sagarria! Beguira ondo; ; orren calte an-
dia zure animarentzat deritzatzu, bertatic,
ta beti zure Jaincoa billatcea, ta amatcea?
Ah ; Zure bearric eztuela, Jaungoicoa be-
ti zure beguira, zure zai-etzago? ; Zure
billa eztabill? ; Ta badaquizu noiz arten?
Bear bada, eztizu gueiago deituco.

4. Pensaezazu, zure lotsagarrian, zuri
burla eguiteco, nola deabruac arrazoi an-
dia daucan. Onec zuc baño obeto daqui
zure animaren balioa. Badaqui, cein gu-
chi zuc estimatcen dezun, ta Jaincoac zu-
re, edo bere joia bacar ori cembat esti-
matcen duen. Badacus, zu salvatcea gatic,
cembat aleguin, Jaincoa bera lurrera ja-
chi, guizon eguin, ta gurutcean ill arte-
raño eguin zuen, ta zure amorioz catibu
Sacramentuan gueratu, ta beti eguiten da-
goen, ta cembat nai dizun.

Badacus deabruac, orregatic ere, zure
saluacioa gatic pauso bat zuc eman nai ez-
tezula; ta orretaco, ta Jaincoaren esan,
edo vorondatea eguiteco, oin bat mugui-
tcea, carga andi pisutzat daucazula; Jain-
coa gueiegui seruitce, ta amatcearen bil-
dur

aur bacina bezala. Badacus arc, zure sal-
vacioa guerocho beti utciteen dezula, be-
fiere eguiaz, ta gogotic asi etcerala; zure
propositu, ta naiac, eraguilleac eztirala, ez-
pada engañagarrri, nai erdi, edo nai usiac.

Oiec guciac, ta onelaco nai bezalaco
era zure animan deabruac icusi, ta cèn
aleguiñac zù galtceco, ta condenatceco
eguiten eztitu? Cer asmo, cer traza, edo
moldeac, cèn intencio biurrac, cèn gue-
zurrac, zu choratceco, ta engañatceco?
Ta aín goi zalea, edo soberbioa deabrua
izanic, cèn gauza billau, itsusi, nazgagarrri-
etaraño jachitcen ezta, zure anima azpi-
ratu, ta galtceagatic?

Badaqui deabruac, cein amore onez
Jaincoac beguiratcen dizun; ta batzuetan
Aita guciac beraac, ta maiteac bezala,
bestectan Juez justu aserreat bezala erio-
tzaren, ta infernuaren bildurraz avisatcen,
ta icaratcen zaituela. Ta orduan, ta beti
zure gorrotoz deabruac cèn arteac, cèn
engañuac asmatcen, ta irabiatcen eztitu?
Alde guciatatic zure ondoren dabill; bein,
ta berriz aren tentacio, ta trampai zuc ar-
pegui eman, quendu, ta ordu gaiztoan
arentzat bota-agatic; orregatic ere aren
atrabja ezta aspertcen, berriz, ta berri-

ro batetic , ta bestetic zure contra , beñe
re necatu gabe , zu tentatcera biurtcen dà,
ta beti peleatcen dago.

Consideratu azqueníc , lurrean yici ce-
ran artean nola auzi , edo leia onetan be-
ti zauden, Alde batetic zure Jaincoa, bes-
tetic deabru gaiztoa dauzcatzula. Bien ar-
tean zaude beti. Zure Jaincoac Cerura,
deabruac infernura eraman nai zaitu. Jain-
coac adisquide maitearen guisa , eguia be-
ti , deabruac , erlozco etsaiaren guisa, gue-
zurra beti esaten dizu. Jesus zure Salvado-
reac bere guisa gurutceac , tormentuac
emen , ta atseguin , ta contentuac Ceruan;
deabru zure galgariac emen guezurrezco
atseguin usiac , ta contentuac , ta betico
pena , ta tormentuac infernuan esqueñi,
ta eman nai dizquitzu.

¿Ta cer? ¿Zure fedean , ta viotzean cabi
diteque au? ¿Cere burua bien artean onela
beti icusi ; ta zure anima , ceren gogoac
ematen dizun , Jaincoari ucatu , ta quen-
du,ta deabruari esqueñi, ta ematea? ¿Zure
Jabe maitearen besoetan , ta viotzeco laz-
tan gozoetan sartu bearreañ , zure etsairic
gogorrenaren atzapparretañ cere burua aĩñ
ariñ, gogotic, orren merque edo doaric, be-
tico infernuan ezartcea? ¿Au izanliteque?

Ah

75

Ah! Ta temibat bided izan da! Cembat bider ori bera eguin dezu? Pecatuan sartu ecran gucian. O tragedia tristea! O truzkada irsusia!

PAZQUENECO ITZQUETA, EDO COLLOQUIA.

A Y nere Jaungoicoa! Ay nere Jabe bacarra! Cer da au, Jauna? Cer da au? Eguia da, pecatu bacoitcean zure amorio guciaren trazac deseguin, ta anima deabruari betico ematen zaiola? Bai. Eguia au sinistendet? Ta ala ere, nere lotsagarri andian, bere guzurraquin eguia au deabruac berac onela eracutsi beardit? Nere anima ezagutcen, ta estimatcen nere etsairic andien Demonioagandic icasi beardet? Ay era gabeco fedearen falta lotsagarria! Cer eguindet? Nora biurtuco naiz nere anima galdu, ta calte guztizco zu erremediatceco?

Nora, Jauna, biurtuco naiz, ezpada niganonz, ta alehatu, ta Seme prodigo galduaren guisa, Zuganonz: *Ad se reversus dixit: surgam, & ibo ad Patrem meum.* Ay Aitaric onena! Ay Ceruco Aita maiteena! Zu beti izan gera Aita ona; baña itsu esquer

quer gaiztoco onec ; nic jaquin ezter , ta izan eznaiz zure Seme , edo humea ; ezpada nere vicio aguintaricn , nere oiturá galduen , ta nere etsai deabruen mempeco esclavo billau izán naiz.

- Ay Jauna ! Nere desdichaz onelacoa izan banaiz ere , orain nator , ta biurtcen naiz , nere gaitz gucien lotsa , ta damuz beteric , nere culpac Zure oñetan aitortcera : *Pater , peccavi in cœlum , & coram te.* Zure humearen icenic ezter mercei ; orren diña ez naiz ni : *non sum dignus vocari filius tuus.* Ay Jauna ! ; Artuco nazu Zure oñetan ? ; Baña cèr diot , nere Jesus ona ? Baldin aimbeste demboran , laztanga ni artceco besoac zabalduric nere beguirá bazaude ?

¿ Cer artu , cèr eman , cèr eguin , ta cèr eraman eztezu ni salvatceagatic ? Nere peccatuac artu cinduen Zure gañean. Nigatic Zure gorputza , pena , izerdi , negar , odol , ta viciarequin eman cenduen. Mirari , eta vicitzaco aleguin guciac eguin cinduen. Nigatic pobreza , gose , egarri , çarcelac , socac , azoteac , arantzac , burlac , isecac , gurutcea , ta eriotza eraman cinduen , ta guztiaç pocic , ta amarez ; alá ere guchi ceneritzan , ta merque guztiaçquin

77

quin nere anima erosi, ta salvatceagatic.
 ;Ta cër? ;Nere escuan dagoala, one-
 laco anima, pecatuaz Deabruari saldù,
 onelaco joia estimatua doaric galdù, ta
 etsaiari bereaz irreten utci bear diot? Ez,
 èz, nere Jaungoico maitea. Zuc eguin
 ninduzun Zuretzat; Zu emen servitce-
 co, ta Ceruan gozatceco. Ona, bada,
 Jauna, nere anima Zure escuetan, ta be-
 tico. ;Cër naizu, nic eguitea? *Dòmine,*
quid me vis facere? Zure vorondate
 santu guzoa eguiten eracutsi zadazu. *Da-*
ce me facere voluntatem tuam. Ps. 142.
 Zu servitcea, ta amatcea, naizu. Ne-
 rea dá dicha, ta zori ona. Ori nai det,
 Jauna; *ordu onean, ta amore onez izan*
bidi ordu onean, ta amore onez izan
bidi orrela: Paratum cor meum, Deus:
paratum cor meum: Ona nere viotza prest;
 ona nere vorondate Zure escuetan, be-
 ti Zurea eguitceco: nere pecatuen peni-
 tencia, confesio on bat, viciera berria,
 Zu beti amatceco emen, ta guero be-
 tico glorian. Amen.

PECA,



PECATUEN GAÑECO EXERCICIOA.

Malum, & amarum est, reliquisse te Dominum Deum tuum. Jerem. 2. Gauza gaitztoa, eta miña dá zure Jaun, eta Jaungoicoa zue utcitcea.

Pecatum meum contra me est semper. Ps. 50. Nere pecatua beti nere contra dago.

CERUCO gure fin dichosoac lurrean no-la etsa andiagoric eztuen pecatua baño; ala Aita San Ignacioc, pecatutic anima libratceco, edo infernuco bidetic atarra ta Cerucoan sartceco, len vicicotic Consideracio guciz indarsuac, icusico dan bezala, pecatuen gañean ematen diozca.

Meditacio onen fiña, ta frutua dá, pecatua alde gucietatic ain gauza itsusi, icaragarria icusi, ta orren contra gorrotoric aldan andiena viotcean sortu, ta betico artcea; eta eriotza, ta infernua bera baño guiago, edoecin pecatu aborrecitcea; eguiazco damu, ta propositu eraguille batequin

tequín culpa gucien confesio oso bat
 eguiteco, peccatuen bide gucietatic; in-
 fernutic bezala igues eguiteco, ta viciera
 berri bat Jaincoac nai duen bezala arteco,

Prestacera, edo Oracioraco preparaciod.

Eregletan esan zan Oracioaz Jaunari
 erregutu, arguia, ta gracia escatu, Ora-
 cio au ondo eguiteco, eta zure pensa-
 mentu, itz, eta obra-gucia; Jesu-Cris-
 torénarequin batean, beraren vorondeata
 orain, ta beti eguiteco, izan ditean,

Composicio, edo lectu eguitea.

Contu eguizu, zure beguicn aurrean
 daucazula Jesu-Cristo, Aingueruen erdi-
 an bere Tribunalean jarriric bere mende,
 ta magestade guztian, ta arpeguí chit aser-
 rarequin; aren jarlecutic suz, ta garrez-
 co ibai bat peccatarien contra datorrela;
 Juez onen aurrean zure anima, culpahun
 galdu baten guisa icara dacutsula, ta bes-
 te aimeste catea, ta grilluz beteric, no-
 ta diran zure peccatuac. Egoera icaragar-
 ti onetan Escaria izango da.

Escaria.

Argui andi bat indazu, Jauna, nere pec-
 catuac

catuac ezagutu, ta damu viorzeoaz penitencia eguitico ; bestee buruan calcartu, edo escarmentatu, ta nereca libratceco.

LEMBICICO PUNTUA.

IRU PECATU JAQUIHAC, ETA

orien castigua.

1. *Aingueruen pecatua Cernari.*
2. *Gure Gurasoena Paraisuan.*
3. *Judasena Apostoladuan.*

I. CONSIDERACIOA.

Gogora ecarzu Aingueruen pecatua, ta nola orrec betico galdu cituen. Jaquizu, fedea eracusten diguna, ta nola Jaincoac bere ontasunez Aingueruac ecer ecetic eguin, edo criatu cituen, bere aurreneco obra nagusienac bezala. Espiritu puru, edo garbiac eguin cituen, chit jaquintsu, ta guciz ederrac, libre, indarsu, ill-eciñac, edo inmortalac ; ez gu bezala gorputcen, eta gaitcen azpian. Jaunaren Magestadeari cegozquion servitzariac eguin cituen, doai naturalez, ta are gucia-go, naturalezaz gañeco, edo graziaz chit apainduac, bere Ceruco Corte, edo Pala-

cio

81
Eder aberats urtan bera claso icuñi, ta
Espiritu doattu beti izateco gaitac, edo
Espazac.

Baña, seculaco gloria vici artan sattu
baño len Jaunañ hai izan zuen, ta eracutsi
cien, nola Guizonña pecatutic libratu, ta
salvateco, Jaincoaren Seme bacarra ara-
guiz jancei, aur chiqui, ta guero Guizon
eguin, ta gurutce batean illico zan: ta amo-
riozco obra miragarri onegatic, Aingueru
guciac ezagutu, ta adoratu bear zuten.
Nere vorondatea da, esan cien, eta Nic
aguintcen det: "Aingueru guciac bera
adorazazure."

Orduan Lucifer bere Eguilleari obeditu
nai seic jalqui zan, ta bere Espiritu eder-
rarenzat mengoa andia Jaincoa Gutzon
eguin, ta adorateca, ceritzala, soberviaz
bere, ta atceratu zan. Pecatuaren infernu-
co izarri au bere Lagunen artean banatu
zuen, ta Aingueru gucien irugarren par-
tea berequin peatura arrastatu zuen, Be-
reala setazco batalla aserre andibat.
Cervan Aingueruen artean asi zan.

San Miguel gucien aurrenecoa, humi-
quiro Jaungoicoa ezagutu, ta adoracien
zuela irten zan, ta esan cion: *Quis sicut Deus?*
Nora Jaungoicoa bezalacoric? Orduan

Jaunac bere juiciora gaiztoac deitu cituen; ta aien pecatu aini itsusia icusi, ta bereala arraio batzuec bezala, deabruac infernue-tan ondatu cituen; ta an daude, ta erre-medio gabe betico egon bear dute.

Emen zure provechuraco ondo beatu, ta beguiratu bear dezu: *Nor, non, no-la*, edo cer pecatu eguin, ta gaitz andi or-regatic galduzan. I. *Nor?* Fedea esaten-digu, Aingueru aditu dituzunac galduci-rala. O nere Jaungoico guciz justua! Bada pecatuaren eriozco puzonia orrela Aingue-ru ain Santu, garbi, ta jaquintsu Ceruco doaiez beteakin atrevitu bazan, ta galdu bacituen, nola zu, Christau lurrezco on-tici argal, autsicor, ecer ez bat cerala, seguru egon al zaitezque?

II. Beguira, *non* peccatu eguin zuten. Ceruan. Jesus milla bider! Beraz, Ceruan tentacio, ta tentatzalletic etzan lecuan, Aingueruac berenez, beste gabe, pecatua-ren gaitzac onela amorratu bacituen, Ay! Gaitz onetatic nola zu libratuco cera? Erzaude, ez Ceruan; ezpada gaitz guciac berez dacarticien lur gaizto onetan; cerez aini argala cera: alde gucietatic deabru ten-tatzallez betea: orieci beren tentacioaquin beti zure ondoren dabilta: pecatuaren pe-ligru

33
sigrü gabe, ez beguitac jaso, ez pauso bat eman dezaquezula. O cer icara!

III. Aingueruac cer pecatu eguin zuten. Bat, eta bacarra, beguiac ichi idiqui baño arinago, pensamentuz bacarric. Bada bat orrequin betico galdu baciran, Ay, nere desdicha! ; Ta zure burüa, edo anima aibeste pecatu pensamentuz, itzez, obraz eguin, ta heteric dacutsula, nola arritcen, ta bildurteen etcera?

IV. Beguira, nola Jaunaren aserre andiac pecatu orrez damutceco, ta erremediatececo lecuric eman etcien. ; Eta cer? ; Aingueruai lecuric eman ez? ; Ta zu orren ardua gabe, ez ordu, ta ez instante segururic eztezula pecatuan zäude? Ay! ; Ta orain, beste asco bezala, illteen bacera?

V. Aingueruen pecatu au Jesu-Christoren odolaren contra bezala izan etzan; bada oraindic isuri etzuen. Baña zure pecatu guciac, eta bacoitza alde onetatic itzusi, ta infameago dira zügan, cenagatic Christoc bere Biotceco amorio guztiaz, bere odola atceneco tantoraño Gurütcean eman zuen. O esquer gaiztoa!

VI. Beguira ondo, pecatu ori ezquero Aingueruac nola gueratu ciran. Ay! Len Aingueru edex ciranac, guero deabru itsusi:

len Cerebõ Izar argui, guero Infernico Ille-
ti, len edertasunez janciac, guero itsustas-
nez Izugarrac. Ah! ¿Nola ote dago zure
anima pecatuan? ¿Ta begui bietaraño pe-
catuz betea? Ay! ta cein-illun, belez, it-
susi, ta nazcagarria! Orain Jaincoac, areti
beguetan dagoen bezala, zure anima era-
cutsito balizu, or bertati, naigabez, pe-
naz, ta damuz, il otza gueldituco cifiacue,

VII. Nola San Pedroe dionez; gu ba-
ño ascõz indarsuago, ta pörtitzago Ain-
gueruac izanic, alaere indar, edo que-
menie ezrute, culpa orren carga, edo tor-
mentua eramateco, ta orren pisuaz onda-
turi, ta eztanda gaizto eguiten bezala dau-
de. Bada, ay zure galdu bearra! Ay! au-
icusi, ta pecatuan bazaude! ¿Nola zure
pecatu gucién pena, ta tormentuac, ain
argal, ta ecer ez eerala, betico zure ga-
ñean eramango dituzu? Bada, erremedio-
ric eztago, edo penitencia, edo condena-
cioa.

II. CONSIDERACIOA

Gure asderagocoa degir au; Adan, ta
Eva gure Gurasoen pecatuaren ga-
ñean. Gogõra ecarri, ta pensaezazu, no-
la Jaincoac Adan, ta Eva, bere esqñeta-
co obra bezala eguin zituen, lurrez gogõ-
putce-

poteretan Anima, edo Espiritu-gueiz eder-
 rac, bere irudi, edo antzera eman zitens
 doai naturalez berè ta bere graciaz, adis-
 quide maite, justu, ta Santu eguin cituen.
 Gaitz gura, edo inclinacioac arrazolaren,
 ta araguia Espirituaren mendean, beste, do-
 lore, eritasun, gaiz, ta eriotzatic libre
 izateco, privilegio andian utci cituen. Atse-
 guin gucien Paraisuan sartu, ta ango jar-
 diñ ederren Jaun, ta Jabe Adaa eguiñ
 zuen, ta an ciran Arbola lorez, eta fruta
 gozoz beteac eman ciozcan.

Berenzat, ta ondorengo gücienzat dicha,
 ta doai oiec cituzten, baldin Jaunaren vo-
 rondatea eguñten bazuten. Orretaco Jain-
 coac esan cien: *Orra arbola, ta fruta gu-
 ciaz zuen escuetan; bat, bacarric* (Jaquin-
 tasunaren Arbola zàn) *batuari debeatut-
 cen dizut; beguira orren frutaric ez jan,
 ceren ilco ceraten.*

Orduan deabruac, gure dicha icusiric,
 ta Jaincoac aimbeste nai cigula, embidiaz,
 ta gorrotoz beteric, sugarrasta, edo su-
 gue batean figura artu zuen, Eva gure Ama
 tentateco, ta esan eion: Etedilla bildur-
 tu, ardura gabe fruta artatic jan cezala,
 ceren Jaincoa bezala izango ciran. Eva
 engañatu, ta frutari beguiratu cion; chit

zan ederra ; artu ta jan zuen. Ta ori ascq
ezpàliz bezala , Andrea berà Senarraren
tenpatzalle eguin zan ; Evac, Adan gure Ai-
tari fruta debeatua jan erazo , eta peca-
tu eguin erazo cion.

Jaincoac bereala ots eguin cion : ; *ADAN
NON CERA?* Deitu , eta beren pecatua
biai beguien aurrean ifñi cien : Paraisutic
bota , ta an sartcea aiei , ta ondorengoai
debeatu cien ; eriotzaren sententia gucién-
zat eman zuen ; ta munduan diran gaitz,
neque , ta desdicha guciac pecatu oneta-
tic datoz. Emén , gure lurrean , ta sallean
bezala , achurtu , ta ondo beatu bear de-
gu , ta gauza ascoren gañean ,

1. Gogora ecarri, pecatu au norc eguin
zuen. Escritura Sagraduan fedeac dio,
Adan gure Aitac eguin zuela, ; Au cer dá?
; Ote cera zu, edo beneric , lur gañean,
Adan baño gueiago , obeago , edo pres-
tuago? Ez. Bada Adan bera baño gueia-
go ezpacera , zure buruaz- ez fiatu. Adan
erori zan , ta Andrearen gusto , edo esana
eguiteagatic , beste gabe, sagarra jan, Jain-
coa ofenditu , ta bere anima illtzuen. Be-
guira, bada, Christau argala ; beguira, gui-
zon , edo andre orren tratu gueieguiac , ta
orren ondo esanac zoratu, ta pecatuan sar-

tuetzairzan, Igues, igues, orren aldetic, ta pe-
catuen bide gucieratic. Bestelà, galdua cera.

II. Beguira, bere animaren, ta gu-
reen calteco lan gaizto ori Adan-ec non-
eguin zuen. Paraisuan. O nere Jaincoa! Ba-
da, Jaunaren paquezco lecü eder artan, zu-
re Aita jaquinsu justua, seguru egon ez-
pazan, ¿nola egon zaitezque zu, ez Parai-
suan; ezpada infernu vici, edo mundu gal-
du onetan? Or deabruen tentacio, ta zu-
re etsairic andienac alde guztitic artcen
zaituzte; munduco gauza guciac beste
aimbeste deabru, ta tentatzalle dira, ta zu
cerori zuretzat galztoçna, Ay! ¿Nola vici
cera?

III. Beguira, gaitz andi, edo peccatu
ori certan cegoen. Beste fruta gozo guz-
ciac jateco, gure Aitac bere auqueran ceuz-
can; Jaincoac guciën Jabe emalleac beza-
la gauza bacar bat aguindu cion, ta aifñ er-
raza, nola zan, fruta debecatu bacar ar-
tatic ez jatea; ta orretan andrearen esana
eguiteagatic, Jaincoaren aguindea autsi
zuen; gusto çhar bat, sagar ori jatean, ar-
tceagatic, aifñ erraz peccatua tragatu zuen.
O! Ta cembat guizon andi jaquinsu, Jain-
coarequico prestu, ta santu ciranac, andre-
bategatic, edo itzqueta aurreregui artua-
gatic,

gatic , deabruac aĩn aĩa bide orretatic gal-
du dituen! Argatic Espiritu Santuac esaten
dizu , ardoan, ta andreen tratuan sartu et-
zaitela : „ andoac , ta andreas jaquinsua-
ere Jaincoa usa eraxotcan die. Ta herriro
esaten dizu : „ Ersugue baten encañru-
tic bezala , igues eguizu pecatuetatic „
; Eriozco suguetzar bat topatuco , bacendu,
ceiñ arin igues joango ciñaque? Bada orre-
la pecatuen bideric , beatz topa infernu-
otic igues , igues. Ta zure erremedio ba-
garra au dá.

IV. Nolaco ondorengo , cẽr calteac
mocado gozo , edo obeto esateco , samiñ
orrec munduan ecarri dituen , ta egun oro,
edo puntu oro dacartecien cere buruari gal-
de. ; Zure gaitzac non dic datoz? Pecatu
oneratic. Galde zure auzoai, echeai, caleai,
erriai, Provincia, ta Erreinoai galde ; mun-
duaren lau parteai galde ; bazter gucietan
galde : ; Gaitzac non dic zotozte? Goseac,
izurriac , alcar eciñ icusiac , leiac , peleac,
auciac , aserreac , carcelac , ospitalac , ta
criac ; sualdi , ta ugalde andiac , ta oriẽ-
tan , ta besteetan diran calteac , gorpu-
tzeco gaitz mota , ta zurequico mundua-
ren acaballa , edo eriotza , bere neque , ta
lagunaquĩn ; oiec , eta beste icusten ezdi-

ran , ta contatcen erraz ez diranae nondic-
datoz? Gure galgarriac , ; norc zacarcitè?
Fedeac erantzuten dizu: Diranae culpa or-
rec berequin dacarciela.

O gaitz gucièn ecarlea! ta gucièn bu-
ru azcarria! O ersugue izugarri pare ga-
bea! Erensugue , edo basiliscoa-gatic esan-
oïda , orrec zu icustea , asco dala , zu ill-
tceco. Baña munduan ezta sartu , ta ez-
jaio ersugueric , icusi ere gabe , artan pen-
satuaz beraz: bacarric , beste gabe , iñor-
illtceñ duenic. Bada , arrigarrizco ersugue-
illgarri ori dà berez , ta bacarric pecatua;
onetan Jaunaren Leguearen contra gauca
pisuan berariaz , ta gustoz pensatuaz , bes-
te-gabe , orrec bere tiroa egulten dù , ta
betico eriotza zure animari ematen dio.

O gaiz esan al gucia baño andiagoa!
Zazpi milla urtera dijoa , zure Amac sa-
gar orri beguiratu , ta jan , ta zure Aita-
ri jan erazo ciola. Ta orduan culpa orrez
bere buruari eman cion estocada orainche-
odola dariola dago. Ta non nai , munduan
grain jaiotcen dan humecho , edo aurrac
berequin puñalada eriozco ori bere ani-
man dacar , ta orren ondoren , Jaincoa-
ren aserrea , ta cere calte , ta gaitz guciae.
O pecatu gaiz gucièn iturria , zazpi milla

urteren buruan beti gaitza dariona!

V: Ondo beguira, pecatu eguin ezquero zure Gurasoac nola gueldiru ciran, eta atseguin ariñ ori Adan zure Aitari cer costa citzaion. Len Jaincoaren doaiez, osasun, ondasun, indar, ta virtutez janci, ta apainduric cegoena, peçatua ren puntu artatic, guciatz erantcia, ta larru gorrian bezala gueratu zán; animan itsua, ta chitezco itsusia; ta animan, ta gorputcean argal, ta lur pusca baten guisa, lurreean arrastaca, neque, icerdi, dolore, edo miñ, ta lacerien azpian, ta eriotzaren sentenciarequin.

Azquenic Adan gure Aitari gusto pisca ori costa citzaion. ¿Ta cèr? O peçatua ren icaragarrizco carga pisua! Costa citzaion, ez guchiago, ezpada bedetatci eun urte, ta guchiago penitencia, damu, neque dolozcoac, eta eriotza. Ta ay! Gurasoac nolacoac, umeac alacoac; Aita, ta Ama nolacoac, seme, ta alabac alacoac. Bacoitzac bere buruan dacus; zuc zurean, nic nerean, peçatu ori ezquero nola gueldituco guñan.

III. CONSIDERACIOA.

Judasen peçatua gogora ecarzu, ta areñ buruan peçatua ren caltea icasi, edo icusi

ezazu. Judas Jesusen compañian Aposto-
lu izan zan ; Cristoc berac autetsia , berac
deitua , berac ecarria. Milagroac eguin
eituen Cristoren , ta Ama Virginaren al-
dean : Jaincoac bialduen , edo Apostoloen
artean , orietatic bat izan zan, Jesu-Cris-
toc bere Elizaco lenen Lagunetatic bat
eguin zuen ; ta Ceruco , edo Elizaco on-
dasunen tesorero , ta gucien Jabe bezala.

Baña zori gaiztoco guizon galdu nai , edo
galdu bear onec , alzatequean falsiaric bel-
cena azquenean eguin zuen. Saltzalle bil-
lau , ta infernuco mercatariaren guisa , aiañ
erraz , ondo merque , ogeci ta amar diruga-
tic , doatic esan diteque , ta traicioz , bere-
Maisu , ta Jaberic onena , Jesu-Cristo Jain-
co , ta Guizon eguiazco maitea saldu zuen,
ta erosi seculaco infernua. O! An dago ura,
zuc aren buruan escarmentua , aren cal-
teaz , arteco ! Pecatu , ta condenacio onen
gañean ondo pensatu bear dezu.

I. Nor condenatuzan. Judas , Apos-
tolo bat. Ay nere desdichadua ! Christoren
Discipulo bat baldin badago infernuan,
¿nola bildurtcen etcera , icusiric nola vici-
ceran ? Beguira galdu etzaitean.

II. Pensatu , Judas non galdu zan. O
Jaunaren juicio ezcutatu ondo gabeac ! Je-

sus, ta bere Amaren aldean, - Apóstoluen artean. ;Bada non zu seguratu, eta gordeco cèra, baldin munduan zan, ta alzarquecen lecuric onen, echeric santuen, ta Ceruco escola artan Judas bat galdu bazarán? Zu, Judas bezala, etcera vici Jesus, ta Maria, ta alaco lagunena artean, ezpada deabruen artean, ta oiec baño ere gaiztoago diran, betico tentatzalle adisquide, eta lagun gaiztoen erdian; alde gucitic deabruac darraizquitzula; ta pecatuan bazaude, oriec gau, ta egun zure lagun dituzula; ta buruan ille baño, bear bada, demonio guciago zurequin daucatzula. ;Nola ló eguiten, nola jaten, nola eguiten dezu farra, beti orien artean zaudela? O fedearen argala!

III. Ondo pensatu, nondic Judas asizan, ta nola galdu zan; eta arquiteco dezu, onen calte gucia asi zala, ceren Jesus, ta onen Ama maiteagandic iguesca, eta alde eguiten asi zan; bai, eta aien Ceruco jolas, ta izqueta Santuaz murmuratzen ere, Jesus onaren, sermoi, ta dotrinac gauza gogorzat ceucatciela. Orrez gañera, bolsero zan, ta Jesus bere Maisuari ceterquion limosnetatic lapur charra bezala sisatcen, ta ostutcen asi zan; gauza

chi-

en quietate, lor dana, andictara pasatu zan,
ta ambesterano; non da bere Maisua saldu,
ta infernua erosi arteraño gueratu etzan.
Ah! icusearri tristea, ta ez icusteco obeat

Baña, orra nola animac gaitcen diran.
Cristau bat supitoan, edo batean ezta dea-
bru, edo aren lagun eguiten. Gueldi guel-
dica Judas asi zan, ta orobat aren laguna;
ta zu cerori orfela zaramazqui pecatuac.
Gueldiro asiaz, onetie gaitcera pasatcen
da. Ta baldin Ama Virginiaren, ta bere
Semearen, eguiazco devocioan, aien vir-
tuteai jarraitcean, epelcen, ta oztuaz ba-
zoaz; ta Ama Semeac billatu bearcean,
biac utcfaz, iguesca bazabiltza, zcertara
emango dezun? Ah! David Santuac dio-
na: Orra, *Zugandie urrutitcen diranac*
zalduco

Orraco, Jaincoaren itza, norc nai esan
dezala, horec nai iracatsi, edo iracurri de-
ozala; ori enzuteco, zure nazca, edo orti-
tasun ori; Jesusen, Ama Virginiaren, eta
Santuen mandatu gozo, edo Ceruco ins-
piracioae leetioan ondo aditu, eta medi-
tacioan ondo pensatceco maguitasun ori
er da? Asco Libruaquin santu andi eguin
erian; orrelacoac, batez ere vicio, ta in-
clinacio gaitroa, lepoa ebaqui, ta vicio
quen-

quenteen lagunteen duten Libru onetan
 iracurtceco atcerapen ori; ta letura eguiten
 bada ere; beti lasterca; presaca; itotcen
 bezala; ta soseguz artceco; zure viotcean
 sartu nai ez ori; ; cer señale da?

Ay! Ta ceñ bildur naizan; Judas-en
 lagun eguin artean; ta bera bezala galdu
 artean guertatuco etcerala; ; Orraco lur-
 reco gaurcetari zure viotzaren eransi nai it-
 su ori; ta gueiegui jan; edan; janci; ta
 apaingura; andi nai sobera ori; beste one-
 laco munduaren itsascun; ta araguiaren
 gusto zale; ta inclinacio; ta intencio billau
 oriecer dira? ; Certan azquenic emango
 dute; ezpada Judas-en guisa; zure Jain-
 coa saldu; anima galdu; ta merque; edo
 doaric deabruari ematean?

IV. Beguirá ondo; nola gure Jesus
 onaren egunic deseatuena; ta atseguinena;
 Judas-ec eguin zuen egunic; edo gauric
 illunen; ta tristeena. Jesu Cristoc gogo
 chit andiaz; ta bere Biorzeco deseo guciaz;
 paregabeco exemploac; ta ondasun guztiaç;
 bere buru; edo personan; bera dan guz-
 tia guri emateco; egun ori nai zuen; ta
 Judas mercatari; ta saltzalle gaiztoac be-
 re Ceruco Maisua etsai infernucoen atza-
 parretan entregatceco egua ori artu zuen.

Jesus

Jesus bere Apostoluen, eta Judasen
 oñetan, secular icusi alditequean humil-
 tasun, ta amorioric andienaz, ta bere be-
 gui ederretaco negarraquin, uraz Judasi
 oñac garbitcen, ta Judas falsiaz betea,
 aĩn lotsagabe, Jesusen aurrean, edo ga-
 ñean. Cer esango cion Jesus onac bere
 viotceco suspirio, ta sentimentuaquin. Ay!
 ;Norc esan, edo pensa al dezaque, Ja-
 incoac berac baicic?

Jesus maitea bere atceneco afari artan,
 ondasun gucien Ceruco erregaloric gozoe-
 na, ta bere Viotceco amoriozco Sacra-
 mentu Santu, edo Comunion bere Got-
 putza ematen; eta Judas, esan oi dana,
 ausardia aĩn andiaz, infernuco otso eguin,
 ta Ceruco Arcumea iristen, edo tragatcen,
 ta bocaduaz batean Satanas bere animan
 sartcen. Ay nere Jesus maitea! ;Ta cem-
 bat lagun bera bezalacoac Judasec beren
 ondoren ote ditu? ;Ta cembait bera baño
 gaiztoago, orain egun ascotan Ceruco
 Mai orretan gaizqui comulgatcen diranac?
 ;Ta cembait Judasen guisa, pecatu bacoit-
 zaz, aĩn erraz, edo aisa Jesu-Cristo sal-
 du, ta infernuco leize zuloetan Judasen
 oĩn pean betico daudenac?

Azqueñic equiera, edo Exercicio oner-
 tan

tan Aita San Ignacioc berago zu jehitcea,
 ta ondatceanai zuen. Jachi zaitetz bada con-
 sideracioaz infernuraño viciric ara guero
 jachi etzaitecen illic. Beguir a ondo, dio
 Santuac, pecatu bacar bategatic infernuan
 cembat dauden. O Jaunaren juicio estu, ta
 ezcutatuac! Zu baño culpa guchiagore-
 quin ; cembat ote daude betico? O! Ta cem-
 bar Jaungoico maite, ta Aita misericordiaz
 bete oni zor diozun! Lenengo pecatua
 eguin cenduenean, azen justiciac bereala
 vicia quendu balizu, ; cembat dembora,
 edo urte da, infernuc zori gaitzoco auzo
 izango ciñala? An daudenat penitencia
 eguiteco lecuric eman eteien ; zuri bai. O
 misericordia! O dicha!
 ; Ta cer? ; Itceeo, ta bertan condenatce-
 co zorian zaudela, orain dañocoa bear de-
 zu izan? Ez, ez ; nere anima ; ez orrela-
 coric. Penitencia, penitencia ; viciera al-
 datu, vici modu berria artu, oitura ber-
 tiac, viciera santua. Condenatual eman ez-
 tien leeu, ta dembora, niri Jaincoac be-
 re graziaz emandit ; onez baliatu naidet,
 ta bereala ; ez gueroco utci. Gueric izan-
 go dedan eztaquit. Orain, Jauna, beardet,
 eta naidet, viciera berria, nere saluaie-
 tobidea ; zu beti amateco. Amen.

SENGIBIL **BIGARREN PUNTUA**

PECATUA CER DAN ; IRU ALDE-
tarata eracustenda.

Gatzie andien au cer dan ; zuri nola bast
noladierazotceco, orren itsustasun guciaren
ofiru antz ; edo semejanza zure beguien
enaurrean ipifico ditugu ; ta dira iru Con-
sideracio oioc.

- I. Nola pecatua ; munduan aldateque-
an traicioric billau , ta itsusiena dan.
- II. Nola pecatua ; munduan aldatequean
adulterioric lotsagartien , ta itsusiena dan.
- III. Nola munduan aldatequean esquer
gaxto belscen , ta itsusiena pecatua dan.

LENENGO CONSIDERACIOA.

Pensaezazu ; nola Cristau batec bere
Jaincoaren contra jaiqui ; edo biuru-
tu ; ta eguin aldezaquean traicioric dollor-
ren ; ta itsusiena ; pecatua dan. Au zuc
ondo aditeco ; contu eguizu ; zuc ; eta
beste ascoc servitcen dezutela Erregue bat
munduco prestuen ; aberatsen ; ta ugarie-
na irazuen Jabe maite oni ; Gaxtelu bat
berac chit asco estimatcen duena irabaza-

G ten,

ten, neque andiaz, ta lefaltasun' andiagooz
gucioe laguntcen diozutela.

Gaztelu ori irabaci, ta Jaun andi orren,
bere emanaitasuna eracusteco, anche
guztien artean zu artcen zaitu, ta bere es-
cuz zu armatu, ta Zaldun, ta Gaztelu
orren Gobernari icentatcen, ta eguiten
zaituela; orretaraco bear diran guciac, edo
ondo gordetceco bear dan guztia zurieman,
ta esaten dizula: Ea, mundu guciaren aur-
rean onela honratcen zaitur; nere izerdi
asco costaricaco joia, edo Gaztelu estimia-
tu au ondo gorde. Zu onela utci, ta bes-
te Gazteluac irabaztera Jaun ori joaten da.

Baldin onelaco honra, ta favoreac zu-
re Erregue orregandic artu, ta burua gi-
ratu orduco oriez aztu, ta zure arma, ta
aleguin guciaquin, zure Jaun, ta Jabe pres-
tu orren contra jaqui, ta biurtuco baci-
ña; ta berari jarraitu, ta perseguitu, achis-
tu, ta bere Coroa, burua, ta vicia zure
escuz quenduco baciño, cer esango litza-
que zugatic, edo onelaco traicioa eguiten
luqueanagatic? Ori eztala guizona, ezpa-
da infernaco deabruren bat, edo deabru
guciac baño gaiztoago.

Orren contra guciac, ta zu cerori or-
relacoaren contra arrazoiz aserratu, ta
biur-

99

Bartucio cñaque. Ondo. Bada orain , pe-
 cataria, zure contra fedeaz , ta arrazoi an-
 diagoaz biur zaite. ; Gaztelu ori nor , edo
 cer da? Zure anima. ; Erregue ori nor dá;
 Jesu Cristo secula gucietaco Jaun , ta Ja-
 be bacatra. Onec , ez bacarric bere ier-
 dien , baita ere bere odol guciaren cos-
 tuan zure animaren Gaztelua irabaci , ta
 Cerura joan zán. Andic ;cer favore , cer
 honra , cer gracia , ta doaiac ez dizquitzu
 entan? Zure animaren Governari eguin,
 ta ori etsaictatic obeto gordetceco , ;cer
 mirariac , cer Sacramentuac? bere Ama
 guciz Santa , zure Amatzar , bere Elciza,
 zure Echetzat, bere Ainguetuac , zure zai,
 Confesore , ta Maisuac laguntzat , ta
 beste onelaco asco eguin dizquitzu.

Ta orien paguan zue ;cer eguin dezun
 O Ceruac! O lurra! ;Burua giratu ordu-
 co , arraizoi gabe , ecer ezegatic , ezpada
 zure nai utsa , ;cembat bider zure Erre-
 gueric justuenaren contra jaiqui , ta biur-
 tu cera? Ay! Pecatu eguin dezun bacoit-
 tcean. Zure viotzean demonio , mundo,
 edo araguiari peccaturaco lecu eman dio-
 zun gucian zure Jaungoico guciz Aldu-
 edo Omnipotentearen contra biuru co-
 ta : Zure escua jaso , ta Jesus-ona , Jain-

900

coaren Semea oñ pean , edo osticoca erabilli , Gurutcean berriro josi , ta zure aldetic illdezu. *Iob. 15. Hebr. 6. Hebr. 10.*
O traicio' esan al gucia baño infame , ta andiagoa !

¿Ta ori , pecatu eguitean, Jauna , ta ori nic , ta zure contra eguinder? Ay nere desdichadua! Ay! ¿Ta non zan nere fedea? ¿Nola damuz , ta penaz illtzen ez naiz? Ez , ez , nere Jesus maitea , guciago pecaturic. Zure ontasun andiagatic damudet zu ofendituaz : Ill , zu ofenditu baño lenago , zurequin beti vicitceco. Amen.

BIGARREN CONSIDERACIOA.

DA pensatcea, nola Cristaú-batec eguiti al dezaquean adulterioric lotsagarren , ta itsusiena dán pecatua. Au ondo ezagutceco , contu eguizu , Erregue gai , edo Principe gazte santu , jaquinsu , pres-ta , eder , ta mundueo aberatsena , zure zuzoco donçella pobrecho batez pagatcen dala , ta ez bestegatic , ezpada ceren etorqui , edo casta garbico , odol onteoa dán , eta ezcontzaz bere Esposa , edo Emazte-zat artcen duela. Erreguina bati dagozqui-on Jauregui , apaingarri , ondasun , ta Corte bateco aralde , edo comitiva , ta bear di-

ran gauza guclaquín utci , ta Erregue ori
Indietara joaten dà , ta dembora guchiren
buruan India gucien Jabe arquitcen dala.

An bere emazte Erreguiñaz oroitu , ta
bercala Oncidi andi , edo flota , galeóiac
prestatu , ondasun , cillar , urre , ta joiaz,
munduco galarie ederrenaz beteric bialtzen
dizcala : Carta guciz gozo , cariñoz , ta
viotceco naieraz beteac , bere berri on gu-
cien contu ematen diola , ta laster bera ere,
edo en persona, Erreguiña berequin erama-
tera , etorrico zaiola.

Baldin Erregue , edo Senar maite onela-
coaren finezac , ta amorioa icusi , ta Espos-
sa , edo andre ori , ceren bere menpeco
esclavo billau , itsusi , doacabe , elbarritu
batequin gazte limuritu , edo amancebatu,
ta zoraturic dagoen , ta orrequin adulte-
rio , ta infamian egoteco , bere Esposo fi-
ñaz aztu , ta oni falsia gueiago eguiteco,
onec bialduricaco soñeco , gala , ta joiac ar-
tu , edertu , ta apainduco baliz , ¿eer esan-
go luque munduac , ta zuc cerorrec ? Ori?
Eztala andrea , ezpada deabruren bat , an-
dre guztien gaitzcarra , edo escandalo lo-
tsagarria , ta deabruai bere burua emana,
Guciac aren contra , ta arrazoï andiare-
quin , izangoliraque.

Orain

Orain bada arrazo; andiagoaz zure contra biur zaite. ; Esposo ori nor dà? Jesus mundu gucico Erregue, ta Jabea, anima garbiën Esposo maitea. ; Ta doncellà pobre ori nor dà? Zure anima. Au zu jaio-ciñanean, guztiz pobre, apaingarri gabe cegoen; baña etorqui, edo casta onecoa, Jaincoac berac, eta bere antcera eguiña. Ceruco Erregue Jesus zure animaz enamoratu, ta bateatu ciñan orduan bere viotceco Esposa eguin cinduen, ta Erreguiña bezala bere Eleizaco Jaureguian sartu, bere Ama zure amatzat, Aingueruac lagunzat, ta orrelaco beste ondasun asco, daquizun bezala eman dizquitzu.

Bere Ceruco Indietara Esposo ori joan, edo igo zan; An gloriaco ondasun, ta gracia guciën Jabe dá. ; Cer doalezco flota galeóiac andic bialdu ez dizquitzu? ; Cèr Sacramentu, cèr gracia zure anima edertu, ta apaintceco? ; Cer Ceruco carta, mandatu gozo, ta cariñozco goraintciac? Nola zu àn icusteco, miñez bezala, dagoen, ta zu àn berequin nai zañtuen: Laster, bera zure erjortzaco orduan zure billa, zure deiez, bere gloriara, Ceruco Erreguiña bezala zue eramatera, pocic etorrigo dan. O dicha pare gabea!

Ta

¿Ta' orien gucién paguan zue cér eguin dezu? Ay! Pecatu eguin dezun bacoitcean, edocein gauzagatic, ecer ezegatic, arrazoi gabe, ceren gogoac alá eman dizun; ¿cembat bíder Esposoric ederren, santuen, maiteenaz aztu, utci, ta orren doaiáz be- ra ofenditceco baliaru cera? ; Baña cér, edo norgatic? O fedearen falta guztizcoa! ; Zure Esposo, guizasemeen artean ederrena, ceñean íspillu batean bezala Aingueruac beguiratu naiduten ori utci? ; Norgatic? Ay! Demonio, edo Belcebugatic; ceñac culien Jaincoa esan naiduen! Deabrúai zure anima mempeco, edo esclava betico emateagatic! Bada pecatu bacoitza eguitean demonio, edo Belcebu- requin ezcontcen cera. O ezcontza! O adulterio! O trucada zori gaiztocoa!

IRUGARREN CONSIDERACIOA.

AU izango dá, ondo pensatcea, Cris- tau batec eguin aldezaquean esquet beltz, ingratituderic icaragarrien, ta itsu- siena, dála pecatua. Ori nola dan ezagu- tceco, contu eguin beardezu, zure errían; ta plazaren erdian gulzon bat dacutsula chit lastimagarria; oni beguñac, ta arpe- guia, escu, ta besoac, oñac, eta zancoac, bere

bere vician icusi eztan bezalaco min vicl
batec erre, ta deseguin dizcala. ; Ger icus
ten zaude? Guizonaren anticic eztuen do
lozecco erretrato bat.

Ala bearrez, edo Jaincoac nai, ta an
bertan Medicu bat aguertcen dà, guciz ja
quinsu, cintzoa, chit onguille, edo on
guiroa. Eri ori icusi, ta erruquitcen dà, ta
ori sendatceco bere zañetaco odol pusca
bat bereala atera, ta contra pozoi edo tri
aca bat eguitendu, aifñ indarsu miragarria,
non alderatu, ta eriarri arrimatu orduco,
ematen dizcan begui, ta arpegui munduan
icusi diran ederrenac, guztitaco gai diran
escu, ta besoac, oifñ, ta zancoric sen
doen, ta pijoenac; guizon lèn eri triste
zán ori, orain mirariz sendaturic arqui
tten dà.

Bere burua orrela icusi, ta bere ongai
lle Medicuac emandion belaun gozoare
quin jaiquico baliz; berac emanico be
guiaz beguiratcen balio; ta Ceruco Aingue
ru bati bezala, belaunico, ta viotz guz
titic ari esquerrie asco eman beargean, Me
dicuac puntuan eman dizcan escu oriequin
puñal bat artu, ta gorrotoric amorratuen
arequin, jarraitu, itsequi, ta puñaladaz,
josi, viotza erdiratu, ta illico balu Medicu
ori,

ori, acer esango luque edocelñec, zuc,
eta guztia? Diranac arritu, ta zurtuco li-
raque; itz, edo corde gabe gueratuco ci-
ñaque, ta esango cenduque.

Ori eztala guizona, ezpada deabruren-
bat, edo deabru guztia baño gaiztoago;
infernuco guztia berequin dituena. Aren-
otsai, arena contra guztio; ta arrazoi an-
diaz, ceren alaco pagua secular icusi ez-
tan, esquer beltza bere Onguilleari biurtea-
dion. Bada orain aserre guciaz, ta arra-
zoi cabu gabe andiagaz zure contra biur-
zaita.

; Eri miñ viciaz usteldu, ta galduricaco
ori nor dá? Zure anima tristea. Jaio ci-
ñanean, jatorrizco pecatu, edo origina-
laz gucia usteldua, edo illa cegoen: Jain-
coa ezagutceco fedearen begui gabe, itsua;
escu gabe, edo obra onac eguiteco main-
coa; oñic gabe Ceruco bidean pauso bat
emateco, Jaincoari jarraitceco, ecertaco
gai etzala.

; Ta Medicu ori nor dá? Jesus, Ceruco
Medicu, ta erremedio bacarra, Cerutic gu-
sendatcera jachi zana. Onèc bere viorza gu-
re gaitzaz bigunduric, Sacramentuetan, be-
re odol guciaz, ta orren merecimentuz,
Ceruco triaca, ta contra pozoia eguin zuen.

Ba-


Bateatu cññanēan , bere graclaz argüia eman cizun , fedearen begüiaz Jaincoa ezagutceco ; escuac , espíritu , edo quemena obra onac eguiteco ; oñac , pauso onaquín berari jarraitceco ; zure Anima , Aingueruen urrengo , almen , edo potentiaz , espíritu , ta gorputceco sentiduaquin apaindu cinduen. Oíec , eta beste onelaco on asco , batzuec jaquiñac , besteac zuc jaquin , ta ezagutu gabeco doai andi asco , eman dizquitzu.

¿Ta oriēn paguan zuc cēr egüin dezú ? O esquer gaizto , ingrátituderic beltcen , ta itsusiena ! ¿ Oriēz baliatu , ta zure Jaincoa servitu bearrean , cembat bider zure Onguille bazar Santuaren contra biurtu cera ? Pecatu egüin dezun gücian. Demonio , mundu , edo aragüari gaitceraco zure viotcean lecu emate gücian , Jesus maiteari bere viotza puñaladaz jositceco , oriez baliatu cera. ¿Cembat bider begüi oriez , escuaz , oñaz , mingañaz , viotzaz , gorputz , ta anima , Jaincoac bera servitceco eman cizun , güclaz , Ceruaren aurrean , ta beraren begüietan , lotsa gabe , bera ofenditceco , baliatu cera ?

Argatic pecatua , güizon bat ilcea , senide , Aita , edo Ama berea iltea baño gücia-

gueiago , edo gaiztoago dá ; ceren Jesu
Christo Jaungoico , ta guizon eguiazcoa,
Jaíncoaren Seme baçarra Gurutcean josi,
ta berriro illtcea dan. O Cerua! O lurra!
Seculaco arri zaitezte.

O nere Jesus maite viotcecca ! O nere
re Aita , ta Aitaric onen , Jaungoico
gutziz ona ! ; Ta niç ori eguindet ? Ay
nere itsua ! Ay nere zoro galdua ! Zu nere
re Salvadore , ta nere Jauna , Gurut-
cean josi , ta illic icusi arteraño , etzan
erraz ; pecatua cër dan ezagutcea. Baña,
azquenic Gurutce orretan ; nore Zuri vi-
cia quendu cizun ? Ay ! Ay ! ; Norc,
ezpada pecatuac ? Nere pecatuac. O Su-
guina , edo dragoi infernuçoa ! O eren-
sugue , edo fiera odolguiro nere Jesus
maiteari vicia quendu ciona !



IRUGARREN PUNTUA.

IRU ARRAZOI PECATUAREN
gorrotoraco diranac.

Jaincoac bere escutic bezala, nola gauza guztiac bere jaquintasunaz, beren neurri, pisu, ta numero, edo contuaz maneratu dituen. *Sap. 11.* Ala Cristau peccatoriac, pecatu eguitean, bere aldetic manerá on gucia urratcen, ta deseguitendu, iru consideracio oietan icusico dezun bezala; ortic zure viotz guztico, ta betico pecatuaren contraco gorrotoa ateratceco.

- I. *Jaincoaren aurrean, zure pecatuas conta alditequean gucia baño gueiago dira.*
- II. *Neurri alditequean gucia baño luceago dira.*
- III. *Pisa alditequean gucia baño pisuago dira.*

LENENGO CONSIDERACIOA.

ZUre pecatuen contu, edo númeroa. Au icusi, ta arritceco, ezta besteric bear, ezpada zure bacarren, ta Jau-naren aurrean, zure concienciaco Librua

artcea , ta ondo beguiratcea. Soseguz , bada , edo gueldi gueldi zoaz Amar Aguinte , edo Maudamentu santuen ispilluan cere buruari beguiratu , ta galdetuaz.

Nere anima , beguira , cembat culpa obraz , itzez , pensamentu , edo gozoz eguin dituzun Jaunaren vorondate , ta Legue-aren contra : Eleizac aguintcen dituen ; ta zure viciera , edo estaduac esateen dituen obligacioen contra ; ta zazpi eriozco pecatu , edo vicioen gafean. ¿Cembat culpa eguindeco , edo comisioco esateñ diranac? ¿Cembat utsundeco , edo omisioco esan oi diranac? ¿Cembat eguin , ta utseguin , cembat ardura gabe , oareabe , naguitasunez bear zana utciatz , bear erzana eguñiaz?

II. ¿Cembat pecatu gatzetasun-ecoac , orduco zoraquerietan berariaz eguñiac? Orien artean , ¿cembat ezagutuac , ta cembat ezagun-quizunac , beñere ezagutu gabe , jaquin bearrac , ta jaquinezac? ¿Cembat zure , edo cerotren pecatuac , ta cembat besterenac , guztia zure gafeño , edo zure contracoac , edo itz , ta exemplo gaiztoaquin besteri zue eraguñiac , ajola cabe zure umeañ aisa , nola nai vicitcen utciatz , Jaincoac zure contura eman , da daucazun familia ,
edo

edo echecoal , dotrinaren gañean , oitura onetan, Jaunaren bildurrean azitceco, beardan conturic artu gabez? ;Cembat zure viciera lasai , alper orretan? ;Cembat onelaco , ta cembat bestelaco? ;Contu , edo numeric bada? O cer trancea! O cer contua , ta cein chea! O cer juicio estua!

Ay Cristau pecatuetan nasturic , ta aña aisa orien contu izugarriaz azturic vici cerana! Ay orain pecatuac orren erraz, ur gozoa be ala edaten zaudena , edo tragatcen dituzuna, Job Santuac ciona! (*Job 15*) Ay, alde gucitic oriec biribillatcen orain aleguere zabiltzana! Ay, nola David penitenteac diona , zure pecatuaquin guertatuco zatzun! (*Psal. 17.*) Ibai, edo ujola andi baten guisa arazotuco zaituztela. Contu, edo numeric eztute, ta arrituric orduan , cefe burua ecin icusi dezula, pecatuen erdian ondaturic arquituco cera! Zure buruco illea baño gueiago dirala icusi, ta corde gabe gueldituco cera. (*Psal. 39.*)

Ah! ;Zure betico culpac cembat ote dira? Jaincoaren beguietan, ichasoco ondar aleac baño gueiago. ;Ta cer? Au ezta zure anima seculaco galtcea? Beguira ondo: Ez arren pecatua pecatuaren gañean eguin; contu ori ez aurrera eraman , ez gueiagotu

tu, dío Espiritu Santuac. (*Eccle. 5.*) Nola zure viciaren urte, egun, ta orduac Jau-nac contaturic dauzcan, alá zure pecatuac; oiec bata besteari darraizca; pecatu batac bestea dacar. Gueiago eguiten badezu, urrengoa atcenecoa izango ote dan, eztaquizu. Izan diteque. ¿Pecatu mortal batequin, dituzunaz gañera; conde-natucico ote cera?

¿Ta, bildur, ta quezca orien artean orrela vicitceari, ondo deritzu? Ez, ez, Cristau batean vici modua aú ezta. Penitencia, ta viciera berria nai det. Ne Jesus maitearen deia aditu naiagodet: «Ez pecatu gueiago eguin, (*Ioan. 8.*) Ez gueiago, Jauna, ez guelago. Sobra, ta gueic-gui orain daño ofenditu zaitut. Gucien damuaz, penitencia eguiazcoa. Erremedio bacarra; ceña dan penitencia, propositua, confesioa, vici modu berria zure gracion, Amen.

BIGARREN CONSIDERACIOA.

ZUre pecatuen neurria. Pensazazu, non la pecatu bacoitza dana dala, gaitz bat aín lucea, ta aín zabala dan, non calburic, eta neurriric eztuen. Gaitz bat berrez erremedioric eztuena, ta gaitz bat, in-fer-

fernuco pozoia bezala , lecu gucietan banatu , ta zabaldu dana ; ta peccatariac ascotan beren vorondatez , beste gabe , ezpada ceren naiduten ; guciago luzatcendutena. Zure fedea vicierazo , ta consideracioaz infernico izurri onen arrastoi jarrai zaiczu , ta noraino igo , sartu , ta erri-sugue onen pozoia zabaldu dan, ondo icutsu.

I. Cerura igo zaite , ta fedez icusi ezazu , nola Aingueruen irugarren partea, edo ecin contatu ala Aingueru , Espiritu, goien eder aiec peccatuaren pozoia onco zoratatu , bere lecuetic aterà, atrastatu , ta infernuan seculaco ondatu cituen. Au goicneco tiro, ta lenengo caltea dà. Beguira ondo, cernbat urrezco Jarlecu, edo diamantez apainduricaco Silla Ceruan utsic puntu artan gueratu ciran. Ta galdetcen badezus orietan jarri, ta egon bear zutenac, non dira? Fedec eranzuten dizu: Peccatuaren izurriac galdu , ta condenatu cituela.

II. Cerutic jachizaitc Jaincoaren Paradisu , edo atseguinen lecu eder artara: jabe gabe , utsic , ta bacarra arquituco dèzu. Ta galdetcen badezu : ;Cer da au , edo Paradisu au norenzat zan? Fedec dio: Zure Gurasoenzat , ta zuretzaz zala. ;Bada utsic nola dago? Ceren peccatuaren pozoia

sartu, ta fruta debecatuaz izurrituaz beza-
 la Adan, da Eva, ta guztioac andic be-
 tico bota guinduzten. Ay cer calte luce,
 ta zabal neurri gabeac bocadu onec gu-
 cientzat ecarri cituen! Izurri onen arras-
 toac dira, egungo eguneraño lurrean icus-
 ten diran gaitz, ta calte neurri, ta cabu
 gabeco guztiaç. Emendic, munduan lenena
 jaiozan guizon Cain zori gaiztoco aren vic-
 tza arrastatu galdua, ta aren codenacioa,
 Ori ezquero beguira, pozoï au nola
 munda zabalean bereala banatu zan; ta
 zoric anima bacarrac ezpazan, lurtean ci-
 ran beste guztiaç; ujola guztizco; edo di-
 lubio icaragarri artan, ondatu cituen; Au-
 reraço zoaz, eta beguira; nola Sodoma,
 ta Gomorraco bost erri guciz andiaç, ecin
 contatu alaco anima, edo gendez beteac,
 esan ecin ditequean pecatu itsusiaç, beguiaç
 ichi idiqui batean; eiranac erre; ta infer-
 nuco icatz bfurtu cituen. O Jaumaren ju-
 cioac! Ta dembora, ta lecu gucietan, er-
 riz erri, echez eche, beti onela dabil,
 leoi baten guisa, nondic inor traga deza-
 quean, ta pozoï onequin, pecatuaz al-
 duen calte gucia eguiten.

Berago lurretic infernu zabalera jachi
 zaitc, ta beguira, gaitz au, bere su, ta

gar aserre guciaquin nola an banatcen dan.
 Beguira , cembat espiritu , edo Aingueru
 pecatu bategatic an dauzcan : cembat ani-
 ma carcela illun , edo ciega artara eramán,
 ta emen goi zale ciranac , nola azpiratu,
 ta betico ondatu dituen : cein luce , ta
 cein zabal , betico iraupenaz lecu andi ar-
 tan gaitz ori eguiten dan ; ta infernucó leoi
 onen eztarri zabalac nola anima galduac
 tragatcen dituen.

Orien zori gaitzoco lagun naizu (zuc
 izan). Oriec len bezala zu orain pozoi au
 edan, da edaten aisa aisa vici cera. Be-
 guira : trago batequin gaitz orrec ascó ito
 cituen. Tragocho ascó , ta guciegui zuc
 edan dituzu. Beguira , urrengo trago , edo
 pecatua azquena izan eztedin. ¿ Cer da au,
 anima nerea? Ez , ez , nere Jaun, eta Jaun-
 goico maitea! Libra nazazu , ta Zure gra-
 ciaz libratu naidet gaitz izugarri onetatic.
 Eguiaz zugana biurtu naidet, Jauna. Ea ba-
 da , penitencia , nere anima , penitencia; pe-
 datatic seculaco libratu ; ta zure Jaincoa
 vitorz guciaz amatu , ta beti servitu Amen.

IRUGARREN CONSIDERACIOA.

MUnduā dan gauzaric sendoena Eguia
 da : ta munduan dan gauzaric pi-

subma peccatua dà: Diurzaitez bada, nère
 anima, zure viotzaren barren barrehera,
 orozure, bacárrean, fedearen arguian, ta
 Jaunaren balanzan eguia sendo, au ondo
 pisatceco, ta orren carga pisutic zure bu-
 ruzo libratu, ta arintceco.
 -ni Peccatua dà cargaric pisuena, ta pisatu
 alguciac! baño gaitz andiago, ta pisua-
 goac Jangoicoaten aldetic, peccatuaren al-
 detic, peccatariaren, ta deabruaren aldetic,
 sñha Jaincoaten aldetic beguiratu, ta pi-
 suric arquitcen ezta, pisatceco, ta jaqui-
 teco, peccatua ceter dan. Ez ala fedé: Jur-
 rean vici guetan artean ecin dateque, pé-
 catua, berez dan bezala, ceter dan, inorc
 eticozagutcea: pisu guciac orren cargac
 urratcen, ta deseguiten ditu; ceteri Jaun-
 goicoo guciac on, justu, santuaren contra-
 co ofensa, bide gabe, edo aldatequean in-
 juriaric habarbenen, ta pisuena dan. Ay
 nere Jaun andia!
 in Nore, zuri beguiratu, ta pensa, edo
 pisa aldezaque, zure Santutasun, ta on-
 tasan guciaren contraco peccatu, edo gaitz
 icatagarri au? Ah! Ecin, Jauna, ecin gui-
 zon argal itsuac, bear bezala, pisadezaque,
 zure ontasuna, ta peccatuaren gaiztotasu-
 na, biac ondo ezagutu gabe. Ta, Jauna,
 -nis H 2 Zu

¿Zu nor ; edo cër cërã ; ta peccatua cër dá?
 Ay ! Eztaquit cër esan.

II. Pecatiaren aldetic beguiratu , ta nore pisadezaque peccatua? ¿Cristau peccataria , zu cër cera ? Lur pusca bat gorputz corretan , auts loi utsa , desdicha , ta gaitz gucien onsi bat ; arrastacaco , oiñ peccar cital bat ; Jaincoarē aldean elcho baten zancoa adina eteerana . Animari berriz ecer ez bat , utsa baño guchiago , ta peccatugatic ascoc gaiztoaga .
 ¿Ta zu munduco aizez betè , ta zu grina galduaz anditu , ta zu soberbiaz aizatu , ta zu , Jangoicoa bera adina , edo bera baño gueiago , ta andiago baciña bezala , lotsa bildur , ta errespeto on guciac aztu ; ta zure Criadore , Jabea , ta Aita guztice onaren contra zure escua jasotcera atrevitcen cera ? Pecatu eguitcan ; sugue , edo cirau infernuco baten guisa , Ceruetaco Jaun andiaren contra , aleguin guciac biurtcen , ta armatcen cera . Ah infamea !

III. Pecatuaren aldetic , edo gaitz on berari beguiratu , ¿ta cër gauza pisuagoric ; peccatua baño ? Pecatuen carga aiñ izugarria dá , non bacoitzac legue on guciac azpiratcen dituen , cinzoide , edo sinderesis guciaren contra jarri , ta guizonac berez duen arrazoi ta argui gucia illundu , ta deseguiten du .
 ¿Cër desdicho andiagoric ? Jain-

100 Jaincoac bere antcera, ta imagina eguin,
 ta ainsteste doai, gracia, ta virtute, gor-
 putz, ta animan eman bacizun ere; edo-
 delin culpa, edo Jaunaren ofensari zure
 viotz, edo animan ostaru, edo lecu ematen,
Ay! Zure osasun, ondasun, edertasun, indar,
 ta beste doaiatz, zure cargaric pisuena egui-
 ten dezu: Ta Jaincoaren Legue, ta vo-
 rondatea ausi, eta deseguiteco, ta bera
 ofenditceco, zure indar gucia artcen dezu,
Ay nere Jaungoico ona, ta maitea! Zora-
 queria itsu au cer da? **Ay!** Onelaco lanic
 eguin baño lenago milla bider ill baninz!

IV. Deabruaren aldetic pecatuai begui-
 ra zaiezu, ta orien carga ta cabu ga-
 beco indar pisua icusico dezu. Pecatu ba-
 tac bestea oi dacan, ta batetic bestera erra-
 zago da bidea. Emendic, sentitu, edo
 uste gabe oitura eguiten da, ta pecatuac
 luzatcea, bertiz eta berriro erortcea; eta
 onela pecatuen azpirago beti sartcea, ta
 ondatcea. Ortic deabruac, aisa, eta nai
 bezala, bere amarra, catea, edo grillu gu-
 ciz pisuac eguin, ta beretzat animac lotu,
 ta berico segurutzen ditu.

Contu eguizu, peccataria, zure pecatu
 bacoitcean, ifernueo grillu, edo catea
 baton azpian sartcea zaituela, infernuraño

macurtu; ta zure anima an ondatceco;
 ta etsaiac oriela peccataria, engañatcen; ta
 bere betico esclavo eguitendu. Ay anima
 tristea!; Cer vici modu galgarri dacartzu?
 Cer trucada eguin dezu? Jaincoaren viot-
 ceco hume maite izan bearrean, pecatu ba-
 tegatic deabruen esclavo billau eguiten ceral

Azquenic pecatuen ispillu illun orreta-
 tic; zure fede guztiaz zure erremedio ba-
 carrera biur zaitez. Zoaz, igo zaite salva-
 cioco Mendi santura, Calvarioco mendi-
 ra zoaz; beguiac jaso; ta Ceruco Libru
 alde guctic idiqui bat an icusico dezu; au
 dà zure Jesus maitea, Gurutcean josia, ta
 Ceruco Maisua bezala, andic zuri eracus-
 ten dagoquizuna. Libru onetan zure pe-
 catuen contra, edo cembatezcoa icasi, ta
 jaquingo dezu ondo, cein neurrigabe, cein
 pisu andico cargac diran; bada Jaincoaren
 Semea bera ala azpiratu, ta guisa artan utci
 zuten Gurutcean illic,

Beguiria zaiozu ondo, ondo vici, ta
 salvatu nai badezu. Libru idiqui, barren-
 dic, eta campotic amoriozco, ta dolozco
 letraquin escribitu onetan zure vici guz-
 tico Exercicio, ta Meditacio bearren, ta
 gozoen gucien gaia, ta eguiazco vicitza-
 ren exemplo, dotrina, ta leccioac emen
 ditu-

Aituzu: Beguira Jesus maitearen vici moduari, zurea zucentceco; beguira onen pena, ta tormentuati, pecaruetatic zu libratceco. Beguira beti Jesus onaren erioztari, orren Viotzean zuc erioztza on bat seguratceco.

**COLOQUIO, EDO ATGENECO ITZ-
queta.**

O Nere salvadore maitea! Oranche, Jauna, Zuri beguiratu, ta oranche dacust ondo, pecatuen galtza cër, nola-coa, ta cëñ andia dän, Oranche, secular ez bezala Zure vicitza, ta Zure erioztaren Libru onetan icustendet, nere culpac cëñ neurri, edo contu gabe, ta cëñ pisuac diran. Ay nere Jaun maite bacarra! Norc aú esan cezaquean: ;Zu, nere eguiazco vicia, orrela illic icusi bearra? ;Norc aú pensatu, edo sinistu cezaquean!

Etzan erraz, Jauna, ez; munduan jaio danec ecin ezagu cezaquean ondo, Jaincoaren contraco ofensa bat cër dan, Zu Gurutce orretan josiric icusi artean. Baña gueroenean; ;norc Jaincoaren Semeari, norc nere Erredentore maitea, Zuri vicia quendu etzun? ;Norc Gurutce orretan josi, ta nere Vicitza illtzen? Ay nere desdicha! ;Norc, ezipada nere pecatuac? Ay

Ay nere anima arritu!, ta pecatuaz sof-
tua!; Arriac baño ere gogorrigo eguin, ta
nolà zaude orrela?; Nolà zure biotza, ara-
guizcoa bada, erdiratcen, edo biguntcen ezta
bada zugatic Jesus ill zanean, arriac berac
puscatu ciran? Ah!; Zure fedea non dà? Zure
esquer ona, zure Jesusen amorioa? Jaun aù
zugatic illic icusi, ta orren amorez, ta zure
pecatuen damuz, ta dolorez ez zu iltceco?

Ay nere animaren vicitza, Jesus guztiz
ona! Nere Salvadore, nere pecatuac gatic
aimbeste penarequin illa! Emen nator gue-
rocre zugana. Beranduegui badaere, ne-
re pecatuen damuz, ta lotsaz beteric zu-
re oñetara biurtcen naiz. Zu icusi, ta icas-
ten, ta ezagutcendet, nolà Zure vicico pau-
soac, nequeac, icerdiac, aleguiñaç: Zure
Pasioco dolore, pena, ta tormentuac Zu-
re amorioac nere culpacgatic artu cituen,
Zure contraco borrero gogorrac nere pe-
catuac izan ciran: oiec beren soça, ta ca-
teaz lotu, ta eramán cinduzten: oiec azota-
tu, aranzaz coroatu, oiec gurutcean josi;
ta vicia quendu cizuen.

Nere pecatuac, Jauna, Getsemanico Zu-
re Oracioan Zure Biotz gozoa preña ain
estuan sartu zutenac: Oiec alaco antisia,
ta neque ain icaragarria, non Zure amo-

rez.

rezco indar gucia odólezco icerdi ugari
batean deseguin zàn. Nere pecatuen car-
ga ain pisuac lurrera bota erazo , ta guru-
tcearen azpian erori ciñan.

Ay anima galdua , zure Biotz amorosoac
esango ciran orduan! „O nere anima es-
„tímatu maitea ! O ceñ garesti nere ani-
„mari costatcen zaion zurea infernutic
„atera , ta salvatcea ! O zure pecatuen
„carga ceñ pisua dãn , bada onela azpirã-
„tceen , ta nere Biotza ill arteraño estutcen
„du. Baña pecatutic zu libratceagatic , gucia
„onzat , gucia pozic daramat : zu salvatcea-
„gatic , nere odola , nere bicia emangodet.
„¿Ta onelaco amorio , ta gueieguizco fi-
nezac nerequico zugar , nere Jauna , icu-
si , ta zurequico nere culpa , ta ofensa
gueieguiac , ta muguitu gabe , ta zuga-
na biartu gabe guelditucó naiz ? Ez orre-
lacoric , Jauna ; ez , ez orrelacoric , anima
nerca. Bertatic , nere Jaungoico maitea ,
bereala eguiazco penitencia eguin nai det ;
viciera aldatu , ta obetu nai det ; deabruen ,
ta pecatuen catea urratu , Zure ofensaz
seculaco ernegatu.

Penitencia , bada , Jauna , damua , pro-
positua , ta gucien confesio aundi bát. Pe-
nitencia , vici modu berria , Zu beti ama-
tu,

tu, ta servitceco. Nere etsai aguintari, nere vicio, edo grña gaizto andienarequin zure graciaz peleanu naidet. Ez gueiagoren gueiago pecatuari, ta orren bideai nere viotcean lecu, edo ostaturic, ezpada, zuri bacarric, nere Jesus ona. Zurretzat betico nere viotza, nere anima ta gorputza, zure Jarlecu, edo Templo vicia bezala, ta zure vorondatea beti eguiteco, Ill bedi, ill bedi seculaco pecatua; vici bedi beti nigan Jesus maitea. Amen.

Anima Christi asitcen dan Oracioa A. S. Ignacioc asco usatcen zuena, emen Santuac aguintcendu; ta Euscaldunai obeto dagoquien eran guc modu onetan esan dezaquegu.

- Jesus en anima santifica nazazu.
- Jesus en Viotza irazaqui nazazu.
- Jesus en Gorputza salva nazazu.
- Jesus en Odola graciaz bete nazazu.
- Jesus en Viotzeco ura garbi nazazu.
- Jesus en Pasioa senda nazazu.
- O Jesus ona! Enzun nazazu.
- Zure llaga en artean gorde nazazu.
- Zugandic apartatcen utci ez nazazu.
- Etsai gaiztotic libra nazazu.
- Nere eriotzaco orduan deitu zadazu.
- Zugana etortcea aguintu zadazu.

San-

Santu guztiaquin zu alabatecco.

Secula gucietan beti berico. Amen.
 Pecatuaren gañean luzaro dago A. S. Ig-
 nacio bere Egercicio, ta Consideracioetan;
 bein, ta berriz, ta berriro naidu Egercicio
 au eguitea, emendic ateratcen dan prove-
 chuagatic. Lau Egercicio errenca onetan
 aguintcen ditu, eta iru Coloquio, edo itz-
 queta amoroso; Bata Ama Virginiarequin,
 bestea Jesu Cristorequin, ta irugarrena Ai-
 ra Eternoarequin; ta guclac iru gauza, edo
 gracia escatceco.


I. Jaincoaren Ama maiteari erregutu bear
 diogu, bitarteco izan dedin, ta guretzat
 bere Semeari escadiozan. I. gure peca-
 tuac ondo ezagutceco, ta orien contraco
 bear dan viotceco gorrotoa artceco gracia.

II. Oñin dañoco gure viciera, ta obra
 gaiztoac ezagutu, ta era gabeco pecatuñ
 bideeratic igues eguiteco, ta aurrera Jau-
 naren vorondatea gure vici modu, ta gau-
 za gucietan eguiteco gracia.

III. Mundu onetaco gaitzac ondo be-
 guiratu, ta orren bide gaizto, ta vani-
 dade uts lurrecoeratic apartarceco gracia.

Ori bera, edo iru gracia oiec bigarren
 Coloquioan Jaincoaren Seme Jesu Cristo
 gure Jaunaren, ta bitarteco bere Aitare-
 quin orretaco izan dedin. Iru

Irugarren Colokuen era orretan bertan
iru gauzac Aita Jaincoari escatu bear zaiz-
ca: Ta azqueñean *Aita gurea* esaten da,



ERIOTZAREN GAÑECO
Exercicioa.

Memor esto, quoniam mors non tardat. Ecl.

14 Acorda zaite, contuan zaude, eriot-
za laster datorrela. *Pretiosa in conspectu
Domini mors sanctorum eius. Ps. 115 Mors
peccatorum pessima. Ps. 33* Nola santuen
eriotza, Jaunaren presencian precioso
dán, ala peccariē eriotza guciz gaistoa dá.

EXERCICIO ONEN FIN, TA FRUTUA.

EGun onetaco consideraciotie gauza bi
atera beardira. Bata lurrean zuzaz
campora dituzun gauza gucien vlotceco
menosprecio andi bat, Ta bada diranac aifi
laster utci bear dituzu, ta nai, ta nai ez,
diranac zu utcico zaituzte, obe dezu aur-
rea artu, ta berac zu utci baño len, Jain-
coa gatic diran guztiac zuc utci.

Bestea da: orain ainbeste erregalatcen

mi niban... de...

dezun gorputz ori, ta zure sentiduac castigatuaz illerazotcea, zure anima betico ill ezdezaten, San Pablo dion, ta eguiten zuen bezala; emendic aurrera gorputz ori mortificatcea, contuz ibiltcea, ta jan edanean, itz eguitean, beguiratcean, jancian, ta beste gaucetan moderatcea. Oroizaitetz, autsa cerala, ta auts biurtuco cerala. *Gen, 3.*

Compositio, edo lecu eguitea.
Demagun, etcerala zu illen, egunoro, ta eo bezala, beingoan, edo abere baten guisa; Eleizaco, ta munduco gauzac, eguiteco lecu galbe, subitoco eriotza, batequin ez, ezpaba jaquinic, ta cere burua oibatcan eriozco gaitzarequin icusiric, medicu, ta erremecioaz etsiric, ta Eleizacoac mugonez arturic. An zure biotzean aditcan dezu Jauharen sententia: „Ea, mancazaitte, zure echeto gauzac prestatzatzu, cerren ill bear dezun. Santo Cristo bat, ta eriozaco, candela escuetan dituzula, eriozaren beguira zaude: atceneco antsia, ta erio sugarrac emarendizute: bularra jaiqui, beguiac illundu, asnasea estutu, ta zure gaitza baicic ezdacutsula, ecertaco egon ez, ta munduan dan lan, edo eguitecoric an-
 LEMEN dic.

dienean sarraric ; esaten dizutena esan, ba-
 fia cer eguiten ; edo esatendezun ezdaqui-
 zula. Ta azquenecoa asnasetan (Jesus, Je-
 sus ; esatendizutela) eriotzarequin burru-
 tan asitcencerala. **O** pauso estu ; icaragare-
 fla ? Era triste onetan cere burua ilaster icu-
 si beardezu. **Escarida.**

Biotz gucitic Jaunari escazaiozu gracia,
 cere burua pauso onetan ondo icusi ; ta
 ezagutceco ; ordu artan munduaz sentitu,
 ta juzgatucedezun bezala ; orain zure zo-
 raqueria ; edo vanidade utsaz sentitu ;
 ta juzgatceco ; argui andi bat dizula ; bici-
 moda berri bat demboraz artceco ; ta or-
 duan naicodezun gucia ; orain aleguñaz
 egulteco. David santuarequin esaiozur
 Jauna, nere azqueneco fin, edo cabu au-
 eracusizadazu ondo : « Zure eriotza san-
 ta gatic, eriotza on bat indazu.

...

LENEN

LENENGO PUNTUA.

IRU GAUZA DITU ERIOTZAC BE-
 requin; iru circunstancia, edo aldeco
 lagunac bezala beti darraiz-
 ranac.

I. Dà eriotza ciertoa, ta jaquiña.

II. Eriotzaren ordu ciertoez ta jaquiñeza.

III. Eriotza beingoa, ta basarra.

CONSIDERACIOA.

Eriotza ciertoa, ta jaquiña. Munduan
 ezta eguia ciertoago; ta jaquiñago-
 ric, ill bearra, edo ill bear dezula baño.
 Egua au fedea eracusten dizu, ta zure be-
 guiaz dacutsu. Egua au dà Jaincoaren la-
 gue bat, jaid diran gucienzat. Inor ere li-
 bratu ezta, ta inor ere escaperic eztu, ez
 igues eguiteco bideric eriorzagandic. Erre-
 medioric eztago; guciac ill beardute. Non
 dirà zure asabac, ta lenagocoac? Izancir-
 ran, ta ezdira, edo illciran. Non dirà fa-
 ma andico, edo paper andia armetan, le-
 tretan, diruetan eguin zuteti guizonac? Non
 dirà Alexandro, ta beste Erregue andiac,
 Aristoteles, ta beste Maisu jaquinsuac? Izat,
 ta illciran. Ta orrelacoac alabatuac. dicitur
 emen

emen lurtean, ez tiran lecuari; ta dira er-
re, ta tormentatuac, dauden lecuari, be-
nico infernuan.

«Eriotzaren Legue aù aïn ichia dà, ta
gustiaquicoa, non dà Jaincoac ez bere Se-
meari, ez onen Amari barcatu cien, bia-
quin beste gauza ascotan mirari andiac
eguin bacituen ere ill zán Jesus, ta onen
Amà Santa ill zán.

¿Orrela zue ere ill bear dezu? Bai; ta be-
ti illtzen, edo illaz zoaz, ta eriotzaronz
beti pauso ematen dezu. Au iracurtzen, edo
enzuten dezun instantea, guchiago dezu
munduan; zure viciaren asnase bacoitcean
illtzen cera. GUCIOC ILCEN GUERA,
dio Escritura Sagraduac. » Ta urac nola
nichasora, gu ala goaz eriotzara.

¿Beraz an etorricoda? Ay! ta ceñ eier-
dan; egun, edo gau bat zu acabatceco
etorrico dala! ¿Beraz etorrico dá? Ay! ta
noiz, non, ta nola ordu ori, etorrico ote-
da! ¿Beraz etorrico dá? Ay! ta guchien us-
te dezuncan; munduac, araguiac, deabruac
beren guezur utsaquin aizatu, ta chora-
turic zauzatenean; noiz, ta eriotzaz aztu,
ta engañatuena zauden! ¿Beraz etorrico dá?
Ay! ta zure ill bear, ta galdu bearra! Etof-
ticoda atceneco egun, ordu, eta puntua

ceñean, munduco personaric andien, béar-
ren, ta billatuena lén izan baciñan ere, pa-
peric batere eguingo ezdezun, Etorrico dá
instante bat, ceñean ecer ez bat izango ce-
ran : munduan ecer balioco ezdezu : ecer-
tan ére ez munduac zuri, ta ez zuc mun-
duari, servituco ezdiozuté.

Ah lurreco andi, edo altu naí aizezco
utsac ! ; Non cerate ? Ah munduco aberats
pobreac ! ; Non dira ondasunac ? Ah atse-
guin loien ondoren, lau oñecoén guisan,
arraštaca zabilzatenac ! ; Non dira zuen atse-
guin nequezcoac ? Ay cèr ordua au ! ; Au
dá mundua servitea ? ; Aimbeste dolore, ta
nequerequin lurreco gauzen ondoren ibi-
lli, ta orien pagua au dá ? O eriotza, erio-
tza ! Ceñ gauza samiña, latza, ta garra-
tza dán zu beguien aurrean icustea, ta ar-
gueiagó munduco gaucetan bere uste gu-
cia ceucanarenzat.

Orrez gañera. Eriotzaren Legue au gu-
cienzat izanic, dá penazco Leguea, edo peca-
tuaren castiguan. Ala illtceñ dagóen bat icus-
teñ, deritzat, Erregueren contra traicio itsu
andi bat eguin duen infame zori gaistoco bat
icusten dedala. Baña; onelaco culpádú traido-
re bati, nola vicia quendu bañio lén, bere onra
dignidade, ta beste anditasun ta gauzac quen-

tcen diozcaten: ala eriotzac, Jaunaren justiciaren borrero gogorrac bezala, lurreco gauza guciac, viotzaren erdian josiric badauzcatzu etc, diranac quenduco dizquitzu.

Ay! Diot berriz: Ay munduco aberats pobreak! Cer ordua icusquízun zauten! Ay, pecatari tristea! Len zure viotceco naiera, edo carño gucia andí nai, eder zale, atseguñetan, urre, ta lurreco irabacietan eran-siric, josí, ta zabala zeneucan? Bada jaquiñic zaude erioaren borreroac diranac arrancatu, ta ateraco dizquituzula; gucieta-tic eranci, ta soilduco zaituela. Ay! dese-guñ bear gogotra! Ay! nai gabe samíña! Viotcean josiric dagoena, ezta erraz, miñ gabe ateratzea. Larridíquitcea baño ere guíago sentituco dezu, zure viotz ori munduco gauzaquin oraiñ aín bat eguíña, orduan beiñgoan deseguítea.

¿Ta cer? ¿Au fedeaz jaquiñic, zure beguiaz besteen buruan icusiric; orregatic etc, ordu artaraño zure viotzac orrela egon beardu? ¿Lurreco gauzoí orren eransia oraiñ; ta nai, ta nai ez orduan difanac utcí bear? Ez, ez, nere anima, ez arren orrelaco eraqueriaric. Ea gora, fedearen arguiaz balia zaite, gucién vanidade, ta ursa icusteco. Ea gora, ló pisu ori quen-

quendu ; begui oriec arguitu , ta loturie daucazun vorondate ori bein, edo bein ascatu , pecatuen catea gogor oriec urratu, ta zure anima libra ezazu.

Ay ! ;ta ill bearra daquidalà , nere Jaincoaz , ta nere animaz onela azturic vici naiz ? ;Lurreco gaucenzat jaiio banin z bezala , ta infernuco bidean ? Ay ta cer perilla ! ;Cer erremedio , bada ? Erremedio bacarra , ta guciz bearra dà eguiazco penitencia ! ez itzezco , ez gogo utsezco , ezpada obrazco , ta eguiazco penitenciaren frutuac eguitea. Ez osasuncan , ondasuntan , ta lurreco beste , eriotzan ecer baliatucò ezdituzuten gaucetan fiatcea : ez mundu zoroaren esanetan , baicican bacarric Jaunaren itcean. Utcì , bada , orain : utci betico vanidade , ta guezurrac : utci gogotic , ta vorondatez guero onen contra utci bear deran gucia. Ea , nere anima , adisquide bacar salva zaitzaqueana arrezazu. Au dà Jesus ona , besteac utci ta ere, beinere utcico etzaituena : Jesus, Zu gatic lurreco gauzac utci , ta Zure amorioz Gutuzean josia. Eriotzaco orduan ori naico dezu : bertatic arrezazu Jesus orduco , eta betico.

II. CONSIDERACIOA.

ERiotzaren ordu ciertoa, eta jaquinie-za. Aù dà bigarren eguia. Ill bearra badaquizu, noiz, ta nolà ezdaqizu. Lurrean icusten diran gaucen artean, Cristaù baten eriotza chit izugarria dá : baña illtcea berez dàn baño izugarriago eguiten dute aldeco darraizcan lagunac, edo circunstanciac. Egua dá, zuc ere besteac bezala, ill bear dezula : ala siñisten, ta aitorccen dezu. Eriotza bera instante bateco lana dà : ta munduco gaitz, neque, ta dolore guciac batec beregan icusiarren, oriec lenago dira ; baña eriotza bera puntu batean igarotzen dán gauza dà. Noiz, non, ta nolà illco ceran ez jaquitea, ori baño samñago dà.

Ay ! Noiz illco ceran eztaquizu : Urte onetan, edo bestean : Ill onetan, edo bestean : Aste, edo egun onetan, edo bestean : ordu onetan ala bestean : puntu onetan, ala bestean. Ay ! Gucietan asco illccen dira : Zu ere ill zaitezque. Ah ! ¿ta orañ bertan illccen bacera ?

Non ilco ceran eztaquizu : eche onetan, erri onetan, ala bestean : Oiean, ala campoan : ichasoan, edo leorrean : urtan, surtan, edo non. Lecu gucietan gendeac ill-

tcendfra , ta gucietan eriotzac arquitec-
du bidea. Ay au quezca , ta aranza ! Non
ilco ote naiz !

Nola ilcoceran eztaquizu , edo bat ba-
tean , Jesus esateco lecu gabe ; edo eza-
gutu , ta soseguz icusi , ta demboraz pres-
taturic : Elizacoac eguin ta , ala oriec ga-
be , abere baten guisan : ilco ceran zure
barrengo aunditu ustel batequin , edo cam-
potic tiro utseguin batez , edo puñaladaz
joseric , edo ústesz ustegabe , tellatutic eror-
ten dan tella batequin : edo ezur batec ito-
ric , edo negarrez , edo farraz : Atseguin
andi , edo atsacabez ; pecatu loi itsusi bat
eguiten , guizon , ta andre asco ill diran
bezala , edo bestela. Bada , eriotzac zu ,
nola nai , arrapatceco , milla modu ditu ,
ta gueiago. O vicia , vicia , ceñ aizezcoa ,
ta utsa ceran ! O vicitza ! Vicitza esan bà-
diteque , aimbeste eriotza modu , ta aín
goibelac , ta tristeac puntu oro dacartciena!

Orregatic , Jesu-Cristo gure Jaunac gu-
re berri ondo cequienac bezala , ceñ az-
corrac gucioc gueran , bearren degun , ta-
beguiz dacuscun eriotzaren eguia onen ga-
ñean esaten digu berac : *Vigilate* , &c. Alerta ,
alerta : zaute bellari. Ta berriz , ta berriz aü be-
rau ascotan esaten digu : Alerta cergatic eri-

za darraizquitzen ; beguira ondo , contuz vici ; ceren eriotza celatan , zuen zai dabilen . Beti zaute ernai , beti prest ; ceren ez egun bat , ez ordu bat ere eriotzarenzat seguroric ezdezuten : *Nescitis diem, neque horam.* Cristoren itz, edo sententia da au : ta aren beñgo esana asco ezpaliz bezala , berri dio : *Estote parati* ; Zaute prest , maneatuic , zai dagoena bezala ; ceren guchien uste dezuten , ta zuer ezdaquizuten orduan ill bear dezuten . *Math. 24. Math. 25.*

O sermoi , o sententia arrigarria ! Cristoc ez dio : orai zaite ondo : ez dio , presta zaiteala : ez, ezpada eriotzaren zai prest zaudela , Ah zure itsua , ta galdua ! Orrela chit ondo emendic aurrera , santu baten guisan vicjagatic , len beti prest egon ezpatera , munduco bearrena utseguin , ta galdu dezu . Ay cer caltea au ! Ay viotceco damu , ta odolezco negarren cer gaia au ! Noiz ta guchiena uste nuen , eriotza etorri citequean . ; Ta etorri baliz , zuzaz cer izango zan ? O Jaunaren misericordia , niri ascori ez bezala , eguin didana ! Ah ! Contu artcera orain etorri diteque ! ; Ceren beguira nago bada , prestatu gabe ? ; Eriotzaco orduan cer naico det ? Bada orain orieguin . Orain , nai badezu , eguin dezaquezu . Naia
gatic

gatic orduan, bear bada eciñ eguingo dezn.
 ;Cer bada ? Penitencia penitencia ; berta-
 tic vici modu berria.

III. CONSIDERACIOA.

ERiotza bacarra, ta beiñgoa, S. Pabloc
 ala dio, ta zuc ala icusten dezu. Sinis-
 rezazu, ta pensatu ondo, beiñ ill bear dezu-
 la. Au dà irugarren eguia latza. Ill bearra,
 ta beiñ ill bearra. Beiñ orretan uts eguiten
 badezu, seculaco galdua cera zú. Ill bear-
 ra gauza garratza dà ; baña are garratzago
 beiñ baicen ez ill bearra. Edolaric eriotza
 bi cèr irago bacindu ; gaitz erdi. Bata gaiz-
 qui irtenagaitic, beste, edo bigarren erio-
 tza onaz gaitz ori erremedia liteque. Baña
 eriotza bat baicen zuretzat eztago. Gure
 Jaunac begui, belarri, ta escu bi eman
 dizquigu ; escu bata gaitcen bada, besteaz
 baliatceco, ta belarri, edo beguetan oro-
 bat. Baña eriotza bacarrean orrelaco con-
 tu, ta erremedioric ezta, O contu portitza!
 Beiñ ill bear dezu, edo ongui, edo gaiz-
 qui ; ta gaizqui ilicen bacera, seculaco er-
 remedio gabe galdua, O sentenciac estua!
 Zuretzat munduan aldetequean gauzaric
 andiena, nola dan illtcea, beiñ baicen izan
 bear ezta ! Emen dezun eguitecoric an-
 dien-

dien , ta bearrenac , pruebaric , edo saia-
 tteric lenago bear eztuela ! Ta puntu batean
 betico eriotza bacar aú eguin bear dala !

Goacén , bada , conuetara , Fedaz ori gu-
 cia daquizula , ¿cembat egun , edo dembo-
 ra zure viciaren urteetan igaxo dituzu , or-
 du ta puntu larri , eriotza bacar oneta-
 raco prestatcen ? ¿Cembat urte eriotza ona-
 ren Escolan icasten ? ¿Cembat estudio san-
 tuen jaquintasuna , ondo , oiec bezala ilteco
 , lecioac artcen ? ¿Cembat aleguin atce-
 neco pauso ori , salto andi ori ondo emate-
 reco sayatcen ? O iehumen aitzaquia gabe-
 coa ! Aín argui , aín choroch , aín meac lur-
 reco gaucetan , ecér ezquerletan : aín ilo-
 tu , aín nagui , aín sator itsu eguiteco an-
 di bacar , ta bearren onetan , ceñean guz-
 tia , ta betico dagoen !

Ah lotsagarrizco munducoen gauza era-
 gabea ! Gazteac pareja batzuec , zaldin ibilli ,
 danza bat plazan atera , saldu , erosi , artu ,
 eman , ta beste joan etorrietan aimbeste sa-
 iaquera ta contu , ondo irteteco , seguru
 jocatceco ; eta animaren salyacioco tratu
 bearren onetan aín ardura gabe , ecér ez-
 palijoa bezala ! O fedearen ill otza , ta an-
 maren calte pare gabea ! Ay cèr larriac ordu
 artan artuco zaituzten ! ¿Ta orañ Jaincoac

ema-

ematen dizquitzun dembora, ta argui oiez
 cér contu emango diozu? ; Ta mandatu amo-
 riozco oiez orañ ondo baliatcen ezpacera,
 orduan zuzaz cér izango da? Ea bada, pe-
 cataria, bertatic fede ori vicitu, ta berea-
 la asi zaitte penitencia, confesio, ta vicimo-
 du berri santu batequin, eriotzaco orduan
 naico dezun bezala.

BIGARREN PUNTUA.

ERIOZTACO ORDUAN BERTAN
 dituzu beste iru gauza, edo eguia icaragar-
 riac, candela illun arc arguituco dizquitzu-
 nac: iru oroipen, edo memoria
 bata bestea baño tristet-
 goac.

*I. Igarotaco gauzen oroipen, edo memo-
 ria.*

II. Ordu artaco bertaco gauzena.

III. Gueroco etorquizun diran gauzena.

I. CONSIDERACIOA.

PEnsatu bear dezu ondo, zure igaroco
 vicitzaco gauzaz oroitcean, ta guciac
 banan banan aín arguiro gogoratu, ta or-
 du artan icustean, cér estutasun, cér laria

no-

Iaco lantu tritea zure animac artüco duen, Gaizqui vici izan bacera, argui goibel artan zure pecatu guciac, diran bezala, aguertu, ta icusico dituzu. Orañ culpa arinzat dauzcátzunac, ta aiñ aisa, ajolacabe pauso oro tragatcen dituzunac; Ah! ta cein andi, ta pisuac orduan aguertuco diran!

Arrituco cera, zure pecatu obraz, itzez, gogo, edo pensamentuz zuc eguiñac, edo besteri zuc eraguiñac alde gucietatic erdian artcen zaituztenean, Ceren aserrè, ta zacur amorratuaren guisa, David santuacdonez, erasoco dizute. Zure pecatuac, dio, ujo-la andi baten guisa, turbatu, ta azoratu-co zaituztela. Cembat culpa confesaquinac; Cembat damu, ta propositu gabe confesatuac; cembat chiqui, edo ecerezqueriac bezala artu, ta alacotzat etceneuzcanac, ta erraz igaroac, zure animaren gafiñera orduan etorrico dira, ta ecin gueiago ala estuco dute? Ay cèr pena, cèr larria, baña orduan erremedio gabea!

¿Cèr izango dà bada, icustean zure vician Jaincoac bere ontasun, ta misericordiaz, zuc mercei gabe, eguin izan dizquitzun mesede, ta favore, ta eman dizquitzun gracia, ta ondasunac? Cèr golpe icaragarria zure viotzari emango dio oiec guztioac, bat
ba-

batean zure beguien aurrean icusteac? Ber-
tan, ta chit claro icusico dezu, zure Jain-
co maiteac, zure bearric eztuela, zu sal-
vatceagatic, cembat eguin zuen, ta nolaço
bideac artu cituen. Cembat gentil triste fe-
de gabe daudenac, zuc bezalaco argui, ta
doaiac, zuc adiña misericordia artu bali-
tuzte, Jaunaren graciaz baliatu, salvatu,
ta santu eguingo ciran?

Ta au beste pensamentu gogoangar-
ri bat izango da. Fedeco eguia oiec zuc ja-
quin, ta aimbeste bider lenago aditu, ta
bear bada ezagutu, ta pensatu; ta orregatic
ere zure oztasun, ta naguitasun utsagatic,
aimbeste dembora presioso, nola Jaincoac
emancizun, gucia gaizqui igaro, ta gasta-
tcea. Ocalte pisu negar eraguitecoa! Igaro-
co urteai beguiratu, ta cer icustendà oraiñ?

Eguia aitortu bearbada, munduco gueie-
nai viciaren parte andi bat, Jaincoa ofen-
ditcen dijoaque; Pecatua pecaturen ga-
ñean eguiten izarotzenaie: beste parte an-
diagoa ecer ecean, edo utsa eguiten: azque-
nic vici gucia, bear dutena ez eguiten, edo
bear ezdutena beti eguiten: bearren dute-
naz aztu, Jaincoa servitcea gueroco utci,
ta bera bacarric servitceco ezpalira bezala,
Jauna ofenditcen, vici guztia igaro. O abe-
reen

reen guisa, edo lotsagarriago dan Cristau ascoren vicimodua! Cer erremedio, bada? Jardun bertatic, ta ori dà Exercicionen frutua: jardun, ta equin: DENBORRA DEGUN ARTEAN, dio S. Pabloc, OBRA ONAC EGUIN; vicitza berria.

II. CONSIDERACIOA.

Eriotzaren orduan bertaco gauzen oroipen, edo memoria. Beguirezazu ondo nola arquituco ceran, ta cèr golpea emangodizun, ordu estu, ta trance larri artcen zaituenean. Ilteen dagoenean bat, aguirian dago, icusten da, nola dagoen. Orrela, bada camporonz, ta barrenonz zu arquituco cera. Besteetan icusten dezuna, zuzgan icusicodezu. Batetic gaitzac azpian arzu, ta puntu oro argalago, ecertaco ez bat eguñic, quemèn gabe icusico cera: sucar viciac errè, ta irazaquitcen zaituela. Bestetic, dolorezco erremedio garratzac, vicitceco lagundu bearrean, bearbada vicia laburtcen dizute, etsiric zaude.

Bitartean, criotza zure ondoren postaca dator: bularra estutu, ta atceneco asmasce luceetan izerdi otz deseguin batec ematendizu. Bestetic, nai, ta nai ez, seculaco, ta bereala utci bear zure echea, ta eche-coac,

coac , zure erria , aide , adisquide , ta eza-
gunac , ondasun , gusto , ta lureco beste
gauzaric laztanen , ta maiteenac. Ay peca-
tari galdua ! Aù munduaren pagua.

Gucia utci bear ! Zure irabaci , anima ori-
galtceco , nequez bilduac , odol , ta aragui,
zure viotzarequin bat eguiñac : dan eran-
tsiena , ta josiena badago ere zure viotza,
ascatu , urratu , ta seculaco deseguin bear !
Ay cèr animaco larria ! Ay cèr despedida
illuna ! Ay cer adio , cer atceneco agur tris-
tea ! Ago seculaco mundua : au dá azque-
neco ire pagua. Ta oicc dira orduan cam-
poronz aguiri diran penac.

Baña , illicen dagoen baten , animan bar-
renonz cèr pasatcen dãn , norc esango di-
gu ! Ez inorc. Illac , eguiaren muadura , au
icusi , ta joan ciran. Guc icusi edo igaro ez
tegu. Alere , cèr ansiaquin anima egongo
da , niguerrri , edo barrunta diteque. Ay ne-
re desdicha , esango du ! Ay nere zori gaiz-
toa ! ¿Non dira nere andi nai aibeste tor-
menturequin billatuac ? ¿Non dira nere on-
dasun aifñ nequez biribillatuac ? ¿Non dira
nere gusto loy aibeste aranzarequin goza-
tuac ? Ay ! joan ciran , igaro ciran : Orice
quendu , ta nereac eguindu. Ay ! aù larria : ta
larrua ere utci bear ! Eten , ta deseguin bear
gor-

gorputz laztan, adisquide maite, ta anciano lagun onegandic ere! Ay cër golpe latza, ta garratza! Banoa mundu onetatic. Agó ór, azqueñ Juicioraño, auts eguiñic nere gorputz zori gaiztoan ezagutu, ta gueiegui erregalatua!

Onelaco pena, ta beste esan al baño andiagoquin zure anima goibeldaric arquitucoda: gucia nasturic, cer esan, cer eguin, nora biurtu, ta nondic igues eguin eztaquiela: Ez Jaincoaz, ez bere salvacioaz oroitceco, ecertaco ez, edo ecer ez utsa eguific dagoela. Orañ osasunaz, ta sendo zaudela, icustendezu, baldin burüco, edo aguiñetaco miñ pusca bat ematen badizu, AVE MARIA bat errezatceco etzaudela.

¿Nola, bada, aïmbeste gaitzen artean orduan egongo cera? Ah! Orduan erremediatceco dembora ezta: orañ bai. Orañ lurreco eraqueria guciac sustraetic aterà, viorza penitenciaz garbitu, ta Cerua billatu, ta arquitceco. Orañ Jaincoac naidu: orañ deitzen, ta escua ematen dizu zure gauzac confesio oso eguiazco batez, ta vici berriaz bertatic zuentceco. O! eta cër poza orduan, ori eguiten badezu orañ! Ea bada, asi bereala: *Hoc fac, & viues: Ori eguin ta betico vici.*

III. CONSIDERACIOA.

Gueroco , etorquizun diran gauceñ
 oroipen , edo memoria. Ilteco zau-
 dela , guerora , edo aurrera beguiratu , ta
 eer golpe , cer bildurrac artuco zaitu ? Erioa
 bertan beguien aurrean egon , zure gañera
 erorteco zorian , ta eciñ igues eguin. Ay!
 Atceneco trance gorri artan sartcean , go-
 goraco zatzu : Ay ! Ay ! Emendic beste
 mundura salto arrigarri bat eman beardets
 ta beñere salatu ez ! Ay ! ta an cer ostatus
 beguira dagoquidan jaquiñ ez !

Jangoico Juez justuaren aurrean aguer-
 tu bear , ta ondo prestatu ez ! Vici guztico
 contu ché chea eman bear , ta beñere con-
 turic ondo artu , edo atera ez ! Ay ! ta be-
 tico sententia bereala , ta erremedio gabe
 artu bear : ta ceren gañean , ezipada nere
 vicitza galduaren gañean ! Aimbeste urtean
 nere Jauna , ta oraiñ nere Jesus izango da-
 na aiñ guchi servitus ; ta servitu bearrean be-
 ti ofenditu , ta onen aurrean oraiñ aguertu
 bear ! Ay ! ta ori guztia ecer ezta : Non dà
 gaitz pare gabe , ta calte guztien azcarria ,
 Jaincoaren arpeguí eder gozoa , ta onen
 gloria vicia gaitcea !

Ah ! bildur arrazolezco justua ! Orren
 añaico culpa eguin dezula jaquin , ta orren
 diña-

diñaco penitencia eguin dezula èz jaquin!
 ¿Ta cèr izango dá, peccatae baicen eguin ez-
 tezula, icusten badezu? An gogoraco záiz-
 quitzu, deabruaren, munduaren ta ara-
 guiaren ondoren puntu artaraño eguñica-
 co zure arrastacac, artu dituzun nequeac,
 eman dituzun icerdíac, eguin dituzun ale-
 guñíac. ¿Ta cergatic? Cer bait, edo ecer ez-
 bat lurrean izateagatic. ¿Ta oraiñ zure ani-
 ma galtcen badezu, cèr baliatuco dizute?
 ¿Etzan besteric, zure gríña, ta voron-
 date gaiztoaz beti Jaincoaren contra irten,
 bera servitceco pauso bat eman nai ez, ta
 bete beguén aurrean alaco ausardiaz ofen-
 ditcea? ¿Etzan besteric Cristavaren icenaz
 gentillac baño gaizquiago vicitcea, ta alaco
 garbo, ta bizzarriaz zure etsairic andien dea-
 brua, berac nai bezala servitcea? ¿Ta Jau-
 naren aurrean oraiñ aguertceco, cèr baliat-
 uco dizu orrec? O pensamentu portiza! O
 dolorezco nequea! O tormentu gogorra!
 ¿Ta lengo gauza, edo lan orietatic, ce-
 ñetan oraiñ lotsa baicen eztezun, cèr fru-
 tu atera dezu, dío S. Pabloc? Bacenequi-
 en, edo adjitu cenduen: ez ondasun, ta bes-
 te munduco esan, estimacio, ta eraquerie-
 tan etzala cèr fiatu, Bacenequien, guizona
 gan, edo lurreco gaucetan fiateen duena,

ñadaticatua dala, Jaincoac dionez, ta argala, edo utsa dala emengo ustea. Bace-nequien emengo gozoen pagua, edo saria mina, ta garratza zala. ¿Ta orien gañean eer contu eman aldezaquezu orain?

Ay, nere anima bacarra! ¿Ta vici modu, ta estadu char onetan iltcea, ondo deritzazu? ¿Zure Juez justu aserirearen eriozco etsai eguinic, zauden bezala, arqutu, ta arrapatcea? ¿Ondo, orain gaizqui vicitcea, ta orain ecin ondo illoceran bezala egotea? Ah! ¿Ta orain eriotzac azpian arteen bazaitu? ¿Cer erremedio, bada, neretzat? Sari Pabloc berac esaten dizuna: *Ergo dum tempus habemus, operemur bonum*. Jaincoac dembora ematen dizun artean ondo baliatu; dembora dan artean obrac onac eguin.

„Ona bada, dio Apostoloac: „Ona aldi-
„tequean dembora, orain bertan. *Ecce nunc
tempus acceptabile*„ Ona bertan osasunaren,
ta salvacioaren egunac: *Ecce nunc dies salu-
tis*. Nai bezalaco dembora, nai bezalaco
egunac: Egercicio Santuac, ascori, ta aini-
beste condenaturi Jaincoac eman ez dize-
canac. Ona, nai bezalaco Ceruco feria, zure
animaren salvacioa, ta ondo merque,
zure pecatuen confesio on batez, ta victa-
za berriaz Ceruco gloria erosteco.

IRUGARREN PUNTUA.

AZQUENECO ILTCEN ZAUDENE-
 co orduan zure lanic icaragarriena izango
 da: ta aurea artu, ta emendic aracó ondo
 beguiratú, ta bertatic prestatu bear dezu.
 Lan au deabru gucién atceneco eraso izan-
 go da: ta bateria arrigarria ecin esan alacoa.
 Ta au iru aldetatic.

I. *Deabruen beren aldetic.*

II. *Faincoaren aldetic.*

III. *Zure, cerorren aldetic.*

I. **B**Eguira ondo, ta pensezazu emen,
 zure atceneco ordu artan infernuco
 etsai guciac emango dizute eraso, ta des-
 earga etsia. Lucifer gucién aguintariac, gure
 esacran, infernu guztico batzarre, edo jun-
 ta general bat eguingo du. Ea, deabru guz-
 tian esango die: Ea laster, lagunac, laster
 eguizute. Beguira: Urliá iltecco zorian da-
 go, ta arenac eguin dú. Ea, eraso gucioc
 gogoric: Zuena da. Ecertaco eztago: Que-
 menic eztauca. Tentezazute laster, ta alde
 gucietatic. Orañ zuen atzaparreratatic escapa-
 tzen bada, seculaco, libre, ta zori one-
 coa dá. Baña orañ arrapatcen badezute,
 betido zuen presa dá. Ea

Ea, zoázte: Jarraí, jarraí deabru guciac;
*Persegui, ta arrapezazute, cerrèn zuen atza
 parretatic nór libratu eztuen.* Orduan con-
 juro onequin deabru guciac, eta bacoítza
 dembora guciago tentatceco izango ezta-
 la jaquínic, beren, aldutèn aserre, ta gor-
 roric andienaz armaturic zugana datoza;
 Escritura Santuac díon bezala, zù tentat-
 cera. Zú illteen zauden lecura birivillatu-
 co dirá diranac, ta inferunco etsai guciac
 artuco zaituzte erdian. *Omnes inimici eius
 apprehenderunt eam inter angustias.*

O cér angustiac, cér ansiac, cér estura,
 cér sitio, cér pelea, cér trancea aü! Ah
 conciencia aizatu, zabal, ta lasaiac! Ordu
 onetan, lance larri onetan icusi bearrac ce-
 rate! Ay! Ay! Cér deabruzco iscamilla
 zure gáñean izango dà, ta zure contra gu-
 ciac ateraco dute. Bada bata batetic, bestea
 bestetic, ta guztíac alcarrequin, infernucó
 illteen lagantzalleac bezala asico dira dea-
 daírez. Ay! ;Ta nola arquiteco cera zù?

II. Jaungoicoaren aldetic armatucó dira
 zure contra demonioac. Lèn zure osasu-
 ncan zu obeto engañatceco, Jaunaren mise-
 ricordia aiñ andi, eta zabala eguitèn zuten
 demonio aiec berac, chit estua, ta laburra
 orain eguingo dizute: Ta Jaunaren sen-
 tenciáz baliatucó dira.

Ba-

Batae deadar eguingo dizu; *¿Baldin justua oxta oxta, salbatcen bada; peccatori galdua, cër izango da?* Doi doia gauza onic eguin dezuzac, edo pecatuac balcen eguin eztezu. Bada saluacioric eztezu. Galdua cera galdua. Nola vici, ala il. Gaizqui zu vici izã cera, gaizqui ilco cera. Jaun justoa, betor Zure justicia, Zure sententia, Au gurea zan vicitzan, gureac bear du eriotzan. Ill bedi, galdu bedi, demonio guciaquin betor infernura. Beste demonioac oju eguingo du. *¿Baldin Jaunaren justiciac Jesus bere Seme bacarrari, besteren culpac-gatic espacion barcatu, ta illteco eman bazuen; nola zu bitrez baliatu bearrean, bera aimbeste bider ofenditu, ta zure pecatuac zuri barcatuco dizquitzu, edo galduco etzaitu? Aitziquia, ta erremedioric eztezu: Galdua, ta condenatua cera. Goacen, goacen, betor gurequin anima au infernura.*

Baste deabruac deadar eguingo du: *Si in viridi hæc faciunt, in arido quid fiet?* *¿Baldin Cristoren gorputz Santu, frutuz betericaco Arbola ederrean alaco aserrea Jaincoac eracutsi, ta alaco castigua eguin bazuen zure pecatuacgatic; zu egur igar infernucosu, ta garretan erretceco prestatua, ta illetibat bati izanic, cër castigu zugar eguingo eztu*

ertu? An zori gaitzocoa! Betor anima au, gure lagun au: betor Infernuco egur sorta au.

Besteac esangodu: *Iustus es Domine, &c.*
Justua cera, Jauna, zu; ta zure Juicioa zu-
cena da, Anima au pecatari oquer galdu
bat izanda: beti onelaco, ta alaco pecatue-
tan sartu, zugandic igues, zu ofenditcen.
Ea bada, Jauna, betor gu gana; pagadeza-
la. Gure esanac beti eguinditu, betor; gue-
bere saria emangodlogu Infernuan.

III. Armatuçodira beste deabru asco zu-
re aldetic. Batac ojuca esangodu: *Clausus*
est janua: in inferno nulla est redemptio. Çer-
etzan besteric, Jaungoicoari burla, ta peca-
tua pecatuaren gâñean eguin? Bada orra-
oriec Çeruço atea, oriec misericordia ichi,
ta infernuco atea zabaldu dizute; ta infer-
nuan erremedioric eztago. ÇContentu cera-
oraañ? Betor, Jauna, betor zure sentençia
aserrea, betor condenacioa: Zu ofenditu, ta
galdu nai zuen: condena dedilla, ta betico
infernuan paga dezala.

Beste deabrua asicoda: *Ecce sto ad ostium*
&c. Ola, ola: çcembat bider zure vician
zure viotceco ateetan deitu cizun Jaincoac?
ÇCembat dembora, ta urteetan echeden ci-
zun? ÇCembat aldiz, bere amorio, ta gra-
ciac, otsez, ta ate joca, bere cariñoz, ta

140

ongui naiez zure animan sarrtceco zal egon zan? Ta zuc , lotsa , ta fedegabe , atondoan iduqui , naiez idiqui , ateaquin bere arpeguian eman. ; Fa cergatic ori? Lurreco ecer ezqueria , choraqueria , ta gusto loitsusi bategatic , bestearen azaleco eder anzutsagatic? Bada , orra orain gucia galdu , ta condenatu. Zureaz irten cera ; betor orain Demonioaquin ,

Besteac bere aldetic : Baenequien , esango dizu : Bacenequien Jaincoaren esana: *Vocavi , & renuistis* : Nic deitu , ta zuc ez jaramon. *Ego quoque in interitu vestro ridebo , & subsanabo vobis*. Bada , nic ere orain dio Jaincoac , zure orduric gaiztoen onetan ferra , burla , ta iseca eguingo dizut. Ta orra Jaunac nola deabruen atzapparretan uzten zaituen : Galdua cera , infernuan zaude.

Cembat dauzcagu , beste demonioac esango du , cembat , zu ez bezalacoac , infernuc sala , edo zulo illun aietan? ; Cembat culpa bacar batequin ! Ah zoro itsua! Gorputz , ta anima zuc orain baño len aien oin pean egon bear cenduen. Betor , Jauna , ara , betor : Ondo merceci du.

Besteac , zure barrenaren , ta viorzecco vicioen berri ondo jaquinic , chit zure eraritentatuc zaitu , ta bere baza ateraco du.

Obe

tu zu engañatceco, zure betatic bete bete-
 an emango dizu. Zure gustora, ataca edo
 parte argalenetic brecha idi quicodu. Orra-
 co zure vicio nagusi, edo aguintari zure
 vician guciena arrastatu zaituen orretatic,
 guciena zale izan ceran bocadu, edo plater
 erregalatua, beguien aurrean ipifico dizu,
 jatera emango dizu, ta erraz lto erazoco
 zaitu. Ay! Ay! Anima gaizqui oitua! Ay
 cèr tentacio portitza!

Beste, ta beste deabru ascoc, eta gu-
 ciac naste, ta batean, milla modutan tenta-
 tu, arrabierazo, ta salvacioaz etsi erazoco
 dizute. Gu cien erdian, edo azplan alde gu-
 ciatic etsaiz beteric arquitecera. *Omnes
 inimici eius apprehenderunt eam inter an-
 gustias*, Ay conciencia peccaturaco orain la-
 sai, prest, ta arin zautenac! Ay cèr angus-
 tiac oiec! Cèr pelea latza! Cèr trance estua!

Eguia esatera, baldin orain edadearen lo-
 tean, osasunaz, indarsu, ta ceregan zaude-
 la, edoceñ deabru tentacio batequin zu gal-
 tecco asco bada: Ta ascotan ezta deabruric
 bear, coren tentatzalle, ta tentacio gabe,
 ceñri peccatuetan begui bietaraño sartcen
 etan: Ay! Cèr eguingo dezu bada? ; Ta
 zimbeste deabruron tentacioetan, ta alaco
 demonioen iscabillan, zuzaz cèr eguingo
 da?

da? Ta illtceco puntuan ecertaco eztaude-
la, guerra viciari ;nola arpegui emango-
diozu? Ay tristea! Ay zure zoroa, ta itsual
Ay zure galdua, ordu artaraco uzten ba-
dezu!

¿Ta gauza oiec eguia bera izán, ta ala
sinisten badstuzu, zure fede aù zure vici
modu char orrequin nola compontcen dà?
¿Nola orren lasai, alaco federic, ta orduric
ezbaliz bezala, orren ajolacabe vici cera?
¿Nondic, edo nola oztasun, ta epeltasun
orren calte andicoa? *Unde tan pernicioso ter-
piditas?* dio San Bernardoc: ¿Nondic, edo
nola seguridade madaricatu ori? *Unde has
securitas maledicta?* Ay! Gaiztoen bidea illu-
na dà, ta ezdaquite non erorten diran, dio
Espritu Santuac: *Vla impiorum tenebrosa,
nesciunt, ubi corruant.* Ser.(in Iob.) Prov. 4.

¿Cér erremedio, bada, demonioen atza-
parretatic segurura iguesèguiteco? ¿Eriotza-
co tentacio, bildur, pelea, ta gaitz guet-
tatic libratceco? Erremedio bacarra, ta sel-
guruena dà Jaincoaren bildurra, Jaincoa-
ren bildurra, penitencia, confesio on bat,
ta aurrera vici berria. Erremedioa dá, San-
tuac eguiten zutena eguitea: beguien aurr-
rean aiec bezala, eriozaco ordua, ta con-
tua beri iduquitcea. Escola onetan icasiziz-

ren ondo ilteen, ta ondo vicitcer. O! atce-
neco ordua! O puntu! O instante! O mo-
mentu esan al baño icaragariagoa! Santu-
ric andienac onec icaratcen cituen. ¿Nola
zu, peccataria icaratcen etzaitu?

O fedearen illa! Zure viotcean, Jaincoa:
ren aurrean galde zaiozu S. Simeon, colo-
maco penitente, mundu guztia arritu zuena-
ri. Pillare baten gañean, gau, ta egun, uda,
ta negu, aibeste urtean oracio, ta peni-
tencia eguiten egon zan. Santu miragari
oni eriotzaco momentu orrez cer deritzan
galde zaiozu: *Ingens timor grande negotium
peragitur*: erantzuten dizu Santuac: Bildur
andico misterio, ta eguitecoa dala, ordu ar-
tacoa. O momentu eternidade guztitaracoa!

Galde San Geronimo bati, ceñac guerra
vicia, ta aifi portitza vici gucian bere bu-
ruari eguincion; zartu ta ere, bere sentidu,
ta pasioai ecertan ere barcatu gabe, beti
penitencia gogorren artean: galde, bada,
Santu andi oni eriotzaco momentu orrez
cer deritzan. Ta erantzuten dizu: peccatu
bituric, gau, ta egun bildurrez beti, az-
queneco maravidiañoco contu emateco
zai nago. O momentu eternidadea bere
ondoren dacarrena!

Galde S. Agustin bati, ceñen viotza aifi
bera,

bera, ta gozoazala berez; orregatic ere ateco, neco ordu, ta contu onez, ta orren ondo, reaz acordatu, ta bildurrez gucia samiñdu, ta esaten dizu: *Ignem eternum timeo: ignem eternum timeo.* Betico suaren bildur naiz: betico suaren bildur naiz. O momentu icaragarri eternidadeco sua bere ondoren duena! Erremedioa dá Santu oíei bildur santu onetan jarraitcea, vici modu Ceruco bat aien ondoren zucenceco, ta eriotza paquezo bat berac bezala logratceco.

COLOQUIO, EDO ATGENECO

izqueta.

O Eriotza, eriotza, munduaren, ta peccatuen pagua! O eriotza! Ta ceñ samíña, garratza dan zure oroipen, edo memoria! ¿Baña norenzat? Munduco andinaí, atseguin loi, lureco hacienda, edo ondasunetan bere viotza josi, ta beren gozo, edo paquea orietan daucatenenzat. Ay! Ta orietatic ni izandu otenaiz? Ay nore itsua, ta galdu bearra! Ta orain eriotzaco ordu illun onetan orietatic cèr ateradet, cèr arquicen det, cèr daucat nere escuetan? Utsa, vanidadea, ecer ez, animaco tormentua baicic.

Baña, Jaincoa, fede onez, ta viotz guciaz

eriaz billatu, ta servitu badet, Ceruco glo-
rian bera icusi, gozatu, ta beti alabatceco
desoaquin, nere eriotza ezta samiña izan-
go, ezpada chit gozoa. Ala dá beguiaz, ta
eguiaz justuen eriotza: Gorputceco carce-
la illunetic libratu, ta Ceruco Atea erdiz
erdi idiquitcea dà. O cér poz aldia! O cér
atseguin paregabea!

Orrera, eriotza beguien aurean beti idu-
quitcea, dá eriotza gozo bateraco prestat-
cea. Bai. Ta ez ori bacarric: Bai ta ere pa-
quezco vicitza santa bateraco: Guezurrez-
co mundu, ta nequezco carcela oneran ba-
tec iduqui, ta goza al dezaquean vici mo-
duric atseguinena, eta sosegu eguiazco
bete, eta contentuena dà, Santuen guisan,
beti presente eriotza iduquitcea.

O nere Jesús maitea! O nere vicitza, ta
eriotza onaren ispillu vicia, ta bieraco Ce-
ruco Maisua! Nere vicitza gaiztoco peca-
tuen icaraz azpian artu, eta Zugana nere
etsai gucien igues nator. Calbarioco men-
dara, ta Zure gurutcearen ofera, nere ani-
ma salvatceco, biurtcen naiz. O nere Salva-
dore bacarra, ta nere eguiazco Maisua! Zu-
gana nator: Arren artu nazazu. Zure atce-
neco asnasectan, Zu nigatic ill baño leen,
pecatuarenzat ni seculaco illtceco lecio bat


indazu ; ondo vici ; ta ondo ill nadin.

Acorda zaite, Jauna, zure agoniaco iritu-
ordu tormentuz , penaz , ta dolorez bete-
aiez. Orra , Jesus nereca , zure amorioac,
ta nere pecatuac certaraño eracarri cinduz-
ten. Baña pocic gücia artu cenduen , peca-
tuac niri barcatu, ta zure gradiaren vicitza
emategatic. Ta au dà zure Biotceco amo-
rioafen Leccioa , eriotza onaren Escola
onetan nic icasi bear dedana, ondo vici, ta
Zuc nai dezunean, ondo illtceco,

Zu nere pecatuac gatic, zure amorioz
illciñan : Ni ere bada zure amorioz ill nadin
pecatuenzat, ta vici nadin bacarric zuretzat.
Ascoc nai dute, Jauna, justoen eriotzaz ill;
baña guchic justuen guisa egulaz vici. Nic
ondo vici naider zuretzat , ondo illtceco
zurequin. Zure Pasio , tormentu , pena, ta
negarrac-gatic, zure Biotceco amorioagatic,
zure eriotza santagatic arren orañ indazu
argui andi bat , lureco vanidade , ta zo-
raquericac oin-pean utciric , nere viotz guz-
ciaz Zu billatceco, ta arquitceco gracia.
Indazu munduco catea güciac urratu , ta
Zuri, zurequin gurutcean josi, ta jarraitce-
co bear dedan indar , ta virtutea , nere pa-
sio gücien contra pelatceco , nere voron-
datea, Zuc naizun bezala, ucatu , ta zurea
beti

beti eguin , ta eriotza on bat zure viot-
cean eguiteco. Amèn.

Aita gurea, ta Ave Maria, ta Anima Cristi.



JUSTU BATEN , TA PECATARI BA-
ten eriotzaren beguirada , bata bes-
tearequin pisatcen , edo com-
paratcen da.

*Itusten dan gauza dà , ta argatic asco mo-
ultcen duena. Contu eguixu , bada , gue-
la bitan erì bi atceneco gaitzarequin bur-
ruca , ta illiteco zorian icusten zaudelas
biac etsirit , biac Elixacoac eguiñic , edo
eguiteco puntuan desengañaturic.*

BEguira justuari : Bere gaitzaren azpian
badago-ere , cein beregan , ta bere ja-
be : Nola Jaincoagana , ta cein erraz biur-
tcèn dan : Nola paciencia escatcen dion , Je-
sus maitearequin batean , bere pena , ta ne-
queac ondo eramateco : Nola Jesus onaren
exemploaz , berarèn escuetàn , ta voronda-
tean gucia largatcera animatcen dán. Sa-
cramentuac beste munduco jornada , eta
bide

Bideraco artu bear baditu, ta artu ditzala aguintcean, cèr poza, oriec artceco dicha ceren duen; ta cèr indarra, cèr anima-co alivioa, oriec artu ezquero.

Beste aldetic, beguira pecatariari, bere gaitcean cèr arazoa, cèr neque, cèr icer-di itotcecoac. Ecin soseguric ecertan arquite, ta gucian larri estua. Jaincoagana ezta biurtcen, ceren oitua eztagoen, ta aren etsai dagoen. Erioc beguiac larri, ill bear, confesatu bear, ta cèr eguin, cèr esan, edo nondic asi jaquin ez. Ay! Vicia nola, eriorza ala: Presaca, lasterca, itotcen confesatu, cèr esaten, cèr eguiten duen eztaquiela. Artu bear Jesu-Cristo Sacramentuan. Baña nola, cèr arpegulrequin, Cristorèn iguesi, ta contra oraindaraño ibillibada, ta puntuco aren Jukioan aguertu bear badu? Ay cèr tormentu izugarria!

Biac illtcean dijoaz: Santo Cristo bat esuetan: O, ta cein ederqui ematen duen justu baten escuan, Ceruco ateaq idiquitceco, gultza seguruac becela.

Baña peccari baten escuan cein gaizqui dirudien Gurutceac; ceren beti bera Gurutce Santuarèn etsai bere obretan izan dan, ta Jesus onac bere culpaquin arpeguiari Gurutceac ematen dion.

Elc

Elizaco Ministroa bacoitzari illtzen la-
gunteen asitcen dá, ta Jaincoari encomen-
datcen: *Kyri eleison*. Misericordia, Jauna,
illcer dagoen onezaz. O cër animo, ta con-
sueloa justuac erregu oiequin artuco duen,
ta nola viotza Cerura jasoco duen !

Ta cër lotsa, cër bildurra pecatariaac izan-
go du; bada misericordiaz baliatu ez, ta jus-
ticiaren aserreac oraiñ azpian artcendu !

Sta. Maria, ora pro eo, diote Ministroac,
ta an daudenac : Santa Maria, Jaincoaren
Ama, ta penitente eguiazcoen Ama eri-
edo illtzen dijoan onegatic erregu ezazu.
O nola viotz gucia urtuco zaiion justuari
devocio gozoz beteric ! Cer confianza ala-
co Ama maiteagan, cër gogoa aren arpe-
gui ederra Ceruan icusteco, ceren beguiaç,
ta viotza garbiac orretaco gorde cituen ! Ay
ccin gozotero vician iduqui cion amorioaz
oroitu, ta bere anima betico emango dion.

Bitartean, Santa Maria enzun, ta cër
pena, cër larria pecatariaac izango du, Ama
Semeac ala ofendituric icusi ta? Arritu, ta
zurtu ta becela egongo dá, ta bere barre-
nen Ama Virginiaren desdiña sentituco du:
Quen, quen nere beguieratic: Ez niri ots
eguin: Ezta ori nerec izan: Difoala orduga-
iztoan ni gandic, orain daño bezala bete
a dis-

adisquideetara. ;Cer etzan besteric ni utel,
 nizaz aztu, ta nai zuena eguitea? ;Ta norgatic?
 ;Itsusi pusca, autsezco eder anz, ecer ez bategatic?
 ;Nere Semea, ta ni ofenditu, ta orrela utci?
 Bada orra orain, eztet nai aditu, ta ez icusi:
 ez niri deitu orrenzat. Ay cer despedida tristea!
 ;Nora, norgana peccatari galdua trance oneran biurtuco da?

Eleizaco Ministroac otseguingo die Aingueru Santuai,
 erregu dezatela. Ta justuaren anima Aingueruen
 adisquide izan dana, nola poztuco da, ceren videra
 datozquion laguntcera, ta aicquin batean Cerura
 igo tceco! Biribillatuco dira Aingueruac pocic,
 ori bere oiean ill artean gordetcera, ta an prest,
 orren anima artceco egongo dira. O cer dicha
 pare gabea!

Pecataria gatic ori aditcean, igues Aingueruac
 joango dira. Ez, ez, esangodute, ez guri orregatic
 deitu. Eztu gurequin cer icusiric: ezta gurea
 izan; ezpada deabru guztiena: orien gustoac,
 ta esanac, ez gureac eguinditu. Larga, larga:
 goacen emendic, madaricatu ori deabruen presa
 utcita. Ay ceradio seculacoa! Aingueruac joan,
 ta demonioac sartu, ta aren jabe eguingo dira.

Sancte Abel, ora pro eo: aurrera esangodute
 Jaincoren Ministroac. Abel Santua, ta lur-reco

keco justu gucién aurrenecoa, illtceco zorian dagoén onegatic erreguezazu. Ta era onetan ; Apostolo , Martiri , Confessore, ta Virgíñai , Ceruco Santuai ots eguingo die eriotzaco orduan. *Intercedite pro eo.*

O! nola justuac Santuen favorea bereala sentituco duen betegan ! Cér consueloa, alaco Bitarteco segurú, ta aín prestuac Jainroaren aurrean iduquitceça ! An daude prest justu beren adisquideären deia aditceco Jaunari pocic erregutceco ; ta anima ori, Ceruco , gloriara berequin arceco.

Pecatariari , berriz ; erregu oiee enzun, ta cér infernuco illuntasunac bere viotcean emango dio ! Icustendu eriotzaren argui illun artari , santuac imitatú, ta aien Egemploac artu bearrean , contrara vici gucian ibilli dala : Etcieła amorio , ta devocioric, ta ez Santuai deitzen , ezpazan itz oro deabruai, ta oiei jarraitcen cieła. Argatic Santuac eranzungo dute : Ez ez : Eztu gurequin parteric izan : Etzuen , guc becela, Jaincoren Legue , ta vorondatea bere zori gaiztoco vici moduan , billatu : Bada guc éte orain nai eztegu orregatic erregutu. Ay desamparo icarragarria !

Azqueneco ansia , edo agonian sartcean:
Proficiscere, Anima christiana de hoc mundo:

godu Sacerdoteac: Zoaz, Anima critauva;
zoaz mundu onetatic, Aita Jaincoaren
icenean, ceñec ecèr ecetic eguin cinduen,
ta orrela esanaz joango dá.

Berri onac, berri onac anima justua: Zoacela, zoacela, ordu onean. ¿Ta nondic, eta nora? O cèr dicha! Gorpuz orretaco carcela doacabetic zuri dagoquizun gloria vicira. Eten, ta urratu dira munduco catea gogorrac: Jaincoac ascatu ditu, ta gucietic libraru zaitu. Zoaz emendic. Au dà esatea Erregue, edo Erreguina gai, cateaz cargaturic ciega batean dagoenari esatea: Zoaz libre, zoaz zure erreinora, zure coroa artcera zoaz. O cèr poza! Cèr viotceco, atseguina! O cèr biaje gozoa!

Baña zoaz ori bera peccataria aditcean, Ay! Cèr viotceco golpe illuna! Cèr infernucò sustoa artuco duen! Zoaz. Ay legue garratza! Zoaz: baña, ¿nondic, eta nora? Zure lurreco anditasun, ondasun, ta atseguin gucietic. Ay! Orrela gucia utci bear dá: Guñtiac quencen dizquidate, ¿ta betico? Cèr da aù? ¿Emengo atseguina quendu, ta Cerucoac galdu? Ay cèr damu samina! Orrela nereac eguin dú: Joan bear onec erremedioric eztu. ¿Ta nora? Ay! Ay! Emen, itsaso illun onetan ondatucoda. Ah!

ta c  r contuac ateraco dituen secular ez bezalacoac , ba  a secular ba  o argui gue- iagorequin !

Hodie, esangodu Sacerdoteac, sit in parte locus tuus, & habitatio tua in sancta Sion. Zoaz, igaro zaite, anima zure paquezco le cura ; alda zaite Sion santaco vicitzara. O mandaturic gozoena ! C  r descansua justua- rena izangoda, Sion, edo Ceruco Palacio, Eche eder artara, Jaunaren arpeguia icusi, ta goz  tcera, dijoala aguinteen diotenean.

Bitartean ori enzun pecatariac, ta bere buru ispilluric arguien artan icusi, ta c  r pensa dezaque, baldin beti Jaincoaren igues, ta infernuc   bidean, ta beabruac, araguia, ta mundua servitcen arrastaca ibilli bada? C  r uesteco du? ; Non paquea arquitticodu, guerra yician beti bere Jaunaren contra ibi- lli bada ? Ay c  r quezca c  r bildurra !

Deus misericors, Deus clemens: miserere gemituum, miserere lacrimarum eius: Sacerdo- tea dijoa esanaz. Jainco misericordiazcoa, Jainco viotz beraa, zure misericordiaz be- guira zaiezu onen negar, ta onen adiai. Jus- tuaren negarrac onela Eleiza Ama Santaren erreguaquia dijoaz atzeteco zori artan Ja  - goicoaren beguierara. O c  r poza daucan atceneco negar malco orietan, ceren fe-

deac, ta esperanzac esatendio, laster beguiac leortu, ta garvitueo dizcala Jaincoac, bera icusteco, ta Ceruan gozatu, ta alabatceco.

Pecariac ere negar eguingo du; ;baffa cer da antsi: eta cer balioco dio; baldin negar oriec, ez Jaincoaren ofensen damuz, ezpada mundua utei bearraren penaz; ;badi ra? Negar oriec eztira, ceren Jaincoaren ofenditu duen, ezpada ceren pecatuen dembora acabatzen zaion: ta damu du, ceren pecatu guetiagb ecin eguingo duen. Ta ala Cristoc.dion becela, bere pecatuan illcenda.

Agnosce, Domine, creaturam tuam, non a dijs alienis creatam, sed a te solo Deo vivo. & vero.

Ministroac dio azquenic: Ezagueza zu, Jauna, zure criatura au, ez beste Jaincoac, ceren besteric eztan, ezpada zuc Jainco egiazco bacarrac ecer ecetic eguin cenduena. Orduan justuari, bere viotceco amorio guciac Jaincoac beguiratuco dio, bere atceneo, ta bere escuetaco obra precia tuari becela. Bai esangodu Jaun misericordi azcoac, bai; nerec izanda, ta nerec izangoda. Baiezco gozo ori Anima justuac bere penen artean sentitecan, cer esquerac Jainco guciac onari emango diozca? Ta oneran bere espiritua entregatuco dio Jaunari

nañ erfoza on batequin. O cèr d'icha ! Jaina, zure escuetan ematendizut nere es-
pirítua.

Ta, pecatariac bere burua eguiazco ispi-
llu artan icusi, ta cèr esangodu ? Arritu,
ta sortuco da guciago. Ta erregu orri Jain-
coac cèr eranzungo dio : Non da nere ant-
za, pecatari orretan ? Nic, nere antcera
eguin nuen ; nere Semearen odolarequin
garbitu, ta edertu nuen, nere, ta beraren
imagiña izan cedin. Non da imagiña ori ? O
ceiñ itsusia, ceiñ beltza, ceiñ nazcagarria
daucan ! Deabrua baño itsusiago dago.
Quen, quen nere beguietatic betico. Naia-
go zuen deabruena izan, nere baño. Cembat
bider, ta ecer ezegatic, ni utci, ta demo-
nioen ondoren arrastaca ibilli da ? Alena dá,
ta ayenabidi aiequin. Ez erregutu : eztet
nai enzun : ezdiot beguiratu ere nai, O ar-
rigarrizco depedida ! Ta Jaincoac beguira-
tu nai ezpadio, norá joango da ? Onetan
illco da bere pecatuan : ta deabruac aren
animaren jabe eguingo dira. Ay seculaco
galdua !

Au da justuaren, ta peatariaren eriotza,
edo illecco modua : ta orra ceiñ bestelacoa
dan, ta ceiñ antz guchicoa peatariarena
i justuaren aldean.

DESEN-

DESENGAÑO ONETATIC ATERA

bear dana.

Beguiz icusten dan eguia andi onen frutua dà, eriotza on bateraco presta- tceco animo andi eraguille bat. Ezta casic gauzaric, Jesu Cristoc gueiago, ta beraria- zago aguintcen, ta beñ, biarretan, ta asco- tan encargatcen duenic, eriotzara ondo prestatzea baño. Nai du beti prest egotea; beti gure gañean, ta gure contra sentenciac degunac bezala: Egun onetan, ordu, edo puntu onetan ill bearrac bezala.

Gucioc ezagutcen degu ill bear au, ta il- lceco prestatu bearra. ¿Ta gucioc ori bear bezala eguiten degu? ¿Cembar condenatuen artean arquitec dena, ori bera, guc beccin ondo icusi, ezagutu, ta pensatu zutenac? ¿Ta pensamentu orrec cer baliatcen die orain? ¿Ta cer baliatuco digu guri, aiec eguin zutena pensatu, ta eguiten badegu?

Orregatic Cristoren mandatu ain encar- gu andicoac artu, ta Jaincoaren bildurrez- co Cristau on asco, urtean bein erretiro onetan, eta beren viorcetac sartcen dira, Exercicio oiñ gogotic equin, ta vicitza- ren cabuco contuac balira bezala, ilceco baleude becela, guciac ajustatceco. Egui- ten dute confesio andi bat. Ta Jaincoari
con-

contu ona emateco, vici guciatèn , edo gauzatic bearrenen errevisa bat, bere obligacioen gañean ; orrela zucen , ta garbiro eriotza on bateraco , ordu artàn naico dån becela , prestatceco.

Beste asco ezirá orrequin contentatcen : Ta seguruago jocatceco , ta bearren dån eguiteco bazar onetaraco prestatuic beti, Cristoc aguintcen duen becela , egoteco, ill-ero, falta-gabe, egun bat illaren len vicio libreena artcen dute , erretiro santu batean igarotceco : Bere echeco , estadu, edo vici moduco contuac obezo icusi , beguiratu, ta Jaunarequin atcenecoac becela, garbitceco ; Eguiten dute ill artaco culpa gucien confesio bat , illtceco baliz becela. Ta aú dá Exercicio gucien frutua : Au dà ondo illtceco prest beti egotea : Au dá eguiaz ondo vicitceco , ta lurrean aldetequan Ceruco vici moduic gozoen , alegue-reen , ta atseguinena izateco bidea.

Ill artaco , edo erretiroco Comunioa artcen dute Cristau zori oneco oiec, illtceco , ta atceneco Comunioa baliz becela, ta janari Ceruco onequin bidezcoen guisan , betico jornada luce , edo eternidaderaco , animatcen , ta indarra artcen dute, Jesu-Cristo guciáz janci, ta prestatu-ric.

ric. Ah c er poza eriotzaco orduan , onela lenazdanic salatu , ta maneatuaz ! Cris-
ta  onela bere osasunean , beregain dala,
prestatzen danari , eriotzaco orduac , da-
torrenean , ecin susto andiric emango dio,
O c er consueloa onela vicicea , ta one-
la illtcea !

Baldi  beste gauza demboralen ga ean,
artu emanic izan badu, edo orai  c er eguin
badauca , bere atceneco contuac atera bear-
ditu, ta garbitu. Argatic ceruco aviso , ascoc
chit bear duena , zuri A. S. Agustin andiac
ematendizu: *Fac testamentum tuum, dum sa-
nus es, dum sapiens, dum tuus es: in infirmita-
te blanditijs, & minis duceris, quo tu non vis.*
De Cura Animae serm. 45. Zure testamen-
tua, d o Santuac , eguizu osasunean , burua
dezunean , ceregain ceranean : azqueneco
gaitzean , beguira , besteen erreguz , edo
borchaz , gauza onic eztezu eguingo : Ez
zuc naidezuna , espada besteac nai dutena:
Ezta zure vorondate , ta testamentua izan-
izango , ezpada besteac berac nai dutena.

Ay ! ; Ta cembat vici dira ajola gabe car-
gu , ta obligacio estua testamentua eguite-
teco dutenac , ta bere zor arteco , artu
emanac , condenatu nai ezpadute , dem-
boraz aguertu , ta zucendu bear dituzte-
nac ,

nae, ta Jaincoac avisoac emanagatic, gor eguin, ta lasai lasai, alacoric ezpaliz be-
cela, vici diranac? Cembat, gueroce be-
ti utci, ta luzatu, ta ustez uste gabe eriot-
zac garbitcen dituenac? Cembat, corde,
ta buru gabe daudela, besteac testamentua
eguin, edo eraguin, ta pasa, ta illtzen di-
ranac? Cembat testamentu oquer onelaco-
ore dira?

Ta cerori testigu etcera? ;Eztezu icusi,
edo aditu, ta jaquin, cer ascotan igarodan?
Ta ori guztia jaquin, ta ascotan icusi, ta
edolaric besteren caltean, mundu guezuz-
ti au cer dan, eztezu icasico? Testamen-
tua ascoc, beren uste guciac ondo eguin,
ta ala ere aimbeste auzi, ta desdicha orien
ondasunen gañean, egunero icusten badira:
ta auziai ematean deabrauzi aimbeste iraba-
ci ematen bazaio, ; nola calte orieci icusi,
ta icasten eztezu? Ay ascoren diru, ta on-
dasunac, ta Jaincoac daqui nola biribilla-
tuac nola, ta cein erraz banatcen, onda-
tcen, ta ecer ez eguiten icusten ditugun!

;Ta orregatic zuc quezca, larri, ta des-
dicha oiec, ta andiangoac tragatu nai ditu-
zu, eta aideen, echeco, edo campocoen
naigabezco burrucac ordu estu, bacar, ta
bearren artaraco utci nai dituzu? Ha! Be-

gui-

guira ondo : Eriotzaco ordu precio gabe-
co artan , zure animari bear becela begui-
ratcea dezu lanic asco , ta bearrena ! Bi-
tarteana , contuz zaudeque , besteai zure
ondasunac uztean , ez zure animaz aztu-
Esan nai det , Jesu-Cristoren pobreaz , ce-
ñac bere ordean utci cizquigun , oiçi egui-
ten zaiena , Cristori eguiña becela , berac
artceco , ta juicioco egunean munduarèn
aurrean ateratceco.

Azquenean eriotzaren pensamentu one-
tatic atera bear dezuna dá , ori ondo egui-
tea , ta ori beti Jaungoico , Ama Virgíña ,
ta Santuaj escatcea , ta Jaunaren bildur san-
tuaz beti vicitcea.

Nai badezu , mundu onetan aldetequean
vicitzaric paquezco gozoena , ta eriotzaric
precioso , ta santuena eguin , erregla oiec
viotcean , ta vici moduan gordeitzazu ondo.

1. Erregla : Confesore on batec aguin-
tzen dizun egunetan , confesatu , ta co-
mulga zaitc.

2. Erregla : goicean egunero zure obrac
pensamentu , ta itzac , neque , trabajuac ,
zure viotza , ceran guztia , Jaunari es-
queñi , edo ofreci zaiozu.

3. Erregla : Al badezu egunero iracorri ,
edo enzun Libru espiritual , Confesoreac

añalatu bat, ta iracurri aldía aú eguin
soseguz, ta falta gabe.

4. Erregla; Aldezun gucian Meza en-
zun, ta Ama Virginiaren Errosarioa, edo
Eleizan, edo echecoaquin errezatu.

5. Esamen egun artacoa gau oro, fal-
ta gabe, A. S. Ignacioc dion bezala egui-
zu, bere bost puntaquin. 1. Jaincoari
egun artan eguin dizquigun beneficioen
graciac ematea. 2. Egun artan eguin ditu-
zun pecatuac ezagutceco gracia escatcea.
3. Jaiqui cñanetic ordu artaraño cere bu-
tuari contu artcea; ordutic ordura, pensa-
mentu, itz, ta obretan. 4. Eguin dituzun
culpen barcacioa Jaungoicoari escatcea. 5.
Beraren graciarequin emiendaren proposi-
tua eguitea. Ta Jaunaren ofensen damu,
ta aurreraco proposituac eguiten, esamen
onetaco demboraric guiena gastatu bear da.
Onetaraço goizean beti, ta arratsean, ta
aldezun gucian, Contriciozco actuae vio-
tetic eguitera oitu zaite, ra zure animac
indar andia artuco du.

Baldin Confessore bear bezalaco on bat
artu, ta aren esan, edo consejuac, erregla
oiequin, fede ta borondate onaz gordet-
cen badituzu, Jaincoaren Leguea ondo
gordeco dezu, ta seguru salvatuco cera.
Hoc fat, & vives. ERI-

ERIOTZAREN BIGARREN EXERCICIOA, edo Góruptz illaren gañean.

PULVIS ES, ET IN PULVEREM REVERTERIS. Gen. 3. *Lurra, ta autsa cera, ta auts biurtuco cera.*

ERiotzaren consideraciotic atera beardegun frutu andietatic bat da, Eriotzaren antz andico virtuteric noble enaren Egercicioa, ta usoa. Virtute oni Morttificacioa deritza. Ta eguiaz ezta besteric, ezpada gure pasio, ta inclinacio era gabecoen eriotza baten guisa, ta oriei viciaquentcea, era onean guregan moderatu, ill, ta obiratu, Gorputz illa, ta autsa becela. Era au da Egercicio onen fiñ, eta frutua.

Composicio, edo lecu eguita.

Zure Gorputz illari beguiratu, nola ill janciaz, bere ill oean, edo catabueta sar-turic, sala batean, Santo Cristo bat escuetan, ta argui bi aldamenetan dituela, egongo dan, ta orren igues guciac joango diran, ta bacarric an utcico duten.

Esca-

Figura de Eicari, edo Petición.

Gure Jaungoicoari argui, bici bat es-
cātu, zure vici labur miserable, ta orren
vanidade, engañu, ta ecerez utsa ondo
örañ ezagutceco, ta gorputz ori bere lur-
reco gauzaquin, merceduen becela aztu,
ta Jaungoicoa bere Ceruco gauza beticoa-
quin bacar bacarric estimatu, ta emendic
aurrera, billateeco. Ay! Jauna vanidade
öietaric nere beguñac aparraitzazu: lurreco
gauzac utzi, ta aztu, ta Zu ta Cerucoac
amatceri, ta arquitec en cracutsi zadazu.

Lendavico Puntu.

Oneran iru miseria eriotzac gorputz illa
ri d'acarcienac consideratu bear dira.
Lenengoä d'afiola sentiduen uso gabe, ta ale-
fie quemen gabe gorputz illa gueratec
dan: ez icusi aldezaque, ez enzun, ez itz
eguin, ez dagoen lecutic movitu, ez mun-
duco gauzaz usatu, ta ez gozatu: ya ajo-
laric ezti, ta ezta len becela gauza eder-
rac icusi, ta zaletcen, ez len becela mu-
sica suabeac enzunaz, ez usai gozoaz, ez
gauza biguñaz, ez janari erregalatuz,
munduan ezpalira baño gucaigo, cerea
sentiduen usor eriotzac quendu dion.

Ta munduco orrelaco gauza guciac go-

za-

zatu , ta bere érara izán balitu ere , oraiñ
 cér baliatuco lioque? ¿Non dá oraiñ : Cèr
 servitcendu araco buru , ta viotz sober-
 viaz , ta aizez andituac , aserrez , coleraz,
 venganzaz , ta dollorqueaiaz beteac ? Ecèr
 ez. ¿Non dira , cèr servitcendute , pensa-
 mentu gaiztoenzat beti idiquiric ceuden le-
 yo , edo beguiac , icusten zuten gucia Ja-
 incoaren Legucaren contra deseatecco ?
 Ecèr ez. ¿Non dira , cér servitcendute escu
 infame , ta mingañ ariñ beti gaitcera-
 co , escuaz alde ascotara , eta mingañaz
 iñori barcatu gabe , beti cebiltzanac?
 Ecèr ez.

¿Non da jale , ta edalea ? Cèr servitcen
 diote janari erregalatu , ta ardo gozoac,
 ceñaz ecín aspertu zán ; ta aimbeste craga-
 beco gueiegui , ta orien ondoren cetozen
 lujuriaco pecatu loiac , ta Jaincoaren aser-
 rea añ erraz tragatcen zán , ta bere sabela
 beste Jaincoric etzuela ? Ecèr ez. ¿Non di-
 ra , cèr servitcen dute oiñ ariñ pausoac
 nola nai , itsuan , ta lasterca pecatuèn bide-
 an , ta pauso oro pecatuac eguin , ta era-
 guñaz oi cebiltzanac ? Ecèr ez. ¿Non dà,
 cér servitcen du gorpuz , ta viotz aifí laz-
 qui , ta bizarria andiaz deabrua beti servis-
 tu zuenac ? Ecèr ez. Ecèr ez.

Ta emendic cër atera bear dezu? Cër?
 Zure erremedio, ta frutu segurua. Ta bada laster, nai ta nai ez, aleric mercedimentu gabe, sentidu guciën usoa eriotzac quendu bear dizu: Fedeco desengaño onez baliatu. Ta bada fedecac berac dio, *Jaincoaren amorioa eriotza bezala portitza dala, ta obia bezala gogorra.* Obe dezu Jaunaren amorez, zure vorondate libre, ta mercedimentuaz zure sentiduen usoa, Jangoicoac nai duela daquizun gauzetan, zure buruari ucatu, ta ill baciña bezala utci.

Ah! Badaquizu zcembat bider, cër peccatuen peligro, bide, edo ocasioetan, cembat Jaincoaren ofensatan zure beguiaz, mingañaz, belarriaz, escuaz gaizqui, ta zure condenacióraco baliatu ceran? Balia zaite bada, orain viotz orrez damu, eta proposituaz penitencia eguiteco, beguiaz negar eguiteco, ta orrelá besteaz. Ill ez quero lecuric ezta: Orañ Jaunac bere piedadez ematen dizunaz balia zaite, arma zaite pacenciaz, illa baciña bezala, neque dolore, tratu gaizto, afrenta, ta beste gaiztaz guciac, quejatu gabe issilic, Jaincoaren icenean, ta zure culpen paguan, eramateco. Gorpuz illa orietan quejatcen ez-

ta. Ay zu egulaz orrela illa, edo mortificatu, ta illerazoa baceunde!

Bigarren eriotzac Gorputz ill batean eguiten duen gauza dà, descoloretu, ichuratu quendu, ta otza, itsusia, ta nazcagarria utci: ta bereala, len beguiratu, ta zoraten zuen edertasuna, lasterca ubeldu, usaidu, quiratsez beré, ta ustelteen dijoa, ta beguiratu ta icaratcea dà. O lurrezco edertasunen sarra! Desengaño ascotan icusi dezun onetatic frutu andi, ta iraupen luceago duena aterezazu. Ta cèr da? Lurreco aguri diran edertasun, atsequin, ta anditasunetan ez zure viotza jositcea: oriez pagatcen baceña, faster beren ondorengo pagua ecer ecequin emango dizute.

Urci bada, diranac, osticopean betico iduqui: orretaco ez beguiratu oraïn dirudienari, ezpada laster oriez izango danari. Ta gauza eder, ta munduco gloria gucia cèr da? *Campoco lore, edo belar pusca bat*. Isai. 40. Dio Jaincoac: Escuz uquitu orduco, edo aice pisca batequin igartcen dana. Ta onelaco edertasun, lore argal, ta lur puscaeder antzaz estali bati beguiratceac, ta viotza orretan ipintcea, cèr calteac munduari, ta Guizonic andienai ecarri diezte? O! norc daqui, Jaincoac baicen.

Seniticean, bada; zure viotza orrela-
co eder nai, ta atseguin, edo gusto fal-
soctaronz dijoala, ta zaletu nai duela, vi-
ci ezazu zure fedea, ta tira, evaqui, mo-
deratu, ta orrelaco naiera, ta inclinacio-
ac sustraietic aterá zure viotceric, begui-
az, ta egulaz ezaguturic, cein azalecoac
diran emengo edertasunac, cein laburrae,
ta itsusiace lurreco apaindura, ta orien gus-
toac; ta cein laster acabatcen, ustel, ar, ta
auts biurtcen diran. Oriecgatic orain da-
ño Jaincoa ofenditu dezun guciac, damu
andiaz penitencia eguizu, ta propositu fir-
meaz zure viotza Jaincoagan ipintzu: *Ge-
hen itzas beti iraungo du. Isai. 40.*

Irugarren miseria, lengo bien ondoren
Gorputzari eriotzac ecartcen diona dá, ill,
ta bereala bacarric utcitcea: Munduco
estimatuena, ta adoratuená izán bada ere,
orduan aren igues dijoaz diranac, gura-
so, edo ume, senide, aide, ta adisquide-
ac: Norc daqui noren escuetan utcico
zaituzte; eta oiec, nola nai, ta nora nai,
zure queja-gabe erabillico, ta ill jancia
lasterea, ta zure icaraz jancico dizute: ta
zure echeoac berac alic-ere lasterrena, ta
presaca zure echetic bota nai zaituzte. **Q**
munduco ero itsuen pagu ondo merecituat

M

Emen.

Emendic atera bear dezu, ceñi güchi balio, ta servitcen duten munducoen esanac, eta estimacio aizezcoac: eztute mercei zuc casoric eguitea: ezta importá guizonac zu desamparatcea, ta zure adisquide, ta obligatuenac ere zuzaz aztutcea, Jaincoaren amparo, ta gracion zaudela. Gorputz illa ezta quejatcen guizonen desamparoaz, ta dicha anditzat dauca, David Santuac ciona: » Beguiratcen cidate- » nac, igues nigandic joan ciran, viotce- » tic nizaz aztuciran, illa banengo becela. *Psal. 30.* » Ontci ausi baten guisa izan nin- » zan, ceren nere aldean cebilzan ascoren » desprecioac aditu nituen. O! ni nere vio- » ttecan onela illa banengo, batere ez sen- » titceco, besteac ni illa becela tratatcean! O! munduco gauzenzat añi illa, ta crucifica- » tur banengo, non da munduac ere illzat, » ta crucificatutzat iduqui nintzaquean! Jain- » coari gracia au escazaiozu, ta zori oneco- » izango cera.

Bidez emen acorda zaite, Jaincoaz baccaric servitu, furreco gauzac pisatu, ta gorputza mortificacio, ta penitenciaz itsusitu, abeldu, ta acabatu duten privilegioaz: ta nola Jaunaren siervo, ta adisquideac, illa eztuten beren gorputzaquiñicaratic emar-

ten:

ta: orien Gorputzetatic inore eztu igues
eguiten , ezpada consueloz , erreġpeto , ta
devocioz guciaġ betetcen dituzte.

BIGARREN PUNTUA.

BRU GAUZA GORPUTZ ILLAREN-
za prestateen diranac , ta dira Soñecoa,
Oia , ta Guela.

L Enengoa dá soñecoa : eta gauza jaqui-
na , gueyenean echeo zatarrena , edo
edocein oi dá : ill janci pobre , edo balio
guchicoo. Ecer gauza eder , edo andiric
ganean paratcen badiote , ori obiraco , edo
enterratceco quentzen diote. ;Ta eer zai
zute gorputzari? Pensezazu ondo mundu-
doen eroqueria ; bada soñeco precio andico,
ta ederrac aimbeste estimatu , ta bear bada
pecatu ascorequin biribillatcen ditu. Apain
gura , andi nai , eder zale oietatic izaa ote
tera? Bada laster ill janci batez aspertuco
cera,

Orain gorputz ill orri galde : ;Non dira
modaco soñeco eder , ta non dira gala ber-
ri costu andico , aimbeste ansiareqnin billa-
tu , ta zute zoragarri ciranac ? Ay ! Berri-
ro gorputz orretara anima biurtuco balla,
cer vici modu barria artuco luquean ! ;Cer

negarrac, cét penitencia, lengo zoraque
rien gañean? Lengo sobra croac, lengo
gucieguiac nola jan, edan, jancian mode-
ratuco lituque, ta viotcetic, ta beguieta-
tic guciac quenduco? Bada arc ecin eguin-
go duena, eguizu zuc, ta damuco eztezui

Bigarren gauza, gorputzari ill ezquero
prestatcen zaiona, dà Oia, ta zulo batean
lur gogorra, Isaias Santuac diona: „Zure
„colchitac sitsac, ta zure colcha, edo es-
„talquia arrac izango dira. Isai. 14. Zure
cortinac, oeco cerua, ta burucoa, len ill ci-
ranen buru ezur, aragui ustel, ta besteen
ezurrac alde gucitic izangodira. Ea mundu-
co delicaduac: ¿Non dira zuen oi biguñ
erregalatu, ta ederqui janciac? Ah cét da-
mua? baña orduan erremedio gabea! Orañ
dá dembora, gucia ondo erremediatece-
co Jesu-Cristo Gurutceco oe gogorrean
zure pecatuac-gatic icusi, eta cere burua
oiean; ta beste gaucetan moderatceco, ta
orañdañoco gucieguiac cercenatu, ta so-
braquin pobreal, Cristoren izencan limos-
na eguiteco.

Irugarren gorputz illari dagoquion gau-
za, dà Guela, eta aú zazpi oñeco zulo,
edo obi, orda erdi batean etraguiten dan
bat dá. Beste munduco andinaien obi costu-
andi-

andicoac jcer servitico , cer ballatuco die?
 Ecer ez , ura. Ta orain ;non dira zuc aim-
 baste neque , ta costurequin jaso cinduen
 Eche , ta Palacio berriac , ta orien ederra-
 sun , ta vicitceco convenienciac , beti emeri
 vici bear bacenduen becela eguiñac ? Ay
 ero andia ! Ercenequalen Evangelioeco Cris-
 toren sententia : *Itsu zoroa , gau onetan*
ilico aiz , ido anima ateraco ditec : ;ta ire
ondasun oriec norenzat izango dira?

¿Ta cembat onelaco eroqueria itsu egu-
 nero icusten da? ¿Cembat burutié jauciac
 becela dabilta onelaco gauzac eguiten,
 ondasunac birivillatcen , mundu onetan
 beti vici bear balute becela? Ta bitartean
 animaz azturic , ta cembat , eta munduco
 gauçetan sartuágo , ambat ahimaren pe-
 ligro guciago : icusten dan onec guciac en-
 gañatu , ta zoratu , ta Ceruaz , ango glo-
 riaz , Jaincoaz , ta bere betico Palacioaz
 azturic. Fede ill ori , lurreco gauçen quea-
 requin illundu ; ta nasturic daucazuna , vi-
 icierazo , ta arguiczazu , ta lurreco gauzac
 utci , ta Cerucoac billa itzatçu.

—

IRUGARREN PUNTUA.

ESAN DIRAN GAUZAC GORPUTA

zarenzat prestatu , ta datoꝝ orien ondo-
ren beste iru cèr consideratu.

1. *Elcizara gorputzarequin eguiten dan jornada.*
2. *Nola lurra eman , ta obian sartasen duten.*
3. *Nola an utci , ta gusiac aztutegen duten.*

L Enengoa pensaezazu , nola bestec zu-
re ehetic ateraco zaituen , ta caja
batean , edo catabuetan lauren artean ca-
leac barrera eramango zaituzten Elcizara-
ño , ill campayaquin , batzuecscantateen,
besteac negarrez , ta bacoitzari dagoquion
becela , beste asco beren piedadez onrari
jarraitcen. Ta lenagoco egunetan cale orie-
tan ariñ cebillena batera bestera beguira,
ta Elizan devocio gabe sartcen zana , oraiñ
besteen gañean , itsu , gor , ta mutua joan,
edo sartuco dà , guciac dacustela , ta asco-
ren lantu gai dala.

Desengaño onetatit icasi , ta atera bear
dezu lecio andi bat , eta dà , zure brioac
gau-

gauza ascotán moldarcea, ta gucietan moderacioa gordercea; jaiqui, eta jancitcean modestia, itz eguitean, jatean, edatean; escalac bera jachitcean, echeric irten, eta calean ibiltcean, ta are guciago fede andiaz Eleizan sartcean, vicitasun gueieguiac ausi, ta mortificatecan; ta acorda zaite laster bestec erabilli, eta besteac echeric atera, caletan eraman, eta Eleizan sartuco zaituztela, beñere ortic ez irteteco. Ah! Jornada aú begulen aurrean animan bace-neuca, beste moduz zure vicitza zucenduco cenduque!

• Ta gorputzarequin, edo ondoren dijoan gende, edo proguco laguntza, ta acompanyamentuaz cër zaio? Ecër ez: ta are guchiago aren anima infemuan badago: onza, ta *gloria ori ara ezta jachico*.

• Gauza izugarria dá Sta. Teresa de Jesus miragarriac pauso onetan beñ icusi zuena. Ceramaten, esan degun becela Elizara guizon baten gorputza, ta Jaincoac eracutsien santari, nola demonio asco cijoacem escutic escura caco andiaquin gorputz orf batac besteari emanaz; araco obian sartu bear zanean, dio Santac, aimbeste demoniozco tropa, ta iscamilla, gorputza artseco cebillela, non arrituric, corde gabe guel-

gueldituzan. Consideratcen nuén, dio Santac, aren anima tristeaz cér eguingo zuten, ala gorputzaren jabe eguin ciranac.

Estadu galztoan daudenac onelaco gauza icaragarri bat, Jaincoac nai ta, icusico balute, Santuac ciona, asco balioco luque, vicitza obea arteco. ; Ta mundu zabal orretan egunoroco entierroetan, cembat onelaco icusi litezque? Norc daqui? O Jauraren juicio justu, ta estuac, cein urruti orietatic gure juicio guezurti engañuzcoac dabilzan! ; Ta orrelacoai emengo onrac cér servituco die, ezpada infernuan tormentu gueyagoraco?

Bigarren consideratu bear dezun gauza da, nola Elizaren erdian zure gorputza ipiñico duten, gucien beguetan, ta bere vicico aguiriena : guero officioa, Meza, ta Erresponsoa cantatu, ur bedicatu, ta incensuaz eman, ta obira eraman, ta an ezurren, arren, ta lur ustelen artean sartu, ta zure lurreco dagoquizun echean utcico zaituzte, ta zuzaz erraz diranac betico aztuco dira : losa batequin ondo tapatu, ta iñore gueiago icusico etzaitu. Ta orra certara datorren zure edertasun gucia, zure anditasun, arguitasun, puesto, onra, erregalo, ta lurreco lore, ta gloria gucia. *Sic transit gloria mundi.*

Zu-

Zure animari desengaño aũ ispillua be-
 cela aurrean ipiñi ; ta esayozu : Orra zure
 zoraqueria certara dan : beguira ceren ga-
 ñean aiezco torreat zure vanidadeac, gue-
 roco, ta betico famarenzat jaso dituen : or-
 ra zure gorputz maitea aĩn beguiratu , ta
 erregalatua : beguira oraiñ ceĩn ederra gue-
 ratcen dán. Ah ! obe dezu negar eguin, pe-
 nitencia, humildade, paciencia, modestia,
 caridadea, obra onac, Sacramentuac, ta
 Jesus humillaren, pobrearen, despreciatua-
 ren virtuteai jarraitu, ta Ceruan Palacio eder
 betico bat eguin, ta zure escuaz, ta vici-
 tza santuaz, zure eternidadeco eche berria
 jaso : *Ibit homo in domum eternitatis sua.*

Irugarren pensatu beardezun gauza dà,
 nola zure entierroa bucatu, tu atceneco
 erresponso, ta campanen otsarequin batean
 Elizatic guciac dijoacen, ta alacoric ezpaliz
 becela, jaterà, jocura, ta beren eguitecoetara,
 ta bereala zuzaz beste munduco andiaz be-
 cela aztuco dira : *perijt memoria eorum cum
 sonitu: oblivioni datus sum, tanquam mortuus
 à corde.* Munduan dan guapoena izandu ba-
 cera ere, ta aguintari gogorra, ya iñorc zu-
 re bildurric eztu : dan personaric bearrena
 izan baciña ere, ya zure bearric iñorc ez-
 tu. Zuzaz iñor oroitcen bada, murmura

tceco zure faltac , zure tãchac , zure peccatuc esateco, izangoda : munduco mingaiñ gaiztoen platilloric erregalatuena aã oi dazacur amorratuen guisa, illen ezurrac erabiltcea , ta gustoz chupatcea,

¿Azquenic, inornuan dauden animai cèr baliatucodie munduco onrac , ta alabanzac? Baña zuc oraiñ humildade viotzeceoz penitencia, ta vicitza berria eguin, ta Ceruan badago zure anima, ¿certaco ditu munduco onrac berequin duela Jaincoaren onra, ta gloria vicia?

Orain contu eguizu , zure gorputza sei, edo zorcí egunean lur pean egon ezquerro, ateratcen dutela, ta an bertan zure anima beguira dagoela. Cèr icusgarri trsitea, ta ez icusteco obea ! Beguira cèr ichura : cein itsusia, cein ustela, arrez, ta quiratsez betea ! Icusteac arrilezaque : usaiac ill lezaque , ta gogoratuac berac nazca lezaque. O cèr desengañoa ! O cèr ispillua ! O cèr buruco, edo almoada, oira zoazenean pensatu , ta onen gañean obeto zuc lo eguiteco ! Ta orra zure lengo edertasun ain estimatu , billatu , ta zoragarria cèr dan.

COBOQUIA.

O nere Jesus edertasun anciano eguiaz-
co bacarra! O lurrean aguiri diran,
ta Ceruan gordetic dauden edertasun guci-
en eguillea! O Aita Eternoaren betico Ispi-
llu guztiz eder garbia, ceñcan Aingueruac
enamuratoric beguiratu nai, ta naiago du-
ten! Zu aih ederra izanic nere peccatiac
golpez, azotcz, arantzaz, ta tormentuz,
aiñ itsusi biurtu cinduzten, ta Gurutzean
illic zure Ama gozo, ta orduan penaz be-
tearen besoetara icusgarri ichura gabe, aih
lastimosea jaichi cinduzten.

O nere Jaungoico guztia amoriozcoa!
Zure Eriotza, eta obiagatic, zure pasio
guciagatic, ta zure Ama maiteac orduan
artu zuen viotceco naigabe esan albaño an-
diago argatic, indazu, arren, Jauna argui,
ta indar andi bat nere viotza eguiaz zuga-
na biurtceco, penitencia eguiazcoa, ta zuc
naizun becela, vici modu berri santu bat
artceco, Zure amorioan vici, eta ill
nadin. Amen.

JUICIO PARTICULAR, EDO BA-
coitzarequin eguingo dan Juicioaren
gañeco Exercicioa.

*Statutum est hominibus semel mori, & post
hoc iudicium.* Hebr. 6. Jaunaren aguin-
te, edo leguea dá, gucioc beñ illtcea,
ta eriotzaren urrena Juicioa.

ZU ill ezquero, zure gorputza, nore
daqui, noren escuetan utci, ta bi-
tarteaz zure Anima, edo Espiritu bacarrari
Jaunaren Juicio onetara jarrai diozagun.

Exercicio onen fiña, ta emendic atera
bear dan frutua, dá Jaincoaren bildur santu
bat, propositu indarsu eraguille batequin
zure viotza seguratceco, ta pecatu gucie-
tatic betico libratceco, S. Juan Evangelis-
tac dion becela: *Faincoaren bildurra arre-
zazu, cergatic eldudan, edo aren Juicioa
ordua aldean dezun.* Apoc. 14.

Oracioraco Composicio, edo lecua.

Illtcan ceran puntu, ta lecu artàn, edo gue-
lan, eguizu contu, Jesu Cristo G. Jaunaren
Tri-

Tribunalean bereala arquiteñ cerala, ta Ja-
 un ori bere Magestade guciáz jánciric aguer-
 tceñ dala, Juicioco Tribunalean jarriric,
 Angueruen erdian : suz, ta garrezco ibai
 andibat aren onetatic, peccarien contra,
 Daniel Profetae dionez, irteten dala : edo
 San Juanec icusi zuenez, aren Jarlecuá gu-
 cia zuria, ta arguitazunez betea, Juezaren
 jaquintasun, ta beraatas ina justuenzat adi-
 erazotceco : beán zure contra demonio as-
 co, ta zure ahima aimbeste grillu, ta ca-
 rez, nola diran zure culpa, ta peccuar,
 toturic dagbela.

Petisioa, edo ter escatu bear dan.
 Egoera bacar triste onetan, Jaunari argui
 vici andi bat escatu bear diozu, ondo ezá-
 gutceco, ta zure buru, ta beste lurreco gau-
 za oien gañean, orduan juzgatuco dezun
 becela, orain bertan juzgatceco, eta gracia
 fraguille bat, orduan naico dezun gucia,
 orain gogotic, ta viciro eguiteco. Jauna,
 zuri contu ona emateco, David santuare-
 quin esaiozu : *Confite timore tuo carnes
 meas : à judicijs enim tuis timui.* Jauna, ne-
 re gorputza, ta viorza Zure bildurtasun san-
 tuaz josi ezazu ; ceren Zure juicioen icara
 andi batec artu naben. *Psal. 118.*

19
JUICIO ONETAN IRU GAUZAR
chit icaragarriac dituzu.

1. Zure anima Jaincoaren Tribunalan aguerttea.
2. Zure animaren vici guztico con-
tuac arttea.
3. Zure animaren betico senten-
cia ematea.

LENENGO PUNTUA.

FEdeac eracusten dizun eguia, emen go-
gora ecarzu, ta nola zure vicitzaren
atceneco instante, ergai, edo momentuan
zure animac salto espantoso bat eman bear
duen, vicitza onetatic bestera, mundu one-
tatic bestera, demboratic eternidadera. Pun-
tu artan aldatuco da, ta arquiteuco alderri,
edo erregio guciz berri, ta bacar batean,
seculan, edo inoiz ere icusi gabeco lecuan,
cabu gabeco soledade, edo eremu triste, za-
bal, neurri gabeco artan.

Zure espirituac bere burua, dan becela,
an icusico du, baina bacarric, adisquide, ta
lagun gabe, ezagun, bitarteco, amparo,
ta arrimogabe: urre, eta ondasun gabe,
onra, ta anditasun gabe: atseguin, ta jo-
las gabe; bacar bacarric. Ezdiote utzico, es-

ta bere gorputza ere berequin eramaten. Ori arrac jateco, usteldu, ta loi, ta auts biurtceco emen gueldituco dà. Zure obrac bacarchorje jarraituco dizute: *Opera enim illorum sequuntur illos*; ta oriei dagoquiena, emango zaio an bacotzari: *Unicuique secundum opera eius*. O! Utcitcen dezun munduaz, cèr juicio eguingo dezu orduan! Ondo pensaezazu oraïn bertan.

Jarri zaïte pusca bat zure artean consideratcen, cer iritico diozun ordu artan oraïngo Egercicio oietaco erretiro, ain bear onez, ta zure salvacioaren gañean Jaincoarequin jardute, ta tratatce onez? Cer esango dezu orduan, oraïngo zure naguitasunaren cateac urratu, munduco arazo, edo embarazo gucien damuan, Jaingoicori, ta zure anima bacarrari eguncho oïec ematera ausartu, ta animatu ciñan orduaz?

¿Cèr bada, cèr iritzico diezu Ceruco argui, ta desengaño emen zure viotcean sortu, ta artu cinduenaz? Cèr emendic atera cinduen gogo sendo, ta propositu craguilleaz penitenciaren eguiazco frutuac eguiteco, ta vici modu berri bat aurrera artceco? Ta cèr baldin Santu penitente, ta beïñ betico Jaincoagana convertitu ciranai eguiaz jarraitu badiezu? Ah! Onela San Pedro, San Pablo,

Mada-

Madalena, San Agustín, ta beste asco: lea
 pecatari, guero Santu penitente, Jangoi-
 coagana bein biurtu, ta gueiagoren gueia-
 go pecatura biurtu etciran: ta beren peca-
 tuen penitenciarequin Ceruco bidea eguin
 zuten. Au bai propositua,

¿Cer Santu orieo becela, pecatu gucien
 confesio andi oso bat eguin, ta Exercicioen
 ondoren, Confesore señalatu bat, Aita es-
 piritual jaquinsu, ta Jaunaren adisquide on
 bat artu badezu, Ceruco bidea eracusteco,
 ta lagun onac becela zu guidateco, ta fede
 osoarequin ari, Jesu-Cristori berari becela
 obeditceco, ta Jaunaren vorondatea gauza
 gucietan aren esanaz eguitoco? Baldin bide
 onetan, ta Jaincoac ipini zaituen estaduan,
 bera zucendari dezula, erregla segurua ar-
 tu badituzu, noiz, edo cembat bider con-
 fesatu, ta comulgatu bear dezun: nola gau-
 oro zure conciencia esaminatu, nola, ta
 cein librutan zure eguneroco iracurri aldia
 faltaric-gabe, ta soseguz eguin bear dezun.

Baldin Exercicio oietan, Jaunaren gra-
 ciaz janci, ta Cristoren espiritu, ta virtuteaz
 armatu bacera zure etsairic andien, edo vi-
 cio aguintariena ezagutceco, juramentu,
 edo birauetan, gueiegui jatean, edatean, ta
 ortic datocen gaitcetán, jocoan, jancian, lo-
 egui-

eguitan, beguiratcean, itzquetan, ta bes-
te onelaco oi diran eraga eco gaucetan,
orien contra berariaz peicatceco, ta sus-
traictic ateratceco.

(Baldin Gurasoa bacera, nola echeari,
ta echecoai beguiratu, cer exemplo, cen
aviso, cer erreglac ondo viciteeco, obra-
quin itzaquin baño guciago eman bear diz-
tezun: Nola Meza onzun, Doctrina erre-
pasatu, Ama Virginiaren Errosario santua
errezatu bear duen; nola guciaquin paquey
ta amorioa, ez inori gaitzie eguin: nola
lurreco gauzaz ondo usatu, ta Cerueo es-
cala eguin bear dan, alcar ondo eramau,
edo sustituz; nola mundueo esamesac, ta
errespeto vanoac oin pean iduqui, ta pi-
satu bear diran; nola emengo gora berac,
beste neque, ta contraeco gauzac ondo era-
man, ta emengo trabaju gacietan Jaungoi-
coaren juicioac, ta vorondatea adöratu, ta
chit gogotie eguitera animatu bear dans;
nola, eta certataño Jaincoac ondasunic
eman badizu, Jesu-Cristori bere pobre-
choetan limosna eguin.

Onelaco gaucetan, diot, Aita espiritua-
laren erreglac artu, vici modu santu bat
zucendu, orri equin, ta jarraitu, ta orretan
eriotzac anten bazaitu, cer igaro dan ofi-

eitzaz esango dezui? Orrelaco vicimodu, ta obra onaj cër iritzico diezui? Ay! Cër poza! Oricë dira flora, ta galeoiac beste munduan erregistro gabe igarotcendiranac: oriee angò monèda jaquiña, ta chit estimatua. O cër dicha! Guchiaz damua. Ah! orañ eguizu.

Baña contrara: ez orrela, ezpada, gaizqui vici izan bacera, asco, edo gueienac munduan becèla vicio, ta pecatuen pauso charretan, edo naguitasun peligroso batean, obra on gabeco, fede ill, ta biotcèco oztasun lastimoso batean, ta erreligioco, edo Evangeliioco gaucen gañcan ajola cabe, ta nola nai, animaco gauzac aztuaz: Ay cër pena, cër damua, cër naigabe, cër infernuco bildur, ta lastiac, criotzaco orduan icusi dezun becèla, artuco zaituen! Laster, bada, laster, viciro, orañ bereala vici modu berri santuori asi, ta orañ juicioan maico dezuma, eguin.

BIGARREN PUNTUA.

Zure vici guztico contua artea. Gorputcetic anima irten, ta bereala bertan, Juicioan Inezaren presencian aurquez aurque arquiteucoda. Teatro, edo Biltoqui agufi, ta icaragarri onstan zure animaren causa edo auca justician ifinico dà. Ecin igues eguin.

195
 Egingo dezu inora; ceren Jaunaren poderio, andirasun, edo Magestade guciac beregan alde gucitic, bere erdian, edo azpi-an becelá, gure esacran artu, eta sartuco zaituen. Eztezu Jaungoicoa icusico; baña espantu, esan al guciac baño andiagø batea, bere virtute, indar, ta aunditasuna sentierazoco: dizu puntu artan. Munduco soledaderic andien, ta triste illunen onetan zure espiritua tiacarric asustaturic, ta leiaz arrituric dagoela; iru testigu aldi, ta acusatzaile zurá contra salacen asico dira: oiec dira demoniõa, Ainguetua, ta zure conciençia.

DE ABRUEN ACUSACIO, TA CARGUAC

Oie, zure otsairic andienac bezala salacen asico dira: oiec lembicico acusatzaileac izango dira, ta suz, eta garrez, gorrotøz, ta aserrez irazequiac, ta guztiz isusi, ta izugarriac aguertuco dira: Arrabiaz heteric beteala deadarca asico dira. Jauna, csango dute, au da urliaren anima, zue simbeste estimatu cenduena, bada Ceruracø eguin cenduen, ta pecatuaz galdu, ta gure mendean cegoela, infernuc, ta gure atzaparretatic libratceagatic, Guizon, onen simotez, eguin cinan: ain garesti costaric, Zure otal, ta eriotzarequin erori cenduen.

arrezquero alimbeste on eguite, ta gracia
Zure amoriozco Sacramentuetan eguia
dizcatzu, ta beste milla modutan.

Baña, orra zure amorio guciari bere vi-
ci moduan nola erantzun dion, orra cër
esquerrac, ta cër pagua eman dizun. Chi-
qui, edo gaztetatie pecatuac eguiten asl-
zan, ta guc nai guenduen erara, bide or-
ri beti jarraitu dió. Beguira, Jauna, Zure
pasio, ta odola nola estimatu, edo certan
fiduqui duen: ta orren, ta zure vorondate,
ta amorioaren contra cër eguin duen. Zure
Legue santua ostico pean erabilli, ta milla
bider ausi du, edo Legue, ta abere batea
guisan vici izan da.

Beguira, onelaco sujeto, alaco persona-
requin, cër pecatuac itez, obraz, gogoz,
onelaco egun, ordu, ta lecutan, onelaco,
ta alaco bazterretan, cër gauzac, cër ofen-
sac, cër pecatu loi itsusi, ecin esan ditze-
queantac, ta ecin eontatu ala, bere gura-
riz, edo naiez, beste gabe, Zure Leguea
urratu, ta eguin dituen. Etzuen gura bea-
rric, bera, ta berez begui bietaraño peca-
tuetan, ta ocasioetan sartcen zan.

Aingueru santuen esana, ta Zure man-
datuai ez jaramon, ta guc nai guenduen
eguiten zuen. Aingueruen inspiñacioa ba-
ño,

gure sugestioac poticago artcen cituen.
 Guri jarraitcen cigun , gure bandera pean.
 beti ibilli da: guri naiago cigun, zuri baño:
 gure lagun , ta adisquide beti izan dá. Gu-
 rea izan dá vicitzan, gure izan beardu eriot-
 zan. Betor, betor gure atzapartetara : betor
 orain betico gurequin bere saria artcera.
 An dau cagu infernuan onen toquia , beronec
 bere obraquin eguin duena. Betor, guc
 emango diogu mercei duen pagua : Betor
 betico infernuctara,

Justicia , Jauna , peccatori galdu onen
 contra: Justicia , Juez justua , zure etsaitie
 andien onen contra. Beronec eguin du, be-
 ronec pagadezala : beronec nai izandu , be-
 ronec ardezala. Betor bada , onen gañera zu-
 re betico aserrea: betor zure Ira , madarica-
 cio , ta condenacioa. Betor, Jauna , demonio
 guciaquin infernura.

Ay Cristau aditcen zaudena ! Ay ! zure
 anima tristeac cer eguin , cer esan , cer pen-
 satucodu orduan ? Nora beguiratu , norga-
 nonz biurtuco dá trance icaragarri artan ? Ai
 cer infernuco icerlicac , gure esaeran , cer
 penac , cer larriac emango dioten ! Ah ! cer
 juicio eguingo dezu orduan , orain ain aisa,
 ta aleguere galteendituz un egun onaz , aim-
 beste era , ta ordu dichosoz , nola orain,
 Jaincoac ematen dizquitzun? Dea-

Deabruac, beat bada, eztiran gauza asco
 esan, edo aunditu naico dituzte: balizaque
 ori. Baña ay! Orrelaco-gabe, ¿cembat eguia
 (bera guezurren aita bada ere) cembat egui-
 azco culpa zure contra esan ditzaque? Or-
 rez gañera, juicio onetan eztira etsaiac ba-
 carric salatzalle izango; oiec isilic baleude
 ere, beste testigu obeac izango dira, norc
 itz eguin, ta norc zu acusatu. ¿Era norc?
 Ay! Aingueru santuac.

Aingueruen acusacio, ta carguac.

BIgarren lecuan oiec zure adisquideric
 andienac irtengo dira. Gucien artean
 zure Aingueru guardacoa, jaio ciñanetic
 juicioco puntu artaraño, betico zure lagun,
 aldeco, zure zai, beñere utci-gabe, zure
 pauso gucietan beguizco, ta icusizco tes-
 tigu fiela: eta baldin zure vicitza gaiztoa
 izan bada, ¿cér esan dezaque lagun onec?
 Ah, Jauna! Esangodu Aingueru santuac,
 au dà urliarén Anima, zure vorondate, ta
 amorio Aitarénac, gordetceco, niri eman ci-
 dana. Nic, daquizun becela, contu artu, ta
 eguin diot: Nic gau ta egun beguiratu, nic
 onembeste urtean garde det: bere animaco
 ta gorputceco gaitz, ta perill gucietatic li-
 bratu det. Nic, Ceruco bidean ibilli cedinj

Zure

zure itandatu gozo ; ta aviso santuric asco eman diozcat.

- Baña, Jauna, chiquitatic arrazoiaren arguia zuenetic, bereala oquercen asizan : zure Leguetic descamiatu, ta bere burua onelaco, ta alaco vicioai eman cien. Nic deitu, agatic, gueroago, ta gaiztoago, ta zure deienzat gortu, ta sortu zan, ta itsutu, ta begui bietaraño culpa, ta vicioetan sartuzan. Zaldi gogor brida, edo freno gabe baten guisan, etsiac becela, emancion Zure legue santua ausi, ta urratceari : Or aguintè bat, emen bestea ; gaur bat, biar bestea, ta egunoro, ta guciago. Deabruen esclavo billati nayago zuen vici, gure adisquidè baño. Azquenic Jauna, orra nola dagoen.

Puntu artan : Ay cèr penarequin (gure esaceran) zure Aingueru Santu orrec agueru tuco ditu beraren begui argui, ta garbien aurean oraiñ zuc aif. erraz, aif. errespeto, ta lotsa guchirequin eguin dituzun Jaunaren ofensac, peccaturic loyen, itsusien, ta lotsagarrienac ! Beguira ondo : cèr larriac, cèr antsiac emango dizuten. Munduan cen duen lagunic santuen, ta adisquideric laztanema zure contra onela biurturic icusi ta, ; cèr eguin, cèr esan, cèr pensatuco dezu? ; Nore biurtuco cera? Aingueru eguiati baten car-

gu oiei, ta onela beste asco; ta andagoai
 cër descargu emango diezú? Ay cër damu
 samiña, cër pena garrarza berari ez jarrai-
 tuaz iduquico dezun! ;Etzan besteric dea-
 bru etsai guezurtiari sinistu, ta aren esana
 eguin; ta Aingueru eguiazco adisquideari
 ez sinistu; ta eranzun nai ez?

Cër erremedio, bada, zurretat? Orduan
 ezta dembora, ta erremedioric: oraiñ bai.
 Jaincoari milla esquer, ceren ascori eman
 ezdion dembora aú, emandizun: lecu, ta
 argui aú zure erremedioraco: ta Aingueru
 ceruco Lagun, adisquide maite ori, or, ta
 lecu gucian zu gordetceco, zu salvatu ar-
 tean: aú zure escuan, zure nai, edo voron-
 datean dago: ori Jaincoac naidu, ori Ain-
 gueru santuac. Erremedio erraza, ta segu-
 rua dá, goicean jaiquitcean, zure anima;
 ta gorputza, zure aleguin, ta pensamentu,
 itz, ta obraquin, cern guztia, Aingueru
 santu onen escuetatic, Jaincoari presentatu,
 ta esqueñtcea, aren vorondatea gauza gu-
 cietan eguiteco. Erremedioa dá, beti, ta
 lecu gucian beguiratu, Jaincoaz dagoqui-
 zula beguira.

Beguira ondo, ceruco Aingueru eder ori
 dagoquizula beguira. Beguira ondo emen-
 dic aurrera etzandela bacarric, ta Aingue-
 rua

raa aldean dago quizula beguira. Beguira ondo non sartcen ceran, norequin zauden, ta norequin zabilzan. Beguira cér esan, cér eguiten dezun Aingueru orren aurrean. Edoccein lecu, ta zocotan, gau ta egun zu requin dago Ainguerua: Orañ daño baño errespeto, amorio, ta devocio guciago iduqui zaiozu. Beguira, beguira, nere, edo edocceñen aurrean lotsatuco cifaqueana eguitea, ez arren orren aurrean eguin.

Adisquide leyal baten guisa, legue ona, ta amorio andibat iduquizaiozu, ceruco Aingueruaren lagunac becela. Ay! Onela eguin, ta beguiratu baciño, beste vicimodu artuco cenduen! Ay! cembat pecatutatic libratuco ciñan! Erremedioa da, egunoro jaiqui, ta bereala Actu contriciozco andi bat propositu firmeaz eguin, ta zure Aingueruari esan.

Ceruco nere adisquide maite, nere viotceco Aingueru santua: orra nere viotza, nere anima, ta gorputza, naizan gucia gaurco, ta betico, zure escuetan. Ta, bada, zue naizu nic Jaungoicoaren vorondatea eguitea, aren Legue santuari, ta nere obligacioai ondo eranzutea; ea, bada, izan, ta eguin bidi gucia. Zu nere Maisu, nere Lagun, nere Guida cera Ceruco bidean: gona nazazu, gorde ta zuecendu nere pat-

so, obra, itz, ta pensamentu gucietan : eracutsi, ta lagunzadazu, ondo erabilli, ta tentacio, ta pecatuen bide gucietatic libra nazazu, zuri zucen jarraitu, vicitza berri bat eguin, ta eriotza on batequin zurequin sartceco Ceruco glorian. Amen.

Oracio aù, edo onelaco bat goizoro eguiten badezu, nere contru, Aingueruac gorde, ta gaitzetatic ateraco zaituela.

Zure Concienciaren acusacio, ta carguac.

ZUre animaren auzi andi onetan Aingueru, ta deabruac isillic baduela ere, norc itzeguin izango da, testigu fiel, ta echecho lapurraren guisa, guciaren berri osoro daquiena. Aù dá zure Conciencia be-
ra. O juicio icaragarria ! Ta cere burua zuc salatu bearra ! ;Orain colcoan ezcutuan es-
taliric dauzcatzun culpac nola aguertuco di-
tu ? ;Zure vicico pauso oquer chiqui, ta an-
diac, nola diranac, esango ditu orduan ?
;Cèr deadar icaragarriac emango ditu con-
ciencia orrec gorderic, ta bear bada, lotsaz,
bildutrez, maliciaz ondo confessatu gabe
or barrenen dauzcan culpac Tribunal artan,
plazara becela, gucièn aurrera ateratceco ?
Ni naiz, esango du, ni naiz urlia zori
gaitzocoaren anima, billau, falsiaz betea.

Jain-

Jaincoaren , ta Aingueruen beguetan nazo
cagarria , ta herico galdu bearra. Lotsa ta
desventura au , ta andiagoc ondo mereci
ditur : bada ordu onetan cer igaroco citza
dan , nequiela , orregatic ere eguin nituen
onelaco , eta alaco pecatu, ta gaiztaqueria
loi, itsusi,ecin esan ditezqueanac : onela, ta
ala Jaunaren Leguea ausi, ta nere Jainco
eta Aita amoroso onena aibeste bider
ofenditu nuen.

Ay zori gaiztoco egun , ordu, ta lecu,
ceñean urlia icusi, ta condenarceco ezagutu
nuen ! Ay pensamentu madaricatuac , ce
ñaquin deabruari, ta pecatuari nere vitorce
an ostatic emanien ! Ay ill baninz milla bli
dar lenago , nere Jaungoicoa ofenditu ba
ño ! Trance onetan orain icusico ez nintzan
Orduan erremedioric ezta , orain bai. Bor
rratu , bada , ta odolezco negarraquin , al
bacendu, zure concienciaren Libruan gaiz
qui eguin , ta escribitu dezun gucia borra
tu, ta penitencia , ta vicitza berriaren obrac
eguin , ta escribitu zure Libru orretan.

• ZURE JUEZAREN CARGUAC.

Juicioac duen pausoric izugarriena au da
J; Cer carguac dauzatzu zure beguira or
duric tristen onetan? Cer, ta nolacoac Jcau

Cris-

Cristoc bere aotic eguingo dizquitzu bere
 zerre guciaren ordu onetan? Esango dizuz
 anima galdu, deabruen servitzari billau zo-
 ri gaiztocoa, Cristau fede gabe, ta legue-
 gabecoa, eguindezu, nai dezuna: Sufritu
 zaitut, ta oraiñdaño isillic egon naiz. Baña
 oraiñ dá, ta artu det dembora, zure contra-
 itz eguitcco. Izan cindezquean, ta nic nere
 amorioz, nere alaba, ta vlotceco esposa-
 maite nai cindudan eguin, betico nere
 glorian Ceruco erreguina izateco.

Nere vorondate ta esana eguin, nere Le-
 guea beste anima justuac becela gorde, ta
 añ erraz zure escuan ori ceneucala, ?etzan
 beneric, nizaz zure Jaun, ta Jainco, Aita
 onguilleaz orrela áztu, ni utci, ta deabru-
 zure etsairic andienen bandoco eguin, ta
 nere contra biurtu, ta zure indar, ta ale-
 guin guciaquin oriel jarraltcea? Nic ecer eze-
 tic eguin cindudan, ez deabruac: nic aim-
 beste urtean vicia, ta animan, ta gorputcean
 bear cenduena emandizut, ez arc: nic gu-
 rutcean ill, ta erosi cindudan, ez arc: Nic
 aimbeste bider infernutic, nola Sacramen-
 tuan pecatutic, libratu zaitut, ez arc. Nie
 aimbeste mirari zugatic eguin ditut, ez arc.

Cér gueiago zu salvatceagatic eguin ne-
 raquean? Ta cér pagu orien ondoren, ta

oriec

orre gatic erlan didazu zue? *Quid est, quod
 debui ultra facere vincta mea; & non feci?*
 Isai. 54. Nere masti zure anima orroga
 ric; çer guciago eguin nezaquean? Çer ase
 rrea bada Juez justu onena izango dá, ta
 çer ataleoac, eguingo dizquitzu berriro esa
 sean: *Filios enutriui, & exaltavi; ipsi au
 tem spreverunt me.* Isai. 1. 2. Nere ume, se
 me edo alaba maitea becela aimbeste costu
 réquin aei cindudan, nere dotrina, exemplo,
 milagro, ta Sacramentuquin, nere gorputz
 ta Odol orregalatuaz, nere viorceco amo
 cio guciatz; zu hurreco ar ecer ez bat eñala
 atchatu, ta Ceruco gaucetara igo cindudan.
 Orrembeste onguite, gracia, ta amotio
 gatic, çer pagu eman didazu? Ta esquerro
 lecuaz, ondo ceneritzan; ta etzan besteric,
 Ni sorqui zatar bat betela utci, ta oin pean
 erabilteca?; Bategatic guero ori gutria, ta
 aimbeste bider. O Ceruac, d lerra! Etzan
 ergatic, ezpada cereu ala nai cenduen, ala
 gogoac eman cizun; Zure, ta nere etsaitic
 andienaz bat eguin, ta aiec servitu, aiec
 ondoren, ta nere contra ibilli nai cenduen.
 Ad zori gaitzoco deabruen servitzari lot
 sa gabea, ta latsa-garria. Bada orain Nic ere arguitico dizut zu
 arpeguiñ; zure vicitza argultara atero,

era zure culpen nazcagarri betico guciac
 emango dizut beguictan. *Arguam te, O ista-
 tiam contra faciem tuam.* Psal. 49. *Ponam
 contra te omnes abominaciones tuas.* Ezeq. 7.
 Ay ! Cér gauzac plazara irtengo diran or-
 der onetan, ceñican Jaunac berac dio , bere
 jaquintasun abgniaz , peccaturie ezeutatu, ta
 gordegnac billatu , eta aguertuco dituelac.
Scrutabor Jerusalem in lucernis : Soph. 1.
 Ta justiciac berac ere juzgatuco dituelac.
Ego justicias judicabo. Psal. 74.
 Orrembeste estutasunequin Anima justuz,
 Gerusalénen icenean aditcen dana , artuco
 badu, ta justiciac , edo obra onac berac on-
 dela esamiatu bear baditu , jcer eguingo
 etatu zugar , peccatari Babilonia nastu bat
 ceranean , ta zure obretan , ceñiac aifn oque-
 trac , ta Jaincoaren Legue , ta vorondatez-
 ta contra icusten dezun becela , izan di-
 ran ? Ay cét lotsa paregabéa, Cristoren on-
 dugo aserrea icustea ! Argatic Santuac dio-
 te , infertua bere sú , ta garrakin , ta an-
 go tormentuac baño , infernu , ta tormen-
 tu andiagodañala , nolere bait , juicio onetan
 Jesusen arpegui eder gozoa , bere ira justu
 guciarequin aifn aserre , ta gogor icustea.
 Baldin munduan egula al ditezquean pi-
 cardia , ta infamia guciac errian , ta erricoan

contra zure eguin , ta eriotzaren sententia emateco Jueza zure ondoren , ta billa dabilola , beraten echean , ta beguietan gaiztaqueria , lapurreria , ta eriotzaric icaragarrienac eguingo bacindu : ta azquenic bere Tribunalean , mundu guciaren aurrean cereburua cateaz beteric , acusaturic , ta urcamendico sententia artceco icusico bacendu , çer lotsa , çer larria , çer naigabea , trançe artan artuco cenduque ? Sinistu , ta pensezazu , bada , juicioco orduan Cristo zure contra icusi , ta infernucico pena , naigabe , ta tormentu andiango izango dezula , çeren bera , ta bere beguien aurrean zure ala ofenditu dezun .

Ta au dà David penitentearen viotz precezu , edo noblea sentimentuz jositecen , ta erdiz erdi partitcen cion ezipata gogotza *Tibi soli peccavi , & malum coram te feci* ! Ah , nere Jaungoico maitea ! Nic peccatu eguin det Zure contra , eta Zure beguieren aurrean . Pena au bera izango dà , zure anima tormenturic andienaz josi , ta erdiratuçeduenaz , orain erremediatcen ezipacera . Bana jaunari esquer milla , zure escuan daucazer erremedioa : penitencia , negar , damu , proposito eguiazco , ta vici modu berri santibat bereala artcea .

IRUGARREN PUNTUA

ZURE ANIMARI BETICO SENTEN-
cia ematea.

Esan diran gauza . edo carguac igato , fa-
pensaezazu , nola zure anima triste
bacarra bere sentenciaren beguira egongo
dán . Au , gure esaeran , mundu onetaco
auci batean oi dan becela , izango dá . Im-
portancia andico auci batean , hacienda , ta
ondasun ascoren , onra , edo infamia , vi-
ciaren , edo eriotzaren gañean sentencía
eman bear danean . ¿Cér quezca , cér ansia ,
cér bildurra dauca aucilariac ? ¿Cér ay viot-
cecoac ? Ez jan al , ez ló eguin aldu .

Alasse , bada , puntu artan zure anima
egongo dá . Ay , esango dú , ay ! Cér sen-
tencia izango ote det , auci onetan , ceñean
dijoaquit , ez guchiago , ezpada Ceruco on-
dasunac , edo infernuco betico pobrezal .
Ay ! cér sentencia izango det auci onet-
tan , ceñean dijoaquit , edo Jaincoaren
Semearen onra Ceruan , edo Lucifer , ta
Satanasen esclavo billau betico izán in-
fernuan . Ay ! ta cér sentencia emango ote
zat auci onetan , ceñgan dijoaquit , edo be-
tico vicia Ceruco gloriari , edo betico eri-

Itza infernu gorian ! Yguerrieco du bereala, baña, eguizu contu, onela dagoela dudan. Naizu seguratu, naizu jaquin ? Bada zure escuan dago, ez orduan, bai orain, vicitza berri santu batequin.

Gauza oyec laster igaroco dira an; eta zure salvacio, edo condenacioco sententia Juez guciz justitac bereala emango du. Baldin condenacioco bada : Ay cer desdicha, ta calte beticoa ! Eztu balioco an, ez Jestsen odol zugatic isuriac, ez Ama Virginia ren, ez San Josef, ez Santuen erreguac. Condenacioco sententia bada, puntu artan Jaincoac largaco zaitu zure etsai deabru gucien presa : era oyec iscamilla, garrassi, ta iseca andiaz erasoço dizute : atzapar gorri ayequin zure animari itsatsico diote, burlaz, arraviac deadarrez, ta algaraz esaten diotela :

Ator ona infernuco alaja, eta esclavado demonio gucien lagun aiz : ator ona, zori gaiztooa. Cer ? Etzan besteric ire gurari guztiaz aspertu, gure naya, ta esanac beti eguin, ta begui bietaraño vicio, ta pecatueran sartu, ta ondatcea ? Orain ire saria artu ta alde batera gucia pagatucodec. Jaincoaren doay guciac erancico dizcate, ta Cristina santu, edo Cristavaren señalear, lotsa,

ta tormentu gueyagoraco utrico diote, ta puntu artan infernucio leice zulo cabugabe ayetan betico beraquin ondatuco dute. Ay anima seculaco galdua!

Baña salvacioeo sententia badezu : Cér Aingueruen poz aldia! Cér Aleluyac cantarucio dituzte ! Cér ongui etorri , cér lazranac emango dizquitzute ! Jesu-Cristoc bere arpegui chit gozoaz beguiratu , ta esango dizu : Atoz, atoz, nere servitzari leyala, nere vorondatea beti eguin nai cenduena; Atoz, anima justu nere Biotceco Esposa maitea Ceruco Coroa artcera: Atoz nigana; seculaco laztan gozo bat indazu : sarzaitz betico nere gloria vician , nere Biotcean.

O anima doatsua ! O espiritu dichosoal Urratu, ta etea dira deabruen lazoac , araguiaren grinac , ta munduarena cate guciac, Bitor, bitor , gure lagun cera, Aingueruac esango dizute : Ceruco erreguina izan be ar dezu. Atoz Cerura , goacen gloriara.

O cér esquerrac Jaincoari emango dizcatzun, cér bendicio, eta alabantzac Jesus zure Jabe maiteari, Ama Virgina zure Ama gozoari , San Jose, Aingueru, ta Santua! O cér poza, lengo neque, tentacio, penitenciaz, paciencia, humildasun, caridade, ta beste virtute, ta obra onaz ordnan oroit

tecan ! Ta onetan , sartuco cera Jaincoaren
glorian . O ! ; Cer icusico dezu an ? Norc gi-
y esan ? Ea bada : esperanza onequin vici
modu berri orduah naico dezuna , artcera
animatu : seculaco pecatuen bide , ta infer-
nucó pausoac utci , ta Ceruco bidea artu .

Begüira orain ondo bataren dicha , ta zori
ona ; ta bestearen desdicha , ta zori gaiz-
toa . Begüira ondo , ta efre medio gabe , suer-
te bata , edo bestea izango dezula . Begüira ,
contu , cein izango dan zurea . O perill ! O
quezca ! O bildurra ! Bat , edo bestea bear , ta
ez jaquin cein izangodan zurea . Begüira on-
do emen viciceran artean , nola goyen Ce-
rua , ta bean daucazun infernua . Zure atce-
neco pausoac auzi au , bada au ebaqui , ta
betico erabaquico du . Eztaquizu , pauso ori
noiz , non , ta nola emango dezun . Ezta-
quizu cein izango dan zure atceneco pau-
soa . O salto izugarti , o pauso icaragarria !
O puntu ! O instante ! O momentu , gütien
peligrosuena , ceñari nere eternidadea di-
checan ! Ta ez jaquin nizaz cer izangodan .

Naizu bada , nere anima maltea , naizu ja-
quin ? Orra bada : zure vicitzac esangodu .
Begüira , zure obraquin noronz zoacen ? Ce-
ruronz , ala infernuronz ? Noronz begüita
zuden , aronz joangocera . Arbola bat eba-

quitcean , edo escuierara , edo ezquerretara erori beardu : beguira noronz ceartcen , edo macurcen dan , ta ara erorico da. Aiazure anima. Ezquerretara ceartua badago , seguru zoaz betico infernura : *in quocumque loco ceciderit , ibi erit*. Eccl. 11. Bestetic diò Jaincoac : » Bacoitza joango dala bere eter- » nidadeco echera : *Ibit homo in domum eternitatis sua*. Eccl. 12. Zure pensamentu , itz , eta obraquin eche aú eguiten beti aricera Cèr guiten dezu ? Noraco aricera ? Ceruraco , ala infernuraco ? Ceren beguira zaude ?

Coloquio , edo atceneco itzqueta.

ONere Jesus maitea , orduan Juez gu- ciz aserrea , ta oraiñ amoriozco Aita paquetsua ! nere auqueran , nere escuan , nere vorondatean utci didazu zuc nere salvacio , edo condenacioa : *Apposui tibi aquam , & ignem : ad quod volueris , porrige manum tuam*. Eccl. 25. 17. Ontasun , ta beraatasun paregabea ! Zuc , Jauna , naidezu gucioc salvatcea ; baña bacoitzari bere vorondate librea nai diozu gorde : salvatceco , salvatu nai badu : ta bere vorondatez condenatceco condenatu nai badu. Cèr guciago zure ja-
quin-

quintasun , ta amorio neurri , ta cabu gabac gure oneraco eguin aldezaquean , gu salvatceco.


Zure partetic seguru gaude : zuc beti naidezu , beti zaude prest ; beti zure escua , zure arguia , zure gracia ematen dezu , gu salvatceco , guc nai badegu. Orrela gure aldetic dago peligro , ta bildur gucia. ; Ta gauza oiec onela , ta fedeco eguiac izanic , izangoda , zu , edo besteric , bere escuan salvacio , ta Ceruco gloria daucala , condenatu naiduenic ? Bada orrela Jaincoaren vorndatea jaquin , ta guc salvatceco cembat eguinduen , ta Cristauric bada pecatu eguin , ta bere anima , ta Jaincoa galdu naiduenic , ondo irabaci , ta ondo merecia du ortelacoac infernu bat , ta infernu asco. Condenatceco gogo gucizco andia beardu , orficus ta condenatu naiduenac.

Ez , ez , nere Salvadorea , ez nic secular orrelaco lanic. Naiago det vicia , lurreco ecer ezqueria guciac galdu. Ta milla vicitza , ta gueyago banitu , guciac eman lenago , zu pecatuaz ofenditu , ta galdu baño. Ez , ez , Jaina peçaturic gueyago : sobra , ta gueyegui dira oraindañoacoac : orien damua daucat , ta iduquico det beti. Penitencia egulazcoa eguin naidet , ez gogo erdi , edo nai erdi

otza-

otzaquin oraiñdaño becela ; ezpada vi-
otz , oso guztitic.

O nere Jesus maitea ! Juicioco puntuan
aserre egongo cera , ta arrazoiez , pecatua-
ren contra : oraiñ amorioz , ta piedadez
heteric : oraiñ , bada San Josef gozoac ,
oraiñ zure Ama maiteac nigatic erregutcen
dizute : Bitarteco oiecgatic , arren indazu
Zure gracia vicitza berri bat eguiteco.
Orretaco nere culpa , ta zure contra eguin
ditudan ofensa andi itsusi guciaquin nere
arpeguian , diran becela , indazu , lotsatu ,
ta humillanadin , ta gucien penitencia
eguiazcoa eguin , ta juicioan ondo irten
nadin , zu beti alabatceco. Amen.



(*)

INFERNUCO PENA, TA TORMEN-

tuen gañeco Exercicioa.

Ducunt in bonis dies suos, & in puncto ad inferna descendunt. Beren egunac ondasunctan igaro, eta puntu batean infernura jachitcen dira. Job. 21. *Ibunt hi in supplicium aeternum.* Gaiztoac gaizondo edo betico infernura joango dira Mat. 21

Fedeco eguia andi onetatic, ta infernucopenen pensamentu icaragarritic atera bear dezun frutua, da zure pecatu, edo Jaungoicoaren contra eguin dituzun ofensagucien gorrotoric aldezun andiena, Jaincoaren aserre justuaren bildurra, ta aurreraco propositu sendo bat : eta egufaz eriotzaren, infernuaren baño ere, pecatuaren contraco viotceco bildur andiago bat.

Compositio, edo lecu eguitoa.

Lurraren centro, edo erdian bean pensa ezazu lecu andi bat, al dezaquean illunen, tristeen, izugarriena, suz, ta garrez, quez, ta usairic loyen, ta nazcagarrienaz betea, ta an betico, egon bear duten condenatu zori

gaiz-

gaiztocoac icusten dituzula, alde gucicie Jaunaren aserre, ta justiciaren sú viciac erretcen dituztela : Labe, edo carobi ayetan beguira sartu, ta betico josi.

Escaria, edo peticioa.

Fede vici bat Jaincoari esca zaiozu, ta vlotceco argui, ta sentimentu andi bat, desdichadu ayec infernuan daramazquiten tormentu icaragarriac ezagutceco : ta baldin Jaincoaren hume ona becela, aren amorioac zute Aita maitea servitu, ta amatcera muguitcen, ta empenatcen ezpazaitu, edo latic tormentu gogor oriec atcera erazo, ta ez Jaincoa gueyago ofenditceco bildur santuan sartu, ta betico lotu zaitzaten. Bada, ezpadezu eguiten pecaturic, eztezu izango infernuric : Quenezazu zic pecatua, eta nic quetiduco det infernua.

FRUGA UZA INFERNUAN

diranac.

1. *Infernucó lecuá, ta betico lagunac.*
2. *Infernucó gorputzaren tormentuac.*
3. *Infernucó animaren betico tormentuac.*

LENENGO PUNTUA.

Sarzaite pusca bat zuregan, ta penseza-
Szu infernuan. Ah! Cér pensamentu pro-
vecho-

317
vichosoa ! Ta infernua cër dâ ? Zoro andi
asco dira, Infernuaren icenac ere aditu, edo
enzun na ez dutenac. Esan bear etzaye, ez
predicatu, ez iracurri, ta ez aiatu ere in-
fernuric, ceren icentatceac berac bildurt-
cen, ta gueyegui, diote, icaratcen dituen.

Ta ori diotenac, inor dira? Nor? Vici
modu galdu, ta vicioetan beguietaraño sar-
turic, ta orregatic viciric beren aldetic in-
fernuan daudena. Ay zori gaiztoco itsu,
deabruac enganatu, ta zoraturic zautenac.
Cër zaio deabruari, ceña zu becein boboa
eztan, zuc infernuan pensatcea, edo ez
baldin pensatu, edo pensarugabe, postac
aren ondoren infernura bazoaz? Cër zaio
baldin ustez ustegabe zure obrac ara ba-
zaramazquité?

Ez, nere Cristava: zu, ta ni orieac bece-
la, orren itsu izan ez gaitean. Viciric orain
consideracioaz jachigaitecen infernura, gue-
ro illic, edo illiccan jachi ez gaitecen ara.
Ar dezagun byioe S. Bernardoren conseju
au ta jarrai diozagun S. Francisco Borgia
andiaren exemploari. Sanhuac, Eleizac dion
becela ordu asco egu nero, sei, zortci, ta gue-
yago oracioan igarotcen cituen; baña orie-
tatic, dio beraren vicitzac, egunero faltari-
gabe, ordu bete infernuco penen considera-
cio,

cio, ta gogartuari beti ematen ciola. Ah! Argatic ala vici izan zan, ta Santu aini aundi eguin zan. Ay! ;Ta pensamentu orren bearrago nor da? ;Zu, ala Santua?

Jachi zaité bada, orain ura becela infernuta, guero bera becela igotceco Cerura. ;Cér da bada infernua? i. Lur pean lecu bat da guciz illun, ta icaragarria, cefiean alde gucietatic besteric eztago, ezpada sua, garra, ta quea: su ori Jaun guztiz aserratu justuaren alceric portitcenac era batera beti irazaquitcen du, ta su orren berezquiroco gal guciac birivillatcen ditu. Zufre, pique, erresina, ta brea, sucor mota guciac alcarquin an dira. Baña su bat bere batean beti berdin icequia, beti gartua, beti illuna, edo beñere ez arguitua, beti tormentatcen dagoena; ta beñere illtzen eztuena: Beti deseguiten, ta beñere acabatcen eztuena.

Su bat, gu emen berotcen, ta gozatcen galtuena becelacoa izanagatic, ta gure oneraco; an guztiz da aserrea, ta Jaunaren justicia, ta podere guztlac goratcen du suaren gorputz ori, ta anima, edo espiritu an diran guciac, betico aiei eransi, ichequi, ta bat eguinaz erretcen ditu. Su bat aini cinzo ta jaquinsua, non, baliequi becela, Jaunari obeditcen dion; eta condenatu bacoitze

hear

bear dan neurria, ta bere culpa dagoquien becela erretcen dituen. Au da infernuco sua, ceñaren aldean mundu gucico sù gar-
rac, pintatuac bezala, edo ecer ez bat dira.

2. Infernuia carcela guciz illun izugarri bat da, loiez, atsez, ta quiratsez betea : an condenatuac sartcen dira, an peccatari galdu, gende infame, canalla, billau, eta emengo picaro guztiac batcen dira : basca artan demonio guciaquin naste daude, ta betico egon bear dute. Baña alcarrequin guciac egotea, baten ere consueloa ezta, ceren alcar ecin icusiric, beti arrabia vician, desesperaturic, ta alcarren contra, etsaric andi-
nac becela, amorraturic dauden. Ala bataren infernuia bestearen tormentua da. Aitac semea icustean, ta semeac Aita tormentu berria dauca, ta orrela beste guciaquin.

3. Infenuia ciega ciquintasun guciac bete bat da. Bein an sartu ezquero, secula gucietan irretetic, igues eguiteric eztago. An gauza onic, ez onaren cutsu, edo arrastoric eztago. An, gaitz gucien lecuian becela, gaitzic batere falta ezta. An sartu orduco condenatu tristea artcendute batean, ta betico, gaitz mota guciac : minac, suminac, penac, arrabiac, ansiac, naigabeac, goseac, egarriac, otzac, befoac, pobrezac, infamiac,

gu-

guciaren bearrac , cargac , nequeac , lcer-
diac , eridac , tristezac , ta beste gaitz gu-
ciac betico eriotza vici artan,

4. Pensezazu ondo, condenatu bacoitzac
cer lagunac dituen infernuan. An daude
orañ gorpuz , ta anima infernuan viciric
ondatu ciran asco : ta azquen juicio ezque-
ro , guztiaç ala egongo dira an. Beste lagu-
nic eztute bada izango , ta ez secula gucie-
tan icusico an , ezpada demonio , deabru,
ta condenatuac alde gucietatic. Batec gora
beguiratcen badu , aguertuco zaizca demo-
nioac : beera beguiratcen badu , demonio,
ta condenatuac : demonioac alde batetic,
deabruac , ta condenatuac besteti.

Lagun madaricatu orieç asco ezpalira be-
cela , beguira ondo beste , berari dagozcan
lagun , alde gucitic artu , ta betico tormen-
tariuco dutenac : Zacurrac , otsoac , arzac,
leoyac , basacatuac , musquerrac , sugueac,
zapoac , armiarmac , basilisco , caiman , edo
musquerzarrac , ta beste pistia móta guciac.

Oieç , eta onelaco esan al baño gueyago,
izugarriago dira bidutci , edo mostroo itsusi
suz ta garrezco aserre amorratuac izango
dira condenatuen betico lagunac : ta nai , ta
nai ez , ayen artean beti egon bear : eciñ igues
eguin : eciñ beguiaç ichi : nai ta nai ez beti

to icusi bear. O cér lagunac ! O cér tormentua ! O cér infernua !

Pisa ezazu ondo, Cristaua, Fedearen pisan , edo Jaincoaren balanza berdifican ipintzu , cér suerte peccariac beretzat autacén , edo artcen duen. Aingueru , ta Santuen lagun Ceruan izán bear zuena : Jesus maitearen ispillu eder , garbi , ta gozoaren arpegiari bere burua icusi bearzuena , Ama Virgína Santa , ta ederrena , Cerutar guciaquin icusi , ta betico glorian lagun bear cituena ; bere naiez , ta vorondatez , beste gabe , Lucifer , ta demonio gucien mendeco servitzari billau eguiten dá , burniz , suz , ta garrez ezeutatu , edo lotu , ta infenuco ciega onetan betico egoteco . Ta au dá condenatuén lecu , edo toquia : au dá infernua .

Ta zori gaitzocóen lurpecó toqui ori noiz eguin zan ? Munduaren asiearan , Cerua , ta lurra bere itzaz Jaungoicoac eguin cirueanean . Ta lurpe toqui , catigu , pena , ta gaitz gutziaquico ori Jaunac certaco eguin zuen ? Mundua ondo gobernateco : ta mundu-coac zucén erabiltceco : ta onez cerua gaitc nai ezpazuten , edolaric infernuaren bildurrez oquetric inórc eguin etcezan ; edo eguiten bazuten , gaitzqui vici , ta gaitzqui itcen ciranac ; infernuan betico paga cizatén ,

Eguia

Eguia fedeco aù , ta onaren , ta gaitzaren
berri sustrayetic jaquiteco , ta dan becela
barrentceco , aditu , ta jaquin beardezu , no-
la Jaingoicoac bere jaquintasun guciaz Gui-
zona ecer ezetic bere anticera eguinzuen.
Eccli. 15. 14. Mundu onetan bidezco zu-
cena paratu zuen : beregañ , edo bere burua-
ren Jabe utci zuen : bere leguea , ta aguin-
teac eman ciozcan.

Jaunac esancion , ta orain zuri esaten di-
zu : Orra , libre eguin zaitut : ona , ta gai-
tza zure vorondatean dago gucia. Ondo
eguin nai badezu , ta nere Leguea , ta Man-
damentuac gorde , doatsua betico eguingo
zaituzte. Orra ura , ta orra sua : artu nai-
zuna , zure escuan dago. Orra Cerua , orra
infernua : naizuna artu. Orra vicia , orra
eriotza , ona , ta gaitza : zure vorondatez
nai dezuna , emango zatzu.

Jaungoicoaren vorondate santua aù dà.
Ta erraz emendic ezagutuco dezu , conde-
natcen dana , bere naiez , edo vorondatez
galtcen dala. Jaincoa guciz justua dà , gu-
re Jabe bacar , ta Aita maitea da : zuri , ta
beste gucjoì libertade aù emango digu , ta
escua , nai badegu , salvatceco. Zure auque-
ra , ta libertade ori , vorondate libre orren
privilegio , erregalia , ta fueroc osoro gor-
de

do nai dizquitzu, Orra Cerua, salbatu nai badezu: orra infernua, condenatu nai badezu. Jaunac berac, zu, ta gucioc salbatcea naidu. Beraz gaitcen bacera, zure culpaz, zure naiez, zure vorondate libreaz condenatuco cera. O Cristau pecatari itsua! Cer aitzquia Jaunaren Tribunalean artuco dezuz?

Pensezazu, nola Jaincoaren vorondateaz yirtute, ta ontasun gucién asiera, neurri, ta erregla cierto zucena dan; ala zure, ta beste gucién vorondate librean gaitz, bicio, ta pecatuen iturri bat beti gaitza dariona, ta culpa gucién sustraia dala. Argatic Jaincoac berez, ta lenda vicitic guizona zucena eguin bazuen ere; bereala, edo laster oquertcen, ta macurtcen asizan, ta bere burua cabu gabeco gaitcetari nastu zuen: ta ez beste gaitic, ezpada ceren berac ala naizuen, bere vorondatez gaizqui valiatu, ta ongui usacezqueala, bere naiez gaizqui usatu. *Eccl. 7.*

Jaincoac ala Cain doacabe, bere anaya Abel justuaren eralle infameari esan cion. Bere anaya ecin icusiric gorrotoz iltzuencan ta pecatu beltz itsusi orrez contu artu cionan: Cain, ¿cer eguin dezuz; esan cion? Eztaquizu, obra ona, edo ongui eguiten badezu, orren saria artuco dezuz? Baña gaitza, edo gaizqui eguiten badezu, zure pecatua,

catua bertan atecan dezula? Ala ere gaitz
eraguille, edo zure apetitua zure voronda-
te pean egongo da, ta gaitceraco grinari
zuc agüinduco diozu.

Au berai zuri, ta guztia Jaincoac esaten
dit. Cain aurrenecoa infernura joazan, ta
ambeste milla urte dà an dagoela: ta oñ
ceren berac haizuen: ta orregatic beragatic
daude an aren ondoren joan diran, ta egu-
horo ara dijbazenac, ceren berac beren gri-
fia, edo inclinacio gaiztoz, gaizqui eguin,
ta infernura nai duten. O pecatuaren itsu-
tasuna!

Ay nere Jaungoico malte, gauza on gu-
tien eguille, ta emalle bacarra! Cér zora-
queria, cér itsusqueria infameagoric zure-
guico pecatari batena baño? ¡Zure ontasu-
nez bacoitzari zuc eman vorondate librea,
zu billatceco, zuri jarraitceco, zu amatceco,
ta gozatceco: ta Zu berç On gucia utci, ta
mundu, aragui, ta deabruen ondoren ibil-
li, ta ori bere naiez! ¡Egüta utci, ta guezur-
ra sinistu: arguia utci, ta illuna billatu: ce-
rua utci, ta infernuan sartu! Ay Jauna! Ta
ceñ gaizqui peçatariac darabilten zure antce-
co anima, Zuc eman cifiñon joyaric preci-
tuen, doatic señalatuen, preñdaric balio-
soenaz, ceñ dàr vorondate libre, zuc
emaha, gaizqui usatuaz!

Ta

Tá orra, Cristava, argüiro fedeco eguia
andi au, ascoc ondo aditcen ezpadu ere : edo
aditu, ta bear dan becela, ondo sinistu nai
ezpadu ere. Zuczure oneraco, bein, edo bein
ondo sinistezazu : ta orretaco ondo icasi,
ta fede viciaz ondo beguiratu, barrendu, edo
penetratu ondo, ezagutu, ta Jaincoaren
aitortu, zu, ta ni guereñez pecatua,
ta gaitza baicic ezguerala : gure vorondea,
vicio utsa, beti berez gaitceronz dijoala, ga-
itz eraguille, ta grinaldea baicic ezquerala.
Gure ecer ez, edo gaitz gucien ondora
jachi gaitean (ta ertemedio bacarra ori da):
ta bec orretatic David penitentearequin esan
diazagun : *Ego verò egenus. & p pauper sum:*
Deus adjuva me. Ah, Jauna: ni alde gucie-
tatic zure bear, arondoco, esqueco pobre
bat naiz : laguntzadazu, nere Jaincoa.
Fedeco eguia da, Jaun onen gracia, ta
escua beti prest dagoela gu salvatceco : ta
guc ez mereciagatic, Jesus onac mereci,
ta irabaci digula : gure etsaiac baño adis-
quideac gueyago dirala : gure pecatu, vicio,
ta deabruen tentacio, ta aleguinac baño an-
diago, ta indarsuago dala jaunaren gracia,
zuc orrez baliatu nai badezu : ta salvatcen
eztana, bere naiez dijoala infernuco carcela
orretara. Tá orra munduaren asieratic Jain-
coac certaco ori eguinzuen, P. Ba.

Baña , nola emengo carceletan cembat , eta nolacoac diran guizonen gaizta heriac , ambat andiago , ta alacoac diran orci dagozquien penac : ori bera Jaincoaren justiciac eguitendu infenuco carcela artan. Bartzuec daude eunmilla pecatugatic , besteac millagatic , besteac berroguet , edo amarregatic , ta ascó culpa bacar bategatic : ta cembat andiago , edo itsusiago diran , ambat tormentuac andiago dira an. ¿ñor otedá , carcela onetan betico sartu nai duenic , ta gorputceco , ta animaco ango tormentuac bere gañean artu nai dituenic ? Bada : inola pecatuan vici cera ?

BIGARREN PUNTUA

Gorputz condenatuaren betico tormentuac. Emen gogora ecarri bear dituztu , gorputzac dituen bost sentiduac , ta bacoitzari dagozquion penac.

Lenengoa , begiaz icustea : condenatuaren vista tormentatuco dute demonioac , ta beste condenatu guciac. An diranac , eta bacoitza etsairic eriotzcoenac dira : ta condenatu bacoitzac , nai , ta nai ez guciac icustibear ditu , ta gorroto ecñesan al batequin. Cer ichurac artuco dituzte demonioac , ta aña izugarri , aserre , illun , ta tristeac , abe-

ta gauza icaragatri gucién antecra! Ah!
 Ta ori guztia beguien libertade, ta pecatu
 en castiguan! Orain beguiac gaizqui dara-
 biltzanao, auts pusca bafén edertasuna icu-
 tece, eztu secular icusico an demonio, ta
 condenatu itsusia besteric.

Bigarrena dá enzutea. ¿Cér tormentuac
 izango ditu onetan? Beti enzuten egon ber-
 ardu deabru, ta condenatu gucién donabe-
 rac, adiac, negarrac, deadar, garrasi, zan-
 ea, orroa, ineiria, nazcac, buroae, ta ma-
 darricacio amorratuac. Ah cér musica, ta
 soñuac! Ta ori gucia, ta gueyago emen en-
 zuten cituen Jaunaren ofensaco itz loi, con-
 tu, ta canta itsusi, ta beste izqueta, etlo
 jolas gaizto, ta zoraqueriac gatic.

Irugarrena usai eguitea. Munduan indar-
 ric ezta, ango condenatuen gorputzac bo-
 ta, ta banatuco duten usai nazeagarti, qui-
 rats ciquin loia eramareco: ta orfen, ta bes-
 te infernico pistia liquits, ilgarrien usai
 tstel gucién artean condenatuac egon beari-
 du beti, ceren emen, lurreco usai goroz-
 quin Jaiñcoa ofenditu züen. Ay munduco
 erregalatuac, ta cér tormentuac ichedeten
 dizuten infernuan betico!

Laugarrena dá gustua. ¿Cér gose, cér egar-
 ra arrablatuac izango ditu condenatuac? No-

la debruac arrezazo, ta traga erazoco dioza
 cãte infernuco suz, ta garrezco janari, ta
 edari, ozpin, beazun, asensio, belar, ta
 beste gauza samĩn, garratz gucien zucuaca
 sugueen, zapoen, arratõ, armiarmen, ta bes-
 te pisrien odol ustel, birica quiratstu, izur-
 riã, ta puzoniaz beteac? Ah munduco jale,
 ta edale itsu era gabe, sabela beste Jainco-
 ric ezdezutenac! Ay, ta cer janari, cer tra-
 go samĩnac, berun, ta metal urtu gorizcoac
 artu bearrac ceraten deabruen atzaparreta-
 tic! Orrela ase, ta beteco cerate gañez eguin
 arteraño, eztanda, ta ler gaizto zuen biri-
 cac, eta eztarri zabalac eguin arteraño.

Bosgarrena dà escuaz uquitcea. Baña, no
 la sentidu aú gorputz guztian banatua da-
 goen, ala gucian izango ditu condenatuac
 bere pena, ta tormentuac. Ta emen sartcen-
 da Jaunaren justicia aserrea, ta bacoitzaren
 gorputzari dagozquion penen neurria.
 Cembat, eta andiãgo, ta gueyago izan diran
 leen gorputzaren pecatuzco gusto, ta atse-
 guĩnac: ta nondic, era nola bacoitzari Ja-
 incoa gueyago ofenditu zuen, ambat andiã-
 go izango dira beabruac alde artatic eman-
 go diozcan gorputzaren pena, ta tormen-
 tuac. Escritura santac ala dio: *quia per quã
 peccat quis, per hac & torquetur.* Sap. I. 11.

Ta

Ta combat eta bat Jaincoaren contra gueyago ausartu, ta gloriatu zàn bere gorputcean aberceen guisa, fede, ta legue, ta lotsa gabe: ambat tormentu, ta lantu gueyago Jaunaren aserreac aguintcen dù pecatu zale, nabarben, dollor infamé orrenzat: *Quantum glorificavit se, & in delicijs fuit: Tantum date illi tormentum, & luctum.* Apc. 18
 Ay munduco jale, edale, ta beste atseguin loien zaleac, nola an aspertuè ceraten, ta betico dumu erremediogabearequin!

Sar zaitte, arren, Cristaia, pauso onetan chit zure barrenen, ta cere buruari galde zaiozu. Baldin emengo gaitcetán, ta edoceñ gauza zure nai, edo gustoaren contracoctán aifñ senticor bacera: eta baldin uste-gabeco edocein neque, pena, edo lurreco atsecabe, edo bestec ematen dizun nai gabe chiqui ecer ez bat asco bada, ceregandic aterá, ta loá galerazotceco: ta dán valienteena, ta berez arrotuena euli char, edo pistia cital batec batzuetan ala erretcen, ta inquietatcen badu, ura quendu artean gozo onic eztuela: ¿cer izango dà, gaitzondo, pena, ta tormentu gucien betico lecu artan?

Emen aguiñetaco oñace vici bat dà asco, loa, ta paquea quendu, ta burua galerazo-
 tceco: atera bada contua, cêr izango litza-
 que

que oguel; edo berrogei urtean, gau, ta egun, aguiñetaco miñic andiena eramant bearra? Esateac berac, beste-gabe icararcen dñ Crístua. Cèr izanga dà, bada, gorputz guztico miñac, ta oñace amorratuac alcarrequin batean, ta berico condenatu bacoitza alde gucieratic artcea? An izango dira buruco miñ arrigarriac, beguieraco, ta belarrietaco, eztarrico, aoco, escu, oñ, sayets, viotz, sabeléco miñ amorratu, era beste galtz mota guciac.

¶ Munduco guiza semeric galduen, ta desdicha duena bere pecatuacgatic ondo mereci duela ere urcatcen, edo erreccen icusteaç berac ascoren viotzac erdiratcen ditu aren erruquiz. ¿Cèr pena, ta naigabea izango litzaque, batec nai, ta nai ez, icusi bearra bere adisquideric laztanen, seme, edo alaba maitén, bere senar, edo emazteric onena bere begulen aurean eregosten, laurguiten tenaza, edo currica goriaz puscaccen?

¶ ¿Cèr miña, eriotza guciac baño gogor, ta portitzago izango litzaque, lurpeco zulo batean, sugue, zapo, ta pisti puzoniazcoen artean, viciric Santa Tecla becela bat sartcea? Falarisen metalezco cecen goriarren barrenen, edo Magencioreen trosetan, ceñetan guizon vici bat gorputz ill barequin

lotu-

lorutzen zuten, ubai ustel, ta pena icaragarri orretan ill cedin?

• Ay nere anima! Alere au gucia utsa da. Pena oriec, ta beste emen asma alditezquen guciac ecèr eztira infernucoen aldean. An condenatu bacoitzac bere burua, ta besteac icusico ditu orrelaco pena mota gucietan betico. An deabruac burutic, eta beguiecatie sartuco diozcate burni gorizco lanzac, ta ersugue izugarrien anticera, eta zaqur omorratuen guisa ozca eguingo diote belarrietatic, aotic, ta gorputz gucitic, cerea burua zoratu, eta pensamentuz, beguiaz, aoz, ta orrela Jaincoa ofenditu zuen.

• An galda beticoquin iraquingo diote buruco muñac pensamentu gaiztoaz Jesu-Cristori arantzazco Coroa ipiñi ciolaco. An erre, ta egosico diozcate beti biricac, errayac, viotza, eta gorputz gucia, cerea araguiaren gustoaz Jesu-Cristori bost mila azote culpa bacoitzean, aiañ aisa fedear ori cequelela, bere nayez eman ciozcan. Ay peccatari itsu galdua! ;Ta zure vici modu orrequin nora zoaz? Infernuco tormentuetara. ;Cèr erremedio bada? Damua, propositua, confesio, eta penitencia: viciera berria, vicitza santua.

•

ANima condenatuaren betico tormen-
tuac A. S. Ignacloc banacà ipintcen
ditu bost gorputzaren sentiduen penac,
orietatic animarenac ateratecco : Ta cem-
bat dijoan gorputcetic animara , onen pres-
tutasunez , ambat dijoa aren penatatic onen
tormentuetara. Animarenac beti méago,
andiago , ta miñago dira. Gorputzaren gui-
sa animac ere beste bost almen , edo poten-
cia barrengoac ditu , ta bacoitcean bere tor-
mentuac ; ta nola ciran emengo pecatuac,
alá izango dira ango betico castiguac.

An imaginacio , edo irudiguille eroa tor-
mentatuco dute beti aurean irudituco zaiz-
can icuscarriric tristenac , ta secula gucietan
icusico eztu gusto , ta atseguíñezco gauza-
ric , eta ori , ceren emengo zoraquerietan
eroturic nola nai , Jaincoaren ofensan egon
oi zán. An gogoguille , edo apetitua dese-
guingo dá etsiric betico , gustoen lecuac,
penac , naigabeac , antsiac , eta infernuco
eriotza baicic izango eztuela : ta ori ceren
Jaunaren bildurgabe , Legue santua urrat-
cecco , freno gabe , ascaturic pecatuétan be-
re erara ibilli zán.

Memoriac izangodu an bere pena guciz
andia

andia , beti gogoratuaz , beñere aztu-gabe Jaincoaren favore, ta gracia, ta mesede guciac, ceren oriez azturic leguegabe vici izázan : pecatu vici guzicoac beguítan beti iduquico ditu, ceren orien penitencia eguin etzuen. Adimentua berriz , ceren Jaincoa ezagutceco ondo usatu etzuen , an beti it-sua egongo dá , beti argui gabe , bere culpa uts eguiten beñere atsedenic eztuela.

Azquenic vorondatea amorraturic, arrabiaz , gorrotoz , penaz beteric , era guztietara : eta ceren lurrean Jaincoaren vorondate santua eguin bearrean, gaitceraco berea eguin zuen, bera izango dá bere borro bere buruaren contra, Jaincoaren, Ama Virgíñaren, ta Santuen contraco aserre, ta gorroto amorratu vici batean. Nola gure Legue santuac amár Aguinte dituen : alá animac , gorputcean dagoen artean , Leguearen contra bere naiez pecatu eguiteco , modu asco ditu , era guero gucietan culpac pagatcen ditu infernuan.

Baña ay ! Oraín daño esan diran pena orietec ecer eztira esanquizunaren aldean. Pena gucien pena , tormentu gucien tormentua, infernu gucien infernua, ta gucien andiena Jaincoaren gloria , ta arpegui ederra ez icustea. Oni dañuco pena, edo animaren

beti-

betico caltea deritza. Bada nic ezdaen
 (esango dezu) Jaincoaren arpeguiric, ta ez
 det orrelaco penaric. Ah nere Cristaúa!
 Eguía dà. ¿Baña cergatic? Ceren gorputce-
 co carcela orretan zauden artean, itsua, ta
 sator bat becela begui gabe ceran.

Carcela orretatic zure anima, edo espiritua
 libratcean, eriotzaco puntuan, bereala chus-
 sen chussen igo bear luque bere toqui, edo
 centrora, gloria vici artara, ceña dan Jain-
 coa bera beti icusi, ta gozatcea. Contu ate-
 ra bada, ta ondo pisaezazu, al badezu, ¿cer
 pena, cer calte, cer tormentua izango dan
 zure Jaungoico guciz eder gozo-agandie
 betico quendu, ta desteguitu, edo disloca-
 tcea zure anima, Jabe maite orrec beret-
 zat, eta bere gai eguin zuena. Anima ori
 ecerc ere munduan gauzac eciñ osoro bete
 co dú, ta ez ontasun guciaquin beñere se-
 cular bere erara aseco dà, ezpada bere Ja-
 incoarequin: onen falta eciñ beteco dà.

Argatic pena àu gucien andiena dá: onec
 neurric, eta caburic eztù, ceren Jaungoi-
 co betico an galtcen danac eztuen. Itzic ez-
 ta, pena àu, dan becela, zuri esateco: bu-
 ruric ezta, àu, dan becela, iñorc emen bar-
 rentceco, edo comprenditceco. Ara nola
 bait: zure besoco ezur bat ausi, edo dislo-
 catcen

sartcen bazatzu, ¿cér ofiace, cér atrabiác dirá
 zureac orduan? Munduco ondasun, eder-
 fasun, ta atseguín guciac zuri emanagatic,
 paque, ta gozo onic etcenduque izango;
 ¿Ta cergatic? Ceren ezur bacar bat bere le-
 cutic desteguitu, edo ateraric daucazun.
 Ondó. Bada zure anima Jaincoaren Espiri-
 tu eder, gozo, santua, ta atseguín gucién
 toquia icusteco, ta gozatceco eguina, be-
 te centro, ta lecu orretatic dislocatcea be-
 tico, ¿cér tormentu, cèr infernua izango dá?

Ceruco gloria, ta atseguinac alde onetá-
 tic nola diran, ala dirá infernucó pena, ta
 atsacabeac neurri orretan bertan. Ta nola
 neurri, eta caburic Santuen contentuac
 ezduten, ala condenatuen tormentuac ere
 ezdute. Nola Jaincoa Ontasuna bera dan,
 ta Espiritu, edo Izate bat, on gucién one-
 na, ta on bacuna, guciz garbia, nas gabe,
 eta cabu gabea, edo infinitoá, alá on ori-
 galtcea dá gucia batean galtcea, ta gaitz,
 ta calte neurri-gabea, cabu, edo fin-gabea,
 eta argatic infinitoá, ta beticoa.

Calte onetan sartcen dirá beste calte gu-
 ciac, ta secular ez icusi bearra, Jesusta Ama
 virgíña guciz doatsua, ta oyen arpegui eder
 gloriáz beteac, ta ez Santuen lagun, ezpa-
 dá deabruena beti izán bearra. ¿Norc bada,

esan al, edo pensa aldezaque pena aii dan bezala: ta nola pecatuagatic aii aisa batec bere anima condenatcen duen seculaco ez icustera bere Erregue, Santu gucien gloriamallea, ta gloria bera, ta bere Aita, eta Jabe guciz maitagarria, ta ez icustera aren, ta gure, berac Gurutce santutic eman cigun Ama guciz ona, ta onetan sartcen diran bendicio, doai, ta favoregloriaz beteac?

¿Baldin Coroa baten, Erreino baten, ta mundu gucian diran ondasunen Jabe bat izateco, orien diña dala, ta gucien derechoa duela, oriec gucioc quendu, deserritu, ta eriotzaric tristeen, ta lotsagarriena, emango baliote, cër castigu, cër pena izango litzaque? Ta ceren eriotzac edoceñi lureco gauzac quentcen diozcan, gauza aii gogor izugarria bada; ¿cër izango dá infernuc eriotza vici ura, ceñac Ceruco Erreinoa, ta ango gloriazco Coroa ondasun guciaquin condenatuari betico quendu, deserritu, ta eriotza ematen dion?

Araco azquen juicioco egunean, nolerebait, condenatuac dacustenean Jesu Cristoren Ama Virginiaren, eta Santuen gloria, Coroac, doaiac, edertasun, ta atseguiniac, ortic ateraco dute cër dan galdu zuten gloria, ta orrec emango die miñic garratcena,

ta damuric amorratuena: aĩn erraz salva citezqueala, ta beste doatsuac becela, penitenciaz, ta viciera santuaz Cerua irabaci, ta goza citezqueala, ori gucia aĩn aisa ecer eze, gatic betico galduaz.

Pensezazu ondo, esandiran penaz gañora condenatuac dutela beste pena, ta tormentu bat, Jesu Cristoc Evangelioan ponderatcen dizuna: *Vermis eorum non moritur; Originis non extinguitur*; Marci 9. Ayen arrã itcen eztala, ta ayen sua itzaltcen eztala. Ar onec, beñere utci gabe, deseguingo ditu berrin, ta gure esaeran, puscatu tormenturic portitzenaz. Ah! aĩn erraz salva nindequean, ta aĩn aisa condenatu naiz! Ay peccatutic, beste asco becela, libra nindequean: ta nere naiez peccatuco bide, ta echean sartu nintzan: an sartcea, infernuan sartcea zala jaquĩ filic! Ay besteac becela, gucia confesio on batequin erremedia nezaquean, ta ori eguin nezaqueala, eguin eznuen!

Ay onelaco urte! Ta ay onelaco demborra, ta egunac, edo lecuac, ceñean araco Egercicioetan nere viotcean Jaincoac aimbeste avisu, ta mandatu gozo eman cizquidan, bera gana eguiac biurtceco, ta nic ez jaramon, casoric eguin ezñion! Ay orduan cembat peccatutic irren, ta Ceruco bidean

dean sartu cirañ! Ay, ta cembat gaiztaque-
riac nerequin eguin cituztenac! Ay, ta
cembat, nic baño ere pecatu gueyago, an-
diago, ta itsusiago cituztenac! Ay, ta nic
ori berá ezagutu, ta nequiela, eta ayecba-
ño obeto, orregatic ere eguin ez nuen, ta
betico galdu naiz! Au, ta onela izango dá-
ar bat beñere iltcen eztana, ta condenatua-
ren barrena beti orchicateen, ta chiquitcen
duen tormentua.

Azquenic beguira, ta pisa ezazu ondo, no-
la pena, ta tormentu oyec, ta esan al gucias
baño andiagoac, diran, ta izango dira be-
ti, ta betico, cabu, edo fin gabe, alivio,
ta erremedio gabe, Jaincoa, Jaincoa dan
atte, ta ala beti eternidade guzieo. Dema-
gun, condenatu bati Jaincoac esaten diolar
azquen juicioa irago, ta utcico zuela emen
Choricho bat, ta onec milla urtetie milla
litteya ur tanto bat ichasotic ateraco zuela:
ta ichaso gucia choriac orrela aortcean, con-
denatua pena ayetatic libratuco zala. Ber-
fan, edo puntu artan aren tormenturic an-
diena uste orrequin acabatuco litzaque.

Baña ay! Eztu, ta izango ecindu orrela-
go uste, edo esperanzaric. Ta ala igaroco
dira milla urte, ta beste milla, ta milla bider
milla; ta orregatic egun bat igaro ezpaltz
becela

becela, ta lenda vicico puntuan becela areta
 betico tormentuac izango dira. O penael,
 O tormentuac ! O infernua ! O gaitz beti-
 coa ! O ! ; Ta nola dà Cristauric , pecatuaz
 Jaincoa aini erraz galdu , ta betico conde-
 natu nai duenic ?

COLOQUIO, EDO ITZQUETA

O Anima nerea ! Cer dà aù , edo non
 zabilza ? O zure fedearen, orza , edo
 guciz illa ! Laster zugana biurzaitez. O ceñ
 gauza latza , ta garratza dan , Jaungoico
 aserratu baten escuctan erortcea ! Baña nere
 Jabe on , ta Salvadore maitea ! Zure aserre
 yici gucia , badaquit , Jauna , peccariaren
 contra peccatu gatic dala. Ori bada , nere
 Jesus ona , ori herà nigandie betico quen-
 du naidet ; ta sustraietatic betico aterà , ce-
 ren peccatuac bacarric Zu ofenditcen zaitu-
 en. Orren contra nic ere aserratu naidet,
 ta nere viotcean, aldedan gorrotoric andie-
 na seculaco artu.

Ez , ez , nere anima , zure Jaungoicoa aù
 erraz , ta ecer ez egatic , orain daño bece-
 la , gueyago aserratu , ta galdu. Zure Jaun,
 ta Jabe bacar gozoa ofenditu , ta galdu , ta
 non dago zuretzat erremedio , ta gozo
 oiaic ? Non ere ez. Ta cer ? Peccatu batequin
 Jain-

Jaincoa galdezaquezu betico ? Ay ! Ay !
 Cer bildurra ! Ay cér quezca ! Ta cér ?
 Zure animaren caltean deabruari aibeste
 atseguin nai díozu eman ? ; Peligro onetan
 zaude , ta zute culpaz betico condena zai-
 tezque , ta Jaincoa galdu dezaquezu , ta
 orren lasai , orren aisa vici cera ?

Ay nere tristea ! Ta izan diteque ori ? Ta
 zu infernuco su garretan erretcen icusi , ta
 Jaunaren justicia aserrea orrez beti atseguin
 artcen dago queala ! Jesus milla bider ! Cér
 eguia izugarria ! Ez , ez , Jauna. Ez , arren ni
 pecatuan , ta orregatic infernuan erortcen
 utci. Ill , Jauna , lenago : milla vici banitu,
 lenago guciac galdu , zu ofenditu , ta galdu
 baño. Ill bedi pecatua , ta vici bedi nigari
 nere Jesus , nere Jainco maitea.

Zure pena , ta tormentu guciac gatic , Jau-
 na , zure azote , arantza , ta zure negarrac
 gatic : zure odolezco bost iturri nere salva-
 cioraco idiqui , ta eman cinduenac gatic es-
 catcen dizut barcacio , ta paquea. Zure ne-
 gar malco bat , odol tanto bat asco det , Jau-
 na , nere culpa gucien manchac quendu , ta
 nere anima garbitceco. Zure odolaz balia-
 tu naidet , penitencia , ta viciera berria egui-
 teco. Lagun zadazu , arren , pecatutic ir-
 teten , nere vicia zuentcen , Zu bacartie,
 nere

berc Jauha; billateco; sêviteco; ta Ce-
rumibeti/alabatcco. Amen.

oho, uolâi, eto, rudi, ...

~~...~~ (*) ~~...~~

bisibuceo ...

AZQUEN JUICIOA REN GAÑEAN

isib otzoc si. Egercioa.

...

*Congregabo omnes gentes, & deducam eas in
vallem Josaphat: & disseptabo cum eis ibi.*

Joel. 3. Biribillatuco ditut dio Faunac)gen-

de guntiac, eta Josafateco ibarrera eramtu-

go ditut, eta an gucien gañean juicioa

eguingodet.

...

...

FEde vici batequin azquen juicioa gogo-

ra ecarri, eta munduarén cabu oner-

ratic aterà beaz dezun frutua dá Jaunaren

bildur andi bat, San Juan Evangelistac dio-

néz, bacoitzaren, edo juicio particularean

psanzan bacela, eta bildur santu otrequin

beti ondo vicitcea, Juicio andi onetan

Jaunari contu ona emateco.

Lecua, edo Compositioa eguitea.

Contu eguizu orain bertan Josafateco ce-

laiean, Calvarioco, ta Olivetaco mendien

artean arquiteon cerala, ta an munduco

·IUL

Q*

gen-

gende guciac, ill ezquero pizturic beren
gorputceran icusten zandela. An airean
odel zuri baten gañean bere Jarlecu, edo
Tribunalean dacutsula Jesu Cristo, Evan-
gelioan berac dion becela: aren escuetic
Ama Virgíña guciz doatsua gloriázco be-
re Jarlecuan: eta Apostolo, ta beste aici
jarraitu cien Santuac beren lecuetan, jar-
ritic. Juicioarén lecu onela eguin ta

Escaria, edo peticioa.

Au izangoda, David Santuarequin esca-
tceá: Josi itzatzu, Jauna, zure bildur san-
tuaz nere anima, ta gorputza, bada zure
juicioac icaratcen naute: Fedea, ta juicioa
oraiñ indaztu, orduan becela oraiñ juzga-
tceco mundua, ta munduco gauzac, ta
nere mundu chiqui à: ta orduan becela
oraiñ lurreco andirasun, ondasun, ta atse-
guinac oin pean eguiac iduquitceco. Ay
Jauna! Mundua juzgatcera zatoztenean,
sz. arren ni condenatu.

Compendio de la doctrina cristiana
de los señores Obis de España
y de las Indias Occidentales
por el Sr. Fr. Juan de Mariana
JUL

JUICIO IZUGARRI ONETAN IRU

gauza andi dituzu.

1. *Cergatic Jaunac Juicioo egun ai eguin nai duen.*
2. *Orduco munduaren cabuan izango diran señalear.*
3. *Mundu guciaren juicioa, ta sententia beticoa.*

LEND A BICICO PUNTUA.

BEguira, ta pensezazu ondo, cergatic Jaincoac eguin nai duen Juicioo egun aundi au: egun icaragarri, besteric ez betelaco, pare gabe, munduan beñere icusi eztan, eta bateco mundu guciaren batzarre, edo junta aundi au. Fedeac dio: gauza ascogatic, eta causa ascó dituela Jaunac, juicio ori eguiteco, berac daquizquienac. Baña gutertat jaquiñenac dira iru.

1. Da, ceren bere Seme maitearen gloria gatic Aita Eternoac mundu guciaren aurrean biurtu nai duen.
 2. Ceren bere justu, eta seruitzari leyalen onragatic biurtu nai duen.
 3. Ceren bere juicio justu, ta justicia zucezagatic munduaren aurrean biurtu nai duen.
1. Evangelioac eracusten dizu. » Jaincoac bere Semea bialdu zuen mundura,

mundua, edo animac saluateco. *Misist*
Deus Filium suum in mundum, ut saluetur
mundus per ipsum. Baña mundua aiñ zoroa,
 aiñ juiciogabea cegoen, non ezagutu izan
 nai etzuen bere Ongucia, bere Salvado-
 tea. Etorri zàn, dio S. Juanec, bereen ar-
 tera, jayo, ta aguertuzan bere aideen erdi-
 an, ta berac etzuten artu: *In propria venit,*
& sui eum non receperunt. Ioan. 1.

¿Ta badaquizu cergatic? Ceren humilta-
 sunaren Maisua becela, jancieria, edó traje
 humillean Jesus etorri zàn: eta mundu eró
 itsuac humildadearen balio, ta edertasuna
 ezagutzen ez dituen. Orregatic, nai zuten
 terara, erabili zuten. Pilatosegandic Herodes
 egana, tribunaletic tribunalera, Anas, Cai-
 as, ta besteen aurrera: ta Jesusen Perso-
 nãz, gucien artean, nai zutena eguiten, ta
 azquenic condenatu, ta gurutcean ill zuten.
 Cer bada, dio Aita Eternoac: Bialdu nic,
 ta ez guchiago, ta ez besteric, ezpada ne-
 re Seme bacar maittea, gucien Maisu izan
 cedin, Ceruco bidea eracusteco, exemploa
 emateco, ta animac saluateco: ta mundua
 aiñ zoroa, aiñ juiciogabe, ta ari pagu ori-
 eman? Bada nic juicioeco egun arrigarri bat
 eguingo det: orduan gucia aguertuco dá,
 ta mundu itsuac icusico du nerequin zue,

esoberrero gogor, ta besteac norgan beren
 escuacripini cituzten, nor oin pean erabilk
 nor azotatu, aranzaz coroatu, eta nor ill
 zutenac.

Enengo Jaincoaren Semea gure aragui
 janzitic lurrean aguertu zanean, gugatic
 traje humill orretan etorri zan, mundua-
 ren juicioac igaro, ta munduan juzgatu iza-
 tera : argatic munduco itsuac etzuten eza-
 gutu : baina bigarren aldian gloriáz, ta an-
 ditasun guciac beteric etorricoda mundura,
 munduco guciac juzgatera : munduari ju-
 cioa eman, ta eguingo dio, ta orduan, ba-
 ren damu gaiztoz icusi, ta ezagutuco du-
 te, leen ala tratatu zutenac.

Ay cer juicio tristea ! Ay cer genduarien
 trucada, ta suertea ! Ay cer esango dute on-
 duan Anas, ta Caifas batec, Pilatos, ta He-
 rodes batec ? Cer Judas billau falsiaz saldu
 zuenac ? Cer lotsa bada arena, ta aren on-
 doren, edo Judasen azpian egongo diran
 Cristau, pecatu bacoitzaz, cequitela, Cristo
 Gure Jauna aín merque, ta doatic saltcen
 zutenac ? Cer bada, araco gaizqui comul-
 gatu, ta Judasen guisa falsiazco laztanaz,
 Jesus, are bañoere merqueago saltcen zu-
 tenac ? Cer esangodu Pilatos, erioztaco sen-
 tencia aín oquer, eta gaizqui emanacionac, ta

cer Juduac, Barrabaş baño ere guchiagoan Jesus gucien Erregue santua iduqui zu tenac? Ah! cèr Cristau galduac?

Bitartean, zuc, nere anima, amoriozco milla esquer viorz guztitice eman bear diozcatzu Aita Jaincoari, ceren bere Seme guciz humilla, ta maiteagatic onela mundu guciarren aurrean, ta Juicio andi onetan biurtu naiduen. Ta icusiric zure Salvadore, ta Erregue Jesus laztana, bere gloria, ta magestade guztian, viciac, ta illac, Ceruco, ta infernucoac belaunico adonatu bear dutela, batez ere bere etsairic andienac, ta nai, ta nai ez, damuz, ta arrabiaz bada ere, len ezagutu, ni erutenac berac adonaten dutela: berbuna mizuc milla obetari, edo parabien eman bear diozcatzu.

Atseguindet, nere Jaun, ta Jabe viorceco bacarra: ordu onean, ta zori onean biz, Zu mundu guciarren beguieran ezagutu, ta adonaturic orrela icustea. Atseguindet, nere Jesus maitea, zure gloria guztiaz: guztia zorzatzu, Jauna, ta ordu onean betico izan ezazu. Ay: Jauna! Ojala milla espiritu, ta milla viorz, ta milloyac, ta izan al guciar banitu; guciar Zure onetan betico ezarceco, zuri esquetceco, Zu ezagutu, ta Jaun, ta Jainco, secula gucietaco nere Erregue be-
zala

zala berri Zu adoratu, ta amatceco!
 Ta orra cergatic, ta cer arrazoi andia ro-
 quin Juicioo egun andi aù Jaunac eguia
 naiduen: bere Semearen onra, ta gloriaga-
 tic biurtceco.
 Bigarren Juicio ori eguiteco causa, ta ondo
 pensatu bear dan gauza, eta eguia dá nola
 Jaunac bere justuen onragatic mundu guci-
 aren aurrean biurtu nai duen. Mundu eroa
 bere juicioetan, naiduen becela, eta chit
 oquer dabil: argatic onari gaiztoa deitcen-
 dio, arguari illuna, ta virtureari vicia. Bo-
 ren era, edo modara munducoac orain gau-
 zai deitcendie. Onen gañean dira almbeste
 ay triste, ta madaricacio Profeta santuen
 aon, ta Jesu Cristoc bere Evangelioan or-
 bat dio juicio oquer, ta gaiztoen gañean.
 Munduan asco dira, Jaincoa eguiaz billa-
 zu, ta viotz guctic servitcen dutenac: ta oiec
 icüstendira nequez, ta penaz beteric. Beste
 asco dira, Jaincoaren etsai eguiñic, peca-
 tuetan beguicetaraño sarturic vici diranac, ta
 oiec naiduten guciarequin irteren dira. Mē-
 diarte, ta bazter orietan pobrecho asco dira
 Jaunaren Leguea fede andi batequin artcen
 dutenac. Gordetcen dute lenengo Aguintea,
 bigarrena, ta amar diranac: ta gueyago ba-
 rra, guciac gordetececo prest dira: ta oycc
 beri

beti hequearen , ta zomen bazpian: Beren gau, ta egun etaco icerdiaquin, beren Elicza , ta Jabeen zorrac pagateco , oza duna beren aleguin guciaquin, doi doia dute; edo ascoc ezdute zatarcho bearrenic eret, berac, eta beren humeac cerequin estali, edo janci, Meza bat, bear becela ieusteco; edo Eleizan aguerteco.

Ta bitartean cembat munduco aberats aberreen guisa leguegabe vici dira: Ausitcen dute lenengo Mandamentua, bigarrena, ta ber-teac: eta gueyago balira, guciac ausitceob prest dira: Ta orregatic oyec triunfatcendute, jan, edan, janci, ta nai dutena eguin, necazari pobreen icerdi, ta odolaren costura, beren aunditasun, ta soberviaz, necazale garbi, berai jateco eman dicnat lur pean ondatu, ta ostico pean darabilzate-la; beñere pobreenzat justiciac balio ezuela, ta andi nayaquin ur garbiric ecin atera dutela. Ah! Ta cembat onelaco mundu zoro orretan igaroco ote da?

-Ay Jauna! Cer da au? Nola dijoaz gauza oyec? » Justua cera zu, ni zurequin argu-» imentuan sartceco. *Jerem. 12.* Baña ala » ere eguiaz zurequin jardun beardet? No- » la, Jauna zure etsai gaiztoenac, zu ofen- » ditcen, nai duten becela, ta beren cras-

vici

«vici dira?» Eajustuac zure adisquide mai
 reac nequez, ta dolerez? «Ori, ta orrelat
 incoasco dacutsula, nola zaude orren issi-
 illic?» Eche, edo palacioac, soñecoac,
 rondasunac, ta erregaloac, norenzat eguin
 ainduen? Cer da aü, Jauna? *Habac. I.*
 -Oriec gucioc, dio Jaincoac, nic eguin ni-
 tuen nere servitzari, ta adisquide nere Le-
 gue, ta amorcan vici ciranenzat. Nola ba-
 da zure etsai, ta munduco andiac guciac jaso
 dira? Ea: zaude paquean, dio Jaunac: mun-
 dua zoroa, ta itsua dago: bacoitzari berea
 emateco, juicio zucenic eztu orain. Juicio
 egun bat nic egningodet, ta bacoitzari da-
 goquiona emangodiot. O nere Jaungoico
 guciac justua! O juicio estua!
 Cer izangoda, orduan icustea, emen
 gaizqui tratatu, ta humillaturicaco pobre-
 cho asco, an Jaunaren escuieratic, Patriar-
 ca, Apostolo, ta Aingueruen artean? Ta
 omen len ayen Jabe, ta Aguintari andi, justi-
 cia, ta arrazoiaren contra pobrean icerdi, ta
 odolac an aisa chupatcen cituztenac, Lacifer-
 en, Astaroten, ta deabru guciac azpian,
 suz, ta garrezco carroza lotsagarriaquin be-
 tino condenaturic icustea? Cer oien arrabia
 amorratua, beste justu oin pean aibeste bi-
 der emen erabilli cituztenac, alaco glorian
 icusi,

icusi , ta bēren buruac alāco lotsa , ta infēnu vician icustea ?

- Ta justuac orduan cer esango dute gof artatic ? Ah ceñ pozez cantatuco duten : *Utique est fructus justo : utique est Deus iudicans eos in terra.* Ps. 57. Ay Jauna ! Ceñ eguia andia zan, dembora batean an bēan Predicadore, ta Confesoreac esaten cigutena : Jaincoaren escutic becela, lurreco gaitz, bear, ta nequeac arteco ; laster igaroco cirala : oguei, edo berroquei urteco, edo guchiago pena, ta doloreac izango dirala : Zuc, Jainna, andiagoc gugatīc artu cinduēla ; Zuri beguiratu, ta paciēcia iduquī guenzala.

Ango gaitzac igaró, ta emen Ceruan descausu osoa, ta betico gloria vicia guenduefa. Ay, Jauna, cer eguia, ta cer saria oraiñ ! Arà bēan munduco gure Aguintari gogorac, cer lotsan, ta tormentuan dauden oraiñ ! Justua cerá, Jauna, ta zucena zure juicioa mundu eroaren gañeān. *Iustus es Domine, & rectum iudicium tuum.* Psl. 118. Onela justuac esangodute, ta onela orien onra, ta gloriagatic Jaincoa biurtuco dá.

Irugarren Juicio andi au eguiteco causa da, ceren Jaincoac bere Justiciagatic biurtu naiduen. Emen fede viciāz gogora ecarazu, lurrean beñere ecīñ ondo barrendu, ta adi-

aditu oidan eguia andi'aù, ta Jaincoa cein
 zücen bere juicio, ta gaucetan dabillen: Gu-
 te fede illarequin, sator itsuac becela guera;
 ta argatic illun pean beartz topa, uts egui-
 ten, ta cenzu gabe gabiltza: dacutsunaz pa-
 gatcen guera, irudiaz, ta ez eguiaz. Baña
 Jaincoac ez orrela: bacoitzaren viotza da-
 eus, ta barrendic, dan becela, juz gatcentz
 du; *Nec juxta intuitum hominum ego judico;*
Homo enim videt ea, quæ parent; Dominus
autem intuetur cor. Scrutans corda, & renes
Deus. 1. Reg. 16. Argatic juicio andi oner-
 tan arguiro, ta garbiro nor, ta cër zan ba-
 coirza icusico dá; nor, ta nolacoa lurrean
 yici zanean, izan zan.
 Ay! Ta cër gauzac arguizco, ta eguiazi-
 co juicio onetan aguertuco diran! Cër falsi-
 ac, nolaco traicioac, cër intencio, ta asmo
 dollorrac, cër choraqueric, cër aicezco
 lancai eroenac, cër venganza billau, cër pe-
 catu itsusi loyac; cër gauza lotsagarriac pen-
 samentu, ta gusto, abereen guisaco atseguin
 atsac; cër lagunaren emazte, edo senarraz
 ezcutuan eguin daco adulterioac, ta beste or-
 relaco ecin esan dítezquean gaiztaqueric.
 Cër bada? Etzan besteric: Fede, ta Jai-
 naren bildurgabe, aisa, cere burua peca-
 zuai eman, gurari infernucoai lecu eman, ta
 zale-

zaletcen ciñana , edo gogoa emana , ifoio
 jaquingo erzuelaco , ezcutuan eguin. Bada
 zuc ezcutuan eguin cinduen lotsagarri
 oriec, Jaun justuac aguirian ateraco ditu gu-
 cten aurean , ta beguetan bere Juicioan.
 Pensezazu, guizon prestu, edo andre onaz-
 ren papera eguin dutenac cembat diran mun-
 duan: Cristau onzat ascoren beguetan dau-
 denac ; baña ez Jaunaren aurean. Cembat
 Cristauen izena dutenac ; baña gentil , edo
 atheista, Jaincoa ucatcen dutenac becela,
 vici diranac ; campotic erreligio , edo pie-
 dadearen capa, baña barrendic viotcean
 Jaincoac daquien becela. Bada cer ? ; Orico
 orrela igaro beardute ? Ez ori, dio Jaunac
 nic plazara ateraco ditut : mundu guciac ja-
 quin beardu nor , ta nolacoa zan bacoitza.
 Ah ! munduaren juicioac cen itsu bide ga-
 beac diran ! Ascotan beste guizon , edo an-
 drea , ceren urrea darion, ondasunac ditu-
 en , urre , ta sedaz modaco soñeco ederraz
 apaindua : orri agur andiac, ta Jainco bat
 bezala gurte , edo adoracioac : ta bearbada
 guizon , edo andre ori pecatuan dago : ta
 bere desdichaz , ala dago ; orren anima dá
 deabruen cioga bat , Luciferen infernuco
 presa bat , bere cateaquin loturic daucanat.
 Anima ori demonio guciac baño beltzagoi

ta-itsuslago dago: Aingueruac orren igues
dijoaz, infernuco izurritu bategandic beza,
la, ta deabruac orren beguira, noiz baño
noiz Jaincoac orren viciaren ari meea eten,
edo ebaquico duen infernura eramateco,
Ah! ; Ta zu orren itsua ; ta camporonzco
edertasun orrez pagatua ? Bost onelaco
igaro, ta tragatenda munduan.

; Pensezazu nola bitartean esqueco pobre,
tho bat, edo beste zure ondotic igarotzen
dan, ta ceren arlote datorren, edo ez aia
ondo jancia, orri ez jaramon, arpeguiric
ere eztiozu eman nai. Ta orren anima Jain
coaren gracion dagoque. Ala badago, da
Jaunaren jar lecuric ederren, ta gozoena,
Ceru vici bat, ta Ceruac baño ederrago.
Juharen isplitu garbia Jesu Cristoren Espo
sa, Ceruco Erreguina-gaia, Aingueruac beti
lagun dituela. O munduco juicioa ! Ta ani
ma justu orren balioa ezagutugabez, orren
estimacio guchi ! O Jaun santu, dana dan
betela bacoitcean icusi, ta bere neurri, ta pl
suan estimatu, tagucia juzgatzen dezuna !

;; Ta emendic, nere Jaungoico guciz justua
cer aterà bear det nic ; ezpada bildur santu
bat, baña ez mundu zoroaren esamesena,
baicic zure eguijazco juicioena. Cer aterà
bear det, ezpada Zure ofensa gucien damu

ta Zure begufetan diran becela? **C**er, erpa
da viciera berria, viorz argui, ta garbiaz zu
re aurrean dagoena becela, beti vicitecoi
riete vorondate orain daño irsutu nabena, be
tico ucatu, ta nere aleguñaz Zurea billatu:
nierea deseguin, ta Zurea beti eguin. **Ay**
Jauna! Bada nere obra onac ere juzgatu bear
dituzu: *Cum accepero tempus, ego justitias*
judicabo: Zuc aín justuac becela, bacoitzari
berrea emateco, contu estu, ta juicio berri
onetan sartu nai det, Jauna: penitencia
eguin, eta ondo vici nai det, Zure juicio
andi artan ondo irteteco. Amen.

BIGARREN PUNTUA.

JUICIOA BAÑO LENAGO SEÑALE ac eta munduaren acaballa.

Emen gogora ecarzu Jesu-Cristoc bere
aoz predicatu zuen eguia aú, ta nola
juicioraco mundua deseguin baño lén, alde
gucieratic señale icaragarriac izango diran:
Erunt signa in sole, in luna, & in stellis::
Luc. 21. Señaleac Ceruan, bada Eguzquia
illundu, illarguia odoldu, ta Izarrac pusca
tu, ta Cerutic erorico dira. Señaleac, bada
Ceru gucia nasu, ta odei illunez, bere, ta
dem-

demboral, edo ecachic izugarrienac icusi-
 co dira : chimista , turmoi , ta oñaztarriac
 erriac , ta errietacoac ondatcen dituztela,
 Señaleac , ceren oriequin naste aize bum-
 bada arrigarriac izango diran , torre , ta pa-
 lacio munduco andi nai eroac , beren ustez
 betico ospe , edo famarenzat jaso cituzte-
 nac , batean lurpean arrasatceco.

Pensezazu Jesu Cristoc diona , cét seña-
 leac lurrean izango diran : *In terris presura*
gentium : nola ez Cerua bacarric , ezpada lur
 gucia , ichaso , ta criatura guciac pecatarien
 contra aserratu , jaiqui , ta beren modura ar-
 matuco diran. Escriturac dionez , Jaunaren
 etsai burujaucien venganzara , ta oiei guer-
 ra vicia ematera : *armabit creaturam ad ultio-*
nem inimicorum. & pugnabit pro illo orbis
terrarum contra insensatos. Sap. 5.

Orduan , Lurrac bere gañean pecatarriac
 ecin icusi , edo sufrituric zalantza , ta icara
 guciz portitzac emanic , idiqui , ta tragatu-
 to ditu. Orduan itsaso zabal ori , orroa chit
 andiac ateratcen dituela , beregandic irten , ta
 sartuco dá leorrean erriac , eta gendeac on-
 datuaz. Orduan guizon , ta antec arritu ,
 ta zurtu , ta Jesu Cristoc dionez , corde ga-
 be igartuco dira , soñu izugarriaz , ta erio-
 gacoantsia , talariaz : *pra confusione sonitus*

maris: arescentibus hominibus pre timore

Orduan gendeacibillico dira dira arazo ana dian, zoratnac becela, gora bera, cer. eguin ez daquitela; ta eriotzaren atceneco gaitza requin etsiric burruca becela.

Orduan abereac ere arazotuco dira, ta basotiac, ta lar abere suminduac, ta pistia mota guciac aldarte, ta azqueneco gaitza sentitu, ta beren zuloetatic irtengo dira, ta eriotzco orroa, ta inciriaquin, izugarritzco moduan errietara, auzoetara, gende tartera etorrico dira. O egunic illunenac! O gauric tristeenac! O culpen ondorengo dembora! O Munduaren galdu bearra!

Azquenic beguira, ondo gogartu, edo gogoan sartuezazu munduaren acaballa, ta suz, ta garrezco eriotza portitza. Jaunaren aserre justuac aguindu, ta munduaren lat aldeetatic bein goan, bat baten suzco lau ibai andi balduco ditu: oyec era batera sutu, erre, quiscaldu, deseguin, ta auts biurturco dituzte echeac, erriac, abereac, ta viciric arquitcen diran gende guciac: ta orra mundu zoro galdua acabatu. Ay cer cabua! Atozte orain, atozte nerequin munduco eroac: juicio, ta contuan sar gaitean. Andiquiac, aberatsac, atseguin, ta eder zalcac, atozte; atozte icustera, dembora bateco

zuen

zuen vitorren zoragarri ciran edertasun, ta
 beste gauzac non diran, edo cer eguin di-
 ran. Ay peccatarien zoro, edo juicio gabea-
 ac! Beguira zuc nere Crastava fedeco ar-
 guiaz munduaren cabu oni.

Non dira orain eche, edo Jauregui andi,
 vanidade, edo andi naiae aimbeste pecatu-
 requin, ta anima ascoten calteari jaso citue-
 nac? Non dira baratza, edo jardin eder, ta
 paseo erregaloraco aimbeste costatic egui-
 fiac? Non dira joiac, urte, cillar, ta bes-
 te ondasunac? Non dira galac, edertasun,
 erregalo, ta beste atseguifiac? Autsa, ta que
 utsa icustenda. O cer icusgarri illum tristeal
 O munduco falsia, ta guezurra! O choro
 en jostallu ichura gabea! Onela gucia igaro-
 tcenda: onela mudu gucia acabatcen da.
Preterit enim figura huius mundi. 1. Cor. 7:

ILL GUCIEN PIZTIA, EDO ERRESU-
recoloa.

FEdeco eguia au pensazazu ondo: muni-
 duaren fin lastimagarri ori ezquero, no-
 la illac piztu bear duten: bacoitza bere len-
 izan zuen gorputzean, Jaunaten aguintez,
 viciric jaiquicoda, S. Pabloe dionez: *Cant*
enim tuba, & mortui resurgent. 1. Cor. 15:
 Lau munduaren parteetan juicioo trompa-

taren ots gyciz andia aditueoda, ta Aingue-
 ru batec deadarrez aguinducodu : *Surgite*
moritui, & venite ad iudicium. Illac piztu zai-
 tezte, ta juiciora atozte, Esan, ta eguin:
 puntu artan manpatu oni diranac. obedituco
 dlots, ta bereala viciric jaiquico dira.

Ah! Beguira cer icusi bear dezun orduant
 Justuen animac Cerutic, ta gaiztoenac In-
 fernutic etorri, ta bacoirza bere lengo gor-
 putcean sartuco dira. Guccien gorputzac gue-
 ratuco dira oso, ta vici, beren animaquin; ba-
 ña guciac ideac becela, Jesu Cristoren urte,
 edo oguei ta amairu urtecoen guisa: *in men-
 suram etatis plenitudinis Christi.* Ephes. 4.
 Pensezazu, nola, ta cein laster, ta cein eder
 argui, gloriac janci, ta beteac santu, ta doa-
 tsuen gorputzac egongo diran, ta anima an-
 sartsean, eguzquia baño claruago jaiquico
 dira, ariñac, alaiac, ta chit ederrac.

Ay! Cer bendicio, ta graciac Jaincoari
 emango diozcate, ceren gorputz artan bera
 seruiu, ta areñ vorondate santua eguin, ta
 Leguea gordetzuten! Cer esquerrac animac
 bere gorputzari, ceren garbiro vici izan zan,
 edo argalac becela, pecatyac eguin bacituen,
 orien penitencia ere eguin zuen! Cer bada,
 gorputzac animari, ceren Jaumaren bidean
 santuaz Ceruco bidean zuzen erabili zuen,

edo

edo moiz lurrecò gaucegara oquertu , edo
 macurtu bazan , ondasun , edo atseguin loie-
 tan sartu bazan : orieç eza zutu , ta guero da-
 ñu , ta eguiazco propositu eraguilleaz con-
 fesatu , ta Jaincoagana biurtu , ta viciera
 berri santua artu zuen , ta eriotzaraño ondo
 irauri zuen ! Ay cër poza ! Cer gloria vicial
 - Ta bitarteat , ¿norc esan dezaque conde-
 natuen gorputzac nolacoac egongo diran ?
 Orien anima zori gaiztocoac etorrico dira,
 nai , ta naiez , Infernutic , demonioac baño
 beltzago , ta itsusiago , su vici eguiñic . Ara-
 eo beren gorputzac icusteant , ¿cer tormentu
 amorratua artuco dute ? Ator ona , esan-
 godio bacoitzac , ator ona beabru gucien la-
 guna , ta nere carcela madaricatua : ator ona
 ire saria nerequin batean betico artcera . Ah
 zori gaiztoco gorputza ! Onembeste urte
 da igatic ni infernura nintzala . ¿Cer , etzan
 besteric , Jaincoaren legue santua urratu , ta
 ire anima garbia loitcea , abereen guisaco
 atseguin lotsagarrietan , venganza cital , ta
 beste dollorqueria , ta peccatuetan , ta aini
 merque ecerezagatic deabruai saltcea , ede
 doaric anima bacar au ematea ? Ator , bada,
 orain gucia nerequin batean pagatcera .
 Oieç , edo onelaco gauza asco esanaz an sar-
 tucodu anima , ta gorputz ori jaiquicoda be-

reala infernuco' sú gori vici ; ta illin eguñ
 ñic. Orduan ¿cér madaricacioac gorputzac
 animari, ta onec ari? Cer negar malco suz,
 ta garrezcoac? ¿Cer deadar, ta garrasiac?
 ¿Cer viotceco inciria samiñdu garratzac?
 Onela asicoda seculaco, ta beñere ezta as-
 pertuco, eternidade gucian,
 Ay anima Cristau au iracurtcen, edo enzu-
 tenzaudena! Cer izango oteda zuzaz? ¿Or-
 duan mundu guciaren aurrean cere buru-
 naico dezu icusi desdicha onetan, lotsa,
 pena, ta tormentu orietan? Ez, ez, anima
 nerea, ez Jaincoagatic: ez nere gorput-
 za, zure, ta nere onagatic. Ea bada, ani-
 mo, ta penitencia bereala: eguiazco biurre-
 rá, edo conversioa Jaincoagana, damu,
 ta negar viotcecoac, proposituac, ta vici-
 era berria. Bai, nere Jainco maitea, bai
 zure graciarequin. Emen penac, emen tor-
 mentuac. Betoz, Jauna, betoz ordu onean,
 Zure escutic becela, betoz nequeac, gait-
 zac, betoz emen Zure amorioan. Zure es-
 cuetan, zure mendean nago: ona nere ani-
 ma, ona nere gorputza, zure vorondate
 gozoa beti eguiteco, ta Zu oraiñ, ta beti
 amatceco. Amen.

...
 ...
 ...

ningo **IRUGARREN PUNTUA.**

MUNDUAREN JUICIOA, ETA GU-

-CIEN SENTENCIA BETICOA.

E Men dator fedeco eguia. S. Pabloc dio:
na : munduco gucioc Jesu Cristoren
Tribunalaren aurrean aguertu bear degula
*Omnis nos manifestari oportet ante tribunal
Christi*; ta an bacoitzac bere merecia artuco
duala. Orretaco gucioc bizturic Josafateco
Celajera joan bear degu. Beguira, nola Jus-
tuac, Jaunaren vorondatea eguiteagatic,
obediturco duten bereala, ta gozo chit an-
diarequin, bere Arintasun aren doaiatz esan,
ta eguin; puntuco arà joango dira airean,
Jesu Cristori echedetera: *Obviam Cristo in
aera* 2. Cor. 5. Thesal. 4.

Condenuac berriz juan naico eztute lo-
tsaz, ta icaraz: ernegatcen, ta birauca egon-
go dira: mendiai ots eguingo die, azpian ar-
tceco: eriotzari, bertan ondatceco; baña
baliatuco etzaie; ta bitartean deabruac joca,
bulzaca, osticoca, ta arrastaca eramango
dituzte lanzaquin, eztenaquin, ta beren pe-
catuen catea pisuaquin. Ay cèr carga, cèr
nequea, cer tormentu amorratua: eramang-
go duten! Baña ondo merecia: bada aín er-

raz penitencia eguin cezaquetela, eguin etzuten, justuac bezala, ariñ, ta aisa joateco Josafateco ibarrefa.

Ará Jesu Cristo jachicoda, mundua juzgatcera. Aurrena San Miguel, edo aingueru bat etorricoda gure Salvadorearen Guruce, ta gure erremedioaren Estandarte gutzizco ederrarequin: onec justuac atseguin, ta gloriac, ta gaistoac icaraz, ta infernuco penaz beretco ditu. Orrén ondoren Aingueruen egercituac gloriac janciric jachico dira, gucien Erregueari gorteguiten.

Orduan Jesu Cristo Gure Jauna aguertitaco da, jarlecu, edo odei zuri ederrezco Carroza batean, bere mende, ta magestade gutiarequin; *Cum potestate magna, & maiestate*: Eta anche gucien gañean gueratucoda. Ama Virgiña gucien Erreguiña bere Semearen ondoan trono guciz eder batean eserricoda; eta beren lecuetan Apostolu santuac; ta aien lagunac mundu gucien juzgatceco.

Emen beguira ondo gure Jesus onaren gloria andia: ceren bere Aitaren onra, ta gure ona gatic aimesteraño humillatuzan, orregatic juicioan onratua, ta adoratua izangoda: ori bera Ama Virgiña, Santu, ta Jus-

ru gucietan icustecoda. O cër humiltasuna-
 ten satiugaria! Cër gozaldia Ama maitearean
 viotcecoa, bere Sema bacarra, lèn Galvario-
 an Gurutcean dolorez illtzen icusi zuena,
 alaco glorian orain icustea! Cër Santuen po-
 za, ceren Ama Virginiari bere doloreetan,
 ta Jesus onari, bacoitzac bere gurutce, ta
 emengo nequeetan, moderaro, ta pacien-
 tiaz jarraitu cioten!

Cër gloria pare gabea, icustea an, nola
 munduan izan ciran Erregue, Agintari, Bi-
 degabe, edo Tirano gogor guciac, belau-
 nico, nai, ta naiez, Jesus Erregue, ta Jatu
 gucien Erregue, ta Jaun bacarra confessa-
 tzen, ta adoratzen mundu guciaren aurrean!
 Ea, animo, nere anima maltea! Jesus zure
 Jaunari orain zure vici moduto gurutce, ta
 nequeen artean jarraizaiozu: Ea, laster iga-
 roco dira; arc, eta santuac bezala paciencia
 pusca bat iduqui nazu, eta alcha gora zure
 viotza; jaso gora zure beguiac, pensamen-
 tu, ta gogoac, vicieta berriaz, an Jesus-
 en ondoan, ta glorian arquiteco.

**JUSTUEN, TA GAIZTOEN SEPARA-
 cio, edo berezdea.**

Bigarren gogora ecarri bear dezun gauza
 da, nola Jainac. Aingueruai, Juezac
 beza-

becela, aguinduco dien, justuen artetic atora, bereci, edo aparta ditzatela condenatu guciac, anchumeac areumeetatic, zalquea garitic, ta lastoa aletic becela: *Exibunt Angeli, & separabunt malos de medio justorum.*

O cér trançe estua! Onac, edo Santu guciac chit eder arguiac Jesusen escuiean gueratuco dira airean; Eta gaizto guciac, Aingueruac botaco dituzte ezquerrera, infernuco egur sorta illun iracequiac becela. Norc esan dezaque oien tormentu amorratua deabruen ostico pean? Aberatsac, andi nayac aguintari eragabeac infernuco lotsa, ta arrabia andiango izango dute, ceren lurtean pobrechoac oiñ pean erabilli cituzten, ta an gloria andian Aingueru tartean oriec berac icusico dituzten. Ay! Beguira oraiñ ondo,

Cemba munduaren paper, edo ots andia eguin zutenac, an beean ezquerretatic egongo diran, besteen suerte onaz arrituric! Ah! Gure zoro itsuac, esango dute, uste guenduñ, cerbait guñala munduan, ceren aberats, andi, estimatuac, nai guenduñ eguiten vici guñan: ta ango pobrecho bearrac, ta beren icerdiaquin jateco ematen cingutenac, ecertan iduqui ez guinduen! Ay gure zori gaiztocoac! Ara, ara, goien aiec Aingueru, ta Santuaquin non dauden, munduan

duan paperico reguin. ezpazuten ere : inore
ezagutugabe, azturic vici izan ciran, eta
orra cèr gloria aiena orain. Gu guinan des-
dichadu eroac, aiec ero, ta desdichadutzat
iduqui baguinduen ere. Aiec zuten Jauna-
ren bildurra, ta juicioa: guc itsu galduoc
ez : aiec becela, Jaunaren bidea jaquin ez,
ta utseguin, eta galdu degu gucia : *Ergo
erravimus à via veritatis*

Beguirra, cèmbat guraso on orduan glo-
riaz beteric escuieratic egongo diran, ceren
bildur santuaz Jaincoa servitù, beren ume,
ta ondorengoai Ceruco bidea obraz, ta itcez
eracutsi cien : ta bear bada orien umeac ez-
querretatic deabruen artean, ceren gaztetat-
tic gaizqui, ta beguieraraño pecatuetan sar-
turic vici izan ciran. Beste hume edo senide
batzuec egongo dira goien santuen artean,
ta oien senide, edo gurasoac bean deabruen
artean. O, ta cèr gauzac icusi bearrac gauden!
¿Ta cèr suerte izango ote dá zurea? Jaquin
naizu? Bada beguirra ondo nola vici ceran:
noronz orain zauden, aronz beti egongocera.
¿Ceruco bidean, penitencia, ta zure estaduco
virtuteen bidean zabilta esuieronz? Bada
escuiean arquiteco cera. ¿Pecatuen, vicioen
artean ezquerreronz zaude? Bada ezquerre-
ronz erori, ta beti egongo cera. Au zure es-
cuan

dago orain, ez orduan. Zuc orain naf dezuna, ta eriotzaraco artcen dezuna, seguru izango dezu orduan. Ea bada; jeren beguira nago? Ceruco bidea ar. dezadan, Jaincoaren Leguea, viciera santu bat, escuicco aldetic Ceruco gloriara igotceco. Amen.

Concienciaco Libruen idiquiera.

JUicioco eguiac aguertuco dizun beste eguia aũ da: *Libri aperti sunt.* Conciencia gucien Libruac idiquico dira. Eleiza Ama santac dió, Libru onetan escribituric dagoala gucia, andic juzgateco mundu guttia. Esan naidu: Jaincoaren argui golpe andi batequin, diran guciac, eta bacoitzac chit arguiro, ta batean icusito dituztela mundu gucian eguin izan diran pensamentu, itz, ta obra onac, eta gaiztoac.

O cer trance lotsagarrizco: peccarienzar, ta cer gloria justuentzar! An culpa lositsusi ezcutuan eguiñac aguerruco dira; an bazterretan bacarric eguin daco ecin aotan artu ditezquean guisaco peccatu nazca garric: an traicio, falsia, dollorqueria, intencio billau, ta viorceco venganza citalac, ta aicezco beste vanidade, ta buru arin ascoren choraqueriac: an confesioan lotsaz utel diran, edo estali, edo chiquitu diran peccatuac

tñac irtengo dira: Ay! Ay! Ger lotsa!
 s). Beriz an Justuen obra onac aguertuco
 dira: araco ezcutuan, inore etceucela egui-
 ñac: oien intencio garbi, ta gogo santuac,
 oien limosia oratio, ta isillic eguindaco
 penitencia, mortificacio, ta beste onelacoac
 baita. Justuen pecatuac ere, ta guero Jaun-
 ren graziaz eguia zuten penitencia. Au Jain-
 coaren gloriaraco: ta onec onra, ta ederra-
 sun anchia ojustuai, ta lotsa, ta tormentua
 gaiztoai emangodie.
 Baldin emen guchiren artean, falsa beltz,
 infamia eragabe, edo pecatu desonesto irusi
 batean arrapattea bat, gauza aia lotsa garria
 bada, eta alacoa daquitenen artetic igubs
 bati eraguiteco tranca: mundu guciaren
 aurrean, ecia igues eguingo duela, orrela-
 coetan bat artea xer izangoda? O lan-
 te guztien estuena! Argatic nere anima, Jain-
 coaren aurrean bezala vici gaiten. Begui-
 ra, Jaunac icusten zaituela. Beguira, Jain-
 coa dagoquizula beguira: Ondo vici, viotz,
 ta viciera ona.

SENTENCIA BETICOA.

AU dá Juicioaren azqueneco pauso:
 Juezaren sententia, baña sententia
 etrabacuna, edo definitiba: Sententia, ba-

ña guciz zorrotza, eta zuceia : Sentencia,
 baña arguia, ta bericoa : Sentencia, onal, ta
 gaiztoai dagoquiena, ta an emango zaien
 Lenengo, Jesus Ceruco Erreguea ber
 arpegui chit eder gozoarequin bere justue
 tara biurtu, ta esango die: *Venite, benedicti*
Patris mei, &c. Mat. 25. Atozte, nere Ai
 tarén bedecatuac : atozte, munduären asie
 ratic zuenzat dagoan Ceruco Erreinoa arte
 ra : ceren gose nintzan, ta jatecoa eman ci
 ñidaten : egarri nintzan, ta edatecoa ere bai
 ta orrela beste misericordiaeren obrac. Atoz
 te: O cèr deia ! O cèr poza, ta gloria ! Doa
 tsuac esango diote : ; Noiz, Jauna, icusi cin
 dugun gose, edo egarri, bidezco, ta soñe
 cogabè, carcelan, edo gaissoric, Zuri obra
 on oiec eguitco ? *Quando te vidimus, &c.*
 Ta Cristoc eranzungo die : Ah ! Araco po
 brechoari vorondate onez orrela obrac
 eguitean, niri eguiten ciñidatan : ta pobre
 ri eguiña nic neretzat artcen nuen.

O nere Jesus guciz misericordioso ! O
 nola zure misericordiaz, ta ontasunez mun
 dua salvatu nai dezun ! O cein urricalsu, ta
 amoriozcoa ceran ; bada nere culpen zor
 rac aifñ andiac dirala, Zure icenean nere la
 gun urcoari eguiten diodan misericordiaz,
 guciac nic aifñ erraz pagatcea nai dezu, tanic

zure misericordia, ta gloria guztia orrela irabaztea! Icasi ezazu, Cristava; obra onac besteai eguiten, ta zuretzat naidezun gucia zure lagun urcoari: bada erregla onetatic. Jaunac azquen juicioan sententia emango ditu.

- Gueroenean justuac beren saria artu, ta seguru daudela, Juez icaragarria aserre gucien arpeguiaz ezquerrecoetara biurtu, ta sententia emango die esanaz. *Ite: discedite a me maledicti, &c.* Zoazte, madaricatuac, zoazte seculaco nere beguieratic: zoazte Infernuco su, ta gar, edo tormen-tuetara: zoazte berico deabru guciaquin, bada nere misericordiaz etcerate baliatu. Gose, ta egarri pinzan, ta ecer eman etcinidaten: Pobre nin-zan, ta carcelan, ta ez janci ninduzuten, ta ez icustatu. Ta orrela beste obra onetan: Orduan gaiztoac esango diote: ? Noiz, Jauna, orrela icusi cindugun; obra on orieo eguiteco? Esango die Cristoc: Nere pobrer choai eguin etcinioten; ta argatic ezta niri etc. *Nescio vos:* Zoazte madaricatuac Infer-nura. Etzan besteric, nere Legue, ta voron-datearen contra nai cendutena eguin? Bada orain, ta beti vorondate orrec eguin zuena pagadezala. Ta despedida triste onequin Juez justuac bialdu, ta botaco ditu condenatuac.

niac. Ordnan demonio, ta deabruen lagun
gaizto guciac naste, ta batean, puntu artan
ondatuco dira: infernucó leiza zuloetan.
Ta orra munduaren cabua. Justuac Aine
gueru, ta Santuaquin Jesus, ta bere Ama
gozoarequin batean Ceruco gloriara: ta
gaiztoac Lucifer, Satanas, ta beste deabru-
quin betico infernura.

Coloquio, edo atceneco itzqueta.

A Y nere Jaungoico guztiz ona! Au cer
da? Nere fedea, nere juicioa non da?
Ta fedez zure juicio andi au, nere zorrac,
ta ango contu estu, zorrotzac icusi ezquero,
nic cer esan, ta cer eguin aldezaquet? Zu,
nere Jesus maitea ain aserre icusi, eta nora,
edo norgana biurtuco naiz? Baldin justuea
nac icara, ta bildur santuz badaude, eta
ordnan ozta seguru egongo badira, nizaz
cer izango oteda? Job santu bat ain justu,
ta garbia, bere animan peccaturic etcecuca-
na, juicio andi onen arguiaquin lenagoric
ala bildurten bazan, nic peccatari galdu
triste onec cer eguingodet?

Zure adisquide leial prestu onec juicioo
zure aserre aldi an andia icusiric esancizun:
Quis mihi tribuat, &c. Ay Jauna! Nor lego-
quean Infernuan sarturic, zure aserre sumin

izugarria igaro artean! Cer esan aldezaquet
 nic nere anima culpaz beteric duaucadala?
 Nere pecatuac, Jauna, carga pisu eramane
 eciñ ditequeanac becela, ondatcen naute
 Infernuan. Baña orregatic ere, nere gaitz
 guicien, ta Infenuaren ondarretic dei, ta
 ets eguingo diot zure misericordia cabuga-
 beari: *De profundis clamavi ad te Domine:*
Domine, exaudi vocem meam. Ea, Jaun pia-
 dosoa: Zughan dago nere erremedio guicia:
 zure misericordia onetaco.da, nere pecata
 andi guicien carga ondagarri aú nere anima-
 ren gañetic quentceco. Orretaco nere peca-
 tu, ta zorrac zure contura, ta zure gañean
 artu cinduen: Zure Pasio, ta Eriotzarequin
 Aaltaren justicia aserrearí osoro ciranac
 pagatceco.


Ay nere Salvadore, ta erremedio bacar-
 ra! Juicio artan ez zure neque, icerdi, ta
 negarrac, ta zure odola, ta eriotza baliatu-
 cozat. Baña oraiñ bai, pecatuetatic libra-
 tu, ta Zure escuiean ni orduan ipintceco.
 Ona bada, Jauna, ona non dezun mundu-
 co pecataritio andiena: ona non zure pie-
 dadea eracutsi, ta nori barcatu: ona nere
 viotceco miserien gañean zure misericordia
 ren Jarlecurie onena. Nere calte, ta desdi-
 eñac erremediatcean dago, Jauna » zure

Viotz amorosoaren deseo gucien cumpli-
garri betea. Esan dezaquet, zure gloriara-
co: zure piedade gozoarenzat lecu obeago,
ta berezco egoquiagoric eztala arquituco,
nere anima triste galdua baño.

Ea bada, Jauna, barcacioa, erremedio-
neretzat, ea betor zure paquea, zure escuie-
co aldea neretzat. Zure odol tanto bat, zu-
re negar malco bat asco det, zure viotzecco
asñase bat asco dá. Ea beñ, edo beñ acaba-
bite nere gaitzac, ta orrequin zure aserreac-
betor zure salvacioaren alegria. Orretaco zu-
re vorondatea bada, betoz oraiñ, Jauna,
betoz lenago emen zure aserre justuaren
castiguac: betoz ordu onean, zure miseri-
cordiazco azote, neque, ta gurutce zuc,
vici naizan artean, bialtcen dituzunac: be-
toz, Jauna: diranac dirala, zure escutic
datozenac neretzat onenac izango dira, ta
nic besoac zabaldu, ta laztanga artuco di-
tut. Zuc naizuna, nic nai det pocic, guero
burua zure escuiean icusteagatic. Nere pe-
catuen damuz, ta gorrotoz gucien confesio
andi bat eguin naidet, ta propositu sendo
seculan ez ausitceco batequin: costa de-
diña, costa dedilla.

Ta bada viciera santu zure antceco bate-
quin zure misericordia orduco irabazteco,

Zuc naizu nic oraifi nere gueide, edo lagun
 arcoai misericordia eguitea, ta Zugatic aiei
 al ditudan obra onac, Zuri becela eguitea:
 biz, Jauna ordu onean. Zure amorez eguin-
 go diet aleguin gucia, ta neretzat naico nu-
 queana: emango diet exemplo ona: nere al
 eguñaz lagunduco diet obra onaquin, al
 ditudan limosnaquin, conseju on, ta nere
 erreguaquin; orrela erraz Zure misericor-
 dia seguratceco: paciencia aiequin, ta are
 gueyago nere buruarequin neque, ta traba-
 juetan iduquico det pocic, Zure vorondate
 santua beti eguiteco, ta paquezco vicia, ta
 eriotza on bat: ta Zurequin, nere Jesu
 ona, Zure Ama gozoarequin; Aingeru,
 ta Santuaquin Zure escuiean juiciotic igot-
 ceco Zu alabatcera Ceruco gloriara Amen.



VICI MODU BERRIA ARTCECO

edo estaduaren eleccioa eguiteco

Exercicioa.

A Nima pecatuetatic libratu, ta erraza-
 go Jesu-Cristori jarraitceco, Aita S.
 Ignacioc nai zuen, Cristau bacõitza, modn

S

sua-

suave batequin, chit bere ta Jaincoaren
 erara virtuteen bide errealean sarrerazo,
 bere vorondate gaiztoa ausi, ta ucatu, ta
 Jaunaren vorondatea gauza gucietan gogo-
 tic billatu, ta eguiteco. Orretaco, bere
 animaren salvacioraco conueni zaion bidea
 artceco, ta Estaduaren eleccioa, Jaincoaren
 aurrean, bear becela eguiteco, Erregla se-
 guruac beren consideracioaquin Santuac
 ematen ditu.

Jaincoac deituric, beren Estadua artu ta
 daudenai, ta Jaunaren vorondatea eguno-
 ro obeto eguin nai dutenai ere, Santuac
 bere Erreglaquin laguntzendie, beren vi-
 ci modua zuceñteco, ta ceruco arguiaquin
 viotzac jaso, ta pauso guciac Jaunaganonz
 seguru emateco.

Oriez eztute ya beste Estadutan pensatu
 bear, ceren tentacioa izan oidan, ezpada
~~artu duten~~ Estaduari ondo equin, beren
 obligacioai obeto beguiratu, esaminatu, ta
~~antolat~~ fede on osoaz, ta viotz onaz zu-
 cen Jaincoari jarraitcera.

Beardute oiez, David Santuac becesa, Es-
 piritu Santuari bere arguia, ta gracia escatu
 beren obligacioac ezagutu, ta oriez ondo erā-
 zuteco. *Confirma hoc, Deus, quod operatus es
 in nobis: Psal. 67. Confirma me in verbis tuis:
 Psal.*

Psl. 118. Et spiritu principali confirma me.

Psal. 50. Jauna, Zuc gugan eguin dezuna, sendo ifinzu. Zure itzetan segura nazazu: eta Zure espiritu principal, edo gueiena bear dedanaz sendo nazazu.

ESTADUA ARTU NAI DUT ENAC JA.

incoaren aurrean ondo pensatu bear dituzte Erregla oiee.

1. **E** Regla. Eleiza Ama Santac dituen Estadu guciac onac berez izanagatic, batzuec obeac dira, besteac baño. Ezcontza, edo Ezconduen Estadua, ceñean asco salvatu, ta Santu izan diran, ona da; baña Ezcongaiena, edo continencia obea da, ta Religiosòa are obeago, ceren onetan arazo guchiago, ta virtutea, ta salvacioa alcanzatceco socorru gueyago diran. Erri batera co bide asco nola oi diran, baña batzuec obeago, besteac baño, ceren lapurric, ta peligroric eztan.

2. Estadu guciac onac berez izanarren, ta batzuec obeago, besteac baño; orregatic artu bearduen edo cein personarenzat orrela ez tira. Ceren bat Jaincoaren aurrean beragana deitua sentitcen bada, Religioraco go-go, ta inspiracioquin, ta ori dala Jaincoaren

vorondatea ezagutu , ta beste munduco
 estaduric artuco balu , ya anima orrenzat
 ori ezlitzaque bide ona izango , ezpada pe-
 ligrozcoa.

Contrara : batec bere umore , edo condi-
 cio , edade , ta Jaincoac emandizcan prenda,
 ta doaiac ondo ezagutu , ta Jaunaren aur-
 rean icusico balu , secular izan , ta bide
 orretatic bera servitcea naiduela , ya perso-
 na orrenzat ezlitzaque obeago , ta ez ondo
 bestè Estadu berez obea dana , ceren ori ez-
 dagoquion. Nola janari asco berez onac,
 ta batzuec besteac baño obeago izan arren,
 ez datozque estomago guztiai ondó , ta ba-
 tzuei on eguiten dienac , besteai gaitz : ori
 bera estaduac animetan.

3. Estaduaren auquera , edo eleccioa
 eguin bearda , arazo gucietatic libre , ta
 paqnean anima arquitcen danean : ez aser-
 re , ira , edo uste gabeco beste pasioren ba-
 tequin gozagaitzturic dagoenean : ceren
 orrela ecin gauzac bearbecela pisatu , ta ar-
 razoiai beren lecu , ta indarra eman daquie-
 quen : viorceco sosegu , ta Jaunaren paque
 arguia , acertatceco bearda.

4. Jaungoicoarequin batean bein ondo
 beguiratu , consejua artu , ta cer estadu , sal-
 vatceco convenizatzun erabaqui ezquero,
 ezta

ezta atcera erraz edocein gauza gatic biur-
tu bear ; batez ere animaren tristeza , de-
samparo , edo tentacioen demboran ; ce-
ren orduan illundu , ta nasturic arquitcen-
dan , ta gauzac diran beçela , icusten ez
dituen.

5. Estadua artu bearduenac , lenengo
Jaincoari argula escatu , ta bere buruaz fia-
tu gabe , conseju segurua artceco , Alra es-
piritua Jaincozco , Jaquinsu , ta cintzo , edo
prudente bat billatu , ta arequin itzeguin ;
ta guciaren contu eman , ta aren consejuz
erabaqui beardu. Humildade onec Jaincoa ;
bere argui , ta gracia ematera obligatu oidu ;
ta bestetic bacoltza bere gaucetan ez oida
Juez ona , bere vorondate , ta amorioaren
peligro , ta engañuac gatic.

6. Orregatic , Esraduaren puntu aù ta
Jaincoaren deia , edo vocacio , ta inspira-
cioac , seglare , ta munducoaquin tratatcea ;
uts eguitea da , ta peligrozco gauza : orobat
aideaquin. Oriec eztira animaraco gaucetan
consejari onac ; ceren berenez , ta guelene-
an araguiari , ta odolari darralzca , ta icu-
sia da orien inrenciao , cefia munduco con-
veniencia , Interes ; edo andinalean dauca-
ten. Orrelacoac beren juicio , ta afectoa itsua ,
ta galdua daucate , ta virtute , ta salvacioaren
impor-

importancia ez tute bear becela estimatcen.

7. Ondo iritziagatic Jaincoa servitceco vici modu bati, ta ori artu nayagatic, ez berealacoan erabaqui, ta ez cere burua, Estadu ori artcera, votoz obligatu, chit ondo contu eman, ta persona virtutezco jaquintsu baten conseju gabe.

8. Jaincoaren escuetan daude gure suerteac: andicargui, gracia, ta doai guciac etorri beardu: baña orregatic ere cer vicimodu salvatceco bacoitzari dagoquion, gueyenean eciñ batec jaquin dezaque beguiz icusi ta becela, edo evidenciaz; ceren Jaincoac, San Pabloc dionez, naidu, » icara, ta bil » dur santuaz guc gure salvacioa obratcea, » edo irabaztea. Ta alá, Jaincoaren deian, edo vocacioan, ta zucembide, edo estadu artceco puntu onetan, señale, ta milagroac billatcea, edo escatcea, gaiztoa dá, ta utseguitea; ta are gueyago, estadu obera, ta salvatceco obeto dagoquionera, bat inclinacioac daramanean.

Emendic aterá, ta icusico dezu munduco gendeen engañua; bada, baldín munduco conveniencia andiren bat, escura badatorque estadu secular, ta peligrosoan izan arren, bertatic, itsuan consejugabe, beren zat artcen dute, ta besteai aconsejatcen die.

Baña

Baña Cristau bat estadu santuagora inclinatua sentitzen bada ; orduan consultae consulten gañean nai oi dituzte, ta beguiatz icusi, edo euidenciac escatcen dituzte. Oiee dira araco Salvadoreac, aserratu, eta esan cienen guisa. *Generatio mala, & adultera signum quarit, & signam non dabitur ei.* Cristori jarraitceco, milagroac nai dituzte: ta Cristori ez jarraitceco, ta munduari laztan emateco, beren gusto, edo gurari bat asco dutet.



VICI MODUA ARTCECO EGERCI- ciora ; bere consideracioaquin.

Doce me facere voluntatem tuam. Psal. 142.

Jauna, zure vorondatea eguiten erautu-
si zadazu. *Domine, quid me vis facere?*
Act. 9. Jauna, cer naizu, nic eguitea?

COMPOSICIO, EDO LECU EGUITEA.

Consideratu gure Jaungoico gucien Aita
chit amorosoa, guri bacoitzari bere
doziac ematen, ta beren inclinacioac, ta ba-
naca bere deiaz, edo inspiracioaz, beren
salvacio ; ta Ceruco gloria alcanzateco, cer

Esta-

Estadu , ta vici modu artu bear duen , bacoitzari señalatzen.

Peticioa.

Jaungoicoari escatu bere argui golpe andi bat, cer Estadutan bera servitcea naiduen ezagutceco, ta beraren vorondate, ta graciaz zu salvatceco obeto dagoquizun bidea artu, ta animo andiaz berari jarraitceco, beardezun indar gucia.

LEUDA BICICO PUNTU, TA CONSIDERACIOA.

IRU GUIZON MOTA EMEN ICUSI,
edo considera itzatzu, edo iru Cristau genero, bacoitza bere bidetic dijoac enac.

BAtzuec Cristori jarraitu, ta salvacioa alcanzatu naidute; baña fin ori eragozten dioten gauzaz deseguiñ nai eztute, ta ez Jaincoac eraman naidituen bidean sartu, ta beardiran medioaz baliatu. Oiec dira, osasuna naiduten erien guisa; baña gaitz eguren dien janaria utzi nai ez, ta ondo dagozquien, ta beardiran erremedioac artu naiez dituztenen guisa.

Bigarrenac ere salvacioa naidute; baña ez Jain-

Jaincoac deitzen, ta eracusten dien bidetic, ezpada beren erara. Cristoc, lurreco gauzac utzi, ta berari jarraitcea aguintcen, edo esaten die; ta naidiote jarraitu, baña munduco gauzai itsatsita daudela. Cristoc bideonetatic naidituela; ta berac leian bestetatic naidutela: ta orí ona dala ustearequin, engañatcen dira: Jaincoac aien vorondateari, ta ez berac arenari, obeditu bear balie becela. Oiec araco eri-en guisa dira, ceñac osasuna nai duten, baña ez Medicu jaquintsuac emandaco erremedioaquin, ezpada berac on diralá adituaquin, edo gogoac eman dizcanaquin.

Irugarren Cristau, edo animac egulaz, ta yiotcetic beren salvacioa naidute: oiec erresistencia gabe, ta gogotic beren vorondateia Jaincoari bere escuetan osoric, ta ecer nai gabe, uztēndiote: emen dituzten gauzac, edo iduqui, edo utzitceco, ta Jesu Cristori, berac bere onra, ta gloriaraco, nai en duen bidetic jarraitceco, prest daude; eri beren osasuna nai, ta edocein erremedio samiñ, edo garratcena ere artceco prest, beren burua Medicuaren escuetan largatcen dutenac bezala.

Iru Cristau mota oieratic lenengo biac gaizqui daude Jaincoaren deia, edo vocacioa

cióa enzudeo, frugarrenac bai orretaco
 prest dazuela : oiee confiazezaquete, Jain-
 coac bere argui, ta graciaz lagundueo diela,
 ta beren animac saluateco bidea aguertuco
 diela. Contrara lenengoac, Jaunaren vor-
 rondateari eguiten dioten erresistenciaz,
 peligru chitezco andian dabilta, Jainco-
 aren vorondate, ta deiarri erantzun, ta eman-
 go cizten socorruac berac, ucatu, ta beren
 animac gaitceco.

Sar zaitz orain zuregan, ta beguira on-
 do, iru Cristau modu orien artean, ceñe-
 tatic zu ceter. Baldin, Jaunaten graciaz ba-
 tean, aren vorondatea ezagutu, ta berari
 jarraitceco prest bazaudé, gucia beraren es-
 cueran largatic, ô cêr dicha zurea ! Bada
 orrela zure favore, Jaincoa obligatu, ta
 empeñaturic daucazu ! Bera piloto izango-
 da zure onteia gobernateco, ta munduco
 itsasoan portutaino seguru eramateco.

Baña zure vorondatea zure erara egui-
 nai badezu, ta Jaincoaren arguiac señalateñ
 dizun bide, edo errumboa utel, ta zure
 gogoz gobernateñ bacefa, ô cêr peligró
 iearagarria ! Cêr importa da zure animaren
 osuna desatcea, baldin Cerueo Medicuac
 ematen diezquitzañ erremedioac attu nai ez-
 padituzu. Ta zuri ondo detitzuñ attu nai
 gatic,

gatic, cer importa dà; Jaungoico, zuri
 cer obeto dagoquizon, cierto daquienari
 sinisten ecpadiozu?

Itsutasuna dà, bidea ecin utseguingo due-
 nari ez jarraitzea: zoraqueria itsu bat besteaz
 guidatcea. Itsua cerala ezagutcen badezu,
 bada, ;nola cere buruaz guidatcera atrevi-
 teen cera? Jaincoac eciñ utseguin badeza-
 que, eta ni, nic nere burua baño gueyago
 amatcen banau: baldin nere salvacioa amo-
 rio guztiz andiaz deseaten badu: orretaco
 eguin baninduen, ta bere odol preciosoa
 isuri bazuen: ;nola onen deiari, ta voron-
 dateari jarraitcen ezdiot? ;Nola onen escue-
 tan osoro nere anima uzten ezdet?

O nere Jaun, ta Jabea! ;Ceren beguira
 nago? Ona, ;Jauna nere viotza: ;cer naizu
 nizaz? ;Cér naizu nic eguitea? Emen nago
 prest, zure deiari jarraitceco. Esadazu, cer
 naizun: ona nere vorondatea prest beti be-
 tico zurea eguiteco.

BIGARREN PUNTUA, TA CONSIDERACION.

PEnsatu ondo, auquera, edo eleccio onen
 importancia: oneran aceratcean, edo
 uts eguitean, dago gure onic, edo gaitzic
 andiena. Condenatcen diran gucienac puntu

onetatic Ceruco bidea utci , ta infernucoa
artcen asi ciran ; ceren pecatu ascoren peli-
groetaco vici modua artu zuten , ta virtu-
teenzat chit gaitza , ta ori Jaincoaren vor-
rondatea beguiratu-gabe , ezpada beren
gusto , ta interes lurrecoac bacarric.

Beguirada bada ondo , vici modua bata , ta
bestea , ta duda orretan , cein conveni zait-
zun. Beguirada ondo , alde gucietatic gauzac
pisatuta , zure salvacioraco cein obeto dago-
quizon. Ta baldin pasio gabeco considera-
cio argui au ezquero ezagutcen badet Esta-
du batera deitzen didala , ta ez besteetara ,
ori artu bear det , ez besteric. Baldin cem-
bat gueyago , Jaincoaren escuetan berac nai
duen eraco , jartcen naizan : cembat , eta
gueyago Ama Virginiari , ta nere devocioco
Santu bitartecoai vlotz gucitie escatcen die-
dan , orduan arguiroago ezagutcen badet,
Jaunac Estadu orretara , ta ez bestera , nere
vlotza daramala , ta icusten badet , nere salva-
cioraco bide ori naiduela nic artcea , ta conve-
ni zadala , ori vorondate guciatz artu beardet.

Onela Jaunac deitzen dizu , ta dei amoro-
so onetan zure vlotceco confianza andi se-
guru bat iduqui bear dezu. Onela , bere glo-
ria , ta atsequin andiraco , ta zure animaren
dicha , ta zori oneraco , cer naien duen Jau-
nac

nac aguertcen , ta eracustendu : Onela Jaincoareu vozac , ta zure barrengo deiac ots egingo dizu , estutuco zaitu , ta golpez , ta deiez esango dizu , lén baño lén , ta beingotan munduco cateac urraditzatzula.

Orduan munduac contrara deadar eguín-godu , bere interes , gusto , atseguin , ta cariñoaz , oriec ez largatceco. Baña ezta an-si : ta zuc eranzun bear diozu araco Jesu Cristoren sententia eraguille arequin : *Quid prodest , &c.* ; Cér , cér baliatuco zat , irabaztea mundu aú , galtcen banaiz ni nerau ?

Esayozu bada cere buruari : onetan , aníma nerea , ezdijoa guchiago , zu betico gal-tcea , edo irabaztea , salvatcea , edo conde-matcea baño. Beguira mundu aú naizun : on-dasun , ta atseguíñac esqueñtcen dizquitzu ; baña milla beazunez , naigabez , ta sustoz beteac daude. Beguira nai dezun , ez mun-du gucia (ori Erregueric andienac ere eztu) zepada orren parte chit chiqui bat , acien-da pusca bat , aimbeste quezcarequin gor-detcen dana : fortuna labur bat , aimbeste ur-te , ta neque alcanzatcea costaco zatzuna , ta burlatu , ta escuen arteric joango zatzuna.

Beguira , lurreco ondasunac , guero enean urzi bearrac , beste ascoc lenago utzi citue-nac , nai dituzun. Beguira , orrelaco ecer

ezquerria bategatik Jaincoaren vorondatea
 itxi, ta zure anima condenatceco zorian
 ipintcea, ondo deritzatzun. Ay! ta cer dá au?
 Cein guchi zure burua estimatcen dezun,
 Ceruco gloria baño ecer ez lureco bat gu-
 iago estimatcen dezunean ! Emen urte, edo
 egun guchiren barrenean utcicodezu gucia.

**IRUGARREN PUNTU, TA CONSIDE-
 racioa.**

COntu eguizu, eriotzaco orduan zau-
 dela, ta eternidadearen atectan cere
 burua icusi, ta vici modua artceco puntu
 onez acordatcen cerala. Galde cere buruarit
 ;orduan cer eguin izan naico cenduque? ;Ne-
 re araguiac orain naiduená? ;Orduan naico
 óte nuque, orain nere andi nai, interes, edo
 munduco eroqueriac aguintcen didatena?
 Ez orrelacoric, ta ez guchiagoric. ;Cer ba-
 dá? Orain Jaincoaren dei, ta mandatuac ne-
 re viotcean esaten didatena: nai, ta naiez
 Jaunaren vozac nere viotcean ematen diz-
 quidan golpeac sentitcen, ta aditcen dirut
 orain.

... ;Ta noiz nago eguia esateco, ta nere bu-
 ruren consejari izateco era obean? ;Candela
 triste eriotzaren artan, dan bezala, eguia
 icustean, edo munduco eceretz utsac enga-

ñatu,

aturic naucañean ? O nere Jaun eguiazco
 Consejaria : zure gracia , ta indarra indazu
 eguiteco oraiñ , orduan seguru naicodedana,
 ta eciñ eguingo dedana ! Oraiñ zure voron-
 date , ta deiari eranzun , ta jarraituaz ordu-
 an atseguin artucodet , ceren ori nere zosi
 oneraco dagoquidan . Oraiñ , bada , eguin
 dezaque danean , bide Ceruraco au ardeza-
 dan , nere illteco zorian atseguin andia bai,
 ta damuric izan ezdezadan .

**LAUGARREN PUNTU , TA CONSIDE-
 racioa .**

ORrez gañera , contu eguizu , Jesu Cris-
 toren Tribunalean arqutcen cerala .
 Bere Evangelioa dio : an bacoitzaren obrac
 nola diran , ala emangodiola . Vicitzaco
 obra on , edo gaiztoac Estraduaren eleccio,
 edo auquera onerari gucienean daude , edo
 asitcendirá . Icustean , bada , cere burua aca-
 ballaco Tribunal guciz estu , ta justu onetan,
 zure lengo vicia , nola zucendu izan naico
 dezu , zura gurañien , ala Jaincoaren voron-
 datearen erara ? Ta oraiñ ematen dizun
 ta viorcean sentitcen dezun vocacio orren
 gañean , ¿cer carguac eguingo dizquitzu ?

Ay ! Ta nola esango dizun : ¿Erzera acor-
 datcen , Cristau esquer gaiztocea , nola ons-

laco

laco demborà, ta lecùtan, onelacò, ta alaco
desengaño, ta bulcadaquin, golperic ascò
zure viotzari emanion, ta otseguin, salva-
cin-dezen, niri jarraitceco; ta zu gortu, ta
sortu ciñan, ez nere dela aditceco, aitzar-
quiac billatuaz, zure barrengo avisoac, ta
ecin burutic quendu cinduen nere manda-
tuac, orrela áztu erazotceco? O desdicha-
dua! ¿Uste cenduen nic zure bearra nuela?
¿Etzan besteric, nizaz aztu, ta pensatcea,
zuc nai cenduen bidetic, ta ez nic nai nue-
netic salvatuco cindudala?

O zori gaiztocoa! Beguira, besteac nere
vorondatea eguin, ta irabaci duten gloria:
beguira zuc zurea eguin, eta betico galdu
dezuna: Bacenequien nere esana: «Deitu
» nizuten, ta ots eguin, ta zuec ez jaramon:
» nere conseju guciac aztu, ta utci. Bada
» orain zuen betico calteaz farra, burla, ta
» iseca eguingo det. *Vocavi, & renuistis.*
Despexistis omne consilium meum:: Ego quo-
que in interitu vestro ridebo, & subsanabo.

Ay nere Jesus maitea, eta orduan Juez
aserrea! Indazu, arren, Jauna Zure ontasu-
nagatic, orain bear dedan valore gucia Zure
dei amorosoari eranzun, ta jarraitceco: ez
arren ni utci, Zure ceruco alea nere viot-
cean ito ez dedin, ezpada Zure bendicioaz
beti-

betico frutua nere animan eman dezala , ta
orain eguin , beti naico dedana. Amen.

**BOSTGARREN PUNTU , TA COSIDE-
raciona**

Pensaezazu, zure adisquide andi bat, ce-
re burua becela amateen dezuna, ce-
hen salvacioae chit asco descatcen dezun; zu
zauden dudan arquitcen dala, ta zu bece-
laco arrazoiakin beteric, eta bestetic, zure
osasuna, indar, ta gauza gucietan zure an-
tcecoa, ta zu cerori becelacoa. Coatu egui-
zu, conseju escatcea dizula, cer eguingo
duen.

;Cer conseju emango cinioque, zure con-
ciencian, ta eguiazco adisquidetasun, ta
caridadearen leguearequin ondo cumplitce-
co? Ta orain ondo pisaezazu, inñori besteri
eztiozula zoraimbeste adisquidetasun, nola
cere buruari, ta ortic atera, cein zeroa, ta
nere animaren etsai izango nintzaquean,
besteri neronec emango nioquean consejua
neretzat artcen eypadet.

**SEIGARREN PUNTU , TA CONSIDE-
raciona.**

BEguira ondo, ta contu eguizu, esaten-
dizutela, nola ondasun, edo errenta
andi

andi batzuec zuri datorquizun, ta beste interesatu batzuec zure justicia, ta derechoa nastu, ta quendu nai dituzten. Zure aleguin gucia bereala etcindue eguingo? Edo bein asi, ta utico ote cendue gueroço, almbeste importatcen dizuna aztuaz, ta Juez orain favorecitu nai zaltuztenac, zure naguitasunaz aserratu, ta zure contra biurtu arteraño?

Bada sinistra ezazu, Jaincoaren deiac zure salvacioco camio seguruenetic deitcean, Ceruco zure Alta onac ango gloriaren mayorazgo, ta ondasunen eman dizun derechoa, vici modu santu oneratic, aguertu zatzula. Nor bada aini zoro izango da, bertatic derecho ori aseguruatu naico eztuena? Nola aini itsu izango cera, demonio, mundu, ta araguiari sinistu, ta zure betico dicha ori gaitceco?

Esango dizute, bai: vicitza onetaco ondasunac ez ditatzula urci, edo galdu: zure aide, ta adisquideaz acorda zaireala; bafia zu zure fedeaz acorda zaitte, beste gazteari Jesu Cristoc cer esanlon: onec Cristoti jartaitu naicion; bana lenago bere Aita ilzana enterari nai zuen: *Sinite mortuos sepelire mortuos vivos*. Larga, esan cion, larga munduan: illen guisa vici diranac, illen contu ardezarela: zuti bacartie tocatcen zatzu, nere delari cranzun, ta zure vici beticoa seguratcea.

Esango dizute; bai redolaric! Pusca bat echedeteco, era ona guero ere izango dala. Baña zue enzun bear dezu, zure Salvadoreac diona: *Ambulate dum lucem habetis, ne tenebra vos comprehendant.* Egu arguia dan artean, Jaincoac bidea aguertcen duen artean, obe da orain jarraitu: guero co utci, ta viotza illundu diteneque, ta bidea uts eguin, ta ecin arqitu.

Cristoren voza aditu, ta Apostoluac bereala jarraitu cioten: ta Zebedeoren semeac: *Relictis retibus, & patre, secuti sunt Dominum*: Arrantzaco sareac, ta beren Aita utci, era bereala jarraitu cioten. Ta jarraitu ezpaliote bereala, ;norc daqui, sare orietan nastu, ta guero jarraituco cioten? ;Norc daqui, itsasoan orfec botatcean, orien ondoren ondatuco ote ciran?

O Ta cembat icusten dira, lastercaco erio-tza zori galztoco batequin acabatcen, Jaunaren vocacioa guero co utciagatic! O! Ta cembat galdu dira secullaco, Jaunac deicen cienari gortuaz! Uste zuten beti otsez egongo citzaicla; baña Jaincoaren aurtean munduco guciac auts pisca, ecer ez bat dira, ta inoren bearric eztu: orrelacbai diez egon, ta cansatu, ta utcieguiten dib, abere gogorrai becela, beren deseoen ondoren di-

joazela. Ta' zue' néré ahima, cer diozu: *Si aliquando, cur non modo?* Guero animatucó ceralá badiozu; ¿cergatic ez bertatic? ¿Nore daqui gueroric zuretzat izangodan? ¿Nore daqui guero eraric izango dan? ¿Munduco ondasunac utcicocindunque gueroco? Ozoraqueria!; Ta zure salvacioa peligro oietan náizu utci? Ah! Oraín eguiten ezpadezu, bearbada secular inoiz eguingo eztezu. *Si non modo, fortasse nunquam.*

Coloquioa.

O nere Jesus maite, eguiazco adisquide bacarra! Zu bacarric cera Bidea, Eguia, ta vicitza, niri Ceruco videá eracusteco, ta vici eguiazcoa emateco illcñana. Zure amorio guztiagatic, zure Pasio, ta eriotzagatic, indazu arren, Jauna, zure Eguia, ta vorondetea ondo ezagutu, ta animo eraguille batequin, ta nere viotceco gogo guciarequin jarraitceco zure vorondate ni salvatceco deznari, zure onra, ta gloriaraco, ta nere animaren oneraco. Amen.

Ama Virginiari Coloquioa.

Nere Ama Virginiá guciz Santa, ta peccari penitente gucien Ama gozoa. Zu artizar, edo Norteco Izar eder arguia cera, munduco itsaso illun onetan galtceco, ta ondaceco zorlan dabilizan animena. *Eta secular*
lan

lan zitu Zugana vlotz onez datorrenic gal-
du dala. Arren bada alcantza zadazu Zure
Seme , nere Jaunagandic oraiñ bear dedan
arguta , ta gracla , aren vorondate santua
bacarric billatceco , ta arquiteco , ta berac
nai duen bidetic Zure amparoan , vlotz
osotic jarraltceco , beraren , ta Zure glo-
riaraco. Amen.

CONCIENCIA ESAMINATCECO

Exercicioa.

A ita S. Ignacioc lenda bílico astean be-
reala Examen modu bi ematen ditu,
Exercicio otec eguiten dituenac bere anima-
co loi, edo pecatuen manchac ondó billatu,
beguiratu , ta garbitceco. Batari Esamen
particulara, ta generala besteari deitzen dio.

Esamen particulara dá vicio bacoitzaren
contra banaca peleatceco modua : ta aú Jain-
coac A. S. Ignaciori, besteri ez becela, era-
cutsi cion: ta bacoitzari obeto bere A. espi-
ritualac eracutsico dio. Oraiñ beste esamen
pecatu guciena , edo generala esango degu.

Esamen generala bere bost puntaquin.

E Samen aú Aita San Ignacioc eman
zuen becela , dio Maisu fama an-
dico Aita Frai Luis de la Puente vene-
ra-

ragarriac ; nic icusidedan gauzaric prove-
chosoena dà , ta Cristau suerte gucienzat,
oració eguiteco modutic onena.

Egercicioetaco Santuaren textoac dio one-
la : Esamen generala eguiteco môdua : di-
tu bost puntu:

1. Puntua dà, Jaincoac eguin dizquitzun
beneficioen esquerrac , edo gracia berari
ematea.

2. Dà, eguin dituzun culpa, edo pecatuac
ezagutu, ta quentceco, gracia berari escatcea.

3. Jaiquiciñan ordutic onaraño zure ani-
mari contu artcea: ordutic ordura, edo dem-
bora batetic bestera , lenengo pensamentu-
en , guero itcen , guero obren gañean.

4. Jaincoari zure falta , edo culpen bar-
cacioa escatcea.

5. Beraren graciaz emendatceco proposi-
tua artcea. *Pater noster.*

*Confesio generala, edo particulara ondo egui-
teco, Instruccio, edo Iracasdea.*

MOdu biran dá Confesioa. Baldin az-
queneco confesiotic onara eguindaco
culpac confesatu nai, edo bear badituzu, de-
ritza *Confesio particulara*. Baldin vici guz-
co culpac, edo urte, ta dembora ascotacoac
confesatcen badituzu, deritza *Confesio gene-
rala,*

ta edo culpa guciena. Au eguïteco, edo ondo prestatceco, beste obra onetan beccela, emen iru gauza bear dituzu.

1. *Jaunaren gracia. 2. dembora. 3. diligencia.*

Jaungoicoaren gracia beti prest dago, ta peccatutic beregana gu biurtzea, ta saluateca naidu. Arguia, ta gracia berari escaiteca costaco-zatzu, esango dan beccela.

2. Dembora. Confesatcera baño len, cembat dembora bacoitzac bear duen, ecin guciai batean esango zaie. Nola dan bacoitzaren concienca, vici modu, ta beste orrelacoac ondo icusi, ta cer dembora beardezun, zure Aita Espiritual jaquinsuac obeto esango dizu.

3. Diligencia, edo zure equin naja. Ecin dan, edo imposibleric gure Jaungoicoac aguintcen eztu: gure partetic aleguina eguitea, bai, ta ez besteric, edo gueyago. Nola munduco eguïteco, edo contu andi batean bere aleguina bacoitzac bere aldetic ipintcen duen, ondo eguïteco; ori berà, ta ez gueyago Jaunac zuri escatcendizu. Badaquizu, cein importancia andico gauza dan zure animaren salvacioa, ta cer aleguinac escatcendituen Baña au ezta gucienzat berdin, edo era batean ezpada, nola dan bacoitzaren buru, edo

capa-

capacitatea , ta gaya , bere partetic ondo prestatc eco.

Penitenciao Sacramentua ondo arceco, ta culpa gucien confesio general on bat eguitco , Egercicioetan , edo bestela , lecu on bat billatu bear dezu : erretiro, edo bacarta-sunac asco lagutcen du. Emen , Jaincoaren arguiatz baliatcen cerala , zure memoriaz , adimentu , ta vorondateaz jardun beardezu, Memoriaz zure pecatuaz acordatceco, adimentuaz, oriec ezagutu, ta ondo pisatceco, ta vorondateaz orien damu, ta gorroto alde-zun andiena, propositu chit vici, eraguille, sendoenaz zure viotcean arteco.

Badaquizu , pecatu gucien confesio andi au ascorenzat dala gauza chit bearra. Len confesio gaistoac, daquitela, eguin dituzten guciac , salvatuco badira , confesio generala eguitera daude obligatuac. Confesioac gaizqui eguiten dira. 1. Ceren culpa graveren bat , edo asco bildurrez, lotsaz, edo bestela berariatz , jaquiñaren gañean confesatu gabe uzten diran, edo guezurra orietan esateri dan. 2. Ceren baten culpaz, edo naguitasunez , bear dan esamen concienciacoa eguiten ezdan. 3. Ceren beardan dolore , ta propositua eramaten ez dan.

Propositu au gueiñean faltazale, besteroquin

quin peatun, edo orren bide, ta ocasioan sartu, ta daudela, confesatcen diranai, edo gorroetan gaizqui vici diranai, besteren actenda, edo onra galdu, edo quendua biurtu bear, ta dezaquetela, biurtu nai ezdutenai, ta onela besteai. Oieç, bada saluafuco badira, lenengo gaizqui confesatu cifanetic onera, eguin bear dute pecatu gucten confesio generala.

Beste ascorenzat ezta añ bearra, ta ez premiazcoa. Baña len confesio generala eguin ezruenarentzat, da conseju chit provechu andicoa, ta Jaincoaren aurrean irabazi andia dacarrena; ceren lotsa, damu, ta proposito gueiagorequin culpa guciac era batera confesatcen diran. Da frutu, ta consuelo andico gauza, vicitza berri on bat, ta erioztza paquezco bat eguiteco. Ascoc urtean beñ urteco errevista bat aguintcen dute. Beste ascoc illoro erretiroco egun bat artu, ta illoro-co confesio generala, frutu andiaz eguin oïdute. Aita espiritualaren esana zuc eguizu,

Esamen au eguiteco modua.

LEcu on batean bacarric sartu, ta are guelago bacoitza bere viotceco bacar-tasuncan, bear duen dembora artu, ta bereata Jaincoari erregutu, ta bere gracia Esamen

au ondo eguiteco escatu beardio, era onetan,

Oracioa.

O nere Jaungoico guztiz ona, ta misericordiaz betea ! Oná, Jauna, ni peccatari galdubatz, guero ere erremedioaren billa zugana biurtcen naizana. Zure ontasunac naidu, ta aguintcendit, nere viotz gucitic zugana, biurtu nadilla. Biurtu naidet, bada, nere Ja bebacarra. Baña nic nerez, edo zu gabe, ori ere ecindet. Zure viotz amorosoac nacar, ta zure graciac aurea artcendit.

Betór, bada, Jauna, zure arguia : indazu zure escua, aguintcen didazuna ondo eguiteco. Ay ! Ta ceñ gaizqui joanzadan, munduaren ondoren ibilli naizanean ! Ay cèr biaje lucé, ta urrutia ! Ay ! ta Zugandic joan ezquero, cèr calte gorriac nere animac icusi dituen ! Alere guztiaç zure graciaç erremediatu naiditut.

Aita Eternoa : ez arren beguiratu nere peccatuai : beguira zure Seme Jesu Cristoren arpegui ederrari, ori icusi, ta zure Justiciareq aserrea gozatu, ta zurequin nere artean paqueac eguinditzagun. Jesus zure Seme maite zuc bialdua dá Artzai ona, nere animaren billa ibillizana : ona bada, Jauna, ni ardi galdua bere Artzai amorosoaren deia aditu, ta zugana biurtcendana. Zure piedade guztiaç,

ar-

àtzen eguiazco penitenciara biurnazazu Jesu
Cristo zure Seme; ta gure Jauna gatic. Amē.

Virgíña Ama miragarria , Jesus onaren
ta argana conuertitcendiran pecatarien Ama
gozoa. S. Josef, nere bitarteco maitea : zu-
en Jesus aur gozoa galdù, ta aren billa, Je-
rusalen-en arqitu artean ibilli ciñateneco,
zuen viotcetaco dolore andi argatic, eta ura
arquitù, ta zuen animac artu zuten pozaga-
tic: árren lagun zadazute , nere viotz guz-
tiz Jaincoa billatcen , eta nere animan di-
ran culpa guciac, ondo confesatceco , biri-
billatcen, ta nere Jaunaren eguiazco paque,
ta amorioa betico arquitcen. Amen.

Aita Eternoa : Zure Espiritu Santuaren
graciac nere sentiduac, ta viotza , Esamen,
ta confesio onetan arguidizala, zure Seme
Jesu Cristo gure Jaunagatic. Amen.

Onela Jaincoari , ta Santuai deituaz pres-
tatu bear dezu, Esamen concienziarena asi-
tceco. Baña puntu onetan ascoren desalai,
edo bildur gueyeguiac quentceco, ta Esa-
men onetan pecatuac errazago arquitceco
erregla jaquin seguru batzuec. arritzatu.

Esamen au ondo eguiteco Erreglac.

ERregla. Bere dembora artueta, lecu
onean janari, ta aldizca Mandamen-
tuen

tuen íspillu garbia beguén aurean iduqui beardú, ta ór bere animari ondo beguiratu, Jaincoari escatuaz, bere pecatuac burura ecarri dizaizcala, diranac diran becela. Ta onela Mandamentu bacoitcean bere contuac atera bear ditu, certan, cembat bider, ta nola orien contra uts eguin duen, obraz, itcez, ta pensamentu, edo deseoz.

2. Vici guztico confesioa eguin nai duenac, bere calpac errazago gogora eracarceco, bere vicitzaco pausoai jarraitu bear diezazpi urte cituenetic asi, ta amabi, edo amalauraño : emendic oguei urteraño : ogueietatic oguei ta amarreña, edo ezcondu, edo beste estaduric artu arteraño: ta orrela orain dituen urteetaraño. Ta beguirada aú eguín beardú, lén vicitu zán erriaz, ibilli zán bideaz, iduqui cituen oficio edo vici moduaz, ta orieran izan cituen lagun, ta adisquideaz, ta iduqui dituen vicio, ta griña gaiztoaz.

3. Mandamentu bacoitza onela igaro beardu: ta bere aleguña eguin ezquero, ta pecatu gueyago arquitcen ezpadu, soseguz gueyratu beardu, ta ez gueyegui bildurtu. Jaincoac paquea nai du: badaqui gure memoria ren argaltasuna: batec naleztuela, pecaturen batzuec aztu badira, oriec ere barcatcen dira: ta guero, acordatcen bada, oriec confesateco obligacioa orduan dú. 4.

4. Esamen onetan nãstutcen diranac, ala beren peatudia andiagatic, nola cembatezco, edo numeroagatic, ecin seguratu diranac, esan bezate cembat demboran vici modu, edo culpen oitura gaiztoetan egon, edo ibilli ciran, ta orrela beren conta atera bezate, *GUCHI GORA BERA*, egunero, asteoro, illero, edo asteca bata bestearquin: edo confesio bacoitcean bata besteaz: ta Confesoreac lagundu, eta chit ondo confesatuco dira.

5. Cristaú fede, ta vorondate onezcoenzat, consuelo andico erregla aú jaquizu. Memoriaren faltaz confesio gaiztoac ezta eguiten, ta ez alde onetatic inor condenatcen, ez bada bacarric vorondatearen faltaz, edo culpaz. Penitenciaren Sacramentu, edo confesioac inor obligatcen ezru, ez bada bacoitzac conciencian senti duena, ta senti duen moduan, esatera: ori eguin, eta guero uts eguiten badú, edo berac nai eztuela, aztutcen bazaio orregatic confesio ona dà.

6. Pecatuac esan bear dira, ciertoac ciertotzat, dudacoac dudan. Baldin duda badu, eguin zituen, edo ez, consentitu, edo lecu eman cien, duda orretan ipini bear ditu. Gauzaren bat pecatu etzalaco eguin badezu, ta guero, iracurri, edo enzunaz jaquin, pecatu dala

dala ; orregatic lén peccaturic etzenduen eguin , non , ta berariáz , zure culpaz ez jaquite ori izan etzan. Contrara : gauza bat , pecatutzat ceneucala , edo dudán , pecatu motezan , eguin bacenduan , zuec pecatu eguin cenduen , berez pecatu ez bazan ere : ta alá confesatu bear dezu. Baña berez peccaturic ezta ecertan , vorondáteac nai artean. Burura etorriarren gauza itsusiác , edo Fedearren , ta Mandamentuen contra , vorondáteac nai ezpadu , ezta peccaturic.

7. Gogoratcen dira peccatuac mundu onetan , bigarren Mandamentuan , exemplotzat : ~~alaco~~ alaco dembora , ta lecutan zortzi-guezurrezco juramentu : alaco vici modutan amabi : bestean amar. Baña confesioan eztira orrela banaca confesatu bear ; ezpada alcarren antceco guciác alcarri erantsi , ta batean esan bear dira : guezurraren gañean oguci ta amar juramentu : ta erregla aú berau beste peccatuetan.

8. Esamen onetan guero datorren Instru-
tio , ta Galde , edo preguntetan dauden gauza ascó noiz , ta nola peccatu diran , mortal , edo venialac , Confesore jaquinsu oitu , edo practicoac bear bécela esango dizu : ta Esamen aú ondo eguiten erraz berac lagundueo dizu. Carga aú ascó arincen dá bacoizari da-

dagozquin galdequin: ta Confesoreac ba-
coitzari esangodio cembat egun, edo dem-
bora egunoró bear duen, ta nola Esamen
au, bear becéla, eguin dezaquean.

9. Pecatu venial, edo orien preguntac
emen eguiten éztira, ceren oriec gauza bear,
edo confesioraco premiazco materia, edo
gaia éztiran, ezpada batec, nai badu, bere
vorondatez confesatceco.

10. berén devocioz confesio generala,
obligaciogabe eguin nai dutenac, beren es-
cuan daucate, utcitcea, confesatu, edo esan
gabe, utci nai éstuzten pecatuac, diran itsu-
sien, ta andiéñac izan arren ere, ceren
len ondo confesatuac dauden.

Damtu, edo dolorearen gainean.

DAmu óñec viotcecoa izan beardu: ta
dolore au eztago negatrac eguitean,
ta ez biguntasuna sentitcean: ascotan, ta ar-
razoi andiatequin viotceco doloreac negar-
rac culpacgatic eraguiten diru: ta ori gauza
ona dá. Baña pecatuen dolore au animan
barréngo gauza da, ta berez animan dago,
ta dá beti viotcetic damutcea Jaincoa ofen-
dituaz, ceren beta añ ona dan, ta Ontasun
guztia, ta fin gabea, gure amorio gucia me-
teci duena, ta amoriofic andiéñaren diffa.

Ta

Ta Jaincoaren amorio santu zu da , ta de-
ritza ACTU CONTRICIOZCOA.

Edo ta dago pecatuaz bati damutcean, ce-
ren oriez infernuco penac merçitu dituen,
edo oriez ceruco gloria, ta Jaincoaren arpe-
guia icustea galduduen: edo fedeaz pecatua-
ren itsustasuna ezagütu, ta gauza añ nazea-
garria ceren icustenduen: ta ACTO ATRI-
CIOZCOA da aü, ta propositu firmeaz ba-
tean, confesio on bat eguiteco ascoda aü.

Orregatic ere, arrazoi andia dà, ta alde
gucietatic seguruago Jaincoaren amoriora
viotza esfortzatcea, eta amoriozco damua
iduquitcea. Eriotzaren orduan aleguina
eguin bearda, amorio santu aü iduquitceco,
ta gure Jaungoicoa gauza gucien gañean
amatceco, ta guztiac baño gueyago, ta di-
ranac lenago galdu, Jainco guciz ona, ta
maitea ofenditu baño: ceren gauza guciai ba-
ño Jaincoari gueyago nai diogun. Amorioz-
co damu, edo egercicio onetan, Contricioz-
co actu ascorequin oitu zaite vicitzan, erra-
zago ori eguiteco eriotzan.

Propositu eguiazcoaren gañean.

Puntu onetan deabruac bere guezurra-
quin calte andiac animai ecarti oi dizte.
Ara nola. Penitenciaren Sacramentutic, edo
ascotan, ta ondo confesatcetic atceraerazo-

tceco.

lececo orasunari, ta eriotzaco orduan, guztia albadu, galera zotceco, buruan sartcen die, chit gaitz dala, ta ecin izango dan gauza becela, egulazco propositu au iduquitcea, ta vicitza emendatceco bear dan gogoa.

Eguia da, bat, bere buruari, edo argaltasunari bacarric beguiratu, ta Jaunaren gracia lagundu gabe, deabruaren tentacioetan erraz erorico dala. Baña gure proposituac bere firmetasuna eztu gure izate, edo naturalezan; ezpada Jaunaren graciazco indarrean. Gracia au beti prest dago, guc nai degun gucian guri laguntceco. Ta orra nola deabruaren guezur, ta engañua aguertcen dan. ;Zuc eguiten dezu zure vicitza emendatceco propositu firmea? Bada orduan bertan zuc ezagutuagatic, argala becela, erorico cerala, edo gaizqui oitu, ta deabruaren tentacioai lecu emango diezula; orregatic ere zure propositua izan diteque firmea, ceren pecatu nai ez dezun.

Propositu au dago, bada, zure viotza orain firme, ta sendo, Jaincoa ez gueyago ofenditceco, egotean, ta ez pecatuaren bide, edo ocasioan zu sartceco, ta orrelaco bide, peligro, edo tentacioetan arquitcen bacera, zure Jaungoicari, beraren gracia requin leial izateco: ez zugar, ez bada be-

505

regan confianza daucala. Ta adá, zue
beardezun propositua. Onetan zu firme zai-
de, ta Jaincoaren gracia gordecozaite beti.

*Dolor, ta propositura viotz mugitceco, be-
rariazco Consideracio laburra.*

1 **C**onsideratcea Jaungoicoaren Onta-
sun gucieguia, ta neurri gabea: no-
la dan gure Aita, gu beretzat eguinguindue-
na: gure Salvadorea, bere tormentu, pasio,
ta eriotzarequin gu erredimitu, edo erosi-
guinduen: bere gracia emanciguna, ta be-
re gloria eman naidiguna, ta bere Viotceco
amorio guziarequin. Ta ontasun onen, ta
ondasun oien paguan ¿cér biurtu díozu zuc?
O pensamentu tristea! Jaun ori bera Guru-
tcean berriro josi, ta illdezu beste aimbese
bider, nola pecatua zuc eguin dezun. Seme-
batec bere Aita guciz Santu, onguille amo-
tiorco, beti on eguiten cegoquiona, ill balu:
bere gan biurtu, ta ¿cér pena, cér damua ar-
tucoluque, bere Aita illaz? Bada ori bera zuc.

2. Consideratcea, edocén pecatu mortal,
zuc aill erraz eguiñaren pisurasun andia; ba-
da Ceruco gloria galdù, ta infernuco penac
mercedir. Beguira atsequin itsusi baten la-
burtasuna, edocén culparen torpeza: ceñ
frutu guchi, ta cembat gaitz icarragarri da-

car-

partien. Beguira, cein nazcagarria zure
 anima, len ain ederra, utci duen, viciric in
 fernuan baceunde becela : ta an orain ba-
 ño len egongo cinan, eriotzac ortela artu
 bacindu, ascó, zu baño urte, ta pecatu gu-
 chiagoreguin, gaur infernuan dauden be-
 tela. O! ;Ta cet zór díozu Jaincoari onta-
 sun, ta piedade onegatic?

3. Consideratcea gure Jesus maitearen
 misericordia, ta esan al baño andiagoa : ta
 nola onen amorio, ta merituac, fin gabe
 gueyago, ta andiago díran gure pecatu, ta
 desdicha guciac baño : nola bere eriotzare-
 quin nere culpac pagatu cituen chit ugaríro:
 nola orien barcacioa nic escatzea baño ere,
 berac niri barcatcea naiago duen : nola ni sal-
 vatcea berac nayago duen : ta otretaraco be-
 rac niri aurea arten didan, arguia, ta es-
 cua calvatceco socorru guciaquin emanaz:
 nola, ta cein erremedio erraza Penitencia-
 co Sacramentu onetan eman didan, baño
 sagradu batean becela sartceco, ta berain
 Confesore baten oñetan nere culpac esan,
 ta orien manchac garbitceco; ta Ceruco ne-
 re Aita gozoarequin seculaco paqueac egui-
 reco. O dicha paregabea! ;Cerequin mis-
 ricordia, ta amorio aú pagatuco díozu?
 Zoaz bada bereala beregana, ta Evange-

lioco Same galdua becela , zure Aita onaren aurrean etcin zaite , zure lotsa , ta aregueyago , zure amoriozco damu , ta propositua eracusteco , ta esaiozu viotcetic :

Nere Jesu Cristo Jauna , Jainco , ta guizon eguiazcoa : nere Criadorea , ta Redentorea : Zu ceranagatic , eta ceren amatcen zaitudan gauza gucien gañean : damudet , Jauna , damudet viotz gucitic , Zu ofenditu izanaz , propositu firmearquin ez gueyago pecaturic eguitico , Zu ofenditceco bide ta ocasio gucietatic apartatceco , confesatceco , ta ematen zadan penitencia cumpliteco . Esqueñitcen dizut nere vicitza , obrac , ta nequeac nere pecatuen satisfacioan . Ta nola escatcen dizudan , ala confiatcen det Zure ontasun , ta misericordia infinitoan , Zure odol precioso , pasio , ta eriotzaren meritoacgatic barcatu dizquidatzula , ta gracia emango didatzula emendatceco , ta Zu servitcen eriozaco orduraño perseveratceco . Amen .

Oracio oni *Actu Contriciozcoa* deritza , ta chiquitatic guciac icasten dutena . Viotcetic , ta ondo pensaturic eguiten bada , Oracio mental aldetequean ederreña da , Jaincoaren gloria andicoa , ta animaren provechu guztizcoa . Cristavac ala vician , nola eriozan bearren dituen virtuteric nobleenac bere-

regan encerratecen ditu: nola diran Fede, Esperanza, Caridadea, edo Jaincoaren gauza gucien gañeco amorioa: propositu, humildade, confianza, escaria, on gucien deseoa. Oracio guciz bearra, ondo confesatceco, ta Jaunaren gracion vici, ta illtceco.

Eguizu bada aldezun gucian, goicean, ta arratsean, Eleizara zoacenean, ta zure desdichaz, pecaturen bat eguindezula ezagucean. Bana contu: eguizu beti viorz guztitic, Jaunaren aurrean asco mereci nai badezu. Contricioa, edo amoriozco damu au berez dago itz, edo afecto onetan: *ñ* Nere Jaungoicoa: *ñ* ceren Zu añ ona ceran, ta ceren gauza gucien gañean amaten zaitudan, damudet, *ñ* Jauna zu ofendituaz, propositu firmeara *ñ* quin ez gueyago zu ofenditceco. Vorondate onetan dago, ta au da amoriozco dolore, edo Contricio eguiazcoa, pecatu guztien barcacioa mereci duena.

Orañ Mandamentuen galde, edo preguntac.

Lenengo Mandamentuan.

Escola dutenac, Libru ascotan daucate Esamen au eguiteco modua. Iracurten ezdaquiten Euscaldunai, daquien batec iracurri, ta ori errazago eguiteco bidea neman nai det,

Man-

Mandamentuetan , cierto ezdaquiteñac
 cembat bider pecatu eguiten duten , bere
 modura esan bear dú; *onembeste bider Gu-*
chi gora bera : Eta g. g. b. letra oiee
 ori esan nai dute.

Vici guztico pecatuac billatu nai di-
 tuenac , uso arrazoyezcotic asi bear dú
 pregunta bacoitcean.

Esamen onetan galde cere buruari, Jain-
 toaren Leguea , ta Doctrina , edo jaquin
 bear ciran gauzac , bere demboran itasi
 cinduen , edo ez ; ta zure hume , edo con-
 rucoai eracatsi ciñiozcan , edo ez.

Fede, Esperanza , ta Caridadearen ac-
 toac eguin dituzun.

Fedeco gaucen contra ecer sinistu de-
 zun, ezagaturic Fedearen contra zala : oar-
 tu ezquero orrelaco pensamentu , edo du-
 dari lecuric eman diozun, Baña tentacioac
 nai eztezula , burura etortcea , ezta du-
 da , ta ez pecatu quentceco aleguiña zuc
 eguiten badezu.

Amesetaco gaucetan , sorguinqueria,
 Edo orrelacotan sinistu dezun , edo or-
 relacoric eguin , edo eraguin.

Jaunaren misericordiaz desesperatu dezun.

Jaungoicoaren , Ama Virgñaren , edo
 Santuen contra aserratu , edo blasfemiariac
 esan dezun.

Ma-

Madricaturic, edo **escomiaturic** egon
ecran.

Confesio, edo **Comunio** gaiztoric egun
dezun, peccatuac berariaz, edo lotsaz; edo
bestela utci az, dolore, edo propositua-
ren faltaz, ta cembas confesio gaizto ur-
tean izan diran.

Penitenciae cumplitu gabe utci dituzun
ta cembat bider g. g. b.

Urteoroco Confesioa, edo **Pazcuetaco**
Comunioa utci dezun. Ta **Confesio** gaiz-
to; ta **Comunio sacrilegoaz**, edo gaizqui
eguiñaz **Elcizarequin** cumplitcen ezta.

Sacramenturic, nola dan **Ezconza**, edo **bes-**
teric, peccatu mortalean zaudela, artu dezun.

Voto, edo **Promesa Jaincoari**, edo santuai
eguiñic cumplitugabe zure culpaz utci dezun.

Besteen devocioaz, virtutezco obra,
exercicio, edo obra onaz, edo orietan
dabilizanaz burlaric eguin dezun.

Bigarren Mandamentuan.

Juramentu falsoric, edo **guezurrarec**
gañean eguin dezun: cembat g. g. b. Ece-
recen gañean, edo ecer importa ezega-
tic, **Juramentua** guezurrarequin dan gu-
cian, beti dá peccatu mortala.

Dudan, edo ala zán, edo ez gauza jaquin
gabe,

312
gabe , dudaren gañean ciertotzat juramen-
turic eguin dezun.

Erreparo gabe, naiz guezurra , naiz eguia
dala, juramentuac eguiteco oitura, edo cos-
tumbrelic izan dezun.

Gaitz andiren bat ifiori eguiteco, ta cum-
plitceco intencioaz juramentu eguin dezun.
Gaitz eguiteco intencioric ezbazan ere, beti
da pecatu mortala, ceren guezurrarequin
dan. Gaitz andi, edo pisua da bofetada bat
ematea, ta beste gaitz andiagoac.

Pecaturen bat ez eguiteco, edo obra onen
bat eguiteco juramentu eguin, ta aussi de-
zun, cembat b. g. g. b. Gauza chiquien ga-
ñean juramentua ausitcea, pecatu veniala da.

Pecatu mortalen bat eguinduela, bere bu-
rua alabatcea, edo eguingoduela esatea, naiz
eguia, naiz guezurra dala, beti da pecatu
mortal, orren gañean juramentu eguitea: ta
cumplitcea guero da beste pecatu mortala.

Justiciaren aurrean juramentu falsoric
eguin dezun, edo besteri eraguin diozun: ta
ifioeren caltegan zan,

Juramentuac berez nola diran, ta cer itz
modu juramentu diran, edo ezdiran, Confe-
sore jaquin suac bacoitzari ondoena esagodio

Juramentutzat itcen batzuec artu, edo idu-
qui badituzy, ta guezurraz esan, edo dudan,

orre-

713
orrela confesatu bear dituzu : eta guero cò
Jaquin ondó , juramentu noiz diran.

Irugarren Mandamentuan.

- Bearric , premia gabe , Igande , edo Jafe-
tan eguin , edo eraguin dezun. Festetan , ne-
cessidade gabe , bear eguitea , beti dá pecca-
tu. Noiz dan veniala , edo mortal , Confeso-
reac esango dizu.

- Bear eguinetan zure culpaz Meza utci de-
zun , edo besteri enzutea eragortzi diozun.
Batec aste bazuen Meza izango zala , ta
aleguia eguin , eta culpa , ez arquitea.

- Meza galtceco peligroan zure culpaz ,
egon ceran.

- Bidezcoai , aur chiquidunai , ta Eriaquin
audenai cer eguin bear duten , Confeso-
reac esango die.

- Mezaren parte andian itzquetan , batera
bestera beguirá egonceran , edo orrela bes-
teri eraguin diozun.

- Garizuman arraulza , edo esne gauzaric ,
Bulda artu gabe , jan dezun , ta arteco in-
tencioa ezta asco.

- Oguei ta bat gero cumplitu ezquero , Eli-
zaco barau eguñac gorde dituzun.

- Primicia , ta Amarrenac , bear bezala ,
pagatu dituzun.

Lau garren Mandamentua.

Onetan humeac Gurasoi zor diozeate *Amorioa*, *Errespetoa*, eta *Obediencia*. Beguirezazu bada, ondo, oien contra gauza pisu, edo anditan faltatu dezun: beguirra ondo zure demboraco obrétan, itcetan; ta beste moduetan nolà, certán, eta cembat bider g. g. b. uts eguin dezun Jaincoaren Legue onen contra.

Gurasoen icenean emen aditcen dira Gurasoen ordeco guciac, eta Nagusi, Echeco-andreac.

Orrelacoen Testamentu, eta Mandac, zure contura daudela, cúmplitu gabe utci dituzun.

Emen Gurasoac, orien ordeco, ta Nagusi, Echeco-andreac beguiratu bear dute beren obligacio andiai nola eranzun dien; humeac; edo beren contucoac nola aci dituzten, alá doctriñan, nola oitura, edo costumbre onetan, ta Jaunaren bildurrean. Edo gaitzeraco bideric, exemplo gaizto, edo escandaloric eman dien. Edo beren demboran estadua ematen dien, edo orí ondó, ta pecatu gabe, artecco bidean lagundu dien.

Jocoan, tabernan, edo vicioetan echeraco bear zana galduduten; edo echean vici gaiztoa eman duten.

Bost-

Bostgarren Mandamentuan.

Bete buruari, edo besteri eriorza, edo gaitz andiric deseatudion: edo inor illduen, eritu, maquillardaric eman, edo beste gaitzic eguin, edo deseatu, cembat b. g. g. b. Inor itcez bere arpeguian gaizqui tratatu duen.

Aserre aldi, edo ocasionic billatu duen, edo orrelacoran arquiru dan; edo pecatu mortalean dagoela etiozaco peligrotan, edo ocasion sartu dan.

Inoren gaitz andiaz bere viotcean atseguin artu duen, edo inoren onaz damuric izan duen.

Diosala, salva, edo itza aserrez inori ucatu dion. Gorrotoric viotcean inoren contra iduqui dezun.

Madaricacio, edo maldicioric inori bota diozun. Jan, edanean guciogui zure osasun, edo buruaren caltean, ezagaturic sartu ceran: ta gucian, cembat b. g. g. b.

Aurric galtceco, edo abortoren batean culparic izan dezun.

Seigarren, ta bederatcigarren Mandamentua

Emen beguiratu bear dezu, cer pecatu eguin dituzun, pensamentuz, itcez, escuca, ibilleraz, ta obraz; ta cer personaquin, edo

cér estadutacoquin , ta cembat b. g. g. b.
 Esan bear diran estaduac dira : 1. Libreac
 ciran. 2. Ezconduac , edo catibu ceudenac.
 3. Jaincoari consagratuac. 4. Zure aideac.
 laugarren graduraño , edo bestearen ; ceña-
 requin pecatu eguin dezun , bigarren gradu-
 raño. Ta ezcondua bacera , zure guizon ,
 edo andrearen aide zan ; ta au lau garren
 graduraño. Besterequin pecatu eguin ez-
 quero , oiec dira esan bear diran estaduac.

Pecatu gucietan zure estadia esan bearde-
 zu ; libre cñala cembat , ezcondu ezquero
 cembat : voto , edo juramentu , onetan pe-
 catu ez eguiteco ezquero , cembat.

Lecu sagraduan onelaco peccaturic eguin
 dezun.

Pensamentu loietan atseguin artu dezun,
 edo ezagutu ezquero , zure artean atseguin
 artcen egon ceran.

Gogoz , edo deseeoz orretan consentitu de-
 zun : „ Nic onelaco gauza ; edo gusto eguin-
 „ go nuque urliarequin. Ta esan bear dá
 estadia , ta cembat b. g. g. b.

Pecaturaco inor billatu , edo tentatu de-
 zun , issill mandatu , erregalo , billete , edo
 bestez baliatuta.

Orrelaco bide , edo pausoetan inori lagun-
 dú diozun , edo peccatuen estalqui , edo infer-
 nuço mandatari izan ceran Itz

Itz desonestoric esan dezun, atseguin ar-
tzen , edo besteri arrezazotcen diozula : ta
ambat dá , conturic contatu , canta , edo
danza , edo carta torperic eguitea : coplarie
escribitu , bialdu , artu , edo iracurri dezun.

Pecatu eguiñaz iñoren aurrean cere bu-
rua alabatu dezun , edo orrela bere pecatu-
az alabatceco iñori bideric eman diozun.

Pecaturic asmatu , edo eguin bacindu
becela contatu dituzun.

Pecatu ez eguiñaz , damutu zatzun : gu-
cian cembat b. g. g. b.

Obrazco pecatu , edo orien ócasioaz cam-
pora , beguirada torpe , escuca , musuca ,
edo ibillera orrelacoric izan dezun : per-
sonen estadua , ta cembat b. g. g. b.

Cere buruarequin pecatu itsusiric , anima
ta gorputza loituaz eguin dezun (bear due-
nac aditcen dú , ta gueyago ezta esan bear :)
ta onelaco torpecetan zure gogoan iñor ce-
neucan , edo cer estaducoac : cembat bider
edo cembat demboran oitura orí , edo cos-
tumbrea iduqui dezun.

Amesetan orrelacoric iduquitcea dese-
tu dezun , edo amesetan orrela iduquiaz ,
guero atseguin artu dezun. Baña bestela
ames gaiztoetan berez pecaturic ezta.

Beste bitartecoz , iñor pecatura eracart-

co baliatu ceran ,edo iñoren adisquideta-
suna aurrera eramateco.

Pecatuetan aurric ez izateco ecer eguin
duen : edo aurren bat , berea duela ja-
quin , ta ucatu , ta galtcen utci duen.

Ezcontceco itz guezurrezcoaz , edo bes-
rela pecaturaco iñor engañatu dezun , edo
nai , ta nai éz , pecaturic eraguin , edo don-
cellaric orrela galdu dezun.

Ezconduac Ezcontzaren zòr santua , cau-
sa gabe , edo gaitcez alcarri ucatu dioten:
edo bestela Matrimonioco Sacramentua-
ren contra eguin duten.

Bestela , mutillac mutillaquin , edo icu-
si , edo eraguiñaz , edo guizonac alcarre-
quin ; nescach , edo andreac andreaquin,
Sodomaco pecatari galduen guisa , eguiten
dituzten nazcagarrizco gauza; ta are gueya-
go , abereaquin orrela eguiñac , ez dira az-
tucio : berac lanic , quezcaric , ta arantza-
ric asco bacoitzari viotcean , ondo confe-
satu artean emango diote.

Onelaco pecatari gassoac Ceruco Aitac be-
cela , Confesoreac lastimaz , ta amorioz be-
teric artu bear ditu , ta soseguz , ta pacien-
ciaz aditu. Ta guero esan , ta adierazo bear
die aleguiñaz , gaitz , ta desdicha oriec Jesu
Cristoren oñetan bein ondo esan ezquero,
betico libre daudela. Emen

319

Enen aviso, ta erregla consuelo andico-
bat. Cristau bildurti, ta lotsatia: jaquizu ce-
raco dotrina au. Seigarrenaren contraco pe-
caturic, diranac dirala, diran itsusien, ta ica-
ragarrienac badira ere: naiz zure aideric ur-
coenaquin, nola diran Aita, edo Ama, Se-
me, edo Alaba: naiz abere, edo animali as-
corequin eguin badituzu ere; zure pecatu
oriec berez eztirala heregiaco pecatuac. Ja-
quizu, oriec guciac zuri barcarceco, Erro-
mara joanquizunic ezduela. Consolazaire
tristeia: orche, zure errian, Bulda dezula,
edocēñ Confesore aprobaturic, eta er-
raz, ondo confesatu, ta absolvituco zaitu.
Jaquizu azquenic, Confesorea eztala ar-
rituco orrelaco zure pecatuaquin: badira
oriec baño quezca guciago ematen diguten
pecatuac: zure oriec erraz quentcen dira, ta
seculaco aztutcen dira. Ta ala Confesorea,
erreco balute ere, edo chiquitu, ta illico ba-
lute ere, zuc ari confesioan esanicaco peca-
turic, ez Inquisicioari, ez beste munduan
dani seculan ecin esangodio. Ay Confeso-
re Jaunac! Eguia oiec gucien viotcetan on-
do josiric betico baleude! Deabruaren gue-
zurrac sinistu, ta aimbeste anima ala gal-
duco ez liraque.

Baldin pecatuen estadu, edo locardan sar-

tu

tu, ta luzaro urte ascoan amencebatu, ta jarritic becela; cere buruarequin, edo beste ascorequin egon bacera nastu, ta oitura gaztoan ondaturic; orduan zure Esamen, ta contuac eguiten chit erraz da: cembat dembora irain zuen pecatuco bide, edo ocasioac, ta illean, edo astean cembat ciran batz beste: egunero, edo beti giran, edo nola.

Zuc zure animaren calteac, vici modu charra, ta pecatuen peligroac ondo ezagutu, ta vorondate osoaz, ta eguiazco gorrotoaz, bide orietatic igues eguiteco propositu eraguillea badacarzu: pecatu guciac, ta orien aranzac ondo, ta sustraieratic ateraco dira, zuc Confesoreari esan, edo once zuri galdetu, ta lagunduaz: ta onela zure anima, confesio oso batequin bein betico Janaren paque gozo, eta amorio santuan gueldituco da: ta aurrera lengo pecatu, edo gauzaric ez gueyago nastu, ta erabilli.

Zazpigarren, ta amargarren mandamentua.

Inori ecer ostu, edo quendu diozun: cembat, edo cer, ta cembat aldiz; gauza sagraduric, edo lecu sagraduan.

Inori bere aciendan calte andiric eguin diozun.

Ecer ostutcen, edo calte eguiten inori Ja-

gun

gundu diozun : ecer éstali , edo orrelacone
 agüindu dezun : nola , ta cembat b. g. g. b.
 Bide gaiztoetatic ; edo fin gaiztoraco iñor-
 ren ondasunic deseatu dezun ; fin onerara-
 co , ta modu onean ondasunac deseateca
 ezta pecatu mortala .

Tramparic jocoetan , tratu , ártu eman-
 tan , neurri , edo pisuetan eguin dezun : cer
 calte , ta nola eguin dezun ; edo gaizqui era-
 mana , eta cembat bider g. g. b.

Daquízula , iñori berea quendu , edo zor
 diozula , biurtu , edo errestitucioa eguin ga-
 be , egon ceran , edo Confesoreae agüindu ,
 ta esan , nóla asi puscaca , eta eguin bearde-
 zun , ta naguitasunéz cumplitu gabe , alde-
 zula , egon ceran . Orobat beste zorrac , pa-
 gatü gabe orrela utci dituzun .

Artcecodun justuac , languilleac , mirabe ,
 edo servitzariac berena cobratceco , pagatu
 nai ezic , aldezula , gaizqui erabili dituzun ,
 ta cer calte onetan eguin diezun .

Seme , ta alaba , edo umeac beren gura-
 soai , ta lagunaren ume , edo criaduac beren
 nagusiai ecer ostu dien , ascotan , puscaea ,
 edo nola , ta cembat b. g. g. b.

Religioan sartcea iñori eragotci-diozun ,
 edo conseju gaiztoaquin atcerata , edo or-
 rela , embarazatu diozun .

Zortzi garren Mandamentuan.

Testimonio falsoric , edo guezurrez iñoren alcharu diozun , edo iñoren calte andian guezurric esandezun , ta nola.

Gauza jaquin , edo publicoa ezjala , iñoren pecaturic aguertudezun , edo gauza pisuetan murmuratu.

Bacoitzari bere fama , edo creditua , gaiztatu quendu , edo galduerazo diozun : ta bear becela biurtu diozun , ala ez.

Secretoco gauzaric errebelatu , edo carta bear etzanic , idiqui dezun.

Juicio gaiztoric , eceri ezdagoquiola , iñorentzat eguin dezun.

Azquenic bacoitzac bere estadu , ta vicimoduco obligacioac jaquin ondo , ta beguiratu , edo esaminatu bearditu ; certan utseguintu jaquiteco , ta obeto erremediatceco

Beste culpa asco , emen ezdaudenac , jaquinac dira , edo guchitan oidiranac , ta berariac utcidituz : alde onetatic peligroric ezta. Erreglaric seguruenada , duda dezun gucian , pecaturic libratceco , Confesore oitu , jaquinsu bati beri galdetcea , au , edo ori pecatu dan , ta cer eguin bear dan.

Onela Esamen zure concienciarena , aleguinez igaro , ta bereala Jaincoagana biurzatetz : eguin dizun piedadeaz esquerrac emaitza-

lzcatzu, ta zure pecatu, ta beraren ofensa gucien barcacioa escatu esañaz viotcetic urrengo.

Esaminaren ondoren Oracioa.

O nere Jaungoico, argui gucien Aita, ta doai on gucien emallea. Ezagutcen det, Zure gracia dala, nic eguin al dezaquedan on gucia. Zue nere anima saluatceco deseo au emtan didazu: Zuc nere pecatuac billatceco arguia, ta arquiteco gracia. Zuri, bada, Jauna bacarric gloria guztia: Zuri nere viotceco esquer fin, ta cabu gabeac. Amen.

Santu, ta Aingueru guciac, ta are milla bider obeto Ama Virginiac, ta Jesus, aren, ta Zure Semeac alabazaitzabela orañ ta beti niri eguin didazun misericordia andi onegatic. Amen.

Barcacioa escatceco Oracioa.

Ay nere Jainco guciz ona, ta Justua! Nere pecatuen artean sartu naiz, ta arritu, ta guelditu naiz. Ezdaquit nondic asi, ta ez ceresan. Zure Justicia aserreari beguiratcen badiot, ta contuetan nerequin sartcen bada; galdua naiz, Jauna; cereñ nere culpac, eta Zure contraco ofensac, contu, eta numero ric ezduten. Buruco illeac baño, ta itsasoco ondar aleac baño geyago dira, ta orien caga pisuac seculaco ondatcen nau.

¿Cér eguin aldezaquet bada, estu onetan?
 Lotsaren, ta icararen pasioz, nere ecer ecera
 ondaturic, zure justiciatic zure misericordia-
 ra biurtcén naiz, ta óni nere fávore deitcen
 diot. Badaquit, Jauna, Zure misericordiac
 caburic eztuela, ta nere miseriaguciac baño
 andiago dala. Bearra det Jauna, bearra det:
 ta aú obeto arquiteco, Santu, ta peccarí
 penitente gucien damua, ta orien eguiazco
 dolore, ta propositua orañ iduqui nai nuque.

O Jaun guciz santua, peccuari gorroto
 gabe eciñ beguiratuco diozuna! Nere Je-
 sus, Zure Semeac, peccatuen contra iduqui
 zuen, ta Zuc, ta arc orien contra beti dez-
 ten, ecin esan alaco gorrotoa bera, zure
 Justiciari esqueiñtzen diot: ta ori dá zure
 Ontasunari dagoquion pagu osoa. Arreza-
 zu, bada, Jauna, ofrendá andi aú: ta ez ní
 gatic, ezpada Zure Seme Jesu-Cristo gure
 Jaunagatic, ceñen icenean escatcen dizut.

Ez, arren, Jauna, nere culpa andiai be-
 guiratu; baicican aren meritu andiagoi,
 aren Gurutceco negar, pena, eta amorio
 guztiari. An nigatic, ta niri barcatceco, ne-
 garrez, ta deadarrez erregutu cizun: ta
 Zuc bere erreverenciagatic Jesus ona adi-
 tu cenduen. Indazu, bada, ondo Confes-
 satceco bear dedan gracia. Amen.

Emen

Enen quezca , ta bildur gucietatic libra-
tceco , Actu contricioco asco , Confesorea-
ren oñetara baño len , eguin bear dituzu,
modu onetan , edo urrengo.

Actu Contriciocoo.

Jauna : Zu cera nere Jaungoico guciz
Ona : ta orregatic damudet viotcetic Zu
ofendituaz , ez gueyago ofenditceco propo-
situ firmearequin.

Jauna : Zu cera nere Aita guciz maiteaz
ta orregatic damudet viotcetic Zu ofendi-
tuaz , propositu , &c.

Jauna : Zu cera nere Jabe guciz santu , ta
justua : ta orregatic damudet Zu ofendi-
tuaz , propositu , &c.

Jauna : Zu cera nere Onguille guciz amo-
roso , ta doai gucien Emalle guciz ugaria : ta
orregatic viotz guztitic det damu , nere pe-
catuaquin Zu ofenditu izanaz , ez guciago-
ren gueyago Zu ofenditceco propositu
firmeaz.


O Jauna ! Zu cera nere Salvadorea , ta
eman naididazu Ceruco gloria ! Orregatic,
bada , ta ceren guztia Ona ceran , damudet,
Jauna , nere pecatuaz , propositu , &c.

Ay nere pecatu zorigaiztocqac ! Ay secu-
lan eguin ezbanitu ! Ay cèr dicha , milla
bider ill baninz , nere Jaungoico maitea
ofenditu baño lenago ! Jan-

Jauna : ez gueyago Zure ofensaric : ill bedi pecatua, ta vici bedi nere Jaungoicoa. Jauna, nayago det ill, Zu ofenditu bañõ.

Beti ondo, damu, propositu, ta frutuaz confesatceco, iru consideracio jaquiñac. 1. Edoceiñ Confesore-gana juatean, contu eguizu, Calvarioco mendian Gurutce pean, Jesusen õñetan jartcen cerala. ¿Ama Virginiñaren ondoan an arquite baciña, cèr eguin, edo esango cenduen? 2. Fede vici batez sinistu: orañ Jesu Cristorequin, ta ez guizonarequin confesatcen naiz. Bada Cristoc gucia daqui, ta nere pecatu guciac: lot-saz ez utci ecer. 3. Confesio onetan Jaincoac, edo Aingueruac esango balizu: au zure atceneco confesioa dá, ¿Nola confesatuco ciñaque? Bada illtceco becela beti confesa zaite: esan zure culpac garbiero, ta ez besterenac. Guero Confesoreac cèr esaten dizun, cèr consejuac, cèr penitencia ondo aditu: damuaz absolucioa artu, ta jaiqui, Jaincoari esquerrac ematera, ta comulgatceco ondo prestatcera.

Au berau beste bere lecu batean, ondo Confesatceco, ta ondo Comulgatceco oracloaquin arquiteco dezu.



COMUNIO SAGRADURACO EGER-
cicioa. Comulgatu baño lenagoeoa.

*Qui manducat meam carnem, & bibit meum
 sanguinem, habet vitam eternam. Ioan. 6.*

Nere aragua jatenduenac, ta nere odola
 edatén duenac, dáuca betico vicitza. Co-
 mulgatcen danagatic aú Jesu-Cristoc esa-
 tendú. Ta Jesusen Ceruco vicitza berri
 ori dà Comunioaren fin, eta frutua.

ORACIORACO LECU, EDO COM-
posicioa.

Federicaldezun vicienarequin, Jesu Cris-
 to-G. Jaunari beguira zaiozu Aldareco
 Sacramentu, edo Ostia Santan, bere glo-
 ria, arguitasun, ta edertasun, Cefuan Aira
 Eternoaren aldean duen guciaz : Eta nola
 Oguiaren accidente-pean estaliric, ta terre-
 co-ogua dirudien artan eguiazco Ogui Ce-
 rucóa guretzat gorderic dagoen, ta nola
 Aingueruac biribillan icusten, ta adoratcen
 duten.

Petisio, edo Escaria.

Au dà Jaincoari cseatcea, nere animaren
gus-

gusto, ta az-zapia bere graciaz garbidezala,
 Jaincozeo ogui, ta Ceruco-jarari onen go-
 zotasun, ta suavidadea artu, ta gueiagor-
 lerudedin, gose santuaz, ta gogotic jandē-
 zan; eta orrequin nere animac, berari jar-
 raitceco, bearduen indarra ardezan, bera-
 ren vorondateā gauza gucietan eguiteco, ta
 bera bacarric servitceco gogo sendo bar.

LENDAVICICO PUNTUA.

Consideratu ondo, Comunioco Sacra-
 mentu, edo Ostia Santan nigana nor
 datorren. Dator Jesu Cristo G. J. Jaungoi-
 co, ta Guizon eguiazcoa, Aita Eternoare-
 quin glorian dagoena, ber bera, Ceruaren,
 ta lurraren Jabea, egorretic beretzat eguin,
 ta peccatutic libratu ninduena, bera servitce-
 co vicia ematendidana, ta juzgatuco naveña.

Beguiru ondo Jaun onen Magestade, Po-
 dore, Jaquintasun, ta Ontasun cabugabea,
 Emendic aterezazu, ta viciarazo zure ani-
 maco aldezun erreverencia, ta amorioric an-
 diena: bada Jaun onec zuri dizun amorioa-
 ren predaric andiena ematendizu, ta guero
 eman naidizun gloriaren gogoa eracustendi-
 zu. Ay nere anima! Jaun aú zure beguiz
 icusten bazēdu!; Cér erreverencia, sér amo-
 rioa iduquicociñoque? Bada beguiz baño

cier-

329

tiertoago zaudē fedez, zure aurrean ori dau-
ezula Sacramentu onetan. Ondazaitē, ta
aensatu zure fede argala; bada orren epel,
edo otza zaude, ta ez, bear beccla, Jaun
ori viotcean artceco prestatuarie,

BIGARREN PUNTUA.

Consideratu, Jaun andi ori norgana da-
torren. Nigana. ;Ta nor, edo cér naiz
ni? Pecatari billau, galdu bat: argal, itsu des-
dichaz, maliciaz, culpaz alde gucietatic be-
rea: oraindaño eguiñaz gañera, egunoro
Jaincoaten gracia, ta misericordiac guchi-
ago ezagutu, ta gaizquiago pagatcendiozca-
dana. Milla infernu mereci nituena.

o Emendic nere miseriac, ta esquer gaiztoac
pisatu bearditut, Jaunaren aurrean: ta bal-
din Centurion Evangeliocoa, Jesus aren
echean sartceco diña ezbazan: ta S. Pedroc
Cristoren aurrean egoteco diña bere buruari
ezbaceritzan esan cionean: » Aparta zaitē,
» Jauna nigandic, ceren guizon pecatari bat
» naiz ni: ta S. Juan Bautistac Cristoren zapa-
taco locarriac ascateco dinatzat bere burua
ezbaceucan: ta ceruco Ainguernac aren be-
guietan garbiac arquitec en eypadira. Ay! ta
cer izango da nizaz? Cembat guchiago naiz
ni, ta ez diña Jaun ori bera nere viotcean
artceco? Cér

¿Cer esangocenduque, Erregue bat berbera icusico bacendu esqueco pobre bat icustera, ta orren echeco, edo bazterchoan orrequin egotera, sartcendala? Arrituco cñaque, ta mirari anditzat contatuco cenduque. ¿Bada cembat andiago dà, zugan zuc icusten dezuna? ¿Jaincoaren Magestade guztia, Guizon eguiñic, ta Ceruco bocadu orretan, ez zu zure echean icustera bacarric sartcea, ez pada janari eguiñic zure viotcean egoteco, ta bere vicitza zuri emateco? Ah! ¿Cer dira munduco Erreguac Jaun onen aldean? Ecer ez utsa. O mirari gucien andiena!

IRUGARREN PUNTUA.

Consideratu, Jaun aú nere anima, edo viotcera certara datorren; Erregue andi batec jornadañic eguiten eztu gauza andirea bategatic ezpada. ¿Cergatic, bada, Jaincoaren Semeac Cerutic lurrera onelaco jornadañic eguiten du? Ez alà fede, bere, ezpada nere interesagatic. Nere onac, beste gabe, dacar nigana: Nere gaitz guciac, Medicuac becela sendatcera: nere bearrac erremediatcera: nere animari graciazco vicia ematera: bere adisquide, ta berequin bat eguitera: ni beregan besteratu, edo transformatu, ta Jaincoaren guisan jaincotu, edo endiosatcera. O gure

gure anima ; aĩn guchi gure estimatcen de-
gunaren balioa, ta estimacioa ! O Jesus Ce-
ruco Erregue bacar , gure animaz , guisa
onetan , eta Jaincozco modu miragarrian
onola enamoratu , ta viotz-uquitua !

Beguirarondo, bere Evangelioan Jesusen
Viotceco amorioac diona : Bocadu onetan,
berequin batean, bere vicirza , ta bere antz
eguin eguĩña eman nai digula. Ecin gueya-
go esango du, ta ecin gueyago eguingo du
Jaincoaren viotz ezitico, ta amoriozco au-
ciac. Guizonagatic Guizon eguitera , Ce-
rutic lurrera , ta Virgĩña Amaren sabeiera,
Jaincoaren Semea etortzea arrazoi andia
deritzagu , gauza miragarria : ta ala jorna-
da , ta etorrera onec arritu cituen Ceruac,
ta lurra : ta gure animac cembat estimatcen
cituen orduan icusi zan : bada gugatic Jain-
co guztia Donçella baten sabelean milagro
ecer ez bat becela eguin , eta aurcho chit
qui, ta ichi, edo encerraturic egontzan. O
Jaincoaren amorio paregabearen indarra !
; Ta emendic cetera atera bear dezu ? Amorio
ori bera zurequico ezagutu, ta arrazoi andia
goaz chit arritu. Jaincoac aibeste amatcen
ta estimatcen du zure anima , non da pocic
Aita Eternoaren aldetic zugana jachierazot-
cendu, ta janari edo boçadu chiqui bat egui-

ñic dator Ceruco vicía zuri ématera. O Ceruac, ó Lurra! arrizaitezte nerequin batean! Ta amorio ecñi gueyago alaco aù icusi, ta lagun zadazute, nic obeto ezagutu, ta estima dezadan, ta nere anima Jaun au, bear bezala, arteco ondo garbitu, ta humildadez, amorioz, ta beste virtuteaz aleguñaz apaindu dezadan.

Coloquio, edo atceneco izqueta

AUizangoda Jesus maiteari bere begul-en aurtean ipintcea, berari ondo dagoquion becela, zure viotcean bera arteco bear dezun modu, ta prestaera onena. Ay, Jesus ona! esaiozu: Lurreco Jaun, edo Erregue batec bere biajean erri chiqui batean sartu, ta guelditu bearduencan, lenago bere gendeac bialtcenditu, bear danguciarequin, edo errecamara, Jaun ari dagoquion becella, ostatua prestatceco.

Ta, bada, Zuc Erregue gucien Erregue Cerucoac, jornada onetan nere animaco ostatu, edo bazter pobre onetara etorri bear dezu: Betor bada, Jauna, aurrera bialezazu zure prestatzallea. Aù da zure Espiritu Santua bere zazpi doiaquin, ostatu, edo anima aù, zuri dagoquizun becela ondo prestatu, ta ederqui apaindu dezan.

Betor

Betór Espiritu orí beré bñldurtasun santuaren doaiáz nere anima betetcera, fede víci batez nere pecatuac ezagutu, damuz, ta humildadez diranac quendu, ta erreverrenciaz garbitu, ta betè nazan: esperanza firmeaz sendotu nazan: nere salvacioaren, ta Zuc aguindu didazun gloria- ren prenda, ta señale segurua Zure Sacramentuan artu dezadan: Amorio irazaquí bat, beste zuc naien dituzun virtuteaquin, Zu nere viotcean artceco presta nadin. Amen.

COMUNIOA EZQUROCO EXERCICIOA.

Qui manducat meam carnem, & bibit meum sanguinem; in me manet, & Ego in illo.
 Ioan. 6. Nere Gorputza jaten duena, ta nere Odola edaten duena, dago nigan, ta Ni argan. Aú comulgatcen danagatic dio Jesu-Cristoc: ta ondo comulgatcen danaren frutua aú dá.

LECU EGUITEA, EDO COMPOSICIOA.

Zure viotzari, Jaincozco Sagrario bati becela, beguira zaiozu Aingueruz biri-

ribillan betea, ta oiec beren Jaunā adorātce daudela, zure viotceco ostatuan dacustelas ta nola erleac beren abarasca, edo Panal ez tizcora! Alá oiec beren gozo guztira, ceña zure viotceco corchuan daucaten, datocela.

Petició , edo Escaria.

Au izango dá, Jesu Cristo gure Jaunari gracia escatcea, beraren Gorputz chit precioso , nere viotcean daucadan dembora onetan (au dá Ostia santa deseguin artean, edo Especie Sacramentalac estomagoan dirauten bitartean) nere animaren beguiac beragandic aparta ez ditecen, ta nere viotceco deseoa ta afecto guciac beraganoz izan ditean: ta ongui etorri aín ona nic eguin diozadala, non dá bere bendicio , ta doai bearren dedana, berac obeto daquien , ta naien duen becela, eman dizadan, berequin bat eguin ta beraren vorondatea beti daguidan.

LEND A BICICO PUNTUA.

Fede vici batequin consideratu, nola Jaunari andi ura bera zure barrenean daucazun, ceña Ama Virginiac bere sabel garbian bederatci illabetean iduqui, ta Belengo Portalean jaio, ta aberreen Pesebre, edo majaderan ezarri zuen , esaten ciola : “ Ongui etorria
» cerala

rala, nere Jainco, ta Jaun, ta nere Seme
maitea, ta mundu galduaren erremedioa!
An Aur chiqui, ta Jainco andi aũ bere viot-
ceco amorio guztiaz adoratu zuen. Zuc ere-
bada, ori bera eguizu, ta zure viotcean dau-
cazun Jesus maitea adoratu, ta amaetzazu.

2. Consideratu nola zurequin daucazun,
Simeon agure santuac bere besoetan artu,
eta chit gozotoro iduqui zuen Jesus mun-
duaren Salvadorea : beguira cein fede vi-
ciaz adoratu zuen, ta esperanza, ta amo-
rioz beteric nola esan cion : Ea, ascoda Ja-
una : Zu icustea baicen nai ez nuen : Mun-
duaren Argui ederra, icusi zaitut ; orain ill
nai det : paquean arrezazu nere anima.

Pensezazu ondo, cer afecto miragarriac
Ama Virginiari bere viotcean eraguingo
ciozcan : ta orobat Simeon santuari. Ori be-
ra Jesus aurcho gozoac Artzai dichosoetan,
Iru Erregue, ta beste bera icusi, ta adora-
tu zuenen viotcetari eguin zuen. ¡Cer fede,
cer erreverencia, cer amorio iracequia ori-
ena ! ¡Cer bendicio, cer doayac, cer mese-
deac eguin, ta emango ciezten !

¡ Oriec gucioc zuri eman, ta eguin nai diz-
quizu. Baña ay ! Nola ondo prestatcen etce-
ran : Nola aiec becelaco ongui etorria zure
Jabe bacar, Jesus onari eguiten ez diozun

bera-

rarequin guchi tratatu, ta gaizqui jardunaz
 ra aimbeste bider, ta aĩñ erraz edoceñ gau-
 zagatic zure Jaun ori utci, ta aztuáz: orre-
 gatic ceruco doai, aĩñ ugari Jaun onee emari
 nai dizquitzunac, artcen ezdiruzu. Eà, ba-
 dá: eguin gaurco egunetic propositu firme-
 asco, zure vicitza emendatecco: emendic
 aurrera guciagotan, ta obeto comulgatceco?
 Jaun andi amoroso aú zure viotcean artu-
 az, trocatu zaitean Cristau berri, justu, ta
 Santu batean.

BIGARREN PUNTUA, COLOQUIO A

ren guisan.

Consideratu, nere Animac, eri triste ba-
 ten guisa dagoela, Jaincozco erreme-
 dio bat, Ceruco boeadu onetan artcen duela,
 ta Medicu amoroso Jesu Cristo, bere podere,
 jaquintasun, ta ontasun guciáz, Anima
 gaitz gucietatíc lbratu, ta eguiázco osasuna,
 ta Ceruco vicitza ematera datorquiola.

Ay nere Jesus ona! Zuc daquizu, nic ba-
 ño ere obeto, nere gaitz, ta miseria gucién
 berri. Ona, icusiezazu nere barren gucia, ta
 cer calteac pecatuen pozoiac eguin dizquidā:
 nola galdu, ta eriotzara, ta infernura onela-
 co vicioc, ta alaco pasio charrac naramana
 Ona nere soberbia, ta orren lagun, ta ondo
 ren

rengoac, nere itsutasuna, otz, edo epeltasuna, ta obra on guciraco argaltasuna.

Zu cera bocadu onetan gucien erremedio, ta virtutea. Indazu, bada Jauna, etorrera onetan zure gracia nere pecatu gucien gorroto, damu, ta proposituarequin. Indazu arguia ondo icusteco, ta zure viotceco suan, diranac or erre, ta acabatceco. Zu, gracia, ta vicitzaren ibaia cera: busti, ta irrigabiazazu nere animaco lur leor, ta gogor au, Ceruco frutuac aurrera emanditzan.

Zu, nere Jaungoicoa, munduaren Jabe bacarra cera: izanzaite ordu onean: ona Gaztelu onen gultzac, orra nere vorondate, ta viotceco afecto guciac. Zu cera Majua eracatsi zadazu Ceruco bidea, ta zure ondoren beti ibilltzen. Zu cera Arcume chit mansoa: arren lotu itzatzu nere sobervia, ira, aserre, ta vicitasunac. Zu cera Leoi indarsua: indazu, bada, Jauna, zure virtute, ta sendotasuna, demonio, mundu, ta araguiaren contra peleatceco.

Zu cera Artzai ona: zure dei gozoa aditu, ta zugana eracarrinazazu, Ceruco lurrean zure ondoren nabillen. Zu cera anima garbien Esposo maitea: culpa gacien manchac nere animatic quendu, ta zure paquezco, ta amoriozco laztana, ta zure Espirituaren gozo santua

tua indazu. Zu cera nere Aita , ta Guraso guztien onena : ona, bada, Aita Amoroso, eguiazco Aitaric onena , ona non zugana biurteen naizan. Ay Jauna ! Semé, edó alaba galdu bar oraíñdaño izan bañatiz : emendic aurrerà Zure ume fiel , humilla , ta garbia nai det izan : zure echean , zure paque, amorio, ta gracion arnazazu betico. Amen.

IRUGARREN PUNTUA.

SANTA ISABELEN VISITACION ren gañean.

Consideratu, nola Sta. Isabel-en echean sartuzanean Jesu Crístó G. J. bere Ama Virgíña chit Santaren sabelean enccraturic bacegoen ere , echea, ta echecoac Ceruco bendicioz betè cituen. S. Juan Amaren entráñetan cegoen aurchoá, peccatutic libratù , eta Jaincoaren graciaz betè zuen : ta aurra, ta bere Ama espirituco gozò andi batez, ta Profeciazco doaiéz jancicituen : ta Sta. Isabel humillac orduan esan zuén : « Nondic onelaco dicha niri, nere Jaunaren » Amá ni gana etortcea ?
Fede vici batez beguirezazu, nolá Jesu Crístó G. J. barbera eguiaz , bere Persónan zugana
oraín

Orri etorri, ta **Ostia** Santan artudezum. No-
 lá orduan, ta beti beceñ poderosoa dan
 orañ zure animan ontci garbia becela prest
 balego, bere doai, ta graciac isurtecco, ta zu
 betetceco. Ah! Ori naidu, ta ez besteric
Jaun onec! Esca zaiozu bada, zure culpen
 mancha, ofi eragozten dutenac, berac quen-
 du, ta zure viotceco ontcia garbi garbi ut-
 ti dezala, emendic aurrera Ceruco ur gra-
 ciacoa bere iturti onetan obeto artecco,
 ta Jaun onen vorondate santua zure obra,
 ta asnase gucetan eguiteco.

Beste alderic Santa Isabelec becela, ta ar-
 rita, ta fede umill bat ez esaiozu: Nondic one
 laeo dicha niri, nere Jaungoicoa bera nigana
 etortcea? ; Nigana pecarar: galdu bililau bat
 ni izanic? ; Nigana, an legue, ta esquer gaiza
 ttooa ni izanic? ; Nigana Jaun andi, ta Ma-
 gestade guzticoa? ; Nondic onelaco favoreca
 niri? ; Nere merecimentuac-gatic oteda? Ez
 eguicqui; ezpada bere Ontasun andiagatic
 Obedincatua izandedila Jaun onen carida-
 dea; bada ni iclistera, ta visita onequin er-
 regalatcera etorri nai izandu! ; Nola pagatu-
 cotiot onra, ta mesede esan al baño andia-
 go au? ; Nola? ; Ondó, ta ascotan comulga-
 tu, ta oranche becela soseguz, ta devocios
 graciac, edo esquerrac emanaz, ta aurrera!

co bereac naidituen mesede, ta favoreac,
viciro escatuaz.

LAUGAREN PUNTUA.

JACOB SANTUAREN BENDICIOA
ren, ta beste orrelacoen gañean.

Consideratu, Jacob Patriarca Santuac
gau gucian bere oracioa: Jaunaren Aingue-
ruarequin, edo ascoc dionez, Jaincoaren se-
mearequin, lucha, edo pelea igaro, ta nola
esancion: » Ez Jauna, joaten utcico ez dizut,
» zure bendicioa lenago ematen ezbadida-
zu. Onela, bada nic ere, comulgatcen nait-
zan gucian egin beardet: Jesus maitearen
onetan nere burua bota, ta humildade, re-
verencia, ta amorio guciaz, eldu, ta itse-
qui, ta estu estu artu beardet: ez, Jauna,
nere viotcetic joan bear eztu, bere bendi-
cio gucia niri emangabe. Ea, Jauna: bada,
quicér bearren dedan: betor eguiazco, be-
re antceco, ta viotceco, humildadea: betor
arabajueta, paciencia, caridadea, &c.

Modu onetan, Esposa santaren confian-
za, ta amorioaz, billatu, ta esangodior: Ea,
nere Jaun, ta Jabe maitea: ona non dedan,
nic bearnuen, ta nainuen gucia. Zu cera, Je-

eus ona, nere guztia: emen eldu, ta nere eguin, ta zaucatzit, ta ezdizut utelico, nere anima zure virtutez, ta doaietz bete artean. Indazu, bada, zuc nai dezun, ta aguinteen didazun guztia, ta aguintu zadazu. nai dezun gucia.

Edo ta Cristoren Discipuloaquin Emaus-
co bidean esandiozaquet: Guerazait, Jauna, gurequin, ceren ya berandu da. Jauna, ez nigandic joan: emen zaudé, zure graciaz ni beti animatcen: ez ni beñere utci, zu gabe galdu eznadin. Bearrago zaitut, orain Jauna, ceren nere viciaren eguna acabatcen da, ta nere eriotza ya dator. Orain, ta beti zu bear zaitut, ta zu bacarric naizaitut, ceren Zu nere zorion gucia ceran.

BOSTGARREN PUNTUA.


LAPUR ONAREN GURUTCECO
erreguaren gañean.

GOgora ecarzu, Lapur dichoso Guru-
tcean Jesus ona ezagutu, ta beragana
biurtuzanac nola esancion: »Zure Ceruco
» Erreinoan, acordazait, Jauna, niazaz. Be-
guira ondo, comulgatu, ta orain zure ani-
man daucazun Jainorri bera, Ceruan dagoen
Jaincoaren Semea dalá: ta an, orain or zure
bar-

barranean becela, Aingueru guciac bat;
 adoratcen, ta alabatcen datela. Beguira, cèr
 Bitarteco, cèr Abogadu andia Ceruan Aita
 Eternoari erregutceco dauçazun : ta nola
 bere Ceruco Erreino, ta gloria vici artara
 eraman nai zaituen. Au Jaun-oni nola pa-
 gatuco diozu? Ara nola : Jaincoaren legue,
 ta vorondatean firme egonaz, ta onen esa-
 nac eguifiaz : bidezcoa, ta Ceruracoa bece-
 la ondo viciaz. Escatu bada, ondo vici, ta
 ondó illtecco bear dezun gucia.

Comunioa ezqueroco beste Oracioac, ta
 Jaunari gracia emateco, ta escatceco bera-
 riazco modua, beste bere lecuan, Eger-
 cicioetan arquiteco dituzu.

¶ Azquenean, emen esan diran Eger-
 cicio, ta eguia oien gañeco copla, edo de-
 sengañuac dátoz, gucia zure viotcean
 abeto, ta betico jositceco.



GURE AZQUENECO

fiñaren gañean.

Endechac, edo Adiac.

Pensa ezazu ondo
cein dãn zure fiña,
vicitzari emateco
asiera ón bat.

Extira zure fiña
munduco atseguñac,
fin bat altuagoa
eman cizun Jaunac.

Servitcea oraiñ berã,
guero gozatcea,
auxen dà gauza hura
bacar, ta bearra.

Memoria, entendimentu
ta vorondatea,
¿ceiñ izan dà oraiñoco
zuen jarduera?

Ab Ceruaz azturic
vici izan guera,
munduari jarraitcen
guc guere atseguña!

Eguzquia dijoa
aurrera bidean,
ceña eman izãn cion
bere eguilleac.

Orobat Illarguia
Ceru eder orretan,
beti aci, ta beratu
il-berri, il-beretan.

Goiz, ta arrats inguruã
oy dabilltz. Ceruas
atseden artugabe
creaciotican.

Lan aũ, ta ez besteric
dã eman cièn lanã,
lan aũ, ta ez besteric
dã eguiten dutena.

Guizona, eguin ezazu
zure cèr eguña,
bestela utsac dira
zure aleguñac.

Mundua, ta ondaganac
zuc irabazteuc
¿cèr balioco dizu
galduric anima?

Cerua bear dezũ
billatu Cristava:
hura galdu ezquero
guztia galdu dà.

Peca-

Pecatu mortala. Launa-
coac.

*N*ont quendu cien ichura
Aingeru eder ascori,
cein, ta eguiñic illiti
jatchè ciran infernura.

*P*ensamentu batequin
Luciferren soberoiac,
ta lagunen goiteriac
aldanza àu zuen eguiñ.

*A*dan, zuc esa dazuz,
nolà Paradisuan
sagar bocadu bat jan,
ta eguin dezu becatu?

¿Cér irabazten dezu
gusto orì artuarequin?
bocadu samiñ orrequiñ
gucia galdu dezu.

*G*aldu dituzu semeac,
eta cere buruà,
galdu dezu Ceruà,
eta irabaci nequeac.

*B*ecatu onen jatorriac
dira eriotza desterrua,
otz, bero, guerra, ta sua,
munduco gose, egarriac.

*E*sadazu cergatic
Nozren ontci artan

*g*uztiz salvatu etciran
zortci persona baicic?

*C*alte oec guciac
aimbeste, ta giti andi,
mundu onetan dacazqui
Adanen becatuac.

*N*ola farra, nola lò
guizonac eguiten dù,
eta atsequin artcen dù
becatuan badagò?

*E*sna zaite lò orretatic
arnasa baicic ez guerà,
gaur bear bada illco cèra,
eta infernura bertatic.

*I*nfernuan daude ascò
becatu bategatic,
eta ambat zuc eguiñic,
jetcera bildurtuco?

Eriotzari. Soñu mol-
dea.

*J*ESUS ona,
ceure eriotzagatic
eriotza on bat indazuz
baña eriotza ona izateca
vicitza nai det mudatu.

*G*au, ta egun
dacardan beti gogoan

nere

nere azqueneco eguna,
izã extedin guero negarra
Bético nere laguna.

Nola Arroza
uda berrico goicean
bazaude ere ederric, (roa
bazeundeque bai gazte zo
arratseraco igarturic.

Eriotza
etorrico dà isillic
noizeztaquidãorduã(natz
lotã arquitcã banau galdu
iratzarric nagoan.

Iguitayac
nola belarrac celayan,
eriotzaren codeñac,
ebiqui, ta andi ebaten ditu
aberats, ta pobreac.

Erregueric
izan diran andienac
etciraden guelditu emen,
lurra beneric etciran, eta
autsetan biurtu ciran.

Juicio particulari. Eus
quera.

Azqueneco asmase emã, ta
urreneco instantean

juzgatua izango cera
Jaungoicoaren aurrean.

Tribunala ipiñico dà
venturaz oè orretan,
ceñean lotan ceundela
illic guelditu ciñan.

Oè orretan, non bearbada
beññ baño gueyagotan
erori izandu cerade
pesatu Ichusi ascotian.

Jesu-Cristo etorrico dà
zuri contu artcera;
icèr eguin aldezaque
gaiizqui vici bacera?

Jaincoa cere contra,
cere contra Ainguerua,
conciencia ere contra
cere contra deabrua.

Nor gana biurtuco cera
ordu artan, Cristava?
arren oraiñ ar ezazu
beste vici modu bat.

Gorputz illari. Lenen-
decoan.

Arri batec
seculaco estalcen dà
icenic dan andiena,

mun-

miñdu eroac emè aimbeste
estimatu oy duena.

Aberatsa

¿cœure diruac nòn dira?
¿cœr daramazumundutic?
estalqui zar bat, ta ez
gueyago
nere ondasunac utciric.

Guero eguiñ

izom mai cendugueana
bereala eguin ezazu,
cerè il ezquaroco negarrac
eser balioco extizu.

Certaco dà

oraiñ eguitea guero
damutu bearco zatzuna,
extaquizula, arceco damu
emango zaitzun dembora.

Lagun bat

ondo cendugue, Guizona,
eternidaderaco bidean;
obra onac eguin itzatzu
vici ceraden artean.

O betico

vici bearren lucea
glorian, edo penetan!
Bai: ta suerte bioc daudela
instante baten mendean.

INFERNUA.

Amarnacoac.

Nai expadexu illezquero
infernura zùc jaitsi,
jaitsi zaitte bertatic,
vici ceradela guero
eche estu, illun, ta bera,
carcela betico artàn,
sartu ciñan lecuán
beti egon bearco dezu:
orduan esango dezu,
belu damuturican:

Faungoicoaren leguea
¿nola ez nuen nic gorde,
ta artu nuen aren orde,
peccaturaco bidea?

O nere doacabea!

diozu zuc negarrez:

¿cœr dago emen? onic ez;
on guztiaç àn Ceruan,
arquitcen naiz infernuan
sù vician dolerez.

O madarica dedilla

jaio ninzan eguna,
ta artu nuen laguna
ibilltceco gusto billa!

viciric nago, ta illa
seculan ez illtceco,

illie

*Mr. hamengo, obste
nengoque; baka inoiz ere
exta cumplituco nere
maya, atsecabero.*

*O seculaco sua!
O! O eternidadea!
Faunac bati luzatcea
bere beso, ta escua!
O cein gauza pisua
instante haten gozatu
beti, ta beti penatu,
ta erremedio gabe!
Nela vici guerade?
Emeti aurrera contu.*

Azquen Juicioa.

*Ex icusteagatic
Juicioco eguna, -
Justuena balegoque
infernuan sartua.*

*Geronimo batec beti
kelarrian ceducan
Juicioco Trompetaren
ots icaragarri hurà.*

*Illac illac viztu zaite,
eta goacen contura;*

*edo Cerua betico,
edo espada Infernura.*

*Izan diradenac, gueràn,
ta izango diranac,
guztioc batucò guera
fosafateco ibarrean.*

*Ceruco Santu ta Santa,
Aingueru on, ta gaiztoac,
Adanetic arañoco
Guizon, ta emacumeac.*

*Viotzaren barrenaco
pensamentu estaliac
àn salatuco dirade
guztioc dançugula*

*Baita Justuen obra on,
penitencia, barauac,
diciplina, cilicio
excutuan eguiñac;*

*O! oiec cèr poz andia!
O! aiec cèr damua!
Aiec Cerua betico,
oiec betico sua.*

*¿Cèr sentencia nai dezu
egun artan cristava?
guero nai cenduqueana
daucazu oraiñ escuan.*

LAUS DEO.

LIBRU ONBTAN DAUDEN GAUCEN 287

erac arquitceco bidea, edo Lista.

E Gercicioac ceri derizten, edo cèr diran.	16
Egercicioen Librua norc eguin, edo emanzen.	14
Egercicioen provechua, ta orien estimacioa.	17
Egercicioac norc, ta nola eguinditzaquean.	23
Egercicioac ondo eguiteco Erreglac.	30
Egercicioen Asiera, edo Fundamentua.	35
Zure azquen fiñaten gañean Egercicioa.	64
Pecatuen gañeco Egercicioa.	78
Eriotzaren gañeco Egercicioa.	124
Justu baten, ta peccariaren Eriotza.	157
Eriotzaren, edo Gorputz illaren Egercicioa.	172
Juicio particulararen Egercicioa.	188
Infernuco tormentuen gañean Egercicioa.	215
Azquen Juicioaren gañean Egercicioa.	241
Estadua, edo vicimodu artceco Egercicioa.	273
Esamen concienciararen Egercicioa.	263
Esamē au eguiteco modua, Erreglac, ta Orac.	299
Damu, ta proposituraco Consideracioac.	306
Mandamentuetan esaminatceco modua.	309
Esamen orren ondorengo Oracioac.	323
Comunio Sagraduraco Egercicioa.	327
Comunio ezqueroco Egercicioa.	333
Egercicio oien gañeco sentenciac, edo coplac.	343

.O F I N .